


Joxemari Iriondo

Basarri

Gerratean kazetari

1936-1943



Bere mendeurreneko ospakizunetan behin eta berriz aipatu genuenez, Errezilgo Beama auzoko Granada baserrian jaio zen Basarri, 1913ko azaroaren 27an, eta Zarautzen hil, 1999ko azaroaren 3an.

Basarri I – Bat-batean (bat-bateko bertsoak, Auspoa 296), **Basarri II – Jarritako bertsoak** (Auspoa 319), eta **Basarri – Zarauzko berriak 1931–1936** (Auspoa 327) bertso eta kronika-bildumak lehenago argitara emanak ditu *Auspoa* sail honek. Eta oraingoan, 1931tik 1943 arte argitara eman zituen laurehun idazlan inguru bildu ditugu, irakurlea ohartuko denez.

Berriro 1946an hasi eta 1993ra arte argitara eman zuen beste hainbat eta hainbat idazlan hor gelditzen da oraindik ere, herri kirolak (aizkolariak, harri-jasotzaileak, segariak, korrikalariak, estropadak, pilota...), bertsolariak eta bertsolaritza, euskara eta euskal kultura eta abar aipatuz.

Basarri gerraurrean kazetari (Auspoa 328) eta **Basarri gerratean kazetari** (Auspoa 329) bikotx honekin amaitutzat emango dugu gure bilketa lana oraingoz, inoiz norbaitek jarraituko duen itxaropenez, iturriak oso eskura daude-eta, zorionez.

Joxemari Iriondo
2014ko uztaila

Joxemari Iriondo

Basarri
Gerratean kazetari
1936-1943

Auspoa Liburutegia
329

BASARRI (1913-1999)

Basarri : gerratean kazetari : 1936-1943 / [biltzailea], Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia/San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2014.

278 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 329)

Aurkibidea

LG SS 950-2014. - ISBN 978-84-7907-717-4

I. Iriondo, Joxemari (1938-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Juventud y Deporte. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-43"19"

821.361-1"19"

Argazkiak: Zarauzko Udal-artxiboa, Gure Gipuzkoa (I. Ojanguren, J. Elozegi) (Gipuzkoako Foru Aldundia), J.M. Iriondo, Kutxa Fototeka.

Idazketa, zuzenketa, edizio arduraduna: J.M. Iriondo.

© Edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-717-4

Legezko Gordailua: SS-950/2014

Fotokonposizioa: Imanol Tapia

Inprimaketa: Gertu inprimategia. Oñati (Gipuzkoa)

Joxemari Iriondo

Basarri

Gerratean kazetari

1936-1943



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Donostia/San Sebastián, 2014

Hitzaurrea

Basarri gerratean kazetari, 1936 –1943

Liburu bakar baterako gehitxo iruditzen eta, gerra aurreko eta gerra-garaikoetan banatu dugu oraingo idazlan-bilduma, aurrekoaren (328koaren) jarraipena bada ere, bistan denez.

Basarri kazetari gaztearen idazlanak jaso ditugu orain ere, aurrekoan bezalaxe. Baina garai eta giro ezberdineko idazlanak izango dira oro har, lehen hasitako kateari jarraituz.

Basarri gerratean kazetari, 1936 –1943 (Auspoa 329) liburu honetan jaso direnak non eta noiz argitara eman ziren:

**EUZKADI*, 1936-I-4tik 1936-12-23ra,

**EL DÍA*, 1936-I-4tik 1936-VI-6ra,

**ARGIA*, 1936-III-29,

**EGUNA*, 1936-I-03tik 1936-VI-12ra,

**EUZKO DEYA*, 1938-VII-24tik 1940-IV-10era,

* *TIERRA VASCA* aldizkarian 1937-II-26an errepikatutako idazlan bat; eta

* Liburuaren azkenengo zatian, lehenik *TRABAJADORE-ETAN* eta ondoren behartuta Afrikan soldatu ibili zen garaian idatzitako gutun eta bertso batzuk jaso ditugu, orain arte osorik argitara emateke zeuden-eta.

Gai bereziak

Aldi honetako idazlan edo kronikak, hasieran, lehengo hariari lotuta daude. Baina denbora joan ahala, anaiarteko guda hurbiltzen ari zela, eta 1937ko urtarrilean sortu eta ekainaren 12 arte iraun zuen *Eguna* egunerokoan argitaratu zituenak dira; eta Iparraldera ihes eginda ondoren *Euzko Deya*-n argitaratuak 1938-VII-24tik 1940-IV-10era arte.

Bertsolari-txapelketak, bertsolari zaharren aipamenak, Pagoetako jaia eta abar aipatuz hasiko bada ere, 1937a ezke-

ro, Euzko gudarien borroka eta ekintzak, Gipuzkoa eta Bizkaian han-hemen izandako eraso eta gatazkak (Andazarrate, Bidaniko garaitza, Azkoitiko gudari gaztearen hileta...), eta gudari lagunak animatzeko idatzitakoak, batez ere. Tartean, gazteei aholkuak, gudaren ondorioz Ingalaterrara joan diren umetxoei buruzkoak, gudako eta nekazarien kontuak, “Ama-ya” opera zela-eta Olaizolarekin egindako elkarrizketa luzea, karlatar baten heriotza, Bizkaiko herri batera bertsoara joan eta han nabaritutako giro erdalduna... Eta, behin eta berriz, guda irabazteko esperantza, halaxe sinesten zuelako, edo halaxe sinetsi nahi zuelako.

Egunkariko arduradunekin harreman zuzena eta ona zuen. Begiratu bestela Lauaxetak bidalitako oharra:

Uarra: Bijar argitaratuko dogun ori, bertso eta guztikua da ixan be, eta idazkiñan edo idazteko makiñan idatzija. Gudari-mutillentzat ori, Basarri, lujo aunditxuba ezta ixango? Beste batzubetan, arkatzagaz eta al ixan dozun eran idatzita bidaltzen ixan dozu, eta alantxe zure enparauko gudari-lagunak be. L (*Euzkadi*, 1936-IX-9).

Edo eta beste hau:

Zuk emen aitatzen dozun maizter bako basetxe ori, onezkero lurrera eratsita dago, atzoko izparretan irakurri gebana ori da-ta. Beraz, Basarri, maizter bako basetxiaz jabetu ixan ziran “erretetijak” lapur-antzo artu ixan eben basetxetik jaurti dabez, eta aberri-aldezliei oldartuteko ezkuta-leku barik laga. Areyo bat gixtjago. Ezta, Basarri? Ekin ba aurrera. L (*Euzkadi*, 1936-XI-7).

Erbestera: 1937 – 1940

Borrokan gogotik egin zuten euzko gudariak, baina etsai handiegia zuten aurrean. Eta hasi Irundik eta Bilbora, mendean hartu zituzten, azkenean.

Eta, 1937ko ekainaren 19an, etsaiak Bilbon sartu zirenerako iheslariei laguntzeko Santaderko portuan prest zegoen

itsasontzia hartu, eta Frantziara alde egin zuen askok. Inazio Eizmendi *Basarri* ere haiekin batera joan zen, eta Saint-Martin d'Hirube herrixkara hurbildu (Baionatik hurbil), eta nola-bait bizi egin behar eta basomutil-lanetan hasi zen Landetako pinu artean.

Holaxe pasatu zituen hiru urte, pinudietan lanean, aldian behin kronikaren bat idatziz, garai hartan Parisen argitartzen zen *Euzko Deya*-rako. Bertsoak ere idatzi zituen. Garai hartan jarritakoak dira ondorengo hauek:

Landesko piñu artean

Prantzia-ko alkate bati

Euskal mixioak Ichoux-en

Ichoux-ko Madame Sart-eri biotzez

Ondarrutar gazteeri

Eta *NERE BORDATXOTIK* liburuan (Auspoa Sail Nagusian) argitara emanda dauden beste batzuk.

Hara heldu zen ezkerro beti etxera begira bizi zen, ordea. Gurasoak, senideak, lagunak eta bere herri maitea zituen gogoan. Eta lehenbailehen etxera itzul zedin eske zituen denak gainera. “Bai, batez ere gure ama gaixoa ari zitzaidan beti etxera etortzeko eta etortzeko esaten, gauzak konpondu zirala -eta. Ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan”.

Horixe uste ama alargun gaixoak, eta horixe nahi semeak ere. Baina, gero ziran kontuak.

Trabajadoreetan eta Afrikan

Hala, 1940ko urrian etxera bidean arriskatzea erabaki zuten. Basarrik kontatu ohi zuenez, pozik baina kezkatu abiatu ziren. Gutxi iraun zien, ordea, pozak eta etxerako ametsak:

Gure kabiak urre genitun guk Hendaiako zubitik.

Irunen zegon sare zabalak artu ginduzen erditik!

Handik aurrera nondik nora eta nola ibili zen jakiteko, bere bertsoak irakurtzea aski duzu. Bejar-Salamankan, 1941eko martxoaren 13an, ondutako hamahiru bertsoko sorta bat lekuko:

Mirandatikan Madrida, eta gero Madritik Bejarra,
bagoi zarretan txerrien gisan, etzan pasio ederra!
Erri ontako gure izakera daukat agertu bearra:
gose askorik ezta pasatzen, baizik beti bat bakarra.

Bere idazlanak non eta nola argitara emanik ere ez eta, hitz-lauz apenas ezer asko idatzi zuen 1940ko urrutik 1943ko ekainera artekoan, ez bada etxekoei eta lagunei egindako gutunen bat edo beste.

Bertsoak bai, eskuz eta letra bikainarekin idatzita bidali zizkion Tomas Uriarte bere lagun maite zenari, eta hark ondo gorde Santimamiñeko Txukene baserrian (Kortezubi, Bizkaian), liburuaren azkenengo zatian ikusiko duzunez.

Edizioa

Aurrekoetan bezalaxe oraingo honetan ere aurkituko dituzu aldaketa txikiren batzuk. Izan ere, Basarriren idazlan berberak ez baitaude beti berdin argitara emanak. Eta aurreko bietan bezalaxe, lehenengo argitara emandakoa jaso dugu hemen ere, eta ondorengo zuzenketa eta batuketak eginez.

*Orduko ohituren arabera, apostrofe eta kakotx ugari azaltzen da jatorrizko idatzietan. Kendu eta honela aldatu ditugu:

Eizmendi'tar (Eizmenditar), *Ayerdi'tar* (Ayerditar), *Monzon'tar* (Monzontar), *Agirre'tar* (Agirretar), *Alberdi'tar* (Alberditar), *Enbeita'tar Kepa'ren* (Enbeitar Keparen).

Zarautz'en, *Zarautz'tik*, *Zarautz'ko* (Zarautzen, Zarautzik, Zarauzko), *Euzkadi'ko*, *Euzko Etxea'ko* (Euzkadiko, Euzko Etxeako), eta abar, eta abar.

*S, Z, X, TS, TZ eta TX. Argitalpen bakoitzak bere irizpidearen arabera erabiltzen zituen: *Euzko*, *eusko*, *euzkera*, *euskera*;

euzkal, euskal, euzkel, euskel; arratzalde, arratsalde; atsegin, atsegin, itxaso, itxusi, itxu, laxter, laixter, iritxi, eta abar. Denak batu ditugu: euskera, euskal, arratsalde, atsegin, iritsi, itsaso, itsusi, itsu, laster jarritz.

Alabaina, *Euzko, Euzkadi, auzkotar, euzkoak* bere horretan errespetatu ditugu, gehienetan horrela agertzen baitira argitalpenetan.

**Antzeslari, antzezlari, antzeztu, antzeztu... Atzezlari, antzeztu utzi dugu guztietan. Eta antzerki jaia, antzerki-jaia delakoetan antzerki-jaia jarri dugu. Eta Aberri eguna, Aberri-eguna delakoan, Aberri-eguna.*

**Y grekoa. Denetik dago jatorrizkoetan: geiyago, geyago, geyen, geiyenera, geyenera, geienera, goyen, goyeneko, egiya, egia, erriya, erria, Aberriya, Aberria, aberkoya, aberkoia, etsaiya, anaya, aiyek, oyek, oriyek, oryek, oiyek, oyetzaz, garaiyan, garayan, Zumaya, Zumaia, Aya, Aia, byotzetik, biyotzetik, biotzetik, piyo, deyogun, zayon... Horrelakoetan y kendu eta i ipini dugu, zenbait abizen eta izenetan izan ezik: Ayerdi, Iruretagoyena, Zelaya, Goya, Zendoya, Euzko Deya...*

**Era berean, lehenean utzi dira bizkaierazko asko, hala nola: neban, errija, urten, lanean diardabe, ondiño, lez, damubagaz, maitasunagaz....*

**Era batera nahiz bestera erabili zuen ñ, hitzaren azkenean: egiñ, eziñ, edozeiñ, alegiñ, zanakiñ, laiñ, dediñ, aiñ, oraiñ, ikurriñ, eragiñ, berdiñ, gaiñ, apaiñ... Horren ordeztu, n ipini dugu. Baina egiña, alegiña, aña, ikurriña, eragiña, gaña, apaña eta abar.*

**Prantzi, Prantzia, Frantzi, Abisini, Abisinia, Itali, Italia, Errusi, Errusia eta abar, aldatu eta Frantzia, Abisinia, Italia, Errusia berdindu dira.*

**Noiz nai, noiz-nai, nun nai, nun-nai, nora nai, nora-nai, gaxo aldi, jai aldi, udal-etxe, udal etxe, pelota leku, pelota-leku, diamun, biamun, izen abizenak eta holakoetan, denak berdindu, eta noiznai, nunai, noranai, gaxoaldi, jaialdi, udaletxe,*

pelotaleku, biamun, izen-abizenak jarri dugu. Eta Eliz, eleiz delakoan, eliz aldatu dugu.

**Askorek eta askok kasuetan, beti askok jarri dugu.*

**Aldunak alduna, altzan, altzuan eta holakoetan al dunak al duna, al zan, al zuan aldatu ditugu.*

**Oraingoan ere inoiz azaltzen dira Oñengo eta oñengoan (Errezilen, oañenguan), orain hurrengo edo orain hurrengoan esateko. Bere horretan utzi ditugu.*

Hauek eta beste aldaketa txikiren bat aurkituko duzu, baina, lehenago esan bezala, irakurketa bidea erraztu eta egi-learen onerako izango dela pentsatuta egin dugu dena.

Azkenik, betikoa

Basarri gerratean kazetari, 1936–1943 (Auspoa 329) gustura irakurriko duzula gaude, Euskal Herriaren defentsan gogor egindako aldi bateko historia aurkituko baituzu, argi eta garbi.

Joxemari Iriondo
2014ko ekaina

Basarri
Gerratean kazetari
1936-1943

Aurkibidea

Hitzaurrea	7
Gabon-eguarriak (NB). <i>El Día</i> , 1936-01-04/	
<i>Euzkadi</i> , 1936-01-04	19
Itsasontzi aundi bat (NB). <i>El Día</i> , 1936-01-12	23
Igandez bertsolari txapelketa (NB). <i>El Día</i> , 1936-01-17	26
Badator eguna! (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-02-06/ <i>El Día</i> , 1936-02-07.	29
Gezurti alenak (NB). <i>El Día</i> , 1936-02-07/ <i>Euzkadi</i> , 1936-02-08..	31
Lengo tokian gu orain ere (NB). <i>El Día</i> , 1936-02-22/	
<i>Euzkadi</i> , 1936-02-25	33
Egiaren garaitza (NB). <i>El Día</i> , 1936-02-29	35
Irabazi degu (NB). <i>El Día</i> , 1936-03-06	37
Zoriona katalandarrei (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-03-11	39
Alderdi bateko (NB). <i>El Día</i> , 1936-03-12/ <i>Euzkadi</i> , 1936-03-14 ..	41
Gorri jende au (NB). <i>El Día</i> , 1936-03-14	44
Kanpoetako aize burrunda (NB). <i>El Día</i> , 1936-03-22	48
Berri berriro jestorak (NB). <i>Argia</i> , 1936-03-29/	
<i>Euzkadi</i> , 1936-04-01	51
<i>Iganderoko Berriona</i> (NB). <i>El Día</i> , 1936-03-29	53
Abisinia gaxoa (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-04-11	56
Euzko araudi estatutoaren (NB). <i>El Día</i> , 1936-04-19	59
Bein bear zuan da (NB). <i>El Día</i> , 1936-04-19	63
Udazalerik zintzoen (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-05-08	67
Pagoetako Gurutzea. <i>El Día</i> , 1936-06-04	70
Pagoetako Gurutzea. <i>El Día</i> , 1936-06-06	73
Asmo goralgarria (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-07-03	74
Bidaniko garaitza. <i>Euzkadi</i> , 1936-09-01	77
Bidaniko garaitza. <i>Euzkadi</i> , 1936-09-06	80
Bidanitarren poza. <i>Euzkadi</i> , 1936-09-09	83
Azkoiti beltz yantzita. <i>Euzkadi</i> , 1936-09-10	85
Saseta buruzagia. <i>Euzkadi</i> , 1936-09-12	87
Gu ondo bizi giñan. <i>Euzkadi</i> , 1936-10-03	89
Oroituaz. <i>Euzkadi</i> , 1936-10-09	90
Zarateko burrukaldia. <i>Euzkadi</i> , 1936-10-15	92

Artutzaritar Josu ta Ibañeztar Joseba Koldobikaren gogo-aldez.	
<i>Euzkadi</i> , 1936-10-25.....	94
Igandez eder (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-10-30.....	95
Euzkadiko erri-zaindari (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-11-07.....	97
Erritik urrun (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-11-15.....	100
Arrigarria da (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-11-26.....	102
Goian zerua, bean lurra (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-12-03.....	105
Gudak beregan (NB). <i>Euzkadi</i> , 1936-12-09.....	108
Gudarien gabona. <i>Euzkadi</i> , 1936-12-23.....	111
Agur, <i>Eguna</i> (NB). <i>Eguna</i> , 1937-01-03.....	115
Euzko emakume bat (NB). <i>Eguna</i> , 1937-01-05.....	116
Zorionekoak (NB). <i>Eguna</i> , 1937-01-07.....	119
Igande arratsaldea (NB). <i>Eguna</i> , 1937-01-14.....	122
Amaika komeri (NB). <i>Eguna</i> , 1937-01-16.....	124
Amaika gertakizun (NB). <i>Eguna</i> , 1937-01-17.....	126
Denborale xelebreak (NB). <i>Eguna</i> , 1937-01-24.....	128
Gabilondotar Gerbasi. Karlatar zintzo bat il da (Jarraitzeko)	
<i>Eguna</i> , 1937-02-04.....	130
Gabilondotar Gerbasi. Karlatar zintzo bat il da (Jarraitzeko)	
<i>Eguna</i> , 1937-02-06.....	132
Gabilondotar Gerbasi. Karlatarra zan baña karlatar	
izenekoak ezin ikusi zuten (Jarraitzeko). <i>Eguna</i> , 1937-02-09...	134
Gabilondotar Gerbasi. Goi jauregian bedi (Amaia).	
<i>Eguna</i> , 1937-02-12.....	136
Etxera begira. Gogai sendoaren indarra. <i>Eguna</i> , 1937-02-14.....	138
Ori duk erreminta, ori! (NB). <i>Eguna</i> , 1937-02-21.....	140
Berri txar (NB). <i>Eguna</i> , 1937-02-25/ <i>Tierra Vasca</i> , 1937-02-26...	143
Euzkotarrok pozteko zioak (NB). <i>Eguna</i> , 1937-02-26.....	145
Beti onela bear al degu? (NB). <i>Eguna</i> , 1937-02-27.....	147
Asturiasko esparruntan (NB). <i>Eguna</i> , 1937-03-02.....	149
Ikusten nago (NB). <i>Eguna</i> , 1937-03-04.....	152
Euzko abenda (NB). <i>Eguna</i> , 1937-03-10.....	154
Aspaldiko urteen buruan (NB). <i>Eguna</i> , 1937-03-11.....	157
Gure itsasgizonak (NB). <i>Eguna</i> , 1937-03-14.....	160
Barren zabal eta... (NB). <i>Eguna</i> , 1937-03-19.....	164
Apai zar tean. Alde batekoak eta bestekoak.	
<i>Eguna</i> , 1937-03-19.....	167

Lertuko ote? Beldur izatekoa da. <i>Eguna</i> , 1937-03-24.....	170
“Amaya” dala-ta. <i>Eguna</i> , 1937-03-25.....	172
“Amaya” dala-ta. <i>Eguna</i> , 1937-03-27.....	178
Nekazariei begira. <i>Eguna</i> , 1937-04-01.....	182
Jaiki euzkoak, gora Euzkadi. <i>Eguna</i> , 1937-04-08.....	185
Gudarako izan, gudarako bizi. <i>Eguna</i> , 1937-04-09.....	187
Erriaren kementa. <i>Eguna</i> , 1937-04-10.....	189
Azken unetan? <i>Eguna</i> , 1937-04-17.....	192
Gudak asko erakusten du. <i>Eguna</i> , 1937-04-21.....	195
Nire herrian bada (NB). <i>Eguna</i> , 1937-04-22.....	197
Egoaizea baño (NB). <i>Eguna</i> , 1937-04-24.....	201
Ikusi ditugunak. <i>Eguna</i> , 1937-05-06.....	204
Aurrera gure artzaiarekin! <i>Eguna</i> , 1937-05-13.....	206
Mingañak garbi, mutillak! <i>Eguna</i> , 1937-05-18.....	208
Valencia-ko gobernoa (NB). <i>Eguna</i> , 1937-05-18.....	210
Eguneko gaia. Gobernu berria. <i>Eguna</i> , 1937-05-20.....	212
Erriaren sendotasuna. Garaiz ibiltzearen garrantzia. <i>Eguna</i> , 1937-05-25.....	214
Kanpora begira. <i>Eguna</i> , 1937-05-26.....	216
Guda laukiak. <i>Eguna</i> , 1937-05-28.....	218
Gure umetxoak Ingalaterran. <i>Eguna</i> , 1937-05-30.....	220
Ez dezagula txirixtik egin. <i>Eguna</i> , 1937-06-03.....	222
Oiek al datoz gu zuzentzera? <i>Eguna</i> , 1937-06-09.....	225
Neure erriatzaz oldozten. <i>Eguna</i> , 1937-06-12.....	227
Elai-Alaikoak ikertzen. <i>Euzko Deya</i> , 1938-07-24.....	229
Bertsolari neurketak. <i>Euzko Deya</i> , 1939-06-11.....	231
Biriaturun egun bat. <i>Euzko Deya</i> , 1939-07-02.....	234
Il da gure Zubimendi. <i>Euzko Deya</i> , 1939-10-15.....	236
Urrundik ikusten dut... <i>Euzko Deya</i> , 1940-01-20.....	240
Pedro Mari Otaño. <i>Euzko Deya</i> , 1940-03-10.....	242
Pedro Mari Otaño. <i>Euzko Deya</i> , 1940-03-20.....	245
Pedro Mari Otaño. <i>Euzko Deya</i> , 1940-04-10.....	248
Trabajadoreetan: 1940ko urria – 1943ko ekaina.....	251

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-01-04 / Euzkadi, 1936-01-04

Gabon-eguarriak aldegin digute, ta urtebetez ez inguratzeko aldegin ere. Egun aundi ta gogozkoak ditugu Euzkadin.

Garai bateko irripar alaitsurik ez ordea euzko sendi askotan ere. Zorigaiztoko lan ezaren atzapar lakarrak estutzen baidizki-gu ainbat eta ainbat anai. Erneki ikusi dute au Euzkadiko emakumeak, eta gabon-eguarriak zerbait ezti kutsuz busti ditzaten, euren laguntz ziurra eskeñi dute ainbat atetan. Jazkerazko urritasuna nabaritu duten tokitan, beso gañetan egoki tolostatutako jantzi mordo dotoreakin aurkeztu dira, apari xotil antzekoa gerta ote zedin beldur ziran tokitara ainbat jaki eder ta gozo ingura dute. Euzkadiko emakume txalogarriai esker, ez dira jaulki bearrean ziran malko sendo mingotsak jaulki. Ez dira, oroimenari toki emanda, lengo izakerari begiratuta, igarotakoatzaz gogoratu-ta, euskal sukalde barruti askotan bestela ezbairik gabe entzun bearko ziran negar ulu zotiñak entzun.

Esku bigun ongilleak arindu baitizkie naigabe latzak. Egun batzutako bederik beintzat. Ta, eskergarri izaki auxe!

Gora, euskal baratza ainbat jantzi dezuten lili apañak! Bearreko zinduten aberriak!

Ainbat naigabe arindurik gerta diranak gogoz txalotuko zaituzte.

Etzerate itz-jarioak, beti ta nunai egintza arrigarritz agertzen zeratenak baño. Jarrai ba orain arteraño bezela. Beartsuen alai-garri, goimaitasunaren aldeze, aberriaren gudari, ta oraingo auxe (barkatu, baño), euskeraren maitale izaten.

Aurrera, euzko arreba maiteok!



Auteskunde edo botazioak gañean oraintxe ere, ta jakiña, iñun diran politikero guziak beren alderdiak goraltzeko alegiñe-

tan. Eunki ontan sortu diranak saiakuntza asko ikusteko sortu dira mundura. Aurrera ere ikusi bearko da ederrik. CEDA ta erregezale ta abar bakarrik ote dijoazen diote. Baita republikano-tatik asi ta komunista arterañoiko ezker alderdiak ere. Zer esan aundiak emango ditu oraingo burrukaldi onek, ta naiz ezkerrak dirala garalle ta naiz eskubiak dirala, aldakuntza aundiak ikusi bearrean izango gera. Ezker alderdiak aspalditxoan asko supritzen dute, min aundiak artu dituzte, ta oraingoan aginte aulkira igotzen badira, zerbait ordaindu gabe ez dira geldituko. Eskubiak igotzen badira berriz, zerbait badakizute beren berri, euskaldunok ondo ezagutzen ditugu-ta. Oraingo itxaropena dan Gil Ro-blesek gure arazoa nola ikusten duan ere badakigu. Ez dezagun ordea bururik geigi nekatu. Gu goazen Sabin bidetik barna, agintarien esanetara makurtuaz.

Len ere olatu asko igaroa da abertzaletasuna.



Bertsolari neurketak gogor ari dira bazterretan. Donostin ospatuko dan illaren emeretziko saioa ez da nolanaikoa izango. Egokia dan ezker, bertsolari arteko gertaera batzuk azaldu bear ditugu egun auetan.

Zein erritan ziran ez dakit ziur, baña beingo batez bi bertsolari jo ta keian ari omen ziran leio banatan jarrita. Jendea erruz omen zan entzuten, ta entzuleen artean Asteasuko Pello Errota sonatua arkitzen omen zan. Leiotako bertsolariak bertsoa bukatzean jendea inguratzen omen zitzaion Pellori iritzi eske bezela. Pello an omen zebillen al zuanean jendeai erantzunez, ta ortan, leioko bertsolari bat konturatu Pello zala, ta bera jaisten edo iraintzen ari ote zan irudituta edo, onako bertso au abestu omen zion leiotik:

Bertso eder bat kantatu nai det
balkoi ontatik kalera;
Pello Errota ikusi eta
nik artzen dedan kolera.
Asteasutik etorri eta
erronkan ari bazera,
denboraz uxatuko zaitut nik
jaitsitzen banaiz or bera.

Besteak bukatu orduko erantzuna asi omen zuan Pellok:

Arrazoi batez ez da egundo
ezagututzen pertsonik;
dotore xamar asi aiz baña
ez dek egingo gauz onik.
Ik besterek etzirak esan
erronkosua naizenik;
balkoi ortatik ez dek jaitsiko
ni uxatzeko gizonik.

Une ura zenbaterañokea zan ez omen dago adierazterik. Ango
jendearen egon eziña!



Liga-ko burukidea dan Kanbok itzaldi bat egin du Barzelonan.

Oraindik orain Gil Robles an izana dute Kataluñan; iru teatrotan itzegiña gañera egun batean. Bada zer edo zer iru teatrotan itzegitea!

Liga-koagatik gordin samarrak bota zituan Gil Roblesek, eta Kanbok gogor samar erantzungo ote zion zegon jendea. Ezta orrela gertatu.

Itzaldiaren laburpena irakurri degu ta ez du Gil Roblesentzat itz txarrik esan, goraldtu geiago egin duala esan diteke.

Debo reconocer –zion Kanbok–, tiene un admirable dinamismo, una comprensión rápida y es un parlamentario de primer orden. Debo reconocer también que sin sus fuerzas, en las próximas Cortes no se podrá gobernar. Cuando deje de ser un agitador y se convierta en un hombre de gobierno será entonces cuando nos entendamos el señor Gil Robles y yo.

Arrapaitzak ankatik! Larri ibilli bai alkar ulertzen. Politike-roak izan oiek!

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-01-12

Itsasontzi aundi bat nabaritzen genduan aspaldian aruntz eta onuntz zein kai artu erabaki eziñik.

Ontzi ori indarberritua da ordea, ta berriak berriarena agertzen du sarri. Langille berriak asmo berriak sortu dituzte, ta Portela jaunak ontziaren zuzenbidezko kurpilla artu duanean, denboraz erabaki du zein kaitara sartu.

Otsaillaren 16an auteskunde edo botazioak bear dirala, ta, bearko izan! Ez du emen txantxak balio.

Kataluñan ezker danak bat egin dutela, Naparroan zarrontzaleak* atzera edo bazterrera utzi dituztela, CEDA, erregezale, "Renovación" eta abar alkarrekin dijoazela... Au dala, ori dala, zenbat esamesa, zenbat izketa ta zenbat iritzi. Guri ez digute ordea ainbat buruauste eman bear. Etxe barneko zeregiñetara murgildu gaitezen.

Euskaldun jator eta abertzale zintzo bezela joka bear degu egundo badata. Erne euskaldunak! Zabal begiak! Il berriak diran Madrیدهko Korte oietan gure ordezkariak egindako alegiñak etzaizkitzute ain errez aztuko, noski.

Arrantzaleak laguntza premiz senti dituztenean, eurak izan dira lenen eskua luzatu dietenak; nekazariak negar gordin ta estuasun larrian ikustean, eurak izan dira alaitzeko leiaketarik gogorrenak egin dituztenak, otso artetik nai zutenik lortu ezpazuten ere. Gero, asi salerosle arazo, langille auzi ta zenbat, zenbat gorabera, zenbat lan egite!

Azkenik, berriz, euzko edestian ondo gordea izango dan eguna zan azkenengo Calvo Sotelo ta gure gizonan arteko katramilla egun ura. Euzkadi iraindu ta lurperatu nai zuan gizon zitala, bera lurperatu zuten gure ordezkariak. Ta nun lurperatu?

* Alderdi karlistatik irtendako taldea.

An, aruzkaldean, arrotz etxean, arerio artean, gure arerio ta bestearen lagunak biltzen ziran legetxean. Antxe bertan, bai, jauna, bai!

Gure erriaren izena goi malletara jaso digun ordezkaritza izan degu ta berriz ere alaxe komeni.

Euskaldunak, eldu lanari!

Gutxi bagera, gutxi, ta asko bagera asko, naspil gabe, argi ta garbi, Jaungoikoa eta Lege Zar aldez guziok!

Batasun txarra baño bakartasun ona obe. Aurrera!

Amaren seme jator
izan gaitezela,
aberriaren oiuk
entzun ditezela.
Badakigu egun gogor
latzak datozela;
joka gaitezen euskaldun
jatorrak bezela.



Italiako izparringiak asarre bizi ta agin zorrotzez agertzen zaizkigu egun auetan. Asarre auek guziak, Estados Unidos-ko lendaria dan Roosevelt jaunak edatutako joaritz edo mensaje orrek sortu ditu. *La Stampa de Turin*, *Il Popolo d'Italia*, *Giornale d'Italia* ta beste geiagok zerrenda aundiak dakarzkite gai orri buruz.

Gizon bakarran eskutik dabiltzan erriak gerra sortzalle eta naspillazaleak dirala esan du Roosevelt jaun orrek. Entzuten du oraintxe ordain ederrik, ene! Baña, jaunak! Ez ote du gero Amerikarrak egia esan?



Aberkide zintzo bat uztartzen zaiguneko berriak pozturik, onoko bi bertso auekin buka nai nuke gaurkoa. Izetatar Mareni biotzez:

Pozez aldendua ni
lengoan etxetik,
nere antzeko batzuk
banitun atzetik.
Elizan geundelarik
adi adi, zutik,
zure ezkon-deia esan
zuten itz-tokitik.
Zoratzen irten nintzan
meza nagusitik.

Biok alkarturikan
osatuaz kabi,
urte askotan bizi
zaitez tela ongi.
Nik opa dizudana
ona, Maren, garbi.
Pake ta gozamina
bitez buruzagi.
Irugarren laguna
zoriona bedi.

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-01-17

Igandez bertsolari txapelketa degu Donostin, eta bertara Euzkadiren egal batetik asi ta besterarterañoکو bertsolaririk sonatuenak bilduko dira.

Jaiaren ederra aurrez ikusten degu. Tolosa, Azpeiti ta Elizondoko guduetan entzule izan geranok badakigu bertsolari onak daudela.

Gudu edo neurketa auetan milla kutizi ase ditezke. Asko ta asko bertsolari zirikatzaile, edo alkar mintzen dutenai entzun zale dituzu; beste batzuek ahapaldi sakon pixuzkoak nai dizkitzute, epalleak oña jarrita bertsolariak jarraitu bearreko ekitaldiaren aldeko dituzu beste ainbat.

Igandeko bertsolari neurketa ontan gogo guziak ase-ase egin-da geldituko dira.

Epaimaiak bearreko jartzen dituan lau ekitaldietan, aitatu dizkitzuetan mota guziak sartuak baitaude. Baten zale diranak eta bestean zale diranak, igandeko ortan denak pozez gelditzeko modua egingo dute Donostiratzen badira.

Ea ba euskaldunak! Ea bertsozaleok!

Igandez Victoria Eugenia antzokira azaltzea etzaizute damutuko astelenez.

Zeuen esku, baña...

Ez ditzazula utzi
ain pesta gurenak,
ez dira beintzat ori
merezi dutenak.
Asko dira saiatzeko
gogotsu diranak.
Ikusi ditzagun ba
zein diran onenak!



Urtezarra bukatu ordukoxe berri-berria asi bearrean gertatu gera. Urtearen azken igurtzitan, gorabera, joan-etorri guziak ikusi nai izaten dira. Geiago biurtuko ez dan urteak aldegiten diola ikusirik, beretzat, bere artu-eman ta lanketarentzat zer urte modu izan dan jakiteko egarria beti izango du negozioko gizonak, eta dagokionez azterketarik sakonenak egingo ditu.

Nazioak ere era berean jokatu dira, dakusgunez.

Ingletarrak bere urteburuko azterketak eta garbitasunak egin ditu, ta il berria degun 1935garren urtea, 1929garrena ezkeror izan dan urterik bikañena ta aberatsena izan dute. Orain aña langille ez omen da egundo zeregiñetan lotu.

Azkenengo Europako Guda Aundiaren aurretik baño langille geiago ari omen da bere ogibidean.

Lan gabekoen zenbakia melartu ta aitzen omen dijoa.

Inglaterrako korreuak bere argibideak eman ditu, ta oietan ikusten danez, igaro diran eguarri jai oietan 286 milloi eskutitz edo karta irten dira lan tokietatik, korreutatik; beste 110 milloi postal deritzazko tarjetatxo.

Gabon gauean bakarrik 325 milla urrutidazki edo telegrama banatu dira.

Aurreko urtean baño eunetik irurogeiko zatia geiago aurtzen. Bada zerbait, e?

Almazen aundi, galtzairu ola ta gañontzeko lan motak ere bai, urte zoragarria izan dute igarotako ori. Inglattera egun aundietan dago, apar gozoa nabari dute edonundik. 1936garren ontarako itxaropen aundiak dituzte, oraindik gorako puska bat egin ditekela diote.

Beldur aundi bat dute ordea eurengan.

Italia eta Abisinian arteko nasketa onek eurentzat kaltebide ta ondoren itsusia sortu lezaken beldurra.

Bitartean beintzat bazaudete gu añean. Bai, arraioa!



Auteskundeak gañera ta, baduk oraintxe zalaparta ta txalamatika!

–Kontuz abertzaleak –diote ezkertarrak–. Agintean egon diran bitartean estatutoa erdoiak jatera baztertu dizuten oiekin, ainbat alkate ta ziñegotzi kondenatu dituzten oiekin, ainbat denboran diktadura bizian euki zaituzten eskubitar maltzur oiekin joango ote zerate?

Kontuz, abertzaleak!

Emen gaude gu ezkertarrok, orain guri lagundu ezkerro, gero bear dituzuten laguntza guziak egiteko.

–Zer egin bear dezute, abertzaleak? –galdetzen dute eskubitarrak. – Guzia odol putzu ikusi nai luteken oiekin, matxinada zale edo erreboluzionario trakets zarpaju oiekin, konbentuak sutu, jesuitak biali, gorrotoa piztu duten sinismen gabeko matxinadazale oiekin joango ote zerate?

Kontuz, abertzaleak! Emen gauzkatzute eskubitar katolikuok noiznai laguntzeko.

Baña, adiskideak, asko oroitzen zerate orregatik, e? Maite gaituzute ikusten danez. Baña, gizagaixuok, karameloak eskeintzeko garaia dala uste al dezute?

Edota zuek bi alderdiok nola jokatuak zeraten aztu zaigula al derizkiotzute?

Etzabiltzate toki txarrean!

Ez estutu, jaunak. Gu ez gera erreboluziuan alde ta aurka joango, ez gera ez eskubitar ta ez ezkertarrakin joango; gu, Abandoko seme illezkorrak sortutako ikurritzarekin joango gera, Jaungoikoa eta Lege Zarrakin, euzko ikurriñarekin, itz batean: Euzkadirekin!

Ortik konpondu zeuen marmar oiekin.

Urruti, urruti emendik...

Zu izan ziñan, Sabin maitea,
euzkotar seme azkarra,
zeu izan ziñan abertzalien
maixu jakintsu bakarra...

Anaiak, eldu lanari! Aurrera!

Badator eguna! (NB)

Argia, 1936-02-07 / Euzkadi, 1936-02-06

Lanerako egunak iritsi dira, ta lan orren emaitz erabakiak jasotzeko egun ori ere ez da ain urruti.

Bazter guziak politikara murgildu zaizkigu.

Ezkerraren irrintzia dakusgu alde batetik. Langille arteko zuzentza, bekoenganako begirapena, bankuetako zuzenbidea, errienganako borondatea ta nazioaren zoriona eskeintzen dituzte. Ez da au bakarrik. Lokarri au asko luza liteke oraindik, baña ezin euskeratuko degu beren egitarau osorik. Toki aundiak bear bai-giñuzke.

Eskubitarrek datozkigu beste egaletik. Eskubitarrek, bai! Ez dakigu zer eskubiderekin baña izen ori artu dute berengan. Or Españan orain lau urte senti zan konbentu erretze nardagarri aretaz oroitzen al zerate?

Garai artan Gobernazioko Ministro zan Mikel Maurari amai-ka astindu eman zitzaion. Zorioneko eskubitar auk, Españiko naspil, konbentu erretze ta gañontzekoak, gizon au zala bitarte, Maura au zalako sortuak eta egiñak zirala esan digute atzoko egun arte. Baña badakizute, denborak zearo aizetara jo ezkerro, iparra ez danean egoa izateko arrixku ikaragarria oi da. Nork esan bear zuan onelakorik gerta zitekeanik?

Nork esan estatutoa txartzat, ezkertzat eta gaiztotzat jo ziguten katoliko berdingabe auk. Maura batekin alkartuta joan zitezkeanik? Nork esan matxinada edo errebuluzioa aitzaki artuta leize bildurgarri ortaraño jaitsi zitezkeanik?

Beste gauzatxo bat.

Itzetik itzera darabilkiten matxinada orren sustraia nundik datorkigu? Nor ditugu emen egiazko matxinada edo errebuluzio sortzalleak? Or kanpo oietan ainbat eta ainbat kilometroko lur sail arrigarriak dituzten oiek, ta Gipuzkoa osoa ainbateko zatiak

beren menpeko dituzten oiek, lur oietarako dituzten langilleai amairu ta amalau errealeko lansari edo jornal zirtzila baño luzatzen ez dien oiek, beartsuari jateko aña sekula egundo eman ez dien oiek ez ote dira oker guzien sustrai?

Beren alderdikoak garalle dirala ta beren lagun onak agintea aulkira igo dirala, ta botua ondoen zerizkion alderdira eman duan maizter gixajoa etxetik kanpora arrastaka ateratzen dabil-tzan auek ez ote ditugu egiazko errebuluzionario?

Bi muturretakoak ezagutzen ditugu. Ez digute nai duten ziri-rik sartuko. Ezkerrakin ezin batu gindezke inoiz eta inolako mo-duz. Batetik, gure erlijioaren etsaiak diralako, ta bestetik min-gañez ain sarri aitatzen diguten erri askatasuna eman nai izan ezkero, agintari egon ziran bi urte aietan era zoragarria izan zute-lako. Zerbait geiago ere bai, jakiña.

Eskubiekin ere ezin asi gindezke inora. Batetik, langille au-ziaren ardurik ez dutelako. Aita Santu agurgarrian agindu guziaz i baño beren patrikari jaramon biziagoa opaltzen dietelako; ta bes-tetik, askatasunaren etsai amorratuak diralako, gai ontan ezke-rrak baño ere ezkerrago ta okerragoak diralako.

Euskaldunak badakigu nola jokatu. Abertzaletasunangana babestu bear degu guziok. Guziok gero!

Betik ez dakugu aurkakoa baño.

Goitar jaun azkengabea degu lagun, Jaungoikoa ta Lege Za-rrakin goaz. Abertzaletasuna sortu ezkeroan beti berdiña dan ikurritzarekin.

Esnai euskaldunok! Lagundu anaiai! Goazen erriak ain bea-rreko dituan diputatu abertzaleen billa.

Gora euzko aberria! Gora euzko aldun berriak!

Gezurti alenak (NB)

El Día, 1936-02-07 / Euzkadi, 1936-02-08

“Aberastasun aundiak baño izen ona obe da” –dio Salomon jakintsuak bere esangi edo Proberbiotan.

Ez dirudi gaur ala danik. Patrikakikoak egin ezkerro gañontze-koai ez dio jaramonik egiten askok. Ta au gizon bakanai bezelaxe alderdi edo bazkunai erantsi genezaioke.

Auteskunde aurregun auek alakoxeak izakita, aspalditxoan tratu asko darabilkigu euskaldun artean. Askorengana zuzendu ta itzegin bearra izaten degu. Biotz zabal, euskaldun antzo, aber-tzale gixaz beti.

–Baña, ene, ez gabiltz bakarrik. “Derecha” deritzazko auetxek ere ez daude lozorroan; ate asko jo dute goi egaletan barna.

Zer esan dituzten?

Ene Jaungoikoa! Sinisteak ere!

Abertzaleok gallentzen bagera, garaitza gurea izaten bada, akabo, noski, gure konbentu ta elizatxoak. Akabo Jaungoikoan-ganako beldurra, akabo erlijioa. Komunista ta sozialistakin batu-ta goazenean pentsatzeko zenbateraño okertu geran.

Agindu bai, noski, agintzen kupira gabeak omen gera; or jardun omen gera, lurrak lantzen dituan basarritarrak bere etxe ta lur oien jabe nai ta naiez egin bear duala esanez; ta ondoren ederra izan omen dute gure engañagarritzko agintze ta eskeintza gezurrezkoak. Ez omen dago “Etxe txuri”ra begiratu besterik. Ta ontatik etengabeko soka daukate.

Azal gogorrekoak dira orratik izenik gabeko txarkeri ta zipoiz-kerira emanak dauden pisti txatar auek!

“Derecha” izenez dabiltzan auen artean ez dezu batetik bes-terako alderik. *Gazeta*, *Konstantzi* ta *El Pueblo*-n idazten duten burukideak eta aterik ate mendi maldetan dabiltzan ajenteak era batera itzegiten dute.

–Bai; ori onelakok esango zian ordea –oldoztuko du zenbai-tek–. Baña, bai zera... Denak berdiñak dituzu!

Zorionez, erriak begiak argitu ditu. Igarotako lau urte auetan Jaungoikoa ta Euskalerri alde Euzko Alderdi Jeltzaleak egindako lanak gogoan ditugu Euzkadin geienok.

Pozoi edo benenoz igurtzitako itz nardagarri oiekin ere ez dute nai dutenik lortuko. Adar bateko ta besteko, Euskalerriaren etsai gaiztoitsuak ezagutuko ditugu.

Etzerate pasako!

“Gezurra esatea gauza bat da, ta egia ezkutatzea beste bat”
–dio Agustin doneak. “Contra mend. C.10”

Or dago koxka. Guzia esana dago orrekin.

Beti bezela, sendo ta bikain. Pauso bat atzera eman gabe, Jaungoikoagatik eta Lege Zarragatik.

Aurrera!

Lengo tokian gu orain ere (NB)

El Día, 1936-02-22 / Euzkadi, 1936-02-25

Ondo lengoak zerate, arranea! Lengo oiturari, zeuen oitura kome-
nentzizkioari eusten diozute pin asko. Ezertan badata ortantxe
zerate piñak; zeuen buruak eta zeuen poltxikoak ondo jartzeko
lendik artuta dauzkatzuten bideetan jarraitzen. Kristau batek
ontzat artu ezin lezazken oitura nabarmen oiei eusten.

Egin dezute orain ere egitekoa. Ardi larruz jantzita agertu ze-
rate otso beldurgarriok. Gezurra ta saltsa besterik ez dezutela
agertu zerate erriaren aurrera, ta erri ori beldurtu ta izutu dezute
oraingoan, baña emendik aurrera gaitz izan bear zaizute.

Zuek, aundikiok, Laziferren gixa guzia nai zenduketenok, len
sarri egin izan dezutena agertu diguzute oraingo txandan ere.

Zeuek ezer egin ez eta besteari galerazi.

Orixe lortu dezute, ta asko panparroi zaudete orrekina. Egon,
egon ortan. Erria zeuen lagun izateko ikur polita eskuratu dezu-
te, laguntzalle bikañik izango dezute aurrerantzean. Baña, au-
zoan orratik!

Euzkadik ezagutu duan auteskunde burrukarik gogorren da
latzena oraingoa izan da.

Gipuzkoako maizter guziak beldur-ikara batean zenduzka-
tzuten; denak beartuak, denak lepotik artuak. Ola edo fabrike-
tako langille asko ta asko era berean artu dituzute. Al zenduten
guziekin ori egiten dezute, ezin zendutenari utzi diozute pakean.

Esatea mingarri ez ezik negargarri bazaigu ere, Euzkadiko
ainbat eta ainbat eliza zeuen zabalkunderako izan dituzute. Ai-
tortegi ta itz-tokitatik ere zeuen alderako arnaskak entzun dira.
Ez dakizute asko zenbetarañoko kaltea egin dezuten.

Gaztediak biderik okerrena artzeko zio edo motiboak eman
dituzute; eliztarren artean iñoiz ezagutu ez dan bezelako gorrotoa
sortu dezute.

Ez dirudi oraintxe kristau geranik ere.

Jaungoikoaren izena aotan artuta ainbat kontzientzi zalantza txarrean jarri dezute, ta patriota zoragarriok, Jainkoa ta España-gatik edozertarako gertu ziñatenok, muga edo frontierak igaro ondorenean ari zerate “Viva España!” deadar egiñaz. Orrela saltzen dezute erria. Emengoari begira deiogun, Abertzaletasunak ez izatera, nork eutsi lezaioke gaur sutan jarri dezuten gaztediari?

Gu gera orain ere danai aurea eman bearrekoak. Bearko zuengatik!

Arrokeriak eta aundinaikeriak sekula ez du alderdi onik! Lenxeago, geroxeago, jipoia artu bearrean izaten dira geiegizkoak. Lenengo aingeruetatik ikasi degu au guzia, ta gaur, ogeigarren eunkian, “El jefe no se equivoca” egiñez zatoztenak irabaztea gogorra izan bear zuan.

Bein da betiko gu zapaltzeko asmoak ziñuten, gure alderdia ta gure gizonak legez kanpora uzteko asmoak.

Jainkoak ez nai nunbait ordea, ta zuzen da garbi jokutzen danak iñoren ikarik ez dualako, emen gauzkatzute gu mugarik igarogabe, Jainkoa ta Lege Zarren aldezkatzeko gertu ta prestu.

Gogoan jaso ditugu zuen zitalkeri ta asmo biurriak. Kristauak geran aldetik *Euzkadi*-k esaten zuana:

Barkatu bai, baña aztu ez.

Euzkotarrak, aurrera! Eup!

Egiaren garaitza (NB)

El Día, 1936-02-29

Goiz ala berandu, egia ta zuzentasuna garaille izan bearrekoak dira, baña bitarte ortan Jaungoikoak jakin zenbat jasan eta iraun bear dan. Gure erlijioan daukagu xpillurik bereziena. Elizaren garaipena ikusia dago; bera ondatu edo azpiratuko duan etsairik ez da sortuko. Etsaiak izan ditu ta izango ditu, ez dago zalantzirik, baña erlijioaren ikurrin garbia denen gañetik agertuko da.

Egiaren eta zuzentasunaren alde, elizaren alde 18 milloi ziño-pa edo martiri izan dira. Egia ta zuzentasuna asko jasan bearrekoak, naigabe ta oñazea erruz sortuaraztekoak dira geienetan, baña garaitza ondoren dakarkitenak, goiz edo berandu, denon buruzagi gallen izan bear dutenak. Emezortzi milloi kristauren odol ixurketak bearreko ziran elizaren garaikuntzarako.

Askok jasan bearrekoa izaki egia!



Egizko ta zuzentasunezko abertzaletasunak, nazionalismoak ere era berean ibilli bearrekoak dirala esan genezake. Europako nazio askoren edestiari begiratzea aski degu ori baiezteko. Irlanda, Txekoeslovakia, Polonia, Kroazia ta abarrek itzegiten digute.

Zorigaitzekoa milla aldiz arrotzen eskuetara erortzen dan erria –dio Elizalde jakuntsuak.

Ñork uka ez lezaiguen arrazoia noski.

Euzko abertzaletasunaren edestia ere ez da gogo xamur aietakoa, arantzetatik arantzetara dabillena baizik. *Ereintza* izeneko Arantzadiren liburua zabaltzea aski degu, berarekin euzko abertzaletasunarekin egin diran bidegabekeri narratsak ikusteko. Obeto ulertzeko, euzko abertzaletasunari egin zaizkion gaiztakeriak, eta igaroarazi zaizkion une latzak ikusteko esan nai nizuteke.

Irakasleak espetxean galdu zuan bizia ta geroztik jarraitzalle asko dabil arrixku berean.

Gaur eguneko kontuak ere arrigarriak dira; arrigarri ta beldurgarriak. Orain azaldu zaizkigu “Derecha” izeneko oien tranpak, denok dakigu gurekin zer egiteko asmoak zituzten. Eurak buru irten balira, eurak agente aulkira igo balira, geure aberri maitea negar uluz utzi bearrean izango giñan, emendik urrun biali nai giñuzenda. Gure biltoki ta batzoki apañak itxiko zizkiguten, gure eskolatxo asko ere bai. Gure izparringi edo periodikoetzaz eurak jabetuko ziran, Euzkadiko apaiz gazteak Españako toki arlotenetara joan bearrean ziran. Guzia erlijioaren izenean egin naiko ziguten noski, naiz ta dotriñak nor bere burua bezela lagun urkoarena maitatzeko agindu.

Egia zigortu bear danean, abertzaletasuna jipoitu nai danean, dotriñak eta gañontzekoak aztu egiten zaizkate.

Errukarriak!

Erasorik eta ekaitzaldirik gogorrenak igarota ere, len bezin tinko ta sendo gaude geure tokian. Jainkoak ere ez nai nunbait onenbestez galtzerik.

Orain, okerkeri ta ankerkeri aundienakin ezer lortu ezin dutela ikusi dutenean, maizter eta langille beartze ta diru zabaltzeak onurik ez dakarkiela ikustean, burua makurtuta txokoratzen zaizkigu. Zeuen txarkeria ezagutzeko ordua dezute, gizarajuok!

Gure elizgizon aintzagarrien abotsa ere bazter guzietan entzun da. Goiz edo berandu, egia garaille beti!

Basarritar, arrantzale ta gañontzeko euzko anaiak, oraingoa ikusiz gañera, zeuen kezka xaxtarrok uxatu bear dituzute.

Euzko Alderdia beste biderik ez dago. Elizaren onerako ta aberriaren aintzarako, zeuen botoak abertzaleai eman.

Iganderarte, jaunak! Gora Euzkadi!

Irabazi degu (NB)

El Día, 1936-03-06

Ta errez irabazi ere. Gipuzkoa zarra ez egon abertzaletasunetik urrutiratua askok uste bezela.

Gizonari askatasuna utzi zaionean, jauntxokeriaren erreñutik aldentzeko era izan danean, Gipuzkoa maite gureak abertzale utsa dala erakutsi du, len artutako izen ederrari eusteko din dala azaldu du.

Gizonari askatasuna utzi zaionean esan det, baña oker nagola derizkiot. Euskaldunari askatasunik etzaio opaldu oraingo txandan ere. Len aundikeriz, jauntxokeriz langille ta nekazaria guziz izuturik borondatearen aurka joka bearrean gertatu ziran, gureganako begirapen ona duten ta guk bezelaxe oldozten duten euskaldun pranko.

Len jauntxokeri zikoitzak kendu ta uxatu zizkigun autarki edo botoak, oraingoan “Viva la libertad” deadar egiñaz dabiltzanak, ta eurak bezela oldozten edo pentsatzen ez duanari aurrez aurre pistola aundia azaltzen dioten oiek lapurtu dizkigute.

Ernani, Oiartzun, Urnieta, Usurbil, Donosti, Arrasate, Eibar, Irun ta beste erri geiagotako botazioari begiratu besterik ez dago. Izendatzen ditudan oietako toki batzuetan nai dituztenak egin dituzte; beste batzuetan ordea kukuak oker jo diote.

Gizonetik gizonera ez da emen ainbesteko alderik, ta gobernadore gexak lortu ezin dutena euzko abertzaleak lortuko dute.

Ez ditezela ba geiegi arrotu, lau mukizuren menpe egoteko euskaldunak gogo txikia dute-ta.

Gizonari etzaio zor zaion askatasunik eman, baña artzen ere ikasi egin dute euskaldun askok. Legezko ez danik ez didazu esango, gizonak botoa berea ez badu buruko illeak ere ez ditu-ta.

“Irurogei milla botoren billa” genion aurregunetan izki aundiz, ta gure naia bai bapo bete ere. Sobran ere mordo politikak izan ditugu, ta geuk nai izatera ondotoz geiago bear genduan.

Bizkaia ere benetako bizkaitar bikaña azaldu zaigu. Iru gizonen tokia zuten erki edo probintzian eta irurak or atera dituzte.

Gaitantxu gixaraxoa larri xamar orain. *Gaceta*-n esanak xixnxtuta ainbat milla duroko eder zabaldu ditu ta or geldituko da ez zerurako ta ez lurrerako. Alare guri aña geldituko zitzaion txokoren batean, bestela nik erruki.

Gipuzkoan izan diran autarkiak abertzale autarkiak dira, aurreko saioan bear ziranak. Eskubitar geienak etxean sartuta egonak ditugu, ta basarritarrai ere agindu ori emanak; ezertan ez ibiltzeko esanak. Ezkerrai eman dietenak ere izan dira txamar txamar, baita gure alde jokatu diran ale bakan batzuk ere. Oso gutxi ordea!

Gipuzkoan da Bizkaian abertzaletasuna da jaun da jabe, ta, dirudiñez, Araban jabetzea ere laister lortu bear du oraintxe.

Izan ere euzkotarrak ezpaitauka beste biderik. Ama egiazkoa ezagutzen danean, ta or altzoan bein ezkerrera ta bein eskubira dabillen olatu itsusi arroputz ori nabaritzen danean, euzkotar oro benetako abertzale izan bear. Adar bateko etsaiak azpiratu ditugu, ta gaur ain arro agertzen zaizkigun bestaldekoak ere ez dabiltz arrixku txarrean.

Arrokeriak ezpaitu ondoren onik!

Jaunak, ez imintzio ta ixeka geiegi egin erri zar oni. Kontuz ortik aurrera.

Zubimendi olerkariarekin batera diogu:

Alkartu biotzez euzkotar danak,
euzkotar anai danak alkartu!

Alkartasunak
ta anaitasunak,

Euzkadi zarraren kate astunak
autsiko ditu.

Zoriona katalandarrei

Euzkadi, 1936-03-11

Íñoiz nasten ta irristatzen ez dan burukideak (el jefe que no se equivoca) egundoko aitortzak egin dizkio Españiko izparringi bati.

Oraingo ezker gurendak ez omen ditu ikaratzen CEDA-koak. Goitik dabilta baña melar ibiltarien antzekoa omen da bolaratxo au.

Eurak egundo baño gogorrago ta gordiñago omen daude euren tokietan. (Premia izango dute, gizarajoak).

Kristau berekoiak asko ta asko dira –dio Gil Roblesek– eta eskubiak aginte aulkira igo ziranean, lansari edo jornalak jaisten da melartzen asi ziran; batzuek errenta jaso, ta etxeetatik maizterrak uxatzen beste batzuek, legez kanpoko itxuragabekeri zatarrak egiten nabaritzen ziran ainbat eta ainbat eskubitar berekoi, ta orain ara zer ondorengo datorkigun.

Errua dutenak eta ez dutenak, zoritxarrez, danak ordaindu bear degu.

Latetxe edo kongreso dena bere mantupean eukitzen zuan izlari altsu ori, non zan denbora artan, orain ber-berak aitortzen dituan bidegabekeriak ez zuzentzeko? Non zan maizter kanporatze lotsagarri aren aurka ez jaikitzeke? Non zan Aita Santuen esanetara makurtuaz, ain lan zuzenean asi zan Jimenez Fernandez bidali ta Velayos ministro jarri bear zanean bere alderdikidearen alde ez irtetzeko?

Non zan, azkenik, Kataluñako Estatutoa bazterterakoan bere alde ez zutitzeko? Aldunik geienak berak etzituan ba?

Zer egin zuan nagusitasuna eukita?

Goian jarri ditudan gauz guztien errudun bera izan da. Urumeara etorrita euskaldunagatik gaizki esaten bestetan ez du jakin. Ordu onean dator koplarekin! Il da gero ollo salda alperrik da, konpañeo!

Katalandarrak bikain da sendo joka dira orain ere. Euren edestiarentzat egunik dirdaitsuenetakoa izan da otsaillaren ama-seia. Kataluñaren borondatea ta naia argi ta garbi ikusi da.

Ezker, eskubi, oker edo zuzen izango dira, baña aiek katalanak beti.

Royo Villanova agure zarpillak bere agiñak azaldu ditu orain ere.

Españiko politika arazoetan berari kezkarik geiena ematen diona, Kataluñaren Araudi edo Estatutoa omen da. Bera diputadu irten balitz, gogor jaikiko omen zan araudi orren aurka. Companys-ek ez du parre asko egingo agure zar onen kontura!

Katalandarrak egun aundi zoriontsutan dira.

Emengo deretxak ain txarra, kaltegarria zala zioten Estatu-toaren alde jaiki da erria, ta erri orrek bere latetxe ta eskubideak an ditu berri-berriro.

Euzkotarroi ere Euzko Araudia bearreko zaigu, komeni zaigu; baña nik uste dedanez, bai erkal edo Republikari ere.

Gaur erkalaren lagunik aundiena ta aldezerik sendoena Kataluña da, ta irabazirik daukagun ta zor zaigun araudia ematen bazaigu, euzkotarrok ez gera besterik baño esker txarragokoak izango.

Erriak askatasun bideetan doaz. Oinkada aundia eman du oraingoan Kataluñak

Zorionak, zorionak burujabetasun alde lan dagiten kantalarrei.

Gora Kataluña!

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-03-12 / Euzkadi, 1936-03-14

Alderdi bateko sugarrak apur bat baretzen asi diranerako, beste aldetik lengoa baño beldurgarriagoa sortzeko arrikkua nabaritzen degu. Badirudi Italia-Abisinia arteko arazoak zerbait biguntzera egin duala.

Beste aldetik?

Or zeok ba koxka! Sartu adi txantzetan Alemaniarekin, ta porru ederrak aterako dituk.

Reichstag-ko itzaldi orrekin Europa osoa dantzan jarri du Hitler-ek. Lokarnoko itunben eta gañontzekoai ez dio jaramon aundirik egin Alemaniako buru dan Hitler sonatu onek. Frantzia eta Errusian arteko konponketa ori etzaio atsegin izan, berak dionez. Orixe dala bide asi da lan auetan, bere aotik aitortu duanez.

Makiñatxo bat iritzi badabil oraintxe.

Hitler-ek biotza batera ta mingaña bestera darabilkiala diote izparringi batzuek. Europak ezagutu duan gerraterik beltzen itsusiena sortuko dala batzuek dioten bitartean, Europa egiazko pake-bidera orain dijoala dasaigute beste batzuek.

Ez dakigu olatu au zein eratarata lertu liteken. Guk ez dakigu, ta ez da or au ta ori esanez dabiltzan itzontziak ere. Iñork ez daki ezer.

Rhin inguruak gudariz estali dirala diote azken berriak.

Doixtarrak eskubide berdintasuna eskatzen dute, ta Hitler-ek esan duanez au da bere erriaren azken sarrera gai ontan. Besteak gizon jokutzen badira, Alemaniari zor zaion begirapen itzala izaten bazaio, beste edozein bezela Laterri Batzan sartuko omen da, ta artaraka puska bateko pakeak egiñak omen legozke.

Goikoak bakarrik daki zer gerta liteken.



Frantzia eta Belgika estu ta larri arkitzen zaizkigu, ta Ingalaterra ere kontuak atera bearrean. *Camara de los Comunes* deritzaion biltoki artan itzaldi bat egiña da atzerri arazotarako Ingalaterrak duan Eden ministro bizkorra.

Itunben ta tratu guziak purrukatu dituan Alemaniak, eta bazter orotan zartateko gogorra eman duala orrekin esan du Eden-ek.

Alemanian aurka jendea sutu egin dala. "Lokarnoko itunbenaren bigarren araua ausiaz Alemania, Frantzia edo Belgikaren aurka gogorrean asiko balitz, ta gudan ekingo balio, Ingalaterra Alemaniaren aurka jaikitza beartua dago".

Auek guziak Eden-en itzak dituzute.



Pildain yaun azkarra Donostian izan berria degu. Oitura duan bezela, itzaldi gorengoak egiña oraingo txandan ere. Buen Pastor-en entzule izan dituanak arriturik geldituak dira. Euzko izparringitan izki asko idatzi da gure apaiz azkarra goraldiaz.

Berak erabilitako gaia egun egunekoa da, noski. Euskaldunak ere gutxi ta urri izan arren geure etxean ezin konpondurik baigabiltz; gorrotu ta ezin ikusiaren erreinu itsusia aberri guzian zabaldu baizaigu.

Etxean onela gentalarik, kanparuntz begiratuta, zer itxaropen?

Guzia azpikoz gora dakusgu.

Burruka, matxinada, guda. Gizonak alkar jatera goazela dirudi.

Guziok mundutar amorratu gaude; gerokoaren konturik atera gabe gabiltz. Ederrak guziz Pablo donean irakatsiak, ederrak Pildain-en aolku gurenak: "Maite zazu lagun urkoa zeure burua bezela!".

Ai, ortaratuak bageunde!

Zorionekoak gu, zorionekoa ludia!



Ossorio Gallardo jakintsuak bere iritzia eman du. Azaña, eskubientzat ezker purrukatua izango omen da, ta ezkerrentzat eskubiegia.

Ez gaude gezur aundia esan dualakoan.

Ez orixe!

Danakin asmatuko ez duala ziur baitakigu guk ere!



Pixu aundiko zerbait badegu eskuartean.

Jestora auzia datorkigu berri-berriro.

Euzko Alderdiak zer bide artuko adi egonak gera. Ta, Alderdiak artu du berea.

Agintarien esanetara zintzo makurtzen dakigu ta alaxe egingo degu oraingoan ere.

Arabako jestora izendatzeak ez digu batere grazirik egin.

Ez gera nardaskeri aldekoak. Baña...

Barkatu, yaunak.

Ni ez naiz iñor esatera nijuana esateko.

Agintariak obetoxeago dakite gertakarien berri. Euren esanetara makurtzen gera.

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-03-14

Gorri jende au oneratu eziñik bada lanik asko. Asko jasan dute len, eztenkada gogorrak artu dituzte, ta zauriak ondo osatu gabe oraindik. Uri aundi oietako kaletan barna dabiltz. Egundoko pillak biltzen dira; euren ikurrin gorriak aurretik artzen dituzte, ta kaixo motel! Gu emen nagusi!

Batean, Aldundi edo Diputazioko jabe egin dirala, bestean eliz eta etxe mordoak kixkali dituztela... Ikaratu egin bear entzuten diranakin.

Gizonaren gogai edo idea izkilluz lurperatuko zutela zerizkien aundikiak leku onean gelditu zaizkigu. Uriko matxinada garaitu zala ikustean eskuak gustora igurtzi zituzten, ta geiago eze-ren beldur kezkarik izaterik etzegolakoan, al zan arteraño lagun urkoari gaitz egiten saiatuak dira. Auteskunde zabalkunderako ainbat eta ainbat milloi zabaldu dute, ta eurak agintzen egon diranean, langille jende ta nekazari maizter jendea egundokorik es-tuen ta larrien euki dute. Dirua bazuten ba!

Len batzuk bidegabekeriz jokatu, ta orain besteak bidegabekeriz erantzun.

Ai *Egizale* ta *Axari beltz* idazkideak. Irakurri ditugu bai egun auetako zuen lan sakonak; baña matxinada bukatu berrian idatzi ziñutenak ere irakurri genitun. Orduan egiaz garbi azaldu zanak gaur lotsa gutxi bear. "Izkilluz edo armaz ez da biotzik irabazten!" –esan zenduten, ta arrazoi dezute gaur ordukoa oroitzea. Amaika egi idatzi zenduten!

Gaur garalle diralata bazter guziak sutu ta txikitu bearrean dabiltzan oiek ere obe luteke beste bidetxo bat artu. Lana ta jana da erriak bear duana, ta ez etxe ondatze ta eliz erretzea. Esaera zar bat badegu euskaldunok; ondo datorke oraintxe:

Zabiltzan bideak atxituko zaitu.



Italia-Abisinia arteko guda orrek pixkan bat baretzera egin ote zuan genion oñengo idazkian. Gaur ezin esango degu orrelakorik.

“A río revuelto...”, denok dakizuten esaera berritarazi digu idazle batek.

Mundua Frantzia ta Alemaniari begira dagoan bitartean, alegiña saiatu naiko dutela italiarrak. Aiek zer dabiltzan badakitela esan nai zuan idazle orrek.

Dedra Marcos ta Yerga Alem aldean ez da giro izan, aida-nean.

Eman bear zitzaien zigor edo santzio kontua pikota joan da, ikusten danez.

Giro dek oiekin orain!



Amos Salvador, gobernazioko erkaltzañak izparkariei itzegin die. Egun auetan gertatzen diran otsokerizko gertaerai buruz jardun da, ta orrelakorik geiago gerta ez dedin neurriak artu dituztela esan du.

“Orden Público” edo dalako gizatasun ori denen gañetik bear omen da.

Oraintxe baño premi gutxiago izan da, konpañeo!



Txirrita zarrari omena egitekoak dira Errenderiarrak.

Illaren 22an, noski.

Gizon ezagun eta sonaturik bada, Txirrita zarra beintzat bat.

Nor bere aditzerik ez duanik?

Berrogei urtez gorako euskaldunik nor bera ezagutzen ez duanik?

Bere denboran abestu dituan bertsoak illaran baleude...

Arrigarritzkoa izango litzake.

Oraindik ere asmo onak dauzka; ez dago itxaropen guziak galdua.

Orain bi urte Poxpolin Antzokian polita jaso genion.

Bi bastoi aundirekin ikusi, bertso ura entzun, ta nor parre
algara gozo bat egin gabe gelditu?

Larogei urte gañean ditut,
nago anketako miñez;
Donostiraño etorriya naiz
erren aundiya egiñez.
Bi makulukin txit larri nabil
pausorik eman eziñez;
euskera iya aztu zait eta
erderarikan jakin ez...
Sasi eskola batian laister
asi biar det latinez.



Semerik gerran ez galtzeagatik mutilzar gelditu zala esan digu
aurtengo txapelketan. Gogoa gazte dauka oraindik Txirrita ospe-
tsuak.

Errenderiko jaialdia gurendazkoa izango dala derizkiogu.
Agertu bat egitea merezi du euskaldunen goraltzalle izan dan
txapeldun zarrak.



Largo Caballero ta Azaña jaunak izketaldi luze xamarra egiña
dute lengoan. Erri zuzentza gaiz mintzatu ziran susmua dago.
Bere taldeak egiten ari diran ankerkerizko aberekeritik aldendu
arazteko eskatu ziola diote Azañak Largo Caballerori.

Guk ez genien ezer entzun, ta ezin ezer esan; irakurri egin
degu.

Zer edo zer egin bearra daukate. Beste gañontzean, kanpoe-
tan itxura ederreko kontuak ezpadabiltz ere, naziorik lotsagarrien
ta basatiena España izango da.

Urdaneta gazteari goraintzi.



Bejondaikela, Txiki. Kixkurak atera dituk oraingoan. Bigarren mallako laisterkaria aizela baña lenengokoak ere atzean utzi dituk.

Gipuzkoarretan aurrena intzala jakiteak jendea arritu zian. Ez dirudik oraindik orrenbeste egiteko din aizenik.

Egiña egin izaten dek ordea.

Bejondaikela, mutil!

Zarautz itxaropenez aizatuta zegok irekin. Gauza aundiak itxaro dizkiagu igandik, gauza aundiak eta egun alaiak.

Ekatzak bostekoa!



Basarri soldaduen artean

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-03-22

Kanpoetako aize burrunda ondamendizkoak entzuten genitun, baña otz-bero geiegizkorik gabe geunden; etxe mandiora sartu zitekeanik ez genduan uste egiz.

Itxaropenezko landare bat igartu zaigu euzko baratzen: otso zarpail gosetiak etzeuden ondo berekikoak egin arte.

Abertzale baten odola ixuri da euzko erri txiki bateko kale-tan.

Alderdi oietako berri lendik pixka bat genekigun arren, or, Albacete, Granada, Madrid eta beste zenbait exkiñatan gertatu danarekin arritu egin gera.

Gizonak ortaraño nola iritsi ditezken geure buruari sarritan galdetzerano arritu ere. Usterik gutxienean, ona geure etxea au-zoen antzeko nola biurtu zaigun. Etxe ontan, ordea, sendi askotxo gaude, ta or Ernanin Aranburu aberkidea (Goian bego) lurperatu digutenak euzko odolekoak dirala jakingo bagendu, lenez gain ere kokildurik geldituko giñake. Au ezin diteke, esango genioke geure buruari; euzko sendiak ez dik bere izenik ortaraño nardastu. Ez eta ez!

Gipuzkoa paketsuak oinkada txarra eman bear du. Lendik zearo aldatu bearrean gertatuko da denborale onek arpegi oberik azaldu bear ezpadu. Zuzentzarik ez dan tokian abereak nagusi, ta ni beldur asko aberetuko ote dan...

Jaungoikoa ta Lege Zarra aldeko gudari bat erori zaigu; mundu ontan geiago ez zutitzeko erori ere. Gipuzkoan aspalditxoan gerta ez dana, yaunak. Anai bizkaitar pranko ere badira ordea era berdiñez agurtuak. Guziak goian bitez.

Euzko gudarostea ez da ikaratuko, asko jasan bearrekoak gerala guziok baitakigu.

Munduko abertzaletasun geienak izan diran bezela, noski.

Bakoitza bere tokian tinko dalarik, geure sallak zintzo gordezen ditugularik, otoi gogoz aberkide il berriaren alde.

Ernaniko kaletan odol ixurtu zan gaztea betiko zorionean bedi.



Gauzak itxuratzeraz ote dijoazen zuzmurra dago kanpo oietan. Baña, nork asmatzen du!

Egun batetik bestera sekulako aldaketa arrigarriak dabiltz.

Batean badirudi gudak aitaren egin orduko asi bear duala, ta andik ogei ta lau ordura egundoko pake itxaropenak agertzen dira.

Oraingoan Alemaniak utsegin duala esan dute nazio geienak.

Lokarnoko itunbeatzaz aztu ta zerizkiona egin duala; alegia ez dirala itzeko gizonak azaldu.

Alemaniak berriz erru guzia Errusia ta Frantzian arteko konponketa orri ezartzen dio.

Lokarnoko tratua ausi ta puskatu dutenak Frantzia ta Errusia omen dira. Alemaniako ordezkaria dan Ribbentrop jaunak ala esan du bein da berriro Londresko batzar ortan.

Berriro konponduko diran itxaropena dago azken egun aue-tan.

Anbat litzake.



Goikoetxeko Praixkuk ai zer parrak egin zituan lengoan.

Jakin zuan ba Españako kongresoko asiera nolakoa izan dan.

–Grite usted, ¡Viva la Republica! –¡No me da la gana!, bes-teak.

Gero ukabillak gora jaso ta Internazionala abestu gañera.

Guk, trabenan puxka bat argitutakoan alkarri zerbait azi xamarrrik esaten badiogu, or jarduten dituk atso guziak marmarka, ta legetxe batean kontu oiek, alazankoa!

Lege politik itxaron genezakek andik! Moldoxoak izango di-tuk! To!

–Jaungoikoagatik estatuto apur bat bederik izango al diagu noski, beste gaiñontzean ikusiko dizkiagu geureak eta bost.

Arrazoi zuan Praixkuk. Ni ortan nago beintzat. Erderazo puka bat ere ikasi du ta, Gobernuko gorabera guziak jakiten ditu. Ez ago gozua, arraiotan!

Euzko peko xaltxa bezelakorik etzeok munduan da probintzian!

Uste ez gendualarik araxe deitu ziguten S. Jose egunez, eta sartu añean irten giñan.

Beste lagun jator bi
arturik albuan,
Iñaki kontserjia zan
sukalde inguruan...
Badakizute xaltxetan
orrek zer gaitz duan.
Txoratuko gindula
jakiña zeguan.

Eskerrik asko, on Ramon ta lagunai.

Bildutako sortatxoak (NB)

Argia, 1936-03-29 / Euzkadi, 1936-04-01

Berri berriro jestorak osatu zaizkigu Gipuzkoan. Abertzale ezker-tarrak, Ezkerra Vasca, Sosolisto, Errepublikano alderdi bi, ta... komunista arterañoako guziak barrenean ditugu. Il berriak diran Españiko oñengo kortetan ainbat eunka aldunetatik bakarra zan komunista. Orain, Gipuzkoako aldundi edo diputazioko aulkiak bete bearra iritsi danean, bi komunista exeriko zaizkigu beroie-tan. Arrapaitzak ankatik! Egon beti lo, oiek iñor ez dirala esa-nez!

Oso sarrera polita egin dutela derizkiogu oraingoan; egintzaz itzez bezin bikain jokutzen bazaizkigu, egundokorik gogotsuen zo-rionduko ditugu.

Toyos jaunaren itzak abertzale gixakoak izan dira. “ 1931ga-rren urtean erkal edo errepublika etorri berri artan –dio Toyos-ek-lenengo erkal gobernuaren aginduz gaur bezelaxe leku ontara etorri bearrean gertatu giñan.

Orduan lez itzegiten det gaur ere. Aulki auek, erriaren nai-men indarrez zetozen gizonak bete bear zituztela genion, ta garai artan, erriaren gogoa ikusi zedin, auteskundeak egiñez eskatu genion gobernuari, ta oraintxe ere bigarren aldiz eskaera berdiña egiten diogu: al dan azkarren auteskunde eguna izendatu dezala gobernuak, Gipuzkoaren naia zer dan argiro ikusi dezagun”.

Itz auek guziak jaurlari edo gobernadore jauna aurrean zua-larik bota zituan Toyos jaunak; Frente Popular-en naia au dala geitu zion jaurlariari, ta mandatu guzia osorik gobernuari adie-razteko.

Oso ederki itzegiña dago; gizonari ezin geiago eskatu. Orre-tzaz gañera auzi geiagotzaz ere oroitu zan ordea Toyos jauna.

Gobernuari urrutidatz edo telegrama bat zuzendu bear zi-tzaiola eskatu zuan. Eleitza egin bear zala araudi edo estatutoa lenbaitlen oniritzi ta geure diru ardura, “Concierto Económico” ori

osorik utzi dezala eskatuaz; Errenderiko lanak al dan bizkorren egiteko laguntza gañera. Geuk egingo gendukena, geuk azalduko giñuzken asmo ber-berak azaldu ditu Toyos jaunak.

Azaltzetik egitera koska aunditxo dago ordea. Denborak guzia argituko du. Esandakoak gogoz azaldutakoak badira, abertzale guzien txalo burrundatsuak irabaziko dituzte. Euzkadik go-goan izango ditu. Bai orixe! Arraun aurreruntz! Arraun!

Gomendio jauna da beste jectorako ordezkari bat, eta onetxan gizatasuna agirian utzi nai genduke. Aldundian euskeraz itzegin ez digu ba!



Abisiniatarrak eurenean daude, abertzaleak baitira. Benetakoak ordea! Nazio Batza alkarteak Italia ta Abisiniari pake bideak egiteko asmoz idazki bana ingura zien oraindik orain.

Etiopiako gobernuak erantzun dio Nazio Batzaren agiriari. Erantzunezko lerro aukeratuenez, Abisinia gertu dago paketzeko, baña Nazio Batzaren arautara makurtuaz, eta ez Italiari nai duana egiten utziaz. Abisinia, Nazio Batza txokora utzita pake billa asia ote dagon zabaldua omen dago, baña gezur utsa dala diote euren erantzun argibidean. Italiarrak Etiopiako gudarostea menperatu dutela dion berri ori ere gezur biribiletakoa da, diotenez. Gerra zein da luze neketsua dan esan omen dute. Abertzaleak dira gero!

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-03-29

Igandero'ko Berriona deritzan Iruretagoyenatar Jon erritar apaiz yaun jakintsuak argitaratu digun bigarren zatiari azken imurtziak ematen ari gaitzaizkio.

Ez da geldi egoteko ona apaiz yaun euskaltzale au. Bere errikide geranak badakigu bere berri. Euzko izkien maitale sutsu ta langille aspertueziña da.

Dagokion eran eliz-bearkizunak apalki bete ondoren, egunari gelditzen zaizkion gañontzekoak euskerari opaltzen dizkio. Ika-si ta erakutsi egin nai izaten digu. Izkuntza askorekin gertatzen dana gertatzen baita euskerarekin.

Danik eta geien jakin arren ere, beti leiotxo bat edo beste zabalik jakintzarentzat. Euskeraren aberastasun guziak batera bil-tzen badago lanik asko.

Iruretagoyenatar Jon azkarrak izkelki, dialekto denak aztertzen ditu. Gipuzkoarrean arkitzen ez duana Bizkaieran arkitzen du, ta an ez legokena Napar edo Lapurdieran billatzen saiatzen da.

Azkenengo oni, irakurle, Lapurdiera oni, maitasun bizia dio, ta bertako aunitz itz goxo apain artzen dizkigu argitaratzen di-tuan liburutxoetan. Jon azkarrak aukeratzen dituan itzak euzko jatorri gordiñekoak oi dira beti. Kontuzkoa baita ortan; itz guzien iturburu sustraia jakin nai izaten dizu aurrez.

“Ikasle Ingoski” batean arki genizun liburu au argitaratu za-neko berria. Gaitz samarra ote zan zion errikide ark, ulertu gaiz-toa alegia.

Guri etzaigu orrelakorik iruditu.

Edozein eskutara eman ditekela derizkiogu ulerkaitza dan beldur gabe.

Euskera irakurtzen batere oiturik duanak aixa irentsiko du.

Lenengoa zailtxeagoa zala aitortu bear degu, ori bai, baña oraingoa...

Eliz-gaiak ain ziatz, egoki pillatzen dizkigun yaun argi azkar
au euskerari on aundiak egiten ari da.

Zorionak damaizkiogu gaurkoz, ta aurrerantz pitxi apañez or-
nitu gaitzan goi Yaunak lagun bezaio.

Eliz-gaien egarri zeratenontzat ona asegarri ederra. Erosi, ta
etzaizute damutuko.



Komunismo edo dalako orrek zeregin aundiak eman bear ditu
mundu zear. Bazter guzitan arrunt zabaltzen dala ikusten degu.

Brasil alde ortan dute orain sekulako beroaldia.

Agintariak bildu dira, ta gudaune edo “Estado de guerra” ja-
rri dute.

Larogei egunean iraungo du lege onek, au da gudauneak.

Joan dan azaroko gorrien irtenaldi ura ezkerro gobernua jo ta
ke ari da komunismoa azpiratu naian.

Alare, naiko lana eman bear dute bazterretan.

Ez dek giro mundu zar ontan!

Jimenez Fernandez-ek astindu ditu bazterrak.

Gil Robles-i buruko miñik asko eman bear dio gizon onetxek.

Erkaltar ala erregezale, askaltzale (demócrata) ala faszista,
gizarte-auziaren alde ala aurka zertan diran, eta CEDA zer dan
jakiteko ordua dala esan du gizon onek eta galdera oiei guziai
garbi ta sakon erantzuten buruausterik asko bada.

Osoño Gallardok esaten zuan bezela, Errepublikarekin agin-
tzen bi urte igaro, ta orain beren buruai errepublikano ala errege-
zale diran galdetzen ari bearra marka ta arraia da gero! Gezurra
dirudi, yaunak.

Orañoan irabaziko balute, laister jakingo genduan zer ziran.



Udaberrian gera, yaunak! Urtearorik alaitxoenean ezbairik
gabe. Erromako zubia igaro ta emen degu kuku abeslaria.

Gañoontzeko txoriñoak ixiltzen ez dirala dauzkagu. Oien sa-
soia!

Euzko baratzak bai eder aro ontan. Ordeka oro orlegitu zaiz-
kigu. Guzia apain, guzia poz-yario. Au izadiaren ederra!
Irakurle, atoz nerekin Lizardingana ia zer dion:

Ibil, txoriok, ta kanta alaiki,
negu agurea illa da baiki,
lurra sotil baitago elurrez.
Oro dezaken esku naroak
erein baititu soroak
ogi berriaren apurrez...



Txirritari omena, 1936-III-22

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-04-11

Abisinia gaxoa gorriak ikusten ari da. Beretzat errukizkorik ez-paita agertzen. Diotenez, laister urak izango ote diran beldur dira Italiarrak, eta oraintxe saiatu bear jo ta ausi. Bazter guziak sutu ta ezereztu bear dituzte. Oien bonba ta oien aurrerapena! Errudun aitorturik, Italiari zigor gogorra ematekotan ziran beste nazioak, baña, esti ta atzera beti. Bitartean ark jasan bear jasatekoak. Ori zorigaitza Abisiniagan erori dana!

Abertzaleak izaki, ta emandako itzari eusten diote oraindik. Euren aberri aldezketan azkenengo odol tanta arterañoakoak go-goz ixuriko zituztela agindu zuten, ta argiro dakusgunez, artaraxe dijoaz. Negus-en aitortza deklarazio batzuk argitaratu ziran lengo egunez. Onela dio zati batek:

Etiopetarrak beren aberri aldezte lanetan jarraitzeko gertu dau-de. Azkenengo italiar arroputza geure naziotik uxatu arte ez gera geldituko. Denak gure aurka dirala jakin arren ez degu atzerarik egingo; burrukan leiatuko gera. Ez degu pakarik eskatuko, baña Laterri Batzaren arautara makurtuaz konponketarik egin al baledi, artara ere jarriko giñake ziñez.

Biotz aundiko gizona da Abisiniatarren agintari burua. Bere-koikeriz eta aundinaiz urtua egon ezpalitz, Mussolinik adiskidetu bear zuan jaun orrekin.

Ez daude ortarako Mussolini ta Italia. Fazismoaren apan eta agerkai guzia guda da, ta ori gabe ez dute lo lasairik. Ori itsume-na! Ori ustea!



Badakizute, noski, non bizi naizen. Zarautzen, karlo-integris-ta enda orrek beretzat aukeratutako kabitxoan. Etzazute izpar au parre irriz artu; ez nuke naiko orixe.

Karlo-integristak Zarauzko errege izan dituzu beti. Beti! Be-ren esku guzia, beren menpe dena.

Eurak esango luteken “naxionalismo” edo dalakoa sortu zan ordea, ta orain komeriak dira. Lengo konturik ez, alegia.

Imanol alderdikidea oso asarre arkitu nuan lengoan. Aren itzegin bearra ta aren imintzioa.

–Alperrik dala, Basarri –zion– sonbra txarrekoak gerala, kuakak beti oker jotzen digula, onela ezin ditekela...

–Baña, motel...

–Zer baña ta zer milla demonio! Mundua sortu ezkerotzik, entzun ondo, mundua sortu ezkerotzik sekula bein gertatuko udalletxean nagusi izateko eran, ta orduan auteskundeak atzeratu? Au arpa jotzea dek gero!

–Ago lasai –erantzun nion–, artu zak petxu, egun ori iritsiko dek eta...

–Jainkoak zekik noiz –esanda aldegin zidan.

Zarautz, irakurle, karlo-integristak eurentzat aukeratutako kabia dezu. Oñengo erri auteskundetan amabi ziñegotzitatik bakarra genduan gero abertzalea.

Imanolen estutasuna ezagutzekoa da alde batera.



Aspalditxoan beti izpar beltz illunak emanaz gabiltz. Izan ere, nere mendi bordatxora ez dator ezer alairik. Mundu guzia azpikoz gain baidakusgu!

Unetxo labur batean bederik goazen alaitzera.

Bordatxoan lengo egunez bildu giñan artzaitako bati ondoren dijoakizuten zati au entzun genion:

Naparroako sailletan tren-zubi bat egiten egungoko Gipuzkoar mutil mordoa ari omen zan. Lanari utzitakoan, alaitasunez* omen zituzten. Alkarrengana batzen omen ziran denak, eta bateko bertso ta besteko ipui, beti alai ta argi, noski. Ernanitar bat bai omen zan Fernando baño xelebreagoa. Bertso zarra erruz zekian, noski. Egokiak etziranak ere bai tartean. Egun batez la-

*ezin irakurri.

nari utzi ta ardangela batean zeudelarik, –Zeñek bertso txarragoa bota edozeñi litro bat ardo! –otsegin zuan.

Len ere orrelako desapioak sarri egiten omen zituan da zaraustar bat naiko amorra egiña omen zeukan.

–Jokatzen diat litro ardoa!– esan omen zion zaraustarrak–, neronek ere oso egokia ez dan bat bazekiat-eta.

–Gañekoak ziñaldari testigu, e?

–Bai, bai.

–Asi ba!

Ernanitarrak abestu omen zuan lenengo, zekiana:

Aurten urte ona da
artuak usteldu.
Aranoko neskatzak
ezkontzea amets.
Amezketako ardiak
esnea galanki.
Utsa baño obeak dituk
ogei milla duro!

Ondoren zaraustarrak:

Abejondaskakiozula,
Txirul Antonio.
Orbelaungo* ataian
daukazu trillua.
Orain Zarautz ortara
asi omen zera.
Emendikan aurrera
obeto kantatu.

Entzule denak parrez lertzen gelditu omen ziran, ta ez omen zuten erabaki txarrena zein zan.

* “Orbelaun”, Aiako Laurgain ballarako etxe bat da.

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-04-19

Euzko araudi estatutoaren mardultze garaian gaude: estatuto aro betean. Egun auetan beste konturik ez degu entzuten; araudia gora ta araudia beera.

Euzko Alderdi Jeltzalea naigabetu ta samindu duan gertakari bat izan da tartean. Alde guzitik etsaiz josiak baigaude, ta etsaian egikera etsaikeria izaten da.

Katalandarrak Euzkadi ikertu digute oraingoan ere. Macia zanaren (G.B.) oroitarri bat erriari agertzea oldoztu zan or Bizkai aldean, ta Kataluñako abertzale aundi sendo ari Bizkaian egin bear zitzaion omen ortara Kataluñako gobiernuak bere ordezkaria bialtzea erabaki zuan. Puig Ferrater jauna etorri zan ango gobiernoaren izenean. Orretzaz gañera Macia zanaren alaba, ta beste ango goi mallako jaun batzuk.

Bizkaiko ezkertarrak, Katalanak Bilbaon zituztela ikusirik, Euskalduna pelotalekuan jaialdia antolatu zuten.

Emengo ezkertarrak itz-tokira, tribunara igo ta Euzko Alderdi Jeltzaleagatik egundokoak esaten eraso zioten, lendik oitura duten bezela.

Emengoen jarduna entzun ondoren, ainbateko gorrotoa diguten ezkertarren esamesak poztuta edo, Puig Ferrater, Kataluñako gobiernoaren ordezkariak ere Euzko Alderdi Jeltzaleagatik gaizki esaka ekin zion, ta zerizkionak jaurtita gero ixildu.

Gure alderdiak mintzatzeko zio edo motiborik asko bazuan, noski, onekin. Ain maitea ta gogozkoa degun Kataluñako gobiernoaren ordezkaria geure etxera etorri, Euzkadira inguratu, ta bertako leloak naikoa ez dirala, ura ere Euzko Alderdiaren aurka itzegiñaz?

Mingarri izan zaigu Puig Ferrater jaunaren jokera. Zer lur zapaltzen dan ikusi bear da lenengo. Bi edo iru txatxuren esanetara murgilduaz ez Euzkadi abertzalea iraindu. Euzko Alderdi Jeltza-

lea dijoan bidetik ezpalijoa, autonomizale sutsu ezpalitz, Kata-luñatik etorri ta “Estatuto Vasco”ren aldezeleak dirala esanaz, zein bereganatuko luteke?

Bizkaiko erritan opaldu dioten arrera ikusten lanik izango ote zuten?

Deusto, Begoña, Abando ta Bilbaoko aberkideak Kompanys lendakariari biali dioten urrutidatz telegrama bidezkoa deritzaigu.

Itzak ondo neurtuta esan bear dira. Euzkadiko nagusitasuna (mayoria) bere esku daukan alderdi matxuragabea era ortan era-biltzea, zauri aundi batekin uztea da. Ez det uste gure alderdiak ezer txarrik egin diotenik.



Oroitarria azaltzea asteartez egin zan, Errepublikaren egu-nez. Aurreguneko gaizki esate ta nardaskeri guziak gogoan izan arren, Euzko Alderdiak zintzo erantzun zuan.

Macia-ren oroipenezko jaia zan, ta Macia oroitu ezkerro gañon-tzeko txikikeri xixtriñak alde batera uzten dira. Deuston argitara zuten Macia-ren oroitarria.

Itzaldiak izan ziran. Beste geiagoren artean Agirre aldun txa-logarria ta Prieto ezaguna izlari.

Estatuto alde al duan guzia saiatuko dala agindu zuan Prietok. Baña etzala naikoa estatutoa ekartzea ta izatea, ura etxe-ratzen danean, langille auzia gizarte-zuzentza bikain eta sendo gorde bear degula, langilletasuna zuzentzea lenengo eginbearra dala. Oiek guziak entzun ondoren, gure Agirre entzutetsua zuti-tu zan, ta entzuleak bai belarriak erne jarri ere. Itzez itz Prietori erantzun ziola esango genduke:

Estatutoa ekarrita langillearen ondamena baletor, diruakiko aundiak nai dutena egin bear badute, beekoak ondatuak diran bi-tartean, atxipezko kapitalismo bidegabeak pentsatutakoa egin bear badu, guk, Euzko Abertzaleok ez degu araudi edo estatutorik nai.

Guk estatutoa, gizarte auzia kristau-zuzentzaz sendoturik jarri, ta 1929garrenean kendu ziguten askatasunari bide egitea nai degu.



Izan ere, irakurle, langille auziatzaz nork eman du eliza katolikoak bezelako irakatsirik?

Langille gosearen asegarri, Marx, Lenin ta Stalin-en dotriñak bakarrik ote dira ba?

Leon amairugarrenaren, ta eguneko Pio amaikagarrenaren aginduak beterik, goian izendatu ditudan gizon oienak beteta ainbateko onurik ez ote letorkio langilleari? Eliz-buru agurgarri oien dotriñak melarragoak, ezerezagoak ote dira?

–Gizarte guziarentzat gaur mundua ain larri darabilkian langille-arazoarentzat sendagairik onenak eskutan zeuzkagu Basarri –esaten zidan lengoan gai auetan buru-belarri dabillen jesulagun jesuita batek–. Bete egin bear, –zion–, bete egin bear aginduak!

Gure irakasle Sabin aundiak argiro idatzi zuan: *De su alma y de su pluma* liburutxoko 240 orrialdean irakurtzen degu. Langilleoi esaten digu:

“Uzkurtz edo erlijio katolikoaren barrutian arkituko dezute, askatasun, berdintasun ta anaitasunik geiena”.

Estatutoa datorkigunean, eliz-arautara makurtuaz egiazko gizarte zuzentzarekin asten bagera, European erririk zoriontsuen eta paketsuena gurea izango da.



Euzko araudi ori kortetara aurkeztu dute. Jimenez Asua-ri eskutara eman zaio. Iru probintzitako aldunak an ziran aurkezterakoan. Gaizki esan det. Oriol, Arabako alduna palta zan. Atzerrian izan bear du. Estatutoak emengo aldunetatik etsairik izatezkero, Oriol izango du. Kanpotik dabillen bitartean gauden ixillik. Onenean, alde amorratuena bera izango baida.

Lendik gauzak asko aldatu dira.

Kanpotan ez da gero letani goxorik entzuten...



Azaña ta Pikabea alduna bertsotan gogor egiñak dira. Konperentzi aretoan arkitzen zan Azaña osteguneko bere itzaldi sonatua egin ondoren, ta une artan gure *Alzibar* azkarra pasaran

gertatu. Azañak ongi-etorria egin zion Pikabeari, ta onek zorionak eman zizkion egin zuan itzaldiagatik.

Zorionik etzuala merezi erantzun zion Azañak, etzala artarañoeko gauzik izan-eta.

Aurregunean, bezperan, Irazusta jaunak esandako gauzik ezer ez ikutzea pixkabat sentitzen zuala esan zion Pikabeak. Ondo izateko estatutoa aitatu bear zuala.

Orduan, asmo txarrez egin zuanik ez pentsatzeko erantzun zion Azañak. Ta, Irazustari ori adierazteko. Beste izlariak aurregunean esandako puntu zallenari erantzuten aritu zala.

Alzibar-ek eskertu zizkion itz auek

–Orain Erkalaren lendakari (presidente de la República) egin-go ote zeran entzun det, eta asko sentitzen det orixe.

–Bai, baña zera, *Republika Vasca*-ren lendakari egingo naiz, eta ikusiko dezu orduan Ondarrabiko tanborradak nola antolatuko ditugun...” –erantzun zion Azañak.

Kortetan ere bertsotan
bakoitza beretzat,
bixtan dago ori jakin
nai duanarentzat.
Oiek orrela jarraitzen
badigute beintzat,
ixtimaziorik ez da
izango guretzat.

Bildutako sortatxoak (NB)

El Día, 1936-04-19

Bein bear zuan da, erneatu xamar agertu du mokua Velarde es-
pañatar patriota gloriosoak (Baskuentzez ere badakigula...).

Piper miñez igurtzitako bigarren idazkia zuzendu dio *Alzibar*
bizkorrari. Panparroi agertzen zaigu, dakusgunez.

Bere burua ez dauka loitarako. Ez, arrania!

Nere ustez orratik, Parisen arturik daukan etxe sastarreko
laugarren bizitzatik tximini ondotik neurrigabe lumari, plumari
erreztasunak emanaz baña, gertatzen zana gertatzen zala, emen-
go ezker, gorri, extremixsta purrukatuai aurre emanaz gelditu
balitz, bere izena goi mallan jarriko zuan, bere burua askoz go-
ragotik geldituko zan. Gaur, ordea, benetako bertsolari esnatu
naiz; itz neurtutan obeto argitara nezazke irakurleai bearreko
zaizkion aletxoak.

Kontutxo batzuk jakin zituan
lengoan izparringitik;
Velarde jaunarenak ziranda
arritu nintzan gogotik.
Ez dala ura iñoiz damutu
len egin zuanagatik,
atzerapenik ez dala izango
bein artu zuan bidetik.
Erronka pranko jotzen du baña
mugaz aruzko aldetik!

Karta bi onuntz biali ditu
pozoitsu, betiko gisan,
euskaldunentzat errukirikan
nola iñoiz ez dun izan.
Esaten duan ausardi ori
orain azaldu bear zan;
Parisko etxe batean dago
eta laugarren bizitzan.
Españiaren salbatzalleak
orra nolatan dabiltzan.

Txit adiskide ez omen dago
Velarde diruarekin,
idazten asiko litzakela
lansari koxkor batekin.
Pixkat jolastu nai luke arek
ikusten danez beñepein;
toriatutzen asi da baña
oso zezen txarrarekin.
Ai, *Alzibar*-ek ondotxo daki
orrelakoai zer egin.



El Día-ko artikulu sakonak irakurri ditugu ta bai ontzat artu ere. Eleitza, araudia, estatutoa ta abar datozkigun itxurak dira. Ordu onean betoz.

Baña, jaunak, ao zabalka lozorroan ez gaitzatela atxitu. Arre-
ra on bat egin dagiegun; gertatu gaitezen. Berotasun aundirik
azaldu gabeak gera orain arte.

Estaduaren ikastoletan ezer egiterik ez gendukan arren, ala-
koxe zirrikitu txiki batzuk bagenitun euskerari bide pixka bat
egiteko. Ain gogotsu ta sutsuak izan bagiña, egin degun baño
geiago egin bear genduan. Ezin jarri ordea. Politikara murgiltzen

gera oso osorik, eta bitartean abendaren aldezerik bikañena bazterrean dagoala erdoitan!

Poloniar abertzaleak kaletan, ikastoletan, akeitetxetan, bazter guzietan eragotzia zeukaten euren izkuntzan mintzatzea; alaz guziz ere ordea, talde sendoak osaturik, erritik urrun mendi mal-karretara joaten ziran Polako izkuntzaz ikastaldiak egitera. Gu ez gaituzte ain gogor artu; ez guk aiek bezelako zaletasunik agertu ere, orratik!

Oraingoan itxartuko al gera. Ezagutuko al degu, noski, Guraso Alkartasunaren garrantzia. Eldu lanari jaunak! Irlandatarrena ez dedilla gertatu emen. Arraun!



Jestorak bere batzarra egin berria du. Oraingo onen aurretik egindako batzarretan etziguten gaizki itzegiteko biderik eman. Oraingoan ere, ba, ez degu ziorik billatzen txarrerako. Ezkerrak edo nai dutenak izango dira, baña... aspalditxotik aldaketan dabiltzan jestoratan orainguak aña euskal usai azaldu duanik ez da izan.

Azken batzar onetan, Aldundiko edo Diputazioko idazkari pres-tua dan Leizaola jaunaren jakindurizko almenak ezaguturik, eta jaun onek len aldun edo diputadu izan zanean egindako ainbat lan txalogarritzaz oroiturik, estatutoaren bideak urratzera len-baitlen irixteko modua egitera beste lagunen artera bialtzea erabaki dute. Estatutoa lortzeko il ala bizi ari diran jaun agurgarriak Leizaola jaunaren laguntza izango dute gaurtik aurrera. Ez dute adiskide txarra!

Ea ba nola tajutzen geran! Aurrera!



Euzko Idazle Batzarran deia entzun degu. Ez degu esango asmo txarra jaio zaiotenik.

Monzon azkarra goraldtu ta omentzeko asmoak dagerzkigute, ta oni buruz gure baietza laister eskuratuko dute.

Neri beintzat asmo goralgarri ta txalogarria deritzaidala jakin bear dezute.

Nik neure begiz orain bost edo sei urte dirala, neure errian euskeraz ez jakitearen biotz-miña lenengo agerturik, erderazko itzaldi guren aintzagarri bat egiten senti nizun, ta gaur, esan dedan bost edo sei urte arloteren buruan, euskal izlaririk onentxoe-na izatera eldurik ikusten dut.

Euskeraren maitale sutsu orri, euzko izkien irakurle aipagarri orri, geure esker ona ta beraganako degun maitasun gartsua azaldu bear diogu euzko idazleok.

Monzondar Telespor nor zaigun agertuaz zerbait idaztera bearturik gaude lenengo. Batzordearen aginduak bete ditzagun ordea.

Azken auteskunde komeri auetan ere argiro ikusi da Monzonen gizatasuna. Idazteko gai asko dago.

Asi ba gogoz. Eup!

Bildutako sortatxoak

Euzkadi, 1936-05-08

Udazalerik zintzoen eta ziurrenak eldu zaizkigu; aldi baterako osatua arki dute.

Adiskide leial bati entzuten genion lengoan: “Bost duro apustu egingo nitxeozkeek edozeini, Santa Kutz eguna baño len enada azpi beltxdunik ikusi ezetz, eta Santa Kutzetatik berrogeita zortzi ordu barru baietz!”

Lenago iñoiz entzun izan deguna da au, ta gizon aren esanez gañera artega egon gera zer nabarituko. Arrazoi zuan, arranea! Aurtengoan ark esan bezela gertatu da beintzat. Ez genion apusturik egin eta ala obe. Udazalerik zintzoen eta ziurrenak eldu zaizkigu.



Banakak oi diran bezelakoa orrillak eman digun lenengo igandea. Egunsentiko eguzki txinpartak egun artan etxe-zuloa uzteko eskatzen zigun; etxe-zuloz batera kale ordekek utzirik goiari ekiteko. Ez genion entzungor egin nai izan; burumakur baña alaitsu bere deiari erantzutera jarri giñan. Goi edermenak zora bear gindun, ta batetan Lizardi aundiatzaz oroitzen giñan:

Maite ditut gallurrak
argiak ez beste...
Ai, egaztia banintz
gañik-gain nenbilke!

Artzai mutilla azken larretan arki genizun. Txistulari alaia bera; artzai asko oi diran bezela. *Txuri* txakur bizkorra lagun zualarik ezpaizan ezeren kezkarik. Aterrera asitako ardi bildotxak zuzentzeko nor oberik?

Lagunak Aralar gallurrera aldenduak zituala esan zigun gure artzai mutillak, eta alditxo baterako egal auek utzi bearrean zala bera ere. Aldirik zoriontsuena opa geniola esanaz agurtu genduan.

Beruntz begitaldi bat emanik, euzko kai paketsu oparotsuak ikusten genitun. Kai barruko Ama garbiari txapelak eskutaraturik euzko arrantzaleak otoiz dagoiten artean, ontzi ostatu apal oietako pakerik ez da urratuko.

Azkenik, gure basetxetako lore mardul bat bide betean. Igan-deko eliz-bearkuna zintzoki beterik etxeruntz dira. Bere sorlekua nor zan galdetzean, eskubiko esku beatz luzea aurreraturik Elis-sambourek añako pozez dagerkigula iduri zaigu.

Ikhusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gainean.
Etche ttipitto, aintzin churi bat
lau haitz ondoren erdian.
Chakur churi bat athean,
iturriño bat aldean.
Han bizi naiz ni bakean...

Elkano, Santa Kutz, Ibañarrieta, Arrua gañok... zenbat burutapen sortarazi diguzuten!

Banakak oi diran bezelakoa orillaren lenengo igandea. Guk gogoan izango degu.



Bear-bearreko pitxia eman digu *I. Urkina* izenpe apalaren erreñutan gorde dan idazle gurenak. *La democracia en Euzkadi* deritzazko liburuan Euzkadiren garai bateko edergalluak argiro ikusten ditugu. Demokrazi-iturburu Euzkadi gure aberria izan zaigu eunka urtetan.

Euskal sendien gizatasuna aurrean dakusgu. Sendiak, Udalak izandatzen zituzten; Udalak, Batzar Nagusitarako arduradun

edo prokuradoreak artzen zituzten, eta azkenik Batzar Nagusiak euzko estadutako Aldundi nagusia sortzen zuan. Jauntxokeririk etzan ezagutzen; gizona zanak laguntzalleak beti bazituan.

Urkina jaunak Euzkadiren sei laterri edo estadutan iraun zuan demokraziaren berri zeatz eta zuzen eman ostean, demokrazizko errien sona duten Grezi ta Ingalaterra erkatzen ditu Euzkadirekin; gure erria guzien gañetik ager zaigu ordea. Aurrerantzean zer bide artu bear dan argiro azaltzen digu *Urkina* argiak. Aldaketa txiki batzuk egitea on litzake aurrerantzean: “Euzko udalai askatasuna eman bear zaie baña ez guzizko aginterik. Ondarrabi, Urantzu ta Lezo Gipuzkoari agur eginik Naparroari lotu zitzaizkion len. Guzizko agintea zutelako udalak. Udalak askatasuna bear dute euren gaietan, baña laterri batekoak izateari utzi ta beste laterri batenak izatera irixtea ez da bidezkoa”.

Argibide ederrak damaizkigu idazle ospetsu onek. Euzko edestiak gorako aundia du ain sakon biribildurik eskeñi digun oraingo zati onekin. Zorionak egilleari.

Pagoetako Gurutzea

El Día, 1936-06-04

Odrizolatar Joxe Mari

Makatzeta izenez ezagutzen degun argin jator au degu gurutzegillea. Gogozko lantokia zuan Joxe Marik Pagoeta; askotan mendia peoiak estaltzen baitzuten. Aiako erria ezin da obeto portatu zan. Erretore jaunarengandik asi, alkate ta azken txokoko base-ritarra arterañoakoak euren laguntza eskeñi zuten. Artzai jatorra pranko sortu zan erri ortatik. Zarauzko gaztediak ere oso ondo erantzun zuan. Gure Joxe Marik oitura duan txukuntasun da maixutasunez bere bizitzan egin duan lanik ederren da aintzagarriena ikusgai utzi digu. Merezi ere baduala ta bere argazkia ementxe argitaratzen degu.

Gizon jatorra ezpadago ba?

Beristaindar Jagoba

Abertzale oso-oso degu gazte bulartsu au. Abertzaletasun gaiz eskatzen zaion edozer egiteko beti prest dagona; berak egin da besteri egiñarazten dakiana. Ai, onelakoak dozenan amairu bageñu! Obe genikek zerbaitxo baño!

Bai, irakurleak, Pagoetako gurutzea zutintzea ere Jagobaren asmoa izan zan. Pixkanaka pixkanaka udarea eldu egin zan. Bateko arpidea zala, onelako ta alakoren laguntza zala, au zala ta ori zala... Kontuak kontu, iristen diranen eta ikertzen duten guzien arrigarri dan gurutz donea tinko ta zut daukagu gallur aipagarri ortan.

Meza donea

Joan dan urteko garagarrillaren lenengo igandean izan zan gurutzearen onespén eguna. Gotzai agurgarriarengandik baimen guziak lortu ziran. Barrenean zirrara ematen egun artako mendi

gañeko edertasunak. Ango mezaren ederra, jaunak! Ango jendea, angok abestiak. Aztu? Egun ura aztu? Ez orixe!

Aurten ere baimena badegu

Gotzai agurgarriarengandik eldu zaigu, ta aurten ere meza donea izango da Pagoetako gallurrean. Mendi erpiñetako meza zer dan eztakizutenok uraxe entzuteagatik bakarrik joan bear zenduteke.

Abeslariak

Bost edo sei zumaiaur genitun joan dan urtean Etxabe buru zutela, ta aien yayotasun da abots lilluragarriak kokildurik gelditu giñan. Datorren igandez ere zumaiaur abeslari taldea izango degu Joxe Etxabe lemazai dala.

Aizu, aiku, Joxe, Patxi Olabeaga amorratzen dago gero egun ortarako, e? Aste ontan arrautz gorringoak jango omen ditu. Zer ikusi bear ote degu igandean?

Bazkaria

Saberri basetxean izango degu, igaz bezelaxe. Jendea gogor asi da izenak ematen. Ondo ta merke jateko ezta txarra Saberri. An bazkaldu nai dezuten erritarrok, lenbaitlen izena eman Euzko Etxean. Kanpotik etorri nai zendutekenok, Zarauzko Euzko Etxeara deitu. Entzun?

Arratsaldean

Gorulari ta ezpadantzariak euren bizitasunak azalduko dituzte. Igaro dan igandean Cinema pelotalekuan ainbateko gurenda lortu zuten dantzariok, goiko zelaiondotan dantzatuko dira.

Izlaria

Zein etorriko ta Monzon jauna, alajaña! Bai, jauna, bai. Euskalerri guzian arrapazka darabilkiten mintzalari trebe au datorkigu. Ainbateko izena daukan aberkide bulartsua degu igandez Pagoetan.

Basarri gixajo oni ere bertso batzuk bota bear dituala edo esan diote, ta al duana egíñez an azaldu bearko du. Erromeri ikusgarri batekin bukatuko dira pesta zoragarriok.

Mendizaleok!

Egun oso bat mendiarri eskeñi nai badiozute, ona emen aukera ederra. Olako era ez dezute noiznai izango.

Mendian meza, mendian abestu, mendian itzegin, mendian jan, mendian jolastu, mendian guzia.
Ea, mutillak! Antolatu iganderako!



Pagoetako egunean, 1936 (J. Elozegi)

Pagoetako Gurutzea

El Día, 1936-06-06

Aurreko aldean ager zaizuten bezela, au dezute ainbateko izena bereganatu duan Pagoetako gurutzea. Artzai batzuk baño iristen etzan mendi galparra zenduten len, ta orain igandero ikertzallez estalirik daukagu.

Datorren igandean bertan batuko dan jendetza ikusgarria izango dalakoan gera. Batekin da besteakin izketan jarririk, igandez “gora igo pesta” besterik ezpaitegu nabaritzen.

Aizu, irakurle!

Igandez igotzen bazera, ondoren damurik ez dezu izango zuk ere. Ba dakizu!

Argazkian dakusguna

Gure Olabeaga txikiak eztaki idazten da antzezten bakarrik. Argazkilari bezela nor bera añakorik?

Gaur argitaratzen dan au ere berari zor zaiona da.

Gurutze orpoan dakusgun gazte au da Beristaindar Jagoba, lengoan aitatzen nizuten bezela, gurutzea egitea ta zutitzea bururatu zitzaion aberkide bizkorra.

Zorionekoak bee ontan gurutz egarri diran gazteak-

Neurriak

Gorakoa: 8 neurkin edo metro ta 70 eunen.

Zabalera: 4 neurkin.

Lodian: 45 neurkin-eunen edo zentimetro.

Goi ortako edermenak ondo milixkatu nai badituzu, igandean bertaratzea dezu onena.

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-07-03

Asmo goralgarria Euskaltzalea bazkunarena. Gorasarre bat aspaldi irabazia baizeukaten Azkuetarrak. *Parnosoko bidea* argitara zigun olerkariak eman zaion aitamena ondo merezia zuan. Bere garaiko neurtizlarietan goi mallak artua baizan.

Bide batez semeari ere gorasarre ori luza nai zitzaion; alaxe egin zan.

Egun aundi, eder, zoragarria izan zan. Ezin ukatu, noski. Baña, yaunak! Azkuetar Berbiz Mirenak, R.M., argitara dituan liburuak batera ikusten nitualarik, ereslari, idazle, ipui ta kantu biltzalle bezela Azkue yaunak egin dituan lanak pillabatez aurrean nitualarik, alakoxe oldozkizun batzuk landa zitzaizkidan.

–Gizon au bizien artetik aldentzen danean, milla aldiz aundiago, aipagarriago izango duk ba –nion nereko–.

Azkue zer zan ikustean, orduan asiko gaituk arretaz.

Onek onela bear ote du? Beti onela?



Azkuetar Eusebiren *Parnosorako bidea* 1896garren urtean argitaratua da. Gure izkuntzak mendi malkarretan ezpada etzuan lekurik. Gaur ere ondo gaude gaitz ontatik. Alare, orratik, pozezko agerpentxo bat egin bear degu. Yakintzazko gizonetan gaur ondotoxore laguntz ohea dauka; aldeze bikain, langille asperteziñak bere altzoan baditu ordu guzitan. Bear ainbat? Ori ez, noski.



Lauaxetaren idazkietan irakurri izan dut.

Erdipurdiko pelotari, ostikolari, burrukari edo beste motetako edonor alde guzitan ezagutua eta ao guzitan toki duana izango dala. Zerbait bere berri emango ez duan gazte gutxi arkituko dala.

Idazle guren, olerkari bizkor, edo izkuntzaren ertilariak, ixiltasunaren babesean makurtu bear izaten dutela.

Azkuetar Eusebi ere era berean gertatua zan. Ainbat bertso ta olerki azaldurik zeuzkan arren, olerti alde z ainbat alegindu zan arren –Manterolak dionez– berak bere *Cancionero Basko*-n olerkariaren berri eman zuan arte dozena erdi bat euskaltzalek baño etzuten ezagutzen. Erria etzan ezertaz oartzen. Zeren poza lanerako?

Bere laguntzallerik onenak, gutxien eskertzen ziranak. Zer zoritzarra euskerarena! Zenbat seme ergel! Ene!



Azkuetarren omena bide, itxaropenez aizaturik utzi gaituzten landarak nabari ditugu. *Giza adiñak*-en egilleangandik zenbat itxaropen degun...

Ori gauza ederra sortu digu! *Giza adiñak* bai tajuz aztertuak olerki ontantxe. Aurtzaro aldiak bete-beterik ase-ase egiñik utzi gaitu. Beste guzia ere goi goikoa ordea.

Apaizgaiarena moldatu diguna ere apain, izkuntz erabiltzalle adigarria. Euskera menpe duala dirudi, arranetan.

Euskerari egun aundiak eman bear dizkiotzute. Ele zar aintzagarri onen gudaririk sendoenetakotzat yotzen zaituztet:

Arraiak dabiltz urtatik,
nekazaria lurretik.
Guztiok saia bear baitegu
nor geren aldetik.
Zuek olerti bidetik,
yarrai aurrerantz bertatik,
izkuntza zar au esna dezagun
lozorro ontatik!



Ainbat eratara goraldtu bear degun Lekuonatar Imanol, poema sarituaren egille. Erriaren barne-muñetan murgiltzen zaigu yaun

au, ta erri orren izakera ta gañerako era guziak berak yasotzen dizkigu ondoen. Poemaren asiera ezti uts irudi zaigu oraingoan ere. Eresidun dalarik, errikoi ta entzungarri izango da.

Eun dukat-en giarra euzko giarra da gero...

Antzertiz giarra artu bazuan, olertiz arki ez duanik ez degu esango. Euzko erria onetxek bai ondo ezagutzen duala.



Lekuonaren izena gogoan yasotzekoa izango degu. Gure itxaropen diran landare gazte guziai itzal egindako zugaitza bera baita. Euskera aldez datozkigun gudari bulartsuen buruzagia ez degu aztu bear. Ez orixe.

Egunen batez argiago itzegingo degu, J.L. Amaika on egindako Don Manuel! Etxea bete zorion guzientzat!

Bidaniko garaitza

Euzkadi, 1936-09-01

Euzkadiko zuzendari prestu txalogarria dan Ibon-ek noizbeinka abertzale garaitzak izparringian agertzea zein pozgarri zaion agertzen zidan.

Zuzendari maite orri argitaratzea pozgarri bazaizu, idazle txi-ro oni garaitzaren berri ematea ezin da pozgarriago zaio. Jel-baitan biltzen geranok, Jel-en gurenda zoratze ainbateko pozez ikusi bear.

Irakurri ba gogoz ondoren dijoazkitzuten lerrotxoak; gurenda lerroak dituzute.



Loiolako kuartelean biltzen geran gazteok, agintarien zai irmo gaudenak gera, goizean yaikitzen geranetik illuntzean oeratu arte. Agintariak Bidanira egundoko gazte mordoa biltzea erabaki zuten. Esandakoak yoan ziran, guri etziguten agindu ta Loiolan gelditu giñan. Orain ango burrukaren berri ematerakoan, an aurrean ibilitako abertzale trebe yator batzungana zuzendu bear izan det.



Mutrikuk Loiolara biali duan abertzale taldea ongi goraldu bearrekoa da. Biotz aundiko gazte mardulak mutrikuarrak. Bai abertzale egiñak ere! Arranea, yatorrak dituk! Arrizabalagatar Imanol eta Zabalatar Pantzeska ere mutrikuar taldeko Jeltzale sendo bi dira; Bidaniko burrukaldiaren aurreko muturrean ibilitako bi.

Estuasun da larrialdirik asko ikusi du Mutrikuko taldeak. Bidaniko gudaldi beltzean bi lagun galdu zituzten. Talde goralga-

rri ortan, bi anai zintzoren utsunea dute burruka ura ezkerotzik. Bizi diran, il diran, edo non diran berririk ez dute. Ezerez!

Zer zorigaitza! Gudaren irabaziak auek dira! Urrengo batean zerbait idatziko dizutet galbide itun oni buruz.



Mutrikuar gazte auek, goian izenez yartzen ditudan auek, illaren amazazpian eldu ziran Bidanira.

Inguratu ziranerako, erriko etxe ta aparte antxeko basetxe guzitan ikurrin zuriak zeudela ikusi zuten. Bazter guzitan reke-teak baizeuden.

Loiolako gudari guziak irakiten zeuden; aurregunean, bezpe-ran, buruzagi argi, aberkoi leial, langille aspertezin bat etsaien balak apurtu baiziguten. Aurregunean, Alberdi aipagarria.....* lez eroria baizan.

Ortik pentsa yendea nolako suaz egongo zan!



Aitatu dedan astelen ortan, agintariak, kapitan eta gañon-tzekoak lanik asko izan zuten gazteak baretu edo geldituarazi eziñik. Bat-batean reketeangana sartu nai zuten mendigoizale bulartsuak.

Etzan komeni ordea. Asteartean izan bear zuan tiro leiaketa-rako tokiak gertutzea, gañak artu ta an ondo yartzea komeni zan orduan.



Asteartea.

Gazte kementsuak nai bezin azkar ezpazan ere, eldu zan zo-rioneko astearte ura.

Baeza** izeneko basetxe atarian bota ziguten Alberdi. Basetxe ortan zeuden napar gudariak.

*ezin irakurri.

** BERAZEAGA baserria, Ernio maldan.

Loiolako gazteak, basetxe ori oso egoki artzen zuan egal batean yarri ziran.

Euren pusillakin illaran yarri zan mendigoizale talde on bat. Sistiaga, Iruretagoyena, Sodupe, Altolagirre ta abar morteroak deritzaioten izkillu oiekin ziran.

Ekin diote jo ta ke lanari, ta aurrenetik basetxea ongi neurzen ezpazuten ere, alako batean Sistiagak artu dio morteroari neurria, ta... rauk!, goiko tellatutik sartuta etxe guzia arakatzen dute Sistiagak yaurtitzen dituan erroskillak.

Ango sua ta ango kea!

Rekete guztiak txindurria bezela igesi asten dira belar-zelaian gora. Orduan pusillakin zeuden gazteak tira ta tira ez dira asper-tzen. Ura sua! Ura leia!

Ogei ta amarretik berrogeira tarte yo zuten ildakoen zenbakia.

Guretan Altolagirre zauritu zitzaigun.

Erri inguruan eta abar sei bat zauritu izan genitun; illik inor ez.

Orduan zaurituak, geienak, Loiolan ikusten ditugu berriro. Poztekoa da, alajaña.



Baeza basetxe inguruko leia gogorra izan bazan, bai Bidani kale-ertzekoa ere.

Goizeko amarretatik arratsaldeko ordubik arte etzan ixildu dunbotsik.

Baezan ez ezik, jipoi galanta eman zitzaien emen ere, ta bizirik ziranak oñak dantzatu, ta, al zuten tokira aldegiñak ziran. Loiola-ko gudarien kemenak rekete kutsu denak uxatu ditu emendik.

(yarraitzeko)

Loiolatik

Bidaniko garaitza

Euzkadi, 1936-09-06

Lengoan nion bezela, Baeza basetxea zan Bidanin reketeak esku-ratutako kuarteletako bat; Lizasoain-en yauregia, bestea.

Esango dizutet azkenengo au nola artu zuten.



Igandea zan. Amabirjiña egun biaramona.

Bidanitarrak eliz-aurrean arkitzen ziran. Ordua eldu bezin azkar elizan sartzeko asmoz.

Ala zeudelarik, norbaitek bere begiak aurrekaldeko mendi gaintxora zuzendu zituan, eta... –Ara... –zion– ikusten al dezute goiko jendetza ura? –galdetu zuan.

Guziak gain artara begira yarri ziran, ta irunako illaran yarri-rik, egundoko gudari mordoa inguratzen zala ikusi zuten.

Geuretakoak izango ziralakoan sartu ziran ordua eldu zanean eliz-barnera; okerrik ezer bururatu gabetan.



Meza asi ta bereala dunbotsak. Ango tirrika-tarraka!

Alare eliz-bearkunak bear bezelaxe bete ziran. Tiroak tiro zi-ralarik, meza donea entzun zuten Bidanitarrak.

Ura bukatuta orratik, ordubete ta geiagoan uzkur-uzkur eginda sakristin egon bearra izan zuten. Bearko!



Reketeak eldu ziranerako, tellatu mutur guzitan ikurrin zu-riak yartzeko agindu zuten. Karabineroa erruz zan euren artean, ta zerabilkiten buruzagi edo kapitana ere karabinerotakoa zan. Aien arpegi aldeak, noski!

–Ala, ja colocar las banderas blancas! ¡Pero... pronto!

Jakiña, gogor egiterik etzegon, eta etxean zituzten zapi txuri guziak tellatutan yartzen Bidanitarrak!

Baserritar gizarajoak. Gorriak ikusi zituzten!

Lizasoain yauregiko nagusiarengana, pistola aundiak eskutan zituztelarik bi reketek aurkeztu ziran, ta yauregia bi egunerako bear zutela ta ateak idekitzeko agindu zioten. Gizona zuri-zuri egin zan, ta reketek agindutakoa ixil ixillik egin bear. Ia zer erre-meio!



Neri berri auk ematen dizkidan Bidanitar gizon mardul oni galdera politik egin zioten reketek:

- Oiga, usted ¿cuántos kilómetros hay de aquí a Azpeitia?
- Pues por la carretera antigua, 13, y por la nueva, 16.
- Pero, ¡rediez! ¿tan lejos está?
- Ba, mañana, para las dos de la tarde, ya estaremos allí tomando café!



Onelaxe, galdera galderaren gañean gure reketek zerutar auk.

Geroxeago Azpeititik Donostira zenbat aneurkin edo kilometro zeuden galdetu zioten, ta Azpeitin zegola erantzun zion gure gizonak 52 aneurkin daudela adierazten duan arria.

Ango itsas-ertzean bustialdiak artu ta ango neskatxakin yollasteko irrikatzen zeudela zioten.

Etzekiten asko zer piper zetorkioten!



Danak esponja baño arroago zebiltzan garaian, urrengo egunean, Azpeitira akeita artzera asi bear zuten unean, tiki, taka, tiki, taka, asi dira mendigoizale oiartzunak. Ango bala txistua!

Kapitan, karabinero ta reketek guziak lurrean etzan dira, ta aien mingaña. Aien birauak!

–¡Nos vuelven locos! –egiten omen zuten, kapitanak betaurreko aundiakin alde guzitara begiratzen omen zuan ta iñor ikusten ez. Ura komeria!

Balak buruzgain etengabe, kapitan da gañontzekoak lurrean etzanda, –que no puede ser, que nos vuelven locos! –egñaz mar-marrean.

Bitartean, al zuten bezela, lau oñean poliki-poliki anka egiñez rekete guziak. Tiroak boteaz, baña nora etzekitela.

Zauritu ere asko egiten gañera. Asko gero! –¡Qué tios! ¡Vaya punteria que tienen –omen zioten basetxe baten oñean.



Emen yartzen ditudan berri guziak, zoritxarrez aien artean ibili bear izan zuan bati entzunak dira. Gaur Loiolan arkitzen da gizon au, ta lanik gutxiena egiten duana ez da.

Oraindik gai pixkabat badut.

Loiolatik

Bidaniatarren poza

Euzkadi, 1936-09-09

Reketeen akeita-artzeak yoan ziran pikota. Astelen bazkalondoko ordubietako Azpeitin izango zirala, alajaña... Oiek dituk mutillak, oiek!

Puru zarrak erreaz lasai egotea zerizkioten, ango basarritarrai bein baño geiagotan aitortu zieten.

Loiolako gudari taldeak zanpatzen dituan lurak maitetxoak ditu ordea geiagokorik gabe etsaien eskuetan uzteko. Kontuak kontu, karabinero zar eta napor koxkorrai kukuak oker yo die onuzkaldeko gure mendietan.



Azpeitiko karlatarrak ere zerbait egin bear zuten. Reketeak Bidanira eldu zirala yakin zutenean dantzan asteko zoriraño erotu ziran.

Badakizute zer egin zuten?

Emazte ta seme alabai bi egun barru etxeratuko zirala esan, ta gauez al zuten bezela anka egin etxeetatik.

Aiek ziur uste zuten biaramonean Azpeitiratzea!

Basarritarrak ere dexente dira Azpeititik iges egiñak. Tratu ederra eman die euren sendiai!

Gizonak aldendutako basetxe orretara aurkeztea gertatu zai-gu, ta ango emakume erorien negar larri ta ulu itunak biotza beratu digute; aurtxoan karraxiak berriz badakizute zein kupigarri diran.

Gizon zitalen ordeaz aiek ordaindu bear, gaixoak. Basarritar eta kaletar, ia larogei bat lagun palta dira Azpeitin.

Mutillak, jendea itsututa zitxeon emen!



Bidanitarren poza, yaunak! Aietxek bai zoratzen oraintxe!

Bi edo iru egunean eten gabe iraun zuan tiroketak gorturik zeuden. Karabinero zar eta napar pikatuen arpegiak nardagarri zitzaizkien. Aien birau ta izketa zakarra etzitzaien ondo sartzen.

Euskerari egiten zizkien irañaak entzuten egon bear gañera!

–Pero... ¿cabe mayor vergüenza para un español que ignorar su hermosa lengua?

Irakurle, oraindik ori ere yaurti egin bear yende orrek Bidanin!

Gorrotuzko erdera ta birau nazkagarria besterik ez eurak!



Gureak Bidaniko yabe egin ziranean, tellatutako zapi txurien orde zuzko ikurriñaren margoak agertu ziranean, zer zorame-na! Ezkutaturik egon ziran ukullu-bazterretatik irten eta arbia ereiten asi ziran Bidanitar yatorrak. Gaur Bidani inguruko mendixketan dauden gure gudariak txoratzen daude erri artako yendearen yatortasunez. Arrautz, esne ta nai dutenetik opaltzen die ango nekazariek.

Zorionekoak abertzaletasunaren mantupean biltzen diran erriak. Gora Bidani!

Gora Euzkadi Askatuta!

Loiolatik

Uarra: Zure idazki au, ta beste bat be, une onetan ekarri daustez. Emetik aurrera egunoro idazteko asmua dozula diñozu, ta, arren, artuta beriala *Euzkadin* argitaratzeko.

Alantxe egingo dogu, ta pozik egin be. Idazki au irakurri doguneko irarkolaratu dogu. Ta bigarrena, Goikua lagun, bijar argitaratuko dogu.

Bijar argitaratuko dogun ori, bertso ta guztikua da ixan be, ta idazkiñan edo idazteko makiñan idatzija. Gudari-mutillentzat ori, Basarri, lujo aunditxua ezta ixango? Beste batzubetan, arkatzagaz eta al ixan dozun eran idatzita bidaltzen ixan dozu, ta alantxe zure enparauko gudari-lagunak be. -L [Lauaxeta]

Azkoiti beltz yantzita

Euzkadi, 1936-09-10

Alaxe arki genizun yoan dan larunbatez. Goizeko zortzi t'erdiak inguru ortan, guziok biltzeko korneta-otsa genizun Loiolan.

Mendirako deia diagu, genion gurekiko.

Oker geunden.

Aurregunean azkoitiar aberkide bulartsu bat apurtu ziguten etsaien bala zipotzak, eta aren illeta elizkizunetara yoateko deia genizun.



Loiolatik Azkoitira tarteko bide zabala bapo betetzen genun. Irunako illaran yarri giñan guziok, eta oñotsa berdin gendularik, egundoko edermena nabari zitekean.

Alare, orratik, anai baten utsuneak, anai maite baten urrun-
tzeak, zartateko gogorra itsasten du abertzale biotzean, eta orixe
zala bide, arinkerizko parre gutxi senti zitekean gaztedi zoragarri
aren artean.



Azkoitiko kaletan barna asi giñanean, ainbat gaztek aldatzen
genuan oñots tristea entzutean, il zan azkoitiar bikaña bezelaxe,
an genbiltzan ainbat gazte sasoiko arrixku berean geundela ikusi
zutenean, azkoitiar orok negar zegiten. Ainbat ama, ainbat arre-
ba, ainbat emaztegai an baigenitun begira. Zer nardagarria dan
gudaren beltza!



Egurbide basetxeko seme aipagarria gugandik aldentzea gerta
zaiona, Egañatar Yoseba Yokin deritzaz ezagutu genun lurrean.

Euzko basetxean abertzale egiñak baditugu zorionez. Gutxi
ordea, oso gutxi.

Yakintzaren utsuneak ondatzen ditu gure baserritarrak. Ezer
gutxi ikasi dute, ta politika goraberari ez diote garrantzirik ema-

ten. Bi txakur txikigatik salduko liraken erakoak errez arki genezazke. Ez dakite gure arazoa zer dan, ez dakite Euzkadiren izakera ta etorkizuna yokatzen ari geranik. Tamalgarria!



Egañatar Yoseba Yokin besterik genun. Egurbide basetxeko gaztea eredu artzeko erakoa zan. Kristau ta abertzale zintzoa. Yaungoikoa ta Lege Zar zale purrukatua. JEL-alde eskatzen zitzaion guzia egiteko beti gertu zegona.

Euzko ongari mardulez orniturik, euzko basetxetik irtenda-ko landare lerdan kementsua.

Ordua datorrenean entzungor egiterik eztagola ta, Yoseba Yokin-en ordua guda zelaira eldu zan, ta Yaungoikoa ta Lege Zarrak aldezteko eskutan artu zuan izkillua, plast! indarge albora erortzen zitzaion bitartean, azken arnasa ematen du Yoseba Yokin goralgarriak.

Gure lagunak guraso onak
negar egingo dezute.
Gudatearen atzapar beltzak
seme bat kendu dizute.
Barren min ori une auetan
ezagutuko zaizute.
Atsekabeen Loiolatarrak
inguruan gauzkatute.

Yoseba Yokin biotzekoa,
zuri eldu zaizu garai,
goi Aberrira egatu zera
irripartsu eta alai.
Guk ere orko edermen oiek
noizbatean ikusi nai.
Barren barrendik eskatzen dizut
egon zaitela gure zai.

Loiolatik

Saseta buruzagia

Euzkadi, 1936-09-12

Ona Loiolako kuartel barrunbean aspalditxoan itzetik ortzera dabillen izena: Saseta kapitana.

Iñaki Deunaren sor-leku aipagarrian gauden ainbat eta ainbat gazte sasoikok, guraso bat bailitz arturik daukagu gizon au.

Gauden egunetan oldozten yartzen bagera, Saseta, benaz, egitazko guraso degu. Buruzagitzat aukeratu degun ezkerro, olatu zakar auek baretu arteko gure guraso ber-berak bear du.

Ez nuke esan nai bera bakarrik degunik; milla ta eunka gazte diran tokian guraso bat baño geiago bear dira, ta baditugu zorionez Loiolan. Gaur Saseta-ren aldia degu orde! Yatorra alare!



Gizon moxtaka bat dezute. Bereak geiegi ikusi ez dezaten, betaurreko zabal xamar batzuk erabiltzen ditu.

Parrez-parrexka ikusiko dezute geienetan. Aizu, barka zaidazu, baña... zuri begiratuta nork esan bear du orrenbestekoa zeranik?

Arrane ori, etzera beintzat metroz neurtzekoa! Egundo olako aparejurik, kontxe!



Artzai onari noranai leialki yarra oi diote ardiak. Paotx-lekura agintzen badu, paotx-lekura, ta arantz artera esaten badu orobat.

Loiolako gudariak Sasetari yarraitzeko irrikatzen daude beti. Arrixkuko tokira agintzen badu, araxe zuzenean, eta patxarazko alderdiren batera agintzen badu, berdin.

Sasetarekin baita Ciempozuelos-era ere!

Olako arranekeiririk emen dago beintzat! Ondo bearreakoa etorri ziñan!



Edozein mendi edo guda-zelaitara yoan eta guztien aurretik bear du. Mutil guziak luze-luze etzanda tiroan, eta gure Saseta zut-zutik yarri, lengoen gain beste betaurreko aundi berezi bietakoak artu, ta etsaiari begira letxua baño preskoago. Lengo batean, or Lasarte inguruan, tiro lei gogorra izan zan eta gure gizon au zauritu egin ziguten. Laister yakin zan Loiolan.

Ura naigabea yendeak!

Iztarrean bala igaroagatik ezurrik ez ikutu, ta bereala osatu zaigu.

Ez gera asarre ortan yoan danean!



Zumarragako mutil gazte polit bat ibiltzen du bere laguntzalle. Abertzale bizkorra, arranetan. Nagusi ona duk oraingoa, Zabaleta; yoko au guk nai bezela irteten bada, eorri ere gutxienez kapitan egingo augu.

Yendea ezkon pestetan asi etzaigu ba?

Mitxelena ezkondu zitzaigun lengoan. Mitxelena, Euzko Indarrako agintari prestua. Txoriño batek alakoxe albiste bat belarri-ratu dit ba neri ere.

Egia ote, Saseta?

Bosteko ori! Tira, tira, berriketa gutxi!

Loiolatik

Gu ondo bizi giñan

Euzkadi, 1936-10-03

Inguru guzitara begiratu ta, abendarik zoriontsuena euzkoa jo zitekean.

Alare, aspaldiko urtetan naigaberik asko bagenbilkigun egiz; dan gauzik ez degu ukatu bear. Lanik ezaren soñu itunak ainbat anai euzkotar mixeriz bildurik zeuzkan. Alaz guziz ordea, inguruko errietara begiratu bat ematen genularik, zoriondegi edo paraiso gixaz ar zitekean Euzkadi. Bestetatik aldakor giñan; bestetatik zoriontsu giñan



Batzuk era batera, besteak bestera, ogi zati batentzat ainbat egiten etzuan gutxi arki zitekean. Goseak euskaldun bat galdu zuanik iñoiz ez genun entzun. Astegunak lan arloari eskeintzen genizkion. Pozik alare!

Legortar eta itsastarrak denak lankide.

Ene!

Zer ziran egun aiek!



Eltzen zan igandea, ta Voltaire-k esan zuan lez, Euskalerriak Auñamendiren oñetan dantzan zebiltzan erriak izaki. Gure erri-txotan txistu oiartzun pozgarria entzuten genizun. Mutiko lerdan eta neskatxa pertxentak arinki dantzatzen ziran. Zenbait txokotan gure pelotari trebeak alkar neurketan ziarduten. Bertsolariak alaiki abesten zuten. Aizkolari, probalari, laisterkari, segalari, palankari, ta ainbat euzko kirol noiznai ikusi zitezkean. Ai, egun aiek! Noruntz aldendu dira baña? Noruntz?

Itzerdi bat bakarra: Itxaron!

(jarraitzeko)

Lekeitiotik

Oroituaz

Euzkadi, 1936-10-09

Zarate-ko burrukaldia

Gipuzkoako lurretan izan genitun burrukaldi latzak sarri bururatzzen zaizkigu. Ezpaidira nolanai aztutzekoak!

Nik nere begiz ikusi dedan burrukaldirik gogorrena Zarate gañekoa izan zan. Belkoain deritzazko mendia, Andoain gañean arkitzen dan mendi sonatua, reketien menpe zegon; eurak zeuden an. Onuzkaldetik Andatza mendia, Usurbil gañean. Emen gutarrak zeuden.

Zarate gañetarako larogei gudari irten giñan Loiolatik. Zarate inguruan, ordea, lau gudaleku edo posizio ziran, eta lau aldeta-
ra banatu bear mutillak. Basetxean mordoxka bat, eta beste iru mendi gañetan gañontzekoak.

Gu basetxetik ezkerraldeko gañera biali giñuzen. Gain ontan, egunez amabi lagun egon oi ziran eta gabez, ogeita lau.

Illundu zuan, eta geure zeregiñari ekin genion. Gure aurretik egon ziranak alakoxe txabola lege bat egiña zeukaten zerbait es-
talpe izatearren.

Batzuk guardia zuten bitartean besteak atsedendu egiten giñan. Txandaka, iruna ordu egiten genitun zaiketan.

Eldu ziran goizeko laurak eta guziok parapetora. Mendian lautan oi da mugi ordua.

Zortzirak arte ez genun ezer nabaritu. Ordu ortan, beko basetxetik gudari mordo bat etorri zan da guri gosari legea egitera basetxeruntz joateko agindu ziguten, bitartean eurak an geldituko ziralata. Pozik artu genun berri au, bezperan apaldu gabe baigiñan.

Basetxera jaitsi, bakoitzak geren katilluak garbitu, ta esne zai jarri giñanerako, emen zetorrek mendi maldan bera bat estutu-
ta indar eske. –Mutillak, egundoko rekete pilla zetorrek onuntz!
Artu pusillak eta igo zaitezte azkar...

Katilluak bertan bera bota, berriro izkilluak artu ta... an goaz ogei bat mutil.

Eldu giñanean gure lagunak jo ta ke tiroan ari ziran. 700 neurkin edo metro ingurura zegon basetxe baten atari biran sekulako reketek pillak, alajaña!

–Ia, mutillak! Pusillaren neurria jarri zazpireun metrora...

Lixto al zerate?

Bai!

Eup! Raaaaa... tirotsa.

–Plast!, nola erortzen ziran garbi garbi ikusten genitun.

Baita eroritakoak jasotzera nola joaten ziran ere.

Bat erori ta bestea sortzen zan ordea. Zenbat jende zuten an, Jesus!

Lenengotik basetxe kontratik tiroa erruz botatzen ziguten, baña gu ere gogor asi giñan eta ixildu xamartu genitun.

Andik pixkabatera kañoiak in asi etzaizkigu ba...

Geunden lekutik bost metro biran amar bat kañonazo sartu zizkiguten berealako batez.

Ango lur astintzea!

Buru gañak beti lurrez estaliak genitun. Eskerrak arkaitzik etzegoala, bestela garbitzen gaituzte.

Guk toki ona genukan egiz. Parapeto babesean zulo aundi edo erreten eder bat egiña zegoen, eta kañoia noiz lertzen zan ateratzen zuan kean ondo antzematen geniolarik, apur bat makurtzen giñan eta bapo!

Buruko lurrak dantzatuaz atzera bota ta, aupa mutillak! Bost ordu baziran tiroan ari giñala. Ango leia beldurgarria zan benaz, eta gu larri giñala antzemanik edo, Pasaiko Prieto tenientea ogei mutillekin jaitsi zitzaigun Andatzatik.

Ura lasaitasuna! Ura poza!

Gora Euzkadi Askatuta!, orru ikaragarriak egiñaz artu genitun. Deadar au bai gogoz egiten zala. Antxe bai abertzaleak giñala! Egon eziñak malkoak ateratzen zizkigun. Zer zan ura! Ene!

Lekaitiotik

Zarateko burrukaldia

Euzkadi, 1936-10-15

Oñengo idazkian nion bezela, Prieto tenientea ta bere mutillak ingura zitzaizkigun, ta guk len baño ere adoretsuago ta trebeago ekin genion. Ura tiroketa, jaunak!

Etengabeko dunbots doñuan zazpi ordu luze egin genitun.

Erregai edo munizio billa iru aldiz jaitsi bearra izan genun basetxera. Iru aldiz!

Gure berrogeiko taldearentzat bosteun gudari aurkalarri bazi-ran gutxienez. Gutxienez ori!

Beeko artartean zazpi edo zortzi boteagatik, amar edo amabi laister sortzen ziran aien tokirako.

Erdiak eskubi aldera ta beste erdiak ezkerraldera zabaldu ziran gu erdiz-erdi erbi elbarrian gixa atxitzeko asmoz. Eskubi aldetik ordea ez genukan arrixkurik. Guretarak edo obeto esateko “gutarrak” beste gudalekua an baizeukaten, eta aiek andik gogor egiten zietelarik, etzegen guretzat kezkarik. Ezkerraldetik etzan ordea alakorik. Amar mutillekin Saseta buruzagia ta Prieto tenientea besterik ez. Pixkabanaka pixkabanaka reketeak goruntz zetozten. Alako batean –ara komeria!– berrogei metrora ingura zitzaizkien Saseta ta lagunai ditzosozko rekete oiek. Nai ta nai ez anka egitea beste biderik etzegen orduantxe. Bestela irentsiko baizituzten! Zer ziran amaika gizon! Ura kezka geure baitan!

Amaika lagun aien itxaropenak galdu genitun. Akabo gure lagunak –nion nik nere kolkorako. Ain gertu sartu zitzaizkien etsaiak!

Nik eztaikit zer mirari arrane gertatu zan egun artan. Goi, be ta albotatik bala zipotza besterik ez, balazko euriteak aterrunerik ez, eta alaz guztiaz, arin-arinka mendi maldan beruntz nun ikusten ditugun etsitako gure lagunak. Ura egokiera! Millatatik bein ez dek gertatuko alakorik. Ezta...

–Bi edo iru paltako dituk baña gañontzekoak or dijoazela zirudik –egiten genion alkarri.

Jaunari eskerrak, danak azaldu ziran geroke egunetan. Lagunen goraberak utzi bearra ere laister izan genizun ordea. Aieri bezelaxe, azpikaldetik goruntz artu ta bertaratu zitzaizkigun, ta, an ziran ixtilluak! Derrior anka jokoa egin bear.

Ni ezertarako ez nintzan gauza. Ez jan, ez lo, ta gañetik zazpi orduko tiroketa. Ezta gero jolasa...

Mendian bera asi giñanean, ni bereala amildu nintzan; gorputza gaizki neukan. Errenderiar birek arrien artetik jaso ta beeko basetxe batera eraman ninduten. Munduko urte laburretan etzait aztuko egin zidaten ona. Eurai zor diet naizena. Orduan eta geroztik sarri eskertu zaituztet, errenderitar ongilleak, baña Gipuzkoako geure txokoetara bizirik urbiltzen bagera, eskerrak baño zertxobait geiago ere opaldu bear dizutet.



Irakurle, ona zer izan zan Zarate gañeko gure erretira. Gi-zonez amarretik bat ez giñan, eta aiek kañoi ta ametralladora mendia josia zutelarik, gu pusil xaxtarrentzat erregai edo muni-zio mixeriz. Alare zazpi orduan eldu zitzaien.

Jaunak: Orduko balaren izanak galdu ez gindunean, ondoren datozenak galduko ote gaituzte? Goruntz begira itz bi:

Egin bedi zure borondatea zeruan bezela lurrean ere.

Lekeitiotik

Artutzaritar Josu, ta Ibañeztar Joseba Koldobikaren gogo-aldez

Euzkadi, 1936-10-25

Euzkadiko erri-zaindari, “Policia militar” taldeak antolatuta, gaur amarretan Agustindarren eliz apanean goieneko elizkizunak ospatuko dira. Perosiren meza ederraren urren, egille beraren “Liberrame” abestuko da.

Kuarteleko abeslariz gain izen aundiko batzuk ere izango ditugu. Abertzale zeratenok, azaldu arren al deztelarik elizkizun auetara; gaur guk bestegatik egiten deguna, biar beste batzuek gugatik egin dezaten. Zorionekuak Jaungoikoa ta Lege Zar alde iltzen dakitenak. Goian bitez gure taldeko lagun mamiak.

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-10-30

Igandez eder agertzen zan Bilbaoko Agustindarren eliz egokia. Euzkadiko erri-zaindari taldeak arerioen egazkin maltzurak jaurtikitako bonbak bide, bi gudari bikain aundiren utsunea arkitu du beregan, eta euren gogo alde zerbait antolatzea itxurazkoa zalarik, igandeko elizkizunak aurrez iragarri zituan.

Bai abertzaleak zintzo erantzun ere. Gaur egunez guzien gain dabilkigun arrixku beltza inoiz baño argiago ikusten baitegu, ta aldentzen zaizkigun adiskideen alde egiten dana geuretzat dala oldozturik elizeratzen gera. Egun beltz auen erreñuak guziok estaltzen baigaitu! Gaur geuregan degun galdu kezka bizitzako egun guzitan bagenu, beste era batekoak izango giñake. Obe genuke zerbait baño!

Esan bezela, eder eta zoragarri izan igandez Agustindarren eliz apaña. Abertzale kristau zintzoz gañezturik baizan!

Ainbat otoizlarien indarrez, goi jauregira edatuak izango al dira Ortuzar eta Ibañez aberkide miñen gogoak. Ala bedi.



Elizkizun artan abesti lanetzaz arduratu zan taldearentzat zerbait esan bear orratik. Igandeko meza abestea, benetan abestea esaten zaiona izan baizan.

Perosiren jaupa ta “Liberame” entzutetsua berenez eder badi-ra, igandez abestu ziran bezela abestuta alakoxe jantzi aparteko bat artzen dute.

Ordubete ariñagorik etzait igaro oraindik eliz-barrenean. Gure erri-zaindari talde ontan degun zetzuar ereslaria eztegu amutsa antolaketan. Polizi taldean abeslari itxurazkoak asko izaki berriz. Gero, jakiña, Olaizola, Kortajarena, Lizarraga, Goya, Ernandorena, Arrate, Etxabe, Atarrene, Iruxo, Ulazia eta abar, benaz asi...

ta Garate ospetsuaren txotxapean jarri ezkerro, eztago esan bearririk zer irtengo zan.

Ta, ixo, ixo. Ulaziak sasoi dauka gero, e? Igandez denak arritu zituan, gizona. Bilbao aldean arrantza gutxi dabillega baña nunbait arkitzen dituala esan liteke. Ori dek erremita, arranea!

Zorionak eta eskerrik asko guzoi ain leialki erantzun zenu-telako.



Inglaterrako gobernuia Madridero espetxeratuakin ardura-tzen da. Eurakin zer egingo ote duten kezkatu dago.

Cordoba, Zaragoza, Huesca ta abarretan espetxeraturik dau-denetzaz, eta espetxetik atera ta erail dituztenetzaz oroitzen ez ote?

Vayo erkaltzañaren erantzuna egoki-egokia irudituz zaigu. Bide-zkoa gañera!

Gu euzkotarrok mintzatzen asiko bagina berriz, zer esanik asko bagendukake. Iruñako S. Cristobal, Araba ta Gipuzkoako espetxeak sarri bururatuko litzaizkiguke. Ainbat erailketa itxu-ragabekotzaz ere astiro itzegin bearra legoke. Azkeneko Aitzol eta Lekuona jaunen (Goian beude) azken uneatzaz zerbaitxo esango genuke. Bai orixe!

Emakumeen aldeko “canje” edo dalako orrekin euzkoak ager-tu degun gizatasuna agirian ipini liteke, bai etsaiak agertu duten egoskortasuna ere. Nazio batzuek lezaketen era guzitara etsaiak laguntzen dien bitartean, beste batzuek zorioneko diplomazi orre-kin esku garbiketan ikusten dira.

Abisiniakin ber-bera gertatu zan.

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-11-07

Euzkadiko erri-zaindari taldeko morroskuok, Eibar ain laztanki babesten duen S. Roman gañean arkitzen gera; S. Roman deritzaion frentean esanda ulertuko dezute ondoen.

Zer moduz gabiltzan?

Oso ondo esan bearco, Jaunari eskerrak. Etsaiak irureun neurkin edo metrora dauzkagu, baña jende gutxi xamar ote daukatenekoa dirudi.

Aspaldidanik bere altzoan maizterrik ez duan basetxe batean daude reketiok; gugana datozen tiroak andik jaurtitzen dira*. Egia esan, tiroketa aula dabil ordea.

Jakiña, gau ta eguneko tiroketa da, baña... ez ugari ta gogorretakoa. Guk, erri-zaindari taldekuok, reketeak barrunberaturik dauden basetxe ori artzea bereala egingo genukela esango nuke, ezkerraldeko piñurian dauden abertzaleen laguntzarekin. Ezer gutxi irabaziko litzake ordea.

Kalamua gaña eurak daukaten artean ori egiten astea ezeren aurrerapen da irabazpiderik gabe bizia uztera joatea da. Uxatzez-kero Kalamua gañetik uxatu bear dira ta orduantxe bapo.

Ta, jaunak! Esan dedan au guzia oso laister lortuko ote dan iruditurik nago. Eztakit zer egiten didan.

Zer moduz gabiltzaneko galdera orri, jan eta edan ondo egiten degula esanaz erantzun bearco. Egualdia ez darabilkigu orratik mendirako egokia, baña datorrena artu bear. Euri-jasa ta otzal-diagatik aurrera egin bear.

Ta zer erremeio!

* Zuk emen aitatzen dozun maizter bako basetxe ori, onezkero lurrera eratsi-ta dago, atzoko izparretan irakurri gebana ori da-ta. Beraz, Basarri, maizter bako basetxiaz jabetu ixan ziran "erreketiak" lapur antzo artu ixan eben basetxetik jaurti dabez, eta aberri-aldezliei oldartuteko ezkuta-leku barik laga. Areyo bat gitxijago. Ezta, Basarri? Ekin ba aurrera. [Lauaxeta]

Gau ta eguneko gure lana tiroketa izaten dalarik, aurrera jarraitzeko gogo onez bikainki gaudela dirautzuet.

Beraz badakizute: guziz ongi. Beti erne ta bizkor egon bear, orixe.

Etsaia irureun metrora baitegu!



Luma dirdautsuko idazle zeratenok, arrats batean onuntz etorri bear zenuteke. Ai zer idazki-gai politak arkituko zenituzteken!

Len ere aspalditxoko urte auetan itzaldirik asko entzuna nazute, baña lengo gau illargitsu artan bezin gartsu ta benetakorik ez. Luze ta biozkiak mendi gain auetako itzaldiak. Bai, arraio-tan!

Izkuntza egokia ta apaña eztana ere bai orratik. Zer esaten ez die alkarri, Jesus!

Diotan gau ortan lau orduko zaiketa edo guardia nuan guda-lekuan, ta minutu bateko geldiunerik etzuten izan denbora ortan izlariak; bat aspertzen edo katarratzen zanerako gertu zegon bestea.

Emengo itzaldiak nik orain arte entzun ditutenetatik aldakorrak dira ordea. Enparantza ta antzoki apañetako itzaldian da bukaera itxurazkoa duten zatiak txalo zarata aundiz ordaintzen diran bezela, emen mendikoak tiro zarataz ordaintzen dira. Alde orixe dago. Emengo gora ta “viva” otsarekin zoratu bear berriz batek. Zer da au!

Gero bi aldetako abesbatzak kantu lanean saioa egin bearra izaten degu. Gauza politagorik!



Salatari edo espia dago erruz.

Iritsi giñan gabeen egundokoak jaurti zizkiguten reketeak.

–Ya nos hemos enterado de que habéis venido hombres de dos metros –zioten.

Nola liteke au –genion geurekiko. Baña alaxe zan da akabo!

Aiek dena zekiten, da orrekin bukatzen da.
Salataria dabil erruz, salataria.
Len ere Gipuzkoaren erdia oiek ondatu digute.



Amaiur Batalloiko gudariak. 1937. Eg. ezezaguna

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-11-15

Irakurle maiteok, emen nazute ba berriro ere.

Erritik urrun Gipuzku mugako baso-mendietan barna nabilerarik ere, zuetzaz oroitzen naiz. Berriketalditxo bat zuekin egin gabe ezpaita onik nere baitan. Ain gogozko zaituztet!



Oraingo irtenaldi ontan ibiltari gera, arranea. Lenengo gudalekua S. Roman izan genun, azken idazkian esaten nizuten lez, eta alditxo bat an egin genunerako, Urko gañera igotzeko agin-dua zetorren agintariengandik.

Bera izan da zortzi eguneko gure ostatu.

Ango txingor ale, euri-jasa ta aize burrundatsuak balak baño beldur aundiagoa sortarazten ziguten. Gallur tentelua izaki!

Azkenik Santakutz deritzazko gudalekura ekar arazi gaituzte. Tokirik gordiñen eta arrixkutsuena oraingo au degu: gau ta eguneko tiroketa, ta etsaia guziz gertu.

Ernai ta arduratsu egon bearreko gudalekua auxa. Alderdi batetik Arrateko bitxabal edo kamioa zaitu bear da; eurak dau-den tokitik gu gaudenera etortzea bost minutuan egin bailezakete bide ontatik. Gabetan, ba, amets gozoko loketarik ez degu izaten. Iru bat ordu atsedentzeko, baña emengo tiroketa ta itzaldi gartsuak diardutela, nork itxi begiak?

S. Romango itzaldiatzaz zerbait adierazi nizuten lengoan, baña, gudaleku ontakoakin erkatzeko edo konparatzeko ura ezertxo eztala dirautzuet gaur.

Bi aldetako jardunak ementxe garbi entzun... Olakorik!

Nola aiek ala gutarrak, erderaz esango genuken “altavoz” orretakoak darabilzkite, ta gallur batetik besterakoa itzik galdu gabetan ulertzen da. Madrid gora ta Madrid bera, beste izpiderik ez dute bolara ontan inguruko reketeok.



Igandez meza donea entzuteko zoria izan genuan. Apaiz jatorrak benaz gudaleku auetan darabilzkigunak.

Ez or aruzkaldetik gure aurka datozen apaiz asko bezela inor iltzeko pusilla artuko dutenak. Kristoren agindupeko laguntza guziak bearrean diranai eskeñiko dizkien abade zintzoak baizik.

Itz batean esateko, eurai dagokien lez, eliz-bearkunetan bakarrik sartzen diran Kristoren ordezkari apaizak.



Lau orma zarrek inguratutako txabola zar bat aurrean; gaitain eta aritz zuaitz zaarrak biran bera gordetzeko.

Ol xabalka bik alkar arturik osaturiko aldaretxoa minutu bian prest. Duñabeitia erandiotar apaiz apal bezin txalogarria meza-emalle. Erri-zaindari taldeko gudari oro entzule.

Benetakoa ziñez euzkoan zintzomena. Zenbat oroitzapen sortzen zan igandekoa ikusiz gañera!

Mezaz kanpo, arrixkuari arpegi emateko, Goi Jaunarekin adiskidetu naikoak ainbat. Zenbat aitorketa gozo!

Mendiaren ederra une aietan!

Nunai dirala, euzkoak beti,
sinismenez belauniko.
Au baño erri apalagorik
etzan inun ikusiko.
Aurrera ere jarrai dezagun
bide mardul ontan tinko,
ta Goiko Jaunak bere eskutik
inon ez gaitu utziko.

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-11-26

Arrigarria da etxetik at, urrun dabiltzan askoren egon eziña. Bereala ta bereala, azkar baño azkar etxeratu nai.

An dituztela gurasoak, an dutela mundukorik maitegarrien duten ama biotz biguña, an senideak, an aideak, an lagunak, an aztu eziñeko lilitxo zolia... Guzia an!

Dioten dana ulertzekoa da. Naitasunak eragindako min ori zer dan ezagutzen degu. Baña, baña, jaunak! Guk ere zuen gaitz ori geurekin degu ba! Degun zer galdu guzia Gipuzkoako lur oparotsutan degu ba!

Guraso, senide, aide, ta gañontzekoak an utzita etorriak gera ba... Beste edozeñek ainbat zaletasun badaukagu geure txokoan oña jartzeko, baña, asko bezela, etengabe ari orrekin ez gatzaitzkitzu ariko.

A, Jesus! Geiago joango ote gera gero? Zerako zerak geiago ikusiko ote ditugu gero? Emendik ere aldegin bearrean ez ote gera izango? Ta era ontako zenbat galdera kokil eta ustel. Zer izango ote litzake reketeak len oiturik zeuden bezela balebiltza?

Zer, jende onekin, len gertatzen zan lez, gizonak bai ta ixkllurik ezpalitz?

Zer, napar koxkorrak lengo erari jarraituaz, larunbatean aurrerako sendo egiñik, igandero erriren bat artu ta kanpai jotzen asiko balitzaizkigu?

Zer orduan?



Gure etsaiak zortzigarren astea pausorik aurreratu gabe daramakitela jakin bear dezute, ta denbora ortan zenbat jende galdu duten ere azertu bear dezute. Elgetan, Otxandianon eta beste gudaleku oietan artu dituzten jipoiak kantuan euki bear dituzute.

Egunero egunero gure aldera datozen gudarietzaz oroitu bear zenuteke.

Gure agintariai egin dizkien aitortzak gogora itzazute, Mar-
kiñan azkena gureganatutako amairuko taldea burura zazute.
Au dan dana kontuan euki. Zeuen barrunbetan ondo giltzapetu!

Ta beste gauza bat.

Gaur frentean degun jendearekin zazpi astean eutsi diogu
etsaiari, ta gure mutillak aurrerakorik egin gabe baldin badaude,
agintariengandikako agindurik izan ez dutelako da.

Orain egin azterketa.

Emen Bilbaon eta albo-errietan dauden millaka ta millaka
gudariak sutan jarri, arrigarritzko aurrerapenez antolaturik dau-
den kañoi, ametralladora, goiko txori ta beste gurdi zarrok euren
bideetan jarri, Erkal edo Errepublikak dituan itsasontzi bikain
oietako bat edo beste bere zeregiñetan jarri, ta, ez ote leike ezer
egin? Utzi ba galdera kokil ustelak eta agintariengan itxaropena
euki.

Reketeak egiten dutenik ez degu egin bear guk. Oiek egin du-
tena, erriak artu ta gudarostea ondatzea izan da.

Oroitu Irun aldean ixuri zuten odol putzuatzaz.

Oroitu Madrid aldean gertatzen ari zaiotenatzaz. Erriak artu
ta gudariak amaitu?

Olakorik ez iñolako moduz.

Oña nun jartzen degun dakigula asi bear degu. Artako jende
laurdena galduta gallurreratuko degu geure ikurrin garbia.

Erdel esaera zar au gogoan izan: Más vale tarde que...

Goikoak osasunez iristea nai dezala ta kitto!



Italia ta Alemaniatik Burgosko gobierno aintzakotzaz artzeaz
asko arritu egin dirala dirudi.

Gobierno ori ezagutu dutelako egundoko zer esanak sortu
dira mundu zear. Amerikako izparringitarañoak ernemindu
dira. Bi nazio oien jokera bidegabekotzaz jo dute Nueva York-eko
izparringi askok.

Berri orrek ez digu guri atzerako aundirik egin. Martens azkarrak idatzi zuan:

“Aldi guzietan, beti, pakeak marduldutakoa gudak ondatu izan du”.

Ezin esango degu ala ez danik.

Daramazkigun egun negarti beltz auetan, pakezko eguzki printzetan loratu ta indarturiko landareak, gudatearen izozte maltzurak betiko ankazpiratzen ikusten baititugu.

Pake-arogan marduldutakoa genizun gure altzotik aldendu berria dan Ertzaña edo Polizi taldeko Fodel eta Otañotar Joseba.



Ogeita bost urte baño etzizkitzun gudari adoretzu orrek. Guk utzi berria degun Arrateko bidean zizun bere gudalekua, ta paxixtengandik deabru guziak berekin zituan bala bat irten zan, eta Josebaren azkena antxe zegon; aretxek zekarren. Bere emazte, guraso, senide, aide ta enparaukoai gure laguntza mingotzaldian (G.B.)

Sabiñen ikurrinpean
eroria dezu,
beste ametsik iñoiz
izandu ez dizu.
Ene, zerutar Jauna,
ain ona zera zu...
Betiko atsedena
eman akiozu.

Euzkadi, 1936-11-26

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-12-03

Goian zerua, beian lurra.

Gorputz eder, margo gorriko gazte lerdena. Negu zikoitzaren eraso beltzetatik babesteko jantziz ongi ornitua.

Gerrikoaren exkin bietan, erdian lez, bala zorrotzen zama nabari. Izkillu berri zoragarri bat eskuetan.

–Gaur eguneko lagunik aundiena au dut –entzun diogu ez-pañetatik lenen irten zaion itz mordoxkan.

Etxea, gurasoak, aideak, lagunak, denak utzita dabil. Aspal-didanik euren berririk ez duala...

Alare, bai kopetargi dakusgula!

Euzko gudaria baita!

Ezpaita eguneko errealari begira kanpo lurretara borondatez aurka joanik derriorreko gudaketan diarduana.

Ez, euzko abertzalea baita.

Euzko ikurritz doneko itz biak gazte-aroko ordu guzitan go-goan dituana baita.

Irakasle illezkorrak bezela –lenago il! –diona baita... Itz batean, euzko gudaria baita!

Xenpelarrena datorkit oroimenera:

Aitak il ziran baño,
semeak oraindño
legea degu guardatu.
Letra zarrrik ez ukatu!

Landare auek diran baratzen, barrabas belarrak ezin lezake indarrik artu. Ez orixe!



Eldu da ba ordua. Artarañoko egarriz zaitzen genitun uneak gañean ditugu.

Gure ikurrin garbiaren margotako batek itxaropena dakuskigu.

Guk inoiz galdu ez deguna orixe.

Margo orrek, aurreko asaba zarrak Paduran lorturiko gurenda aintzagarria oroitarazten digu.

Ura zala 1.034 urte aundi igaro dira, ta ona berri-berriro egun berria, egun berean zio berdiñez gudate bizian; ona berriro egun berean gurenda pixuzkoak lortu.

Etsaien eskuetan ziran ainbat mendi eder gure esku ditugu gaurtik; etsaiarenak ziran, Etxaguen, Urrunaga,* Gastarre ta Elosu erriak orobat.

Euzkoen odola beroan zenbaterañokea dan ikusi bearrean dira bazterrak. Onez ez digute eramango, baña txarrera nai duten ezkeror...

Aberria zabaltzen asi zaigu. Geure lurretaz jabetzen asi gera.

Ai, gaurko armak asieran izan bagenitu, jabetzen lanik ez genduan izango.

Irrintzi bat entzun da
goiko tontorrean,
goazen gudari danok
ikurriñan atzean.

Bai, irrintzia entzun da. Aupa mutillak! Goazen, goazen kementsu. Gu azpiratu ta lurperatu nai gaituztenak aurrea arturik azpiratu ditzagun betiko. Utik, urruti belar txarro! Luza emendik, anker maltzurrok.

Ez mutillak, ez etsi,
naiz anka bana autsi,
jaioko dira berriak;
gu gera Euskalerrak.

Kanpaiak lan gaur etengabe. Zabala bedi mendi tontorretaraño zuen oiartzuna. Aupa, txistulariok! Artu ditugun erriok geure geureak dira. Euzko erriak egun aundia bear du gaur. Eldu ba lanari. Txistu, txistu!

*ezin irakurri.

Euzko-ikurriña, euzko-ikurriña.
Erriko etxerik aundienean da zure tokia.
Zaude antxe guzien gidari.
Otoizlariok ere lan, arren. Erriak ditugu, adiskide miñak galdu ere bai ordea. Otoi, arren otoi. Aientzat eta geuretzat.
Arrixku berdiñean gaude. Oraindik etxea urrun degu.
Zorionekoak ordea, Jaungoikoa ta Lege Zar alde iltzen diranak. Aurrera kopetargia kementsu. Aurrera beti.

Rau, rau, au dek umoria,
utzi alde batera
euskaldun jendia!



Unamuno gizaraxuari egin diote ona.
Gizona, gizona!
Ez zerurako ta ez hurrerako utzi ez digute ba don Miguel. Egundo olakorik!
Marxismoaren aurka egin dituan alegiñak, eta ori eskerra, Jainkoaren izenean.
Salamankako Ikastetxe nagusiaren burua zan, irakasle burua, ta Francok usai txarra artuta edo kalera jaurti ba, ta erregezale purrukatu bat jarri bere tokian.
Orra orain geure jakintsua nora jo ez dakiala.
Gaizki dabillenak gaizki bukatzen du izan ere.
Gure don Miguel azkarrari zartzarorako sari ederra eman diote, arranetan.

Zerbaitxo egin bear zuan da
erkalaren aurka jaiki,
erlijioa galduko ote zan
beldur aundia izaki.
Paxixtak ere piña eztala
antzeman diote garbi.
Gure don Miguel gizatasunez
ez dabil ain ederki.

Bildutako sortatxoak (NB)

Euzkadi, 1936-12-09

Gudak beregan dituan mingotzaldiak ezagutu bear dira. Ezagutu ta toki eman, bide batez.

Ortara nijoakizute ni gaurkoan.

Gu azpiratzeko asmoz ingura zaizkigun arrotz endekatuen bala zikoitzak bide, geiago ez zutitzeko erori diran anai mamien oroiz aitamen batzuk egitera; len da orain adiskide antzo euren-gana urbiltzera.

Ea, irakurle maiteok!

Atozte nerekin!

Zuen laguntza gabetan, itzerdirik ezpainieke esango. Ain bea-rreko zaituztet...



Antzuolatar Anaxtaxioren izenez ezagutzen indutan.

Ez aiz gazte amutsa izana!

Urte mordoa duk ire ibillerak ausnartzen nituala.

Egur lanean aritzen intzan. Aita zarraren ondoan amaika az-talka egiña. Bankutako erredizaleak ezer antolatuko bazuten, ik gertututako puskak bear izaten zizkiteken. Langille zorrotza in-tzan, arranea!

Ez intzan gabeko ordu beranduetan kalean dexkuidatu zalea. Antoni-neko ostatu babexean ordu jakiñak arte egongo intzan, eta gero oera txintxo.

Goizean jaikitzean, nork aurea artu ordea iri?

Erriko kanpantorre zarreko laurak amaika aldiz anken gañean entzuna intzan.

Eiztari amorratua intzan, izan ere!

Zortziretan lanean asi bear da, laurden gutxitan arin-arinka belaunetaraño blai egiñik amaika aldiz gure ataritik igaroa!

Ire aldean lasai ibiltzen itukan Berazadi, Moulian da lagunak! Pabrikara beranduxeago joanda ere, errieta nork emanik ezpai-ziteken!

Aizak, eta antzezlari bezela zer intzan berriz?

Illari par eragiñazaziko iokan bolaraz. Alako erremintik i intzan beintzat!

Amaika aldiz makurtarazi nauk algaraz.

I antzezlari intzala jakin ezkerro, bestela joatea oldozten etzutenak joaten itukan antzokira. Artarañokoa izan!

Zarauztarrak ez eukaten saltzeko. Baña, orain...



Bertsotan ere zalea intzan. Ni zirikatzen ez intzan aspertzen iñoiz. Gogoratzen al aiz azkenengo Lekeitioko Batzokian igaro genian txolarte gozo aretzaz?

Orduan ere ik jarri nindukan kantari.

Abertzale bezela eredu artzekoa izan berriz. Amaika pauso aldatu duk baso-mendietan barna, lo ziarduten nekazari anaiak esnatzeko asmoz. Eu basarrian jaioa intzalarik, gutxiak bezela egiten ukan lan ori. Aparta intzan ortan ere!

Era guzitara ire utsunea arki bearrean gaituk.

Ertzaña taldean biok gaudelarik, ire lagun Matias Zaporra ordu guzitan i ezpainetan aula zeok.

Eizera geiago alkarrekin joango etzeratenik ez dik sinisten. Anaxtaxio ta Anaxtaxio egiñaz zeukat beti.

Len maitea baintzan, orain ez gutxiago. Itun zeok mutilla. Oso itun! Ezin aztu au ta...



Aundimendi maltzurak guda madarikatu au sortu ziteken zorigaitzean. Gure oitura ta ekanduak baztertu, gure euskera lurperatu, ta gu betiko yopu biurtu nairik, geure lurretara eldutako belar gaizto edentsuatzaz konturatu intzan, eta emen indarrik artu etzezan alegiñak egiteko Loiolan eman ukan eure izena.

Makiñabat mendi-gallur ikertu ukan izkillua eskutan ukelarik. Larritasun gogorrak igaro ere bai. Deba errian utsagatik libratua intzan. Zein kementsu ta ausarta intzan denak antzeman ziteken, eta zarauztar taldeko teniente egin induten.

Arabako lurretan lengo astean egin zan aurrerako sendo artan ere aurreko muturrean intzan, eta etsaiengandik igana zuzen eldu zan bala edentsu batek jo ta lurreratu induan.

Eu altxatzeko gauza ez intzan. Bestek artu, ta bear zan toki-raño bestek eraman indukan.

Erori intzan lur zatia ire zañetatik euzko odol gorriak estali zian. “Begira, begira” esan arren, ez ukan ezertxo ikusten. “Entzun, entzun” esan arren, ez ukan ezer entzuten; “mugi ta mugi” esan arren, guzia alperrikakoa ukan.

Noizpait atsedendu bear eta lo artu duk!

Egin zak bai lo, Anaxtaxio maite orrek, eta iñoiz esnatzea gertatzen zaikanean, eure lagunak ondoan gaitukelarik, betiko atsedan tokian izan dedilla. Goitar Jaunak alaxe naiko al dik!

Gudarien gabona

Euzkadi, 1936-12-23

Larunbata gabean Irradotsetik* Basarri ospetsuak irakurri zuana.

Euzko baso-mendi malkarretan tinko, zutiñik Euskalerra zaren gordelari zeraten gudarioi, agur, agur, biotzez!

Egingo ditudan itz bakanak, zueri zuzenduak izango dira. Beste oldozmenik ezpaita aspaldidandik nere baitan.

Euzko gudaria, Euzko gudaria! Zein itz pixuzkoa! Zein bearrekoa! Nik diodana zuek ontzat artuko dezute berriz.

Euzko gudari batek itzegiten baitizute!



Ama baten magalean azitako sei senide gera. Begiratu batera erreze igaro litekeala dirudian ibai baten aruztik dauzkagu senide auetako bi. Begiratura erreza dirudian ori, artara asita, igarotzen gaitza liteke ordea. Oso gaitza!

Onuzkaldetik lau senide gera beraz.

Gure sorlekua, gure txokoa ederretan eder ordea.

Bai, gudari, bai!

Gure aberri Euzkadiren edertasun dizdirak munduko gizonik azkarren eta jakintsuenetakoak arritu ditu. Gure erri au nola gozatu asmatu eziñik ibili dira ainbat.

Gure oiturak, gure izkuntza, gure izakera, guzia zerizkioten zoragarri. Bonapartegandik asi ta... Humbolt, Victor Hugo, Winsón ta konta ezin ala jakintsuk lore ederrik opaldu diote Euskalerra. Euren luma bikañez gure erri zar au lañotaraño jaso ziguten.

* Basarrik Irratitik irakurri-esana.



Ta lurralde au ederretan eder dalarik, zer zorigaitz demontre du ordea, beti guda maltzurraren atzaparretan ibiltzeko?

Voltaire-n iritziz, Auñamendiren oñetan dantzatzen dan erri paketsu au ainbat aldiz nola beartzen dute izkilluak artzera? Gu-ziak txoko onen zale dira; guziak onetzaz jabetu nai dute. Garai bateko Erromatarrak eta Mahomatarrak asmo onekin ingura ziztaizkigun. Ibañeta gañean azpiratu zan Karlomagnoren guda-rostea oro bat. Arrigorriagako oñean menperatu ziran atzerritar-rak berdin.

Geroztik, eta au da lotsagarriena, tamalgarriena, anaiak anaien aurka etxe barruko goraberak bide.

Gure gizonik aundienak, santu goragarrienak, Iñaki, Jabier, Oñaztar eta Ganboatarrak, abar eta abar...

Bederatzi urte iraun zituzten zoritxarreko karlatarren guda biak.

Ta orain, ene! Gizaldiak ezagutu duanik gogorren eta latzena, ezeztagarri ta madarikatuena.

Au zorigaitza gure erri zar onena.

Urteak joan eta urteak etorri, beti odol erio egiñik!

Geure etxea zaituko badegu, arrotzak jabetuko ezpazaizkigu, eten gabeko odol ixurketan ari bear. Millaka anaik erori bear! Zerbaitegatik zion Sabin aundiak:

Erri gaxoan jaio nintzan ni
zeure il orduan eltzeko?
Zergatik, ama, zeure semeak
ez dira itxartzen ondiño!

Entzule maite, Gabon datorkigu. Mundutarron gaizkatzallea jaio zan eguna. Erriko kanpai eta su-ziri otsak gortu bearrean amaika aldiz aundikiro ospatu degun eguna. Txiki ta aundi, zar eta gazte, mai baten biran alaiki bildu oi giñan eguna. Erriko den-datxoak bestetatik berezi agertzen ziran eguna. Leiotik sudurra

denda barreneratu nairik egon oi giñan eguna. Jaiotzak eskuetan zituztelarik, gure gazteai

Artzai burutxuri bi,
Anton eta Peru,
Belengo portalera
etorri zaizkigu...

... entzuten genien eguna. Aita zarra ipui esale, eta ama biotz biguñia par-irriz somatzen genizun eguna.

Gaur ez degu ordea olakorik. Goiko mendi malkarrean orra or euzko gudaria. Igarotako urteak gogoratuko zaizka ba orri ere. Zaku zar batzuk aurrean, izkillu edo arma eskuetan. Ez dizu beste babexik. Asko ta asko gurasoen berri gabe. Zer kezka ez dira jaioko gudari oien barrunbean!

Gurasoak, senideak, bere maiteñoa, guziak etsaien menpean, eta bera or, denboraren zipotzaldiak sufritzen; ekailtzaldi zaka-rrak jasaten!

Euzko Langillen argitaratu ditudanak bidezko derizkiot.

Guda-oñetatik urruti bilduko zeratenak, Gabon gaba etxe eder edo jauregi apañetan ospatuko dezutenak, bala zipotzak galdu beldurrik ez dezutenak, gudari gizaraxo orretzaz oroituko ez ote zerate? Zerbait esku-luzatze egingo ez ote dezute?

Zuen lasaitasunagatik, zuek etsaiengandik urrun pakean bizitzeagatik bizia ari puntan darabilkian gazte orri lagunduko ez ote?

Bai, nik badut itxaropena. Euzkotarrak! Bizkaitarrak! Gizon jokatu! Izan biotz zabal! Luza eskua! Lagundu euzko gudariai! Jesusen jaiotz-egunak bestetatik berezia bear du mendigañik malkarreanean ere.

Euzko gudariak, gau on igaro bear dute.

Agur, euzko gudaria! Agur, gure itxaropena!

Jaunak osasun dizula!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-01-03

Agur, *Eguna*! Agur, poz irriz.

Motellak! Ederto apainduta kelaratu aute gero! Dotorea ago, arranetan!

Kanpoz begiraten bazaik, jantziz iñoren lotsik ez daukala aitortu bear.

Ta barren muña?

Ortan ago sendo, ortan!

Bejondaikela, motel!

1937garrenaren asieran orren bikain kementsu agertu aizen ori, ondorengo urteak amaitu ta amaitu, igaro ta igaro doaze-nean, i egundo baño trebeago ta osasuntsuago izatea nai nitek.

Orixen nire amets bakarra!



Entzun, irakurle.

Lizardi euzko olerkari gurenaren *Itz Lauz*-en orrialdeak iñoiz miaztu dituzu?

Zein eztitsuak diran ba!

Aztu eziñeko bere maitetia euskera zizun Lizardi aundiak. Une oro derrior berekin bear zuen pitxia.

Ainbat aldiz amestu zizun egunerokoaren oiartzuna euzko kaletan zear entzungo balizu, zer brinka ez luke egingo gure Joseba Mirenak? *Eguna! Eguna!*

I izango aiz euskaltzale zintzoen eguneko gosari. I gabe gu elikatzerik etzeok.

Lizardi ta Kirikiño baten begiak ikusiko baintute!



Ergelak gaituk euzkoak.

Ergelak ik dakarkikan pitxi ederra guraz. Arrotz kutsuak aspaldidandik asiak itukan gure lurretan, eta erabak arrotzuak gai-

tuk oraintxe. Maatsik onena etxeko maastian degun arren, beti auzo maastira goazik.

Ik *Eguna*, etxeko maatsarekin egindako edari gozoa eskeintzen diguk, baña beldur nauk bear ainbat edale ez ote dukan izango.

Ulertzen, irakurle?



Utik, laño beltz itsusiok!

Urrun, itsasoaren orru takarrok!

Ixil, Amaren negar zotin itunok!

Orobat izkilu ta suaga zarata nardagarriok!

Pakea bedi guzion erregin!

Ez geiago odolik euzko mendietan.

Euzkadi euzkoentzat!

Erriak euren burujabe.

Langilleak orobat.

Auxe izango al da 1937garren urteak ekarriko digun saria.

Agirre jaunak esan duan lez, unerik beltz eta latzenetan berpizten dira erriak.

Jaunak nai dezala gure oni au gertatzea!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-01-05

Euzko emakume bat arki dut; beragaz izketalditxo bat egin ere bai.

Denborak dira ezagutzen dudala. Ille gorrixta, gorputz lerdan, begi amesti, aurpegi ezin politagoko bat...

Abertzalea orratik! Auxe inork ukatu ezin genezaiokena. Fiñagoa da gaixoa...

Bilboko kaletan topo.

Lenengo egun onak, gero gure Gipuzko maiteko oroipen batzuk, eta azkenik neri mingañeratu zitzaidana. Alkarren berri ondo jakiteak ekartzen duana. Galderak emendik eta galderak andik, baña garrantzizkoena beti gogoan.

Mellarik aundiena zerk egin lezaken jakiten dute ondo ezagutzen diranak.

–Aizu, ta Mikelen berririk, bein eta betiko alkarganatzeke egun uts batzuri begira zeundeten Mikel ura zer moduz?

–Bai, Basarri; Mikelen berriak ere badizkitzut.

Egun uts batzuri begira betiko elkarganatzeke.

Alaxe zan. Egia diozu.

Guzien Jainko izan naiko arroputz endekatuak ekaitzaldi au ekarri ziguten ordea, ta alkarganatu bear genduanok emen gabiltz bat batera ta bestea bestera, oso sakabanaturik.

Emakume batek gizona maite lezaken neurrik goinez maite dut nik Mikel.

Lenengo aldiz argia ikusi nuan sorlekua ere maite dut ordea, Euzkadi aberria ordu guzietan aurrez aurre dut; bere etorkizunari begira nagokizu uneoro.

Burrukaldi latz ontan galtzalle bagina, zer litzake gure Euzkaditzaz?

Zer gure oitura, ekandu, abenda, izkuntz zoragarriatzaz?

Arrixkurik aundienean arkitzen dan aberriak seme guzien bearra du, ta ain maitea dutan Mikel ere amaren deiari erantzun

nairik, izkillua eskutan ongi bildurik mendi goruntz joan zan eta an dabil agintzen zaiona zintzo egiñaz.

Mikel emen gelditu balitz, Basarri, aberri ama iraindu ta atsekabetuko zuan, eta aberri amarekin batera, nere biotz abertzalea ere bai.

Mikel gizonetan geiena maite dutana da.

Aberritan Euzkadi ordea. Bera bakarrik baida nerea.

Ona emen gaur eguneko askorentzat ikasbide ederra! Euzko emakume bat arki dut, benaz!



La Tarde egunkaria dut eskutan.

E. de Estella idazleak betiko lez zati polita dakarki.

Los anguleros izenburuz yarrita Bilbaoko txitxardinzaleetzaz itz goxoak ditu.

“Gabeko lan nekosoaren ordañez, baia zabalarekin saiatu diran bezela saiatu, ta libratxo bat bildu badizute, kontent.

Urrengo goizean zapi txurian bildu ta plazara.

Ordaintzen dan ainbat ordaintzen dalarik ere, bear ainbat iñoiz ez da ordainduko.

Pobre angulero! Tengáis valor! –dio azkenik idazleak.



Ta onek guziak zenbat oroipen sortarazi dituan nere baitan!

Aginaga-Usurbil zear ginjoazelarik, zenbat aldiz esan degu gutxi gorabera idazle onek esan duana.

Oria ibaia Donostiko kaleak bezin argi izan oi zendun urte garai ontan.

Ibaian jairen bat zanekoa esan ziteken bolaraz.

Berbena gixaz, gizona!



Egun aiek etzien oraingo auen antzik. Agiñako Ximona-nean ez itukan txarrak txitxardiña jartzen.

Ango betekak gogoratzen?

Sarde edo tenedore gañean ezergatik egon nai ezik mugiltzen ziran txuri aiek? Mekasuen! Baletxeok!



Gaztelu bertsolaria Aginaga ondokoa zan.

Parranda azi xamarra eginda astelen goizaldeko ordubik inguru ortan etxeruntz zijoan.

Ontan, txitxardinzale edo anguleroak bidean topo. Aiek ere, saiatu arren ezer egin gabe euren etxetara zijoazen. Euren argi ta guzi ala ikusi zituanean, zabal-zabal jarrita bertso au abestu zien Gazteluk:

Aberasteagatik
ortaraño saya.
Orrela santifikatzen
al dezute jaya,
txitxardin batzun truke
utzirikan oya?
Kalatu dezute baña
utsik dator baya.



Bilbo zatitzera etorri zitzaizkigun egazkin aietzaz oroitzen?
Mola edo dalako petrala izan zer gertatuko zitzaigun adierazi ziguna.

Errenditzen ezpagañan...

Berriro ori omen degu bestalde ortako buru.

Bera etorri omen da, “a dirigir las operaciones del Norte”.

Esan gabe ere ezagun da, bai.

Santander-en gerta danari begiratu.

Europako militarrek zer ikasia badute Españaokoengandik.

Guda onetatik eun aneurkin edo kilometrora dauden erriak oldartu, txikitu, zatitu.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-01-07

Zorionekoak sinismentsu diran erriak; benetako sinismenak bultzata dabiltzan erriak.

Gudate beltz nardagarri ontan, zenbat aldiz ibili gera sinismenagan ezpada, besterengana itxaropen gabe?

Asiera-asieratik izkilluak bizkarreratuta, Gipuzkoako mendi gañetan zear ibili bearra izan genduanok zerbait esan genezakela deritzat.

Ea entzuten didazuten ba.



Loiola aurrez aurre. Bai, Loiolako gudaretxe yatorra. Iñaki aundiak lenen argia ikusi zuan toki aipagarria.

Etsai ankerrak Gipuzkoan oña sartu dute. Egunetik egunera aurrerago datoz. Gure erri koxkor paketsuak euren mende dira.

Sartzen diran tokitan egiten dituzten aberekeriagaz berridun gera.

Oiartzunen sendi abertzale bat desegindu dute. Iru aur txiki ta ama erail dituzte.

Iruñako espetxe illunetara aldatutakoak asko ta asko dira.

Abertzale usaiko guzia badaramate.

Beasaingo ille mozketak, erailketak, sokatik zintzili eukitzeak eta gañontzeko tratu txar esan ezin alakoak sutzen gaituzte.

Euzko Alderdi Jeltzalearen itza entzun da. Agintariak dei dagiote erriari. Izkilluak artu bear dira, aurka egin bear zaie, geure buruak eta geure lurra aldeztu bearrean gera.

Ta Loiola aukeratzen degu geure biltokitzat. Euzko baratzeko landare mardulak emen batu bear dabe.



Agintarien deia, obeto esateko, aberri-deiari zintzoki erantzunik, bosteun bat gazte bildu gera berealdiko batez.

Aztu eziñeko Alberdi zana, ta abertzaleok bear aña iñoiz goralduko ez degun Saseta, denon buruzagi.

Bosteun mutil, milla beso, ta (au lotsagarria!) zazpi pusil txar baño ez. Karabina xaxtar batzuk gañontzeko osagarri.

Irurogei bat Mausser izatera eldu giñanean ume txoroak baño areago giñan.

Au guzia onela izanik (bi gabetan, ondo gogoan dut), Irundik Loiolara etorri zitzaizkigun erregai edo munizio billa.

Bidani alderaño erreketek inguratuta ta, gendukan gauza pixka utsaren eske Irundik Loiolara, ajalaña!

Ederra bertsoa au ere! Guda irabazteko ederki genbiltzan!



Euren itsasontzi oker guziak geure uretan zebiltzan. *Belasco, España* ta *Cervera* etziran Donosti bistatik kentzen. Ale ederrik jaurti ziguten.

Egazkiñetik guk bezelako ogei bazuten. “Terzio moro beltz” ta iñon diran barrabas guziak eurekin.

Kañoi, tanke ta abarrekin jaungoiko ziran berriz.

Zer egin? Nork eldu? Nola aldeztu?



Illun eta naasi zegon guzia.

Guk iñongo laguntzarik ez gendun bitartean, iru nazio, etsaiak lepo-ezurreraño betetzen ari ziran.

Alaz guziaz ainbat denboran eusteko diña izan giñan.

Gogai sendoa duan erria menperatzen gaitza izaten da.

Azkenik, ordea...



Sinismeneko gizonak oldozkor iraun degu.

Ain sinismentsu dan erri zar au Jainkoak bere eskutik utziko ote du? Au gerta ote liteke?

Ez, etzan komeni, ta ezta gertatu.

Egun batetik bestera gauzak arrunt aldatu dira.

Beste nazioak begiak argitu dituzte. Euren laguntza opaltzen asi dira. Len ajolagabe antzean zeudenak, piztu ta sutu dira.

Amerika arterañoakoak beso luzatzen asi zaizkigu.

Zuzentasuna ta arrazoia gallen urtengo dira. Itxaropenik one-na sinismena beti. Zorionekoak egiazko sinismenak bultzata da-biltzan erriak.

Gurutze deuna beti geure goiburur.



Basariri omena. Zarautz, 1935.01.27an.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-01-14

Igande arratsaldea.

Eguzkiaren goxoa bai pozkiaz nabari!

Bizkaiko erri txiki baterako deia dutalarik, araxe noa zuzenki.

Belbil bizkorrari esker, berealako batez bertaratu naiz. Aurrean eliz-torre gurena, uri paketsu politaren zuzendari lez. Etxe txuri apañak albotan bere apaingarri antzo...

Bertako biztanliak kaletxotan aruntz-anunzka, izar nagusiaren printzez ase asmoz.

Ene, unearen atsegiña!



Arratsaldeko bostak.

Yaialdia asi ordua.

Sarkaldeko ate zabaletan izar nagusia igaro dalarik, babex billa erriko yendea.

Antzoki polit egoki bat aurrez aurre. Jostarratzarentzat tokiarik ez uzterano gixaz gañeztu da. Au sarrera! –diote antzezleri bizkorrak par irriz. Erdel antzerki bi antzeztu dira. Ikusleen gogokoak izan diranekoa dirudi.

Erriak txalotu baititu.



Atalarte batean gaztedi zoragarriaren aurrera irten bear nizan, kantura eramana baininduten!

Nere saioa egin dut. Ustez egoki xamarak abestu ere bai.

Bertso bakoitza amaitzen nuanerako kezak gañezten ziran nere baitan.

Gaizki ari ote naiz?

Euren gogozko ez ote naiz?

Euskerarik ez dakitenen aurrera erakarri ote naute?



Gizon egin batzuk inguratu zaizkit; urtez ornitu xamarrek alegia.

Gogozko izan nintzaienekoa agerdu zidaten. Zoriondu egin ninduten, eta nire euskera, dana ulertu zutela zioten.

Bizkaieraz egiten zerbaitegatik saiatu nintzan.

–Tamala, baña –zioten– emen, Basarri euneko iruk ez dakije euzkerik, eta abestu dozunan barririk ez dabe bape. Oso galduak gagoz!



Antzokitik lau pausora edaritegi bat.

Garagardo pixkat artu bear zala ta, antxe sartuarazi ninduten.

Mai guziak agure zarrez beterik zeuden. Batzuk yokoan, besteak begira.

Guzien artean izkuntza bat ordea: euskera, euskera utsa.

–Auek –nion nik nereko– abertzaletasuna ezagutzeko zoririk izan ez dutenak dituk bear bada, ta bear bada bere etsaiak.

Alare auek abendaren ezaugarriarik bikañena ezpañetan zera-bilkitek, euskeraz oldozten ditek, euskeraz bizi dituk, eta aber-tzaletasunak bultzata edo antzokira joan dan gaztediari euskeraz edo griegoz egin, berdin duk.

Taberna ontan bildu dan zar jendea ta kidekoak bizien artetik agurtzen diranean, euskera ere erri ontatik agurtua izango duk.

Batzokia betea duk; gañeztu bear bada. Atzerri elea izango duk ordea etxeoandre.

Bitartean, tabernako aulki zarrak izango ditek an ezartzen ziran aiton zar euskaldunen oroitza.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-01-16

Amaika komeri ikusteko sortu giñan beintzat mundura! Askori on egitearekin zeure buruarentzat onik ez dezu izango.

Txarrera asten bazera berriz, okerretan okerren eta biurrietan biurrienetzaz joko zaituzte.

Kontuak dituk emen. Nola asmatu?



Matxinada sutan dago. Gipuzkoako mugetan egundoko burruka dabil. Irun aldean batez ere.

Erri guzitan guda-batzorde edo komiteak euren lan astuna egiten diardute.

Ustekabeko arazo pixuzkoak uneoro sortzen dira. Arrixku bizian arpegi eman bearra sarritan dute batzordeko gizonok.

Asmo zatarrez, odol egarri itsuz dijoazen askori, esti atzera arpegira jaurti bear diote. Edozertarako gertutu bear dute.



Gipuzkoako erri polit paketsutako bat Zumaia dezute. Bertan gertatutako zerbaitxo edestu nai nizuteke gaur.

Egun batez, erriko erretore jaunaren billa alamoduzko jendetza inguratu zan.

Asmorik makurrenez zijoazela urrutira ezagun zuten. Aien eskutara ezkerre erretorearenak egin zuan.

Zumaiko alkate jaun prestua ta bere lagunak bereala konaturatu ziran gauza onik etzala, ta arrixkurik larrienean aurrera egiñik, nolabait lortu zuten txanburu jauna gaizkatzea.

Ain biotz on zabalekoa izanik, alkate jaunak erretore jauna bere etxera eraman zuan, eta 22 egunez nai zuan guzia jan da edanez antxe euki.

Jaun au lasaiago egon zedin, gabeto zaitzale edo guardiak jartzen zitzaizkion gañera. Gordelekua alkatetxea zuan; gaizkatzalea, alkatea!



Ordutik ona egunak eta illak igaro dira. Reketeak jabetu ziran erriatzez.

Alkate jaunak eta bere laguntzaleak erri maitea utzita al zuten tokira aldatu bearra izan zuten.

Erretore jauna an gelditu zan ordea; poz neurrigabez gelditu ere, noski.

Oraindik zortzi egun eztirala, irakurle, Sevillako izlari sonatu Queipok, ondoren dijoan urrutidatz edo telegrama au irakurri du bigoteari eragiñaz:

Excmo. Sr. Don Gonzalo Queipo de Llano – Sevilla.

Permita, Ilustre General, le felicite como párroco de Guipúzcoa que siempre ha pensado en español tradicional y católico. La España de los párrocos de Guipúzcoa es la España de Ignacio de Loyola, Francisco de Javier, Elcano y Moscardó. Finalizo, señor, diciéndole que salvo raras y desgraciadas excepciones de parroquias sin importancia, los párrocos guipuzcoanos nos sentimos orgullosos de esta España, por patriótica y católica. ¡Viva España! ¡Viva España! ¡Viva España!

Wenceslao Mayora, párroco de Zumaia



Ez dut uste ezer itzegin bearrik dagoanik. Au guzia irakurri ostean, irakurleok itzegingo dezute egokien.

Euzko abadeak, Europaren lau aldetako txaloak irabazi badi-tuzte ere, tartean-tartean azal makurrak ditugula ezin uka.

Jaunaren ordezkari batentzat ori itsumena! Urrengoan nork gaizkatuko du?

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-01-17

Amaika gertakizun itun eta xeble antzekok toki oi ditek gudate-tan. Oraingo nardagarri ta itxuragabeko ontan ere gertatzen duk ederrik!

Izan ere, au ez duk nazio arteko guda. Emen anaiak gabiltzak anaien aurka.

Lengusu ta anai baten berriak jaso dituk agian, guraso biotz bigun eta beste senideen aztarrenik ez duk ordea.

Ez ondo diran, ez nun diran, ez bizi diran, ezer ez.

Guda madarikatua! Ezeskarria aiz benetan!

I sutu ta gure artera erakarri autenak ere ezesarri ta mal-tzurak dituk. Bi aldiz damutu zaiotek apika iri su emana, baña oraindik obeto damutu bear zaiotek.



Euzko gudari bat arkitu dut Bilbaoko akeitetxe baten. Gipuz-koako mendi gallurretan nerekin batera kementsu ibiltzen zan arren aspalditxodanik ikusi gabe nintzan gudari bat.

Oi dan bezela, esku-luzatze beroa, besarkada, itz-jario luze antxa ta abar...

Mutil au nire begitarako etzan lengo mutilla. Lengo par-irri ta alaitasun txinpartik ez nion arkitzen.

Nik neuregan sentitutakoa berari galdetu nion.

–Poz-jario utsa intzan orri, zer gertatu zaik ordea?

Buruz bera anaiaren il berria artu berri zuala erantzun zi-dan.

Etzan arritzeko itun egotea! Atsekabeen lagun nintzaionekoa garaiz agertu nion.



Mandatutxo bat eman zidan. Auxe zion berak:

–Ondarretan bizi aizen ezkerro, onoko papertxo au onoko jaun oni emango al iokek?

–Bai, motel, pozik! Nik egin nezakeanatik agindu beldur gabe.

Nik papertxoa artu eta bear zan tokira eraman nuan.



Berriro topo gure mutilla. Illabete mendian igarota dator.

Iru egun Bilbaora eldu dala.

Ikusi naunerako brinkoka dator neuregana. Ni nola eskertu eztaki; ezin du asmatu.

–Baña, zer duk ordea oñengotik orrela aldatzeko?

–Gauza aundiak, motel –erantzun dit–. Ik papertxoa eraman iokan jaun arek bere etxera deitu ziaken, eta bere altzoan bazkaldua nauk atzo. Anaiaren il berriak badakik ni zein triste utzi nindun.

Elizkizunak egin genizkiken. Senideak, lagunak, iñungo adis-kide denak bilduta egin ere.

Nituan txanpon denak artarako utzi nizkian.

Orain, orain, Basarri, ik papertxoa eraman iokan jaun orrek, il zala uste genian anai orrek idatzitako karta bat erakutsi zidak.

Frantzian ondo baño obeto dagola zio, eta gure berriak jakin nai dituala.

Au gogorra ezpada ba!



Nire lagunak zion bezela, gogorra ere izan au.

Guda madarikatua! Guda maltzurra!

Amaika onelakoren iturburua aiz i!

Ta oraindik gizonak i nai autela!

Mundua galdua zeok!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-01-24

Denboraldi xelebreak izaten dituzu inoiz.

Euri itxura galantak, gañeko laño multzoak, eta euririk ez.

Urrena, batekoz bestera.

–Gaur egurastu bearrean gaituk; izar gallenak bere egunetako bat izango dik.

Zakurran aizea! Eguzkiaren aztarrenik ez!



Uneoro Europaren gañetik dakusgun laño multzo pillakatuak zer ekarri lezaiguen jakiten ezta errez.

Une batzutan, jasarik makurren eta beldurgarriena datorkigula dirudi; ta aldi gutxira, eguzkiaren printza gozotan pozkidatu bear degula.



Faszismoaren berri aspaldidanik dezute; zer gogai duten badakizute, zerek bultzatuta dabiltzan ere bai.

Aundinaikeria, indarkeria, jabetasun-naia.

Aundinaikeria, beste guzien gañetik eurak nai dutelako, asmorik makurrenez, munduaren lau exkiñetan eurak egindu nai dutelako.

Indarkeria, gizonari oldozten edo nai duan eran pentsatzea eragotzirik, indarkeriz eurenganutzen dutelako.

Hitler-en gixa, ogirik ezpada ere, kañoen zale diralako; itz batean, dena indarrez eta derriorrean nai dutelako.

Jabetasun-naia, Abisinia, Balears, Marruecos eta abar eredu diralarik, España, Txekoeslovakia ta abarretzaz jabetzea beste asmorik ez dutelako.



Italiar eta aleman ollarren kukurrukua entzun da ordea, ta Errusia, Frantzia ta Ingeles ollarrak kokillago ez diralarik, indartsu ta kementsuago erantzun dute.

Ez dago orain lengo txantxarik.

Gaur arte mundua bapo atzipetu dute.

Erlijioagatik jaiki dirala, komunismoa ez jabetzeagatik, “canalla marxista” bein da betiko azpiratzeagatik...

Baña, ka!

Au ez duk Abisinia!

Europaren erdiatzaz jabetzea beste asmorik ez maltzurrok. Gaur au artu, biar ura, ta etzi bestea...

Poliki, konpañeo, poliki.

XX eunkia siglo duk gero!



Blum jaunaren pazientzia pikotara joan zan.

Edozertarako gertu dagola dirudi. Frantziakin konta liteke gaur. Eztu geiago faszismoaren maltzurkeririk jasango.

Inglaterran derriorreko gudaritza jarri dute; prest daude gerta litekenerako.

Errusia berriz, idia baño gogorrago dago edozein erasori arpegi emateko.

Kontuak kontu dituk, baño, au eztala auntzaren gaberdiko eztula.

Ez arraioa!



Uzturre bizkorrak zion bezela, Europako lurak gasolinez bustiak duade.

Faszistak izan dira gasolina orren zabaltzalle.

Lenengo poxpollu piztua eurak botako ote dute? Baliteke. Ori seguruago.

Gero, su ikaragarri ori eurak nai orduko ezta itzaliko. Damutuko zaiote ezertan asia.

Bestela, denbora testigu!

Gabilondotar Gerbasi.

Karlatar zintzo bat il da...

Eguna, 1937-02-04

Berri itun, mingotz egalari bat ingura zaitalarik, atzerako aunditxo eragin dit gauz onerako.

Zazpi urte aundiren buruan tellatupe batean etzanak izanik, nola samindu ez guraso antzo nizun adiskide miñaren alden-tzeak?

Gabilondotar Gerbasi il da!

Euzkadiren aldezele zintzoa il da!

Eredu artu bearreko karlatar sendoa lurtarron adetik alden-du da!



Guzion epaia aurrez izendatuta dago.

“Autsa zera ta auts biurtuko zera”.

Gizona ameslari utsa danean, gaurko naigabeak jasanez, biarko zorion argitzeari begira dagonean eriotzak besarkatzea ere...

Ene!

Baña, zorionik ba al da bee ontan?

Rousseau bizkorrak dionez, gizona jaiotzen dan unetik asten da iltzen.

Ordua datorrenean erantzun egin bear!



Gabilondo aspaldiko urtetan ameslari zan. Bera jaio zan lurra azke, zorionsu ikustea bere amets etengabea.

Askatasuna galdu genduanetik eungarren urtea bete baño len, berriro euzkoak Euzkadiren jaun da jabe ikustea itxaroten zizun.

Ben-benetako euzko gar indartsua zuan biotz zokondoan.

Beragaz izketaldirik izan dezutenak nunai aitortuko dezute.

Ta orain katramilla ikaragarri onen ondoren guzia eskura datorkigula dirudiñean, urtetako bere ametsak egi biurtzera zi-joazen unean, bere begi ederrak geiago ezer ez ikusteko itxi bear izan ditu.



Zorionez, euzko idazleak asko ugaltu gera. Lanerako toki neurtuak dauzkagu ordea, ta gure lantxoak laburrak izan bear.

Biar jarraituko dut Gabilondotar Gerbasi karlatar zintzoaren berri ematen.

(Jarraitzeko)

Gabilondotar Gerbasi.

Karlatar zintzo bat il da...

Eguna, 1937-02-06

Gabilondotar Gerbasi tolosarra zenduten.

Aurreko oñarri zarretatik karlatar itsu-itsua zetorren.

Bere aiton xaar aztu eziñekoa ben-benetakoa izan zan ari ortan. Bere gogai zuurrari jarraituz, bere ondasunak melartu ta arrunt ezereztaraño eldu zan; Karlatar gudari errime ta bikañetako bat izan zan. Aitak ere berriz, aurrekoen xpilluz ikusten zuan bere soña, ta beti euskaldun karlatar sutsu agertu zan.

Gerbasiren aziera zer izango zan esan gabe kontura ziñezteke.

Karlatar jaio zan; karlatar azi, ta karlatar bizi bear zuan.

Alderdi orren alde urte askoan etengabeko lanean aritu zan.

Guraso zarrak erakutsitako bideetan eurak bezin sendo ta zuzen jarraitu zuan.

Tolosan erri-gizon edo ziñegotzi izan zan luzaro; itzal aundiko jauna zan Gerbasi.

Berak sentitzen zuana esateko lotsik eta kilimik etzizun iñoiz.

Karlatarra zala nunai aitortuko zizun, baña euskaldun karlatar benetakoa, geitu oi zuan.

Euskal-edestia ondo ere ondo zekian; bere gurasoak zergatik eta nola burrukatu ziran ere bai. Ainbat zorigaitz eta negar lurralde samindu ontara ekarri zuten karlatar izenez ezaguturiko gudateak sarri bururatzen zitzaizkion.

Gure aurrekoak Isabel edo Karlos ez baña, erlijioa eta fue-roen alde ixuri zutela odola esan oi zuan.

Zumalakarregi aundiak Karlos-i esandako itzak: alegia bera-gatik etzebilela, fueroagatik baizik...

Puente la Reinan Lopez Zabalegi sargento jatorrak erruztuta-ko “Viva los fueros”! deadarraren ondorengo jaikiera...

Mungiako ta Ibañeta-Roncesvalles gañeko gure asaben garaitzak... Negargarrizko besarkada maltzurra... “Gamazada” sonatua ta abar sarritan edesten zituan gauzak ziran, eta ain barrendik bultzatzen zion euzko garra zualarik, oroitzaren tris-turak eraginda masail biribilletan malko tanta astunak ikusten genizkion.

–Ni karlatarra naiz, eta ala izango naiz –esan oi zuan–, baña... Gora Euzkadi askatuta!

Neretzat ori esatea, nik deadar ori egitea, nire aitak, “Viva los Fueros!” oiuztatzea ta deadar egiten zuan bezelaxe egitea da-ta.

Biar arte, irakurle.

(Jarraitzeko)

Gabilondotar Gerbasi

Karlatarra zan, baña karlatar izenekoak ezin ikusi zuten

Eguna, 1937-02-29

Gerbasi sentitzen zuana esateko beldurrik eta kokiltasunik etzuala agertzen nizuten atzo. Gerbasi karlatarra zala itzez eta egintzez azaltzen etzan iñoiz aspertu, ta alare karlatar izenekoak gorroto bizia zioten.

Gerbasurekin ondo uztartzen ziran karlatarrak bi edo iru baño etziran erri guzian; gañontzekoak kilometrotara ere ezin zuten ikusi.

Irudizko karlatar oiekin itzegiteko zoririk izaten zuanean, Gerbasik egiak argi ta garbi kantatzen zizkien.

Tradizionalismoak bide okerra artu zuala agertzen zien, euren ikurritzean, *Patria* ta *Rey* itzak geiegi astintzen zirala, ta beretzat garrantzitsuena zan “Fueros” itza baztertu ta zokoperatzen ari zirala. Bera etzala abertzalea, ta etzala egundo izango ere, baña bere aurreko karlatar zintzoen dotriñari gertuenetik edo urrunetik jarraitzen zion dotriña abertzaletasuna zala bere iritiz.

Gerbasi era ontako astiñaldiak sarri ematen zizkien karlatar izenekoai, ta auek ollar erneatu zikoitzaren gixa, gizon au lapras-tatu ta purrukatu naian ibiltzen ziran.



Gerbasi gizarte-auzi zalea zan; langillearen aldeze sutsua, ta beragatik, gai ortan ere oso biurri zetorren bere alderdiarekin. Erromako Doipuru agurgarrien agirien berri bazuan, enziklika-k ondo ausnartuak zeuzkan-da; euren alde “tradizionalismoak” ezer ez egiteak osoro samindua zeukan. Araudi edo estatuto gaiz tradizionalismoak emandako oinkadak lenez gain arrunt asarre-razi zuan gure gizona. Euskaldunik alderdi artan ezin egon zite-keala esateraño mindu zan.

Araudi alde beste edozein bezin bikain eta kementsu jokatu zan.

Donostiko *El Pueblo Vasco* izparringian egi ederrik azaldu zuan biotzminduta. *Beti bat* izenordez idazki sakonak argitaratu zituan. An agertu zuan bere alderdiaren jokera itxuragabekoa, an agertu zituan tradizionalismoak zeramazkian okerbideak, aurreko karlatar zaarren bikaintasun, gizatasun, pintasun ta oraingo karlatar izenekoen diru-gose, aundinaikeri, arrokeri ta atzerri-zaletasuna.

Itz batean, tradizionalismoaren ondamendia.



Euzko izparringiak irakurtzen zituan, euzko liburuak zer esanik ez. Azkenaldera, abertzale jendeak arrigarrizko maitasuna artu zion. Ain garbi ta jatorra zalako; sentitzen zuana gizonki arrazoitzen zualako...

Itzaldietan ikusten genduan; batzoki aldera sarri xamar inguratzen asi zitzaigun. Beingo batez Monzon jaunari entzuten zegolarik, eta jaun onek Garibay, Ramery, Iztueta edestilari ospetsuengandik artutako agirietatik lengo karlatarren gizatasuna agertzen zualarik, aulkitik altxa, ta “ona emen aien jarraitzalle bat!” deadar egin zuan, eta ondoren barren-pozak ixuri arazitako malkoak matralletan zitualarik, “Gora Fueroak eta Gora Euzkadi askatuta”, geitu zuan.

Jende guztia aulkitik jaiki, ta karlatar zaar zintzoa txalotzen asi zan.

Biar arte, jaunak.

(Jarraitzeko)

Gabilondotar Gerbasi

Goi jauregian bedi (Amaia)

Eguna, 1937-02-12

“Giza-batza badabil, baña Jaungoikoa zuzendari edo giari dala
“–dio antzinako jakintsu batek.

Badabil bai, ta Jaungoikoak nai duan arte ibiliko da; ark derizkionean, ibiltzerik naiko ez duanean, gelditzea ta poto egitea ere derriurrekoa izango da orratik.

Gabilondotar Gerbasi zintzoa orain artean ibili da; euzkotar leial eta kristau zuzenaren arauz ibili ere. Goi jaunaren deia izan duanean, ari erantzutea nai ta ezkoa zuan ordea.



Matxinada ezeskarri bidegabeko au sortu zigutenean, lenez gañera sutsu jaiki zan Gerbasi, erriaren eta langillearen aurka diru-egarri ase eziña bide armetan zutindu zitzaizkigun eskubi izenekoan aurka.

Gure etsaiak –erlijioagatik uzkurtza galbidean zijoalako jaiki zirala– radioz eta izparringiz mundu guzira zabaltzen jarduteak, burni goritu gixa jartzen zuan Gerbasiren barren esia.

Zer egin dute Doipuru agurgarrien enziklikakin?

Zer egin zuten Jimenez Hernandezekin?

Zer, euzko aldunak kristau ikasbidearen alde españar late-txera aurkeztu zuten agiriarekin? Baña, zer egin dute erlijio alde? Noiz? Non?

Amaika onelako egi sakon entzunak gera bere ezpain gozoe-tatik.



Gipuzkoar lurrari eusteko diña izan giñan arte, amaika la-guntz eta esku-luzatze egiña zan Gerbasi jatorra.

Euzko gudaria zan bere amets eta itxaropena ta euzko gudari alde zezakean guzirako gertu ta prest izaten zan.

Ezer geiago gabe bi illabete aundiren buruan, paxiotar gudariai eutsi zitzairen bezela eusteko euzkotarrak bakarrik zirala diña, esan oi zuan sarri.

Egun batez eziña etorri zan denok dakizuten bezela, ta ainbat milla Gipuzkoarren antzera, Bizkai esperrura ingura bearra izan zuan eredu artu bearreko karlatar ospetsuak.

Gernikako uri apaña zuan espaldidandik ostatu, ta ezbear baten ondoren, bertan eman du azken arnasa, ta bertako lurrak estali dute Gerbasi goralgarriaren soña.



Karlatar jaio zan, karlatar bizi, karlatar il...

Ez mingaña batera ta biotza bestera darabiltzkiten karlatar antzo, ez erlijioa gaizkatzeko Mahomatarrak dakartzkitenen gixa, ez erlijioaren izenean euzko apaizak illaz, “Dios, patria, rey” itzak darabiltzkitenen antzera, aurreko oñarri zarrari jarraituaz, Jaungoikoa ta fueroak beti buruan zituala baizik.

Orrela jaio, orrela bizi, ta orrela il da Gerbasi.

–Nik abertzaletasuna oso osorik onartzen det, era guzitara zuekin nago, baña, abertzaletasunean izena emanda baño askoz lan onuragarriagoa egin nezake nagoan tokitik eta nagoan bezela –esan oi zuan Gerbasi argiak.

Goi-jauregian bedi bere gogoa.

Etxera begira. Gogai sendoaren indarra

Eguna, 1937-02-14

Gogai sendo baten indarra neurtzen ez da oso xamurra. Barrenak ortara itsumustuan bultzatzen diolarik, gizona ñork uste baño gauz aundiagoak egitera eldu liteke.

Orrialde batzuk irauliaz antzin-arora joango gera unetxo batean. Jesukristo mundura etorri aurretik giza-batza nola zebillen danok dakizute. Etengabeko burrukaldi, gudate, gosete ta abar.

Aitamen onek zenbat burutapen sortarazten ez ditu!

Ogeigarren gizaldian galararik, Jesukristo agertu zala ia bi milla urte diralarik, lengo burrukaldi ta gudate denak txiki ta melar uzten ditutana degu eskuartearen.

Au gizartearen lotsa!



Antzin-arogan abenda edo raza artean etenik gabeko gudaketa ziardun. *Guerras médicas* izenez ezagutu ziran persitar eta greziarren arteko gudateak. Gaur bezelaxe aundinaikeriak esan ezin alako kalteak sortarazten zituan gizartearen. Dario aundiki arroak mundo guzira bakalkuntza edatu nai zualako, greziarrak Lidia-ren uri nagusia zan Sardes auts biurtu zutelako, amairik gabeko ixkanbilla zaratatsua beti.

Dario aundikiak Grezia osoa irentsi nai luke, ta ortarako bere sui Mardonio gudalburua egundoko jendetzak arturik, ontzirik bikiañenetan itsasoz asten da. Traziako biztanle indartsuak jai-ki dira ordea ta persitar oro azpiratu dituzte. Asiera ederra, alajaña!

Ez dute etsi orratik. Bai zera!

Datis eta Artafermesek arrigarritzko gudari taldeak eurekin arturik, Atenas inguruan lurreratzea (desembarcar) lortu dute.

Atenasko biztanleak estu ta larri dira, ta Espartara laguntza eskatzen dute; baña Espartako biztanleak, euren erlijioak illargi

betea agertu arte gudara urteterik ez diotela agintzen da, laguntza gabe uzten dituzte.

Atenastarrak ez dira kokiltzen.

Milciades gudalburuak, amar milla gizon artu, ta Plateak biali dizkion beste milla morrosko erantsita, arpegi emoten dio etsaia-ri. Ta Maraton esparru zabalean garaille gelditzen dira.

Maraton-en agertu zan –dio edestiak– gogai sendoko erri bat zenbateraño eldu liteken.

Aske ta burujabe zan erri artako amaika milla gizonek, eurak azpiratu asmoz ingura ziran eun milla persitar birrindurik eta ezerezturik utzi zituzten.

Argibide bat dago emen: Persiak biali zituan eun milla gizon aiek, joputasunaren artaldeak ziran; gogai gabeko gorputzak.

Amar milla grezitarrak, berriz, euren askatasuna, euren eskubideak, euren erria aldeztara gogai sendoak bultzata urten ziran gizakiak. Or dago aldea!



Ikasbide mardula benetan.

Euzko guda-oñak bikain eta sendo dauzkagu.

Euzko-ikurriña degu gain oietako goiburu. Bere altzoan ma-kurtzen diran gazte trebeak gogai sendoak bultzata dabil-tzan gizakiak dira; bestaldetik dakusgun atzerritarrak garai bateko Dario-n kideak diran Mussolini ta Hitler-ek bialitako jopu artaldeak; bestaldetik dauden gudariak gogoz kontra, kate derrior-rak arturik dauzkan gudariak.

Millaka batzuk izanda ere, erromatarrak menperatu zituan erri zaar au kokildu ta atzeratuko ote?

Ez. Lekobide ta Lartaun zaarraren odolekoak gera; gogai sendoak bultzata garabiltzkianak!

Euzkoak izango gera Euzkadiko jaungabeak.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-02- 21

Ori duk erreminta, ori!

Eguzkiaren azpian dan azalik gogorrena *El Liberal*-eko lumakide ori, ezbairik gabe. Orrek akatsa billatuko ez dion kamixa bordaturik ez duk azalduko!

Lendik argia ikusten duten egunkari guziak nazkatuak dauzka, ta orain jaio berri degun *Lan Deya*-ri enbidoka asi etzaio ba?

Garai auetan, –ni ez naiz sozialista– garbi ez omen liteke esan, ori esateak sozialismoaren etsaia dala agertzen omen du-ta.

Bejondaiala, motel! Ederrak eman dizkiguk!

Gizonaren eta errien askatasun billa gaozela dio sarritan; berak, abertzalea ez dala (ta ala obe), ta abertzaletasunaren aurka aspaldian ari dan bezela kristonak esatea aske, libre, ta guk sozialistak ez gerala soil esatea pekatu aundia.

A, konpañeo! Toki txarrera zatoz enbidoka!

Emen, ordago entzungo dezu, ordago!

Kontentu ezipazera, lengo bidea libre daukazu...

Entzun? Claro, hombre!

Arrantz-urte ona

Ala esan leike, arranea!

Gure itsas-ertzetan arrai astun beldurgarriak dabiltz, baña sare onak zabaldu dira, ta guziak bertan klok! egiten dute. Alperrik duk! Nik beti esaten diat: Berez bear duala Billabonakoa! Berez!

Gure itsas-ertzañak mutil onak zeudek, arraiotan!

Amar egunen buruan, ogeitik aurrera pixu aundiko agin zorrotzetakoak...

Emendik pasa,
ez duk jolasa!



Tierra Vasca begikoa dut eskutan.

Aitor Ametsagaña-ren idazki goxoa gogoz irentsi dut.

Rumaniako Tataresku agintari nagusiaren jokerak illara bikain ori argitaratzeko gaia eman dio. Jakingarri asko azaldu ondoren, azkenengo galdera auxe:

¿Será cierto que la democracia burguesa se sacude de su letargo?

Ojala!

Gauzak asko aldatu dira egun gutxiren buruan.

Auzoa gaizki ikustearekin gutxi estutzen gera, baña geu gaizkitzera goazenean, botika billa azkar.

Faszismoa baño gaitz traketsago eta beldurgarriagorik bai ote?

Noizbait konturatuko bagña!

Eldu lanari

Faszismoa urrutitik zebillen arte ainbat jaramon ez genion egiten. Dabillela!

Atariko atera eldu zaigunean, orratik, kontuak dituk emen!

Bera nondik nora ittoko emen gabiltz geu itto bearrean.

Askatasunaren ederra orain ausnartzen degu, betiko lotu nairik etsai ankerrak datozkigunean.

Berdin gertatu da nekazaritzarekin.

Lurrak ematen zuanetik bizi giñanik ere ez giñan konturatzen orain arte. Orain esnatu gera.

Nekazariari lagundu egin bear zaio, onegatik, aregatik, onela, ala... Etenik gabeko soka muturra.

Orratx!

Landu gabeko lur zatirik ez da ikusiko aurrerantzean Euzkadi-n. Oietan ereiteko amar milla tonelada lur-sagar edo patata erosi dira.

Ezagutu, jaunak, beingoz. Kendu txapela nekazarien aurrean.

Erreztasunak eman, lagundu, poztu, sendotu.

Amaika aldiz esan degu, ta aurrerantzean ere ez gera asper-tuko.

Ta, adiskide nekazariak,
orain datoz emen sariak.
Poztu, indartu,
danok alkartu!
Eldu lanari,
eman janari!
Gaur patata
bearra da-ta,
biar gari,
etzi arto.
Ta gerora
beste asko!

Askatasuna dan ederra. Nekazaritza dan bearra!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-02-25 / Tierra Vasca, 1937-02-26 (64)

Berri txar mingotz bat egalari.

Saseta il da, il da Saseta! Ona emen astearte gabez zokondo guztiak miatu zituen albiste beltza. Zenbat arpegi illun, zenbat malko ixurketa, zenbat naigabe!

Ene!

Mendi gora ibiltari bizkor arteza.

Mutillak alaitzeko eta sutzeko paregabea.

Zuzendari burutsu ezin egokiagoa.

Ausardi ta trebetasunean geiagorik ezin alakoa.

Abertzale zuzen, zintzo, txalogarria!

Zer alderdi on etzuan Saseta aundiak?



Zenbat idatzi liteken beratzaz! Zenbat egi eder esan geneza-ken berarekin batera Andatzarreta, Ernio, Ventas de Zarate, ta gañontzeko gipuzkoar mendien gordelari izan giñanok! Zenbat! Gudari guziak izketa bat; denak jardun berdiña: “Sasetagaz baita Paris artzera ere!”

Ezin da geiago maitatua zan.

Guzion guraso bera genduan; euzko artaldearen artzai apal burutsua berbera zan.

Mutil kementsu trebea pranko bai Gipuzkoako lurretan. Biotz aundi, gogai sendoak bai erruz.

Izkillurik ez; armarik ez.

–Datorrela Saseta!, dei Ernio tontorretik.

–Datorrela Saseta!, ots Irundik.

–Datorrela Saseta!, Bidani, Zarate, Andatzarreta, Andatzatik.

Saseta bakarra izan, eta danetara ezin zatitu. Saseta zan izki-llu gabeko gudari errimien poz alaitasuna. Saseta zan, gogai edo

ideal zurneurrigabeak bultzata euren biziak uneoro arriskatuaz mendiratu zan euzko talde bikañaren itxaropena.



“Oviedoko atetan, euzko aberriari begira il da”.

Izparringietan ori irakurriarekin batera, matraillondotan bar-na malko pixutsuak igesi didate.

“Euzko aberrian birritan zauritua izan da, ta irugarrenean betiko jausi da!”, zion *Eguna*-k.

Zorigaitzaren astuna!

Jausi da, ta betiko!

Euzkadietik kanpora, baña Euzkadigatik!



Munduko abenda guztiak euren gizon ospetsuen oroimena gordetzen dute; giza-irudi, edo estatua bikañak zutitu ere bai.

Guda madarikatu anker au amaituko danean, paxiotar maltzurak uxatuta aberriko lur ororen jabe egingo geranean, Loio-lako esparrutan Saseta aundiaren giza-irudia ez letorke gaizki; bear-bearreko deritzaigu.

Gerora, urteak eta urteak igaroko diranean, berarekin ibiltzeko zoria izan genduan gudariok, lurrean geldituko diran ondorengoai argiro edestuko diegu nor izan zan, eta bere gogoak euskaldunen artean beti bizirik iraungo du.



Etzuan zenbaitzuk ainbat
griña txar gorrotu.
Bera jaio zan lurra
bai gogoz maitatu,
Euzkadi etsaipean
etzedin ondatu,
zazpi illabete ontan
bai trebe saiatu...
Goitar Jauna, emaiizu
or goian ostatu!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-02-26

Euzkotarrok pozteko zioak baditu oraingoan.

Bai, arraioa! Mundu zear gure izen ona edatuaz doia; bazter guzitan gure gizatasunak argi egin bear du.

Lurraren egal batetik asi ta besterañokoak ezagutu bear gaituzte oraintxe.

Euzko ordezkari-etxearen zabalkuntza lengo batez egin zan Parisen. Itzaldi eder eta guzi ziran bertako jaialdiak. Euzkadi ikertu berria dan madame Malaterre emakume ospetsua antxe mintza zan.

Zer esan zuan?

Egi ederrik bai, enetxoa!

Guda bizian gaudelarik, emen ikusten dan gizatasun, erresetu, alkarrenganako begirapen, eta abar, beste tokitan ez bezelakoak dira gero.

Guda-aroan oso leku bakanetan ikusi diran baldintzak, eta gaur ere Euzkaditik kanpora arki ez litezkenak. Malaterre anderea zoraturik joan zan emendik, eta bere itzaldian orixe agertu du.

Katoliko denak paxiotarrakin daudela? Gezur biribilla!, –esan du andere argi orrek.

Edonor bezin katoliko zintzo diran Euzko Gobiernoko gizonak an agurtu nituan; euren jantziz, abade ta lekaimeak an ikusi nituan kaletan zear. Eliz ederra pranko ere bai; guziak zabalik; kristauz beteta. Zuzentasun, gizatasun eta alkarganako begirapena. Au da, ni guziz arritzeko Euzkadik berekin zeukan kutsu ederra. Paxiotarren irradots edo radioko gauzak entzun ostein, Euzkadi ikertzen duana ni bezelaxe geldituko da: Guztiz arrituta!

Sevillako agure berritsuari entzun dioten atzerritarak, Malaterre-k bezelaxe bueltatxo bat egin bear luteke onuntz.

Bai, Salamanka, Burgos, Donosti ta abarretik esan dituzten tentelkeriai belarriak zabaldua egon diran askok ere.



Paxiotarrak zuria dala esaten badute, beltza ikusi bearrean zera. Guzia batekoz bestera egiten baitizute!

Ikurrin edo bandera bat aldezteko zin egin, eta bere aurka jaiki. Italiar eta Alemaniak Iberiako lurretan ez dabillela zin egin general batek, eta andik egun bira, gogor portatzen ziralata, Italiar eta alamanai zorionak eman beste general batek.

Zin errez, eta okerra errezago.

Ori jendetza ori! Olakorik!



Malaterrez gañera Españaiko jaun argienetako bat mintzatu zan: Ossorio Gallardo.

Gaur Belgikako enbajadore dan legegizon ospetsu onek egiak gordinki esan zituan, eta Malaterrek lez euskaldunak goitaraño jaso. “Erri aldezleak ez dabiltz euren askatasuna eta demokrazi alde soilik –zion–, munduko askatasun eta demokrazi alde baik!” Egia! Kontuak kontu, bide ontatik ondo goaz. Oso ondo!

Egin zak on eta noizbait izango duk saria.

Eman da zabal zazu munduan frutua.

Gora euzko aberria!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-02-27

Beti onela bear al degu?

Zenbait aurrek oñez ikasterako amaika erorialdi, zilipurdi ta arras-taka egin bear izaten dik. Nik etzekiat gure euskerari bere bidetan oñez ibiltzen noiz utziko dioten. Aurra erortzen danean, ibiltzen ikasi ezin dualako izaten duk; bere kasa zilipurdika ibili bearra izaten dik... Bueltaka! Euskerari etzaiok olakorik gertatzen.

Euskerak oñez ederki zekik; beste edozeñek bezin dotore. Iñozo batzuk etorri, indarrean bultza, ta bota egiten ditek ordea. Bere bideetan ibiltzen etziotek uzten. Alare, gu ez gaituk asko estutzen. Markinako urrutizkin edo telefono auziarekin badakik nola ibili giñan.

Orain, gure gudariak Asturiastik euskeraz idatzi lezaketen ala ez erabakiaz gabiltzik...

“Se ha autorizado en Asturias la circulación de la correspondencia en euskera”.

Badakik zer dion onek: Se ha autorizado.

Orain arte eragotzia egon duk beraz.

Esan akidak: Ba altzegok ontarako eskubiderik? Paxiotarrak Gipuzkoako lurretan gure mintzoa erabiltzea eragotzi dutelako kristorenak eta bi esaten ari gaituk beti, ta gure artean eten-ga-beko katramilla ta saltsa auek? “Se ha autorizado” egiñez? Euskerari oñez ibiltzen utzi nai ezik?

Gure neke, arrisku ta ibillerak ez dituk alperrik! Beti onela bear ote diagu? Beti?

Goralgarria benetan

Goralgarria ta txalogarria bide batez Arboleya kanoniku agurgarri au. Alabearrean, Euzkadin arkitzen da gaur. Artzai jatorrik izan bada, Arboleya auxa bat eliz-barrutian; baña guzien zoritxarrerako, artaldeko ardi gutxik jarraitu diote.

Onek bai, onek bere ta gure burukide gurgarri Leon amairugarren eta Pio amaikagarrenari orpoz jarraitu die. Aiek ain gordinki ta garbi erakutsitako bideetatik dabil; onekin batera ibili bearreko geien-geienak beste bidetxigorrak artu dituzte ordea, ta orixegatik gertatu dira gertatu diran beltzkeri izugarriak.

Arbeloyaren lanak arretaz irakurriak gaituzu; etorri bear zuan ekaitz mardularen berri alde aurretik eman zuan. Etorri da, iritsi da.

Asturiasen gañera bi aldiz denbora gutxiren barruan.

Igarle degu Arbeloya; alde aurretik, eguzki printza eta ekaitzak ikusten dituana; ta ikusten duana beldur eta kokiltasun xpi gabe argiro edesten duana. Bai orixe beintzat!

Gaur ere betikoa da

Guda anker paregabe onek ez du kokildu ta melartu. Lengoa da; betikoa da.

Asturiasko langilleai buruz esan du: “Ez dira katolikoak, baña kristauak dira”.

Ez dira katolikoen etsaiak, izen ori artuta dabiltzan katoliko ez diran oienak baizik.

Kristautasun eta katolikotasunak –dio– errianganako maitasuna dirala esan nai dute, ta guk erria maitatzen ez degu jakin.

Arbeloyak bere burua, erria maitatzen jakin ez dutenen artean sartzen du; apaltasunak ori esatera bultza dio.

Bere mota edo klaseko jaunak Arbeloyak bezela jakin balute, beste txori batek abestuko zuan. Orain berandu da.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-03-02

Asturiasko esparrutan euzko gudariak. Gure gazte errimeak.

Gabeko zortzirak dira.

Goizaldearen kilimaz euren aurrekadari eraso bear diote; euren buruak arrixkurik aundienean eskeñi bear dituzte. Bein da betiko jausiko diranak asko izango dira. Beren denborako elbarri ta ezerez geldituko diranak ere bai!

Zauriak, eriotza, guzia bururatuko zaiote euzko gudariai!

A, baña, zein gauz ederra goiko jaun altsuarekin adiskide egotea.

Orixen lortu ezkeror, bestelakoxe alaitasuna, bestelakoxe indar bilkera.

Orduan, edorzertarako gertu bat.

Asturiasko langilleak inguratu dira; minazale gudariak euzko gudarien altzora batu dira.

Basetxe zaar erdi pitzatu batzuk. Mai xaxtar anka koloka batzuk.

Euren gañean zapi txuri ederrak.

Euzko apaiz, abade agurgarriak euren bearkunetan. Meza eman, jauna eman...

Gudari trebe bezain apalak buruz bera, euren izakera Jaunari eskeñirik, meza entzun, Jauna artu...

Minazaleak arrituta, zoratuta, baña, nola? Zer da au?

Non dauden ere ez dakite. Ametsa ote danekoa bururatzen zaiote.

Egia da ordea. Ikusten daude. Ber-bertan.

Apaizak... Gudariak...

Naigabeak arpegiak ximurtarazi dizkiote, ta itz auek entzun dira erengandik:

—Si nosotros hubiéramos tenido otros sacerdotes.

Irakurle maite orrek, itz auen pixua nabaritzen dezu?

Itz oien egala non dagon badakizu?
Noraño dijoazen ere bai?

Otoitzean?

Ez derizkiot aztuko zendutenik. Asturiasko matxinada sonatu ura, alegia. Orduko gertakari beltzen berri badezute: erailketa, indarkeria, eliz-sutze ta abar...

Matxinada ura aitatzuz gainera, edo aitatu ezkerro, beste gauzatxo bat oroitzen zait ordea.

An, langilleak pillatu, bildu ta euren artean Jesusen irudia arturik kalez-kale ibili ziranekoa.

Ta irudiarekin batera azaltzen ziran izkiak:

–A ti te respetamos. Tú eres de los nuestros.

Zein adizki sakona ibilera ari buruz Ossorio Gallardok *Ahora-n* agerturikoa. Zer egi biribillak!

Arbaloya ospetsuak egun gutxi dirala esan du:

–Ez dira katolikuak, baña kristauak bai!

Irakurle, neurtu itz auk:

–Tú eres de los nuestros, –zesaioten Jesusi–. Si nosotros hubiéramos tenido otros sacerdotes–, esan dute euzko apaizak ikusiz gainera.

Ausnartu, irakurle, oldoztu astiro!

Montesquieu-k zion

Abadeak zenbat zezakean argiro ikusi zuan Montesquieu-k.

–Abadea da –dio berak– gizona seaskatik illobiraño zuzendu ta giatzen duana.

Abadearen jokerak zenbat lezaken, zer lezaken, zer pixu duan agertu nai zuan itz oiekin.

Seaskan artutako aurrari urteak dijoazkion bezela, Kristoren ikasbide benetakoak, Kristoren izakera, Aita Santuen langille arauzko eskabideak, agiriak, langilleen eskubideak, langilleen batasuna, ta langilleen on eta onuretzaz itzegin da lagundu baltzaie, beste pisti baten ega sentituko genduan.

Ordu luzeetan, lan zikin osasunaren aurkakoetan, lansa-
ri edo jornal itxuragabekoetan, mantendu eziñeko balditzetan,
sendirik azi ezin zeikean eratan langillea eukitakoa, kapitalismo
izeneko mota maltzur ori izan da. Ta zoritxarrez, or kanpotako
abade geienak orretxen aldezleak izan dira.

Orain zer egin?



Basariri omena. Zarautz, 1935.01.27an.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-03-04

Ikusten nago

Ibai errekatxoan murmurra entzuten da. Giroaren zikoitza!

Nork igaro, nork jasan euren oñean egoteak eskatzen duan mingotz unea?

Goruntz begiak ixtant batean.

Margo bat zabaldi guzian; jantzi berdiñez gure baso-mendiak.

Oro zuri, oro elur jantziz, oro berdin.

Lengo urtetako ikuskizunik ez orratik aurtan. Bai zera!

Artalde otsan elur margozkoak, goietako artzai zoriontsuak... noruntz egatu dira baña?

Goi oien ezaugarri ta zorionaren erakuspide ikur zan pakea, non ezkutatu da?

Txabola zaarrak oso-osorik diraute. Berriak asko agiri dira.

A, ta artzaiz beteta daude. Euzko esparru zabaldiak zaitzen dauden artzaiak dira: euzko gudariak.

Zirrikituak nunaitik, aizeak txistu, kaskabarrak ots, elurak lan... Utzi txabola, goazen metrotxo batzuk goraxeago.

Zaku illara zabal aundi bat.

Orra zutik, irmo, manta xaarraren babexean gudaria. Bat, bi, iru, sei, asko dira.

Gurasoetatik urrun, etxeetatik urruti.

Guda-oña utzita txabolaratuko diranean, zapi txuri ta bigun-garri goxoan orde, garo sorta zabaldutako bat arkiko dizute. Denboraldi biurritzko gabok luze neketsu egingo zaizkio...

Aberria aldeztan, Euzkadiko gañak zaitzen daudela oroiturik, guzia argiro, arpegi irriparrezkoaz esango dizute:

—Au guzia ta geixeago IKUSTEN NAGO.

Oraindik ortan?

Izparringiak dakartena irakurriaz arriturik gelditzen naiz sarri.

Artarako zioak badirala esango nuke gañera.

Zazpi illabete aundi gudate naastu paregabe ontan asi giñala, zazpi illabete aundi paxiotar maltzurren aurka erria zutindu zala. Zazpi illabete!

Ori orrela dalarik, egunero lelo berdiña: ezipena, aginte bakarra, atzekaldeko “retaguardiko” gizatasuna, gobernoarenganako makurpena ta abar eskatuaz.

Erderaz esanda obeto irentsiko dezute agian: Mando único, disciplina, acatamiento al Gobierno, ta abar..., beti eresi berdiña. Euzko gobernoa sortu zan zorionean; legezko aginteak artu ere bai. Andik illabeterako gudaroste bikain goralgarria, aginte bakarra, ezipena, gizatasuna, gobernoanganako begirapen makurtasuna ta beste milla alderdi on lortu ere.

Joan dan igandez Madriden izan ziran itzaldiak irakurri ta Barzelonako kaleetan ibili ziran milaka ta millaka gizonen berri jakin dedanean, neure buruari apalki esan diot: Emen etzeukagu ortan nekatu bearrik.

Irakurle, alperrik dala, emen beste batzuk gerala, emen euskaldun enda bizi dala, emen bereziak gerala.

Euzkotarra! Ikasi, maitatu aberria.

Egundo baño geiago oraintxe. Euzkadik euzkotarrentzat bear du!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-03-10

Euzko abenda gizonki ta gordinki daukagu munduaren aurrean. Aurreko asaba zaar aintzagarriak oñordeko trebeak dituzte lur goralgarri ontan. Urdaneta, Legazpi, Elkano, Txurruka, Lope Agirre ta abarrek, orpoz-orpoko jarraitzalleak Kantauriko uretan.

Igaro dan aste ortako gertakaria ez al da edestian txertatu bearrekoa?

Azkena agertu zitzaizkigun etsai egazkin eta egazkilariak ala-ko jipoia eman zieten gure egazkilariak (aviadores) aztu eziñik uneoro nundik nora goraldur bagabiltz, gure itsasgizon auen jokera lurrean igaro bearreko urteetan beti gogoan izan bear degu.

Urteak eta urteak igaroko diranean, sagardotegi bakanetan, trabena ta akeitetxetan sarri entzungo dan gertakaria izango da; ala bear du. Iru ontzi xaxtar baldar itukan Euzkadiren aldetik.

Azken erara egindako ontzi eder, aundi, indartsu, zoragarri bat paxiotar aldetik, *Canarias* izenez ezagutzen ukan. Arrigarritzko baliokiko ontzi bat zaitzea zian eginbear nagusia. Guda-denbora bizia ualarik eta Gipuzkoa euren ziatelarik, Pasaiko porturako milla eratako guda tresnak zizkian. Gure uretatik ziazteken. Bareki.

Ontan, Euzko gobiernoaren ontziak ikusi dizkik *Canarias*-ek. Eraso zioik gu tunpaka.

Iru ontzi xaxtar ezerez euzko gobiernoaren indar guzia; “bou” izenez ezagutzen ditugunak.

Canarias-ek barruan dituan gizonak yayo ta azkarrak dituk. Alemanak. Ondo eskolatuak eta itsas-gorabera guzien berri azken erara ikasiak; aurrerapen guzietzaz jantziak.

Nabarra ukan euzko gobiernoaren ontzitako bat. *Canarias*-en sutunpak urperatu ziteken berau. Barruko batzuk ito bearra izan ziteken.

Gipuzkoa izeneko ontzia apurtzea ukan *Canarias*-en asmo maltzurra.

Gogor eraso ziokan sutunpaz beronen aurka. Etsaiok bai ego-ki asmatu ere. Ontziaren erdi-erdira *Canarias*-ek jaurtitako suagak, bost itsasgizon il, beste bost zauritu. Bizirik ziran bakanak gogor eta ondo zutiñik. Euzko ikurriña gallurretik jaitsi nai ezik, ontzi nagusi ikaragarri aren menpe makurtu nai ezik...

Ta *Canarias Gipuzkoa*-rekin burrukatzen zan bitartean, Bizkaiko ontzia erneki ta irmo, pixkanaka pixkanaka inguratu, Paisairako zan guda-tresnakiko ontzia artu, ta Bermeoko kaira baxetu.

Konturatu bezin azkar Galeako kañoiak asi zaizkiok danbarka *Canarias*-i, ta egundokorik azkarren aldegin bearra izan zian ingurutatik. Urrengo egunetan, Donostiko irratetxeak (radio) *Canarias*-en barruan ain trebeki il ziranean elizkizunetara joateko eskatzen ziokan erriari. Beraz Gipuzkoak edo Galeak, norbaitek egin zian ontzia zanbatu ta barrengoak iltzeko modua. *Canarias*-i kendutako guda-tresna ugariak ondo baño obeto etorri itukan euzko guda-oñetarako.

Au guzia, irakurle, era ontan erabili bearreko izketa ta era ontan erabiliko dana gañera. Euskaldunak ez dira olako gizonak, eta olako jokerak nolana aaztu zaleak. Ez orixe!

Ludiari bira eman zioten Elkanoren lagunuen izenak, Euzko edestiak berekin dauzka. Orduko Akurjo, Arratia, Zubieta, Intxaurrea ta abarren ondoan, euzko gobernoaren ontzi xaxtarretan galdu diranen eta bizirik gelditu ziranen izenak jarri bear lirake.

Egingo ote degu?

Nork ulertu

Burrukatu bearra izan zutenak ez bezelako ontziak badira Bizkaiko uretan; Bizkaiko portu nagusian, alegia. Arrixkua danean nola jokatu dakitenak ordea. *Gipuzkoa* ontzia bezela sutzea kostako zaiote paxiotarrai, zein da bizkorrak diran. Bai milla demoniñok ezpaitu! Oiek arrapatu? Ezta...

Londresa joan bearrik ez dago “no intervención” batzordearen ondoren. Urrutira gabe daukagu, demontretan.

Ez dago, noski, guzia izkiz-izki esan bearrik. Ulertzalle onari itz gutxi. Gaur danon aopean dabillen gaia degu gañera.

Sega onak eukita, belar ebaten itai xaarrakin jardun bear ote beti?

Olakorik!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-03-11

Aspalditako urteen buruan orpoz-orpo dijoazkio, euzko elertia apaintasunez jantzi ta txertu bikañez mardultzera azaldua diru-din idazle bikain, bizkor, egoki oni.

Lenen eman zigun aletxo denboraz irentsia genizun, eta zegokion ainbatean ez bada ere, bere goralpenak egiten al genizun neurritz aleginduk giñan.

Gazi-gozoen egileari orduan txalo jo bagenion, gaur egundoko zaplaka otsa atera bear genioke. Ondo merezia lizuke, arranetan! “Kirikiño saria” lortu zizun idazlari goxo, eztitsu, ikasbidezkotan agertu zan ezkeroran, nere begi-niniak arinki, gogo betez dijoaz Barrensororen lanetara. Arretaz murgiltzen naiz oietantxe.

Malla artako erritar bat dakustanean, nork neurtu barren esiak apurturik zalapartaka egatzen zaidan poza?

Uztaro irakurri duten guziak lenen lortu bearrekoa auxe, nire iritziz: bere orrialdean barna somatzen dan izkuntz aberastasuna, itz ugaritasuna ta joskera egoki sustraizkoa, euzko bilkera dotorea.

Euzko kutsuz gañezka degu Barrensororen oraingo lan au. Euskeraz azi ta bizi izan danak, azer mokaru milixkagarria duan beretzat! Gipuzkera garbi-garbia. Mordollokeririk ez, itz naasturik ez, guzia garbi-garbia, euskeraz.

Egotzi dion joskera gozoa ta Barrensorok itzak biltzeko duan maixutasuna da; itz bat bakarrak ere ez dio iges egingo irakurleari. Arioplano, tren, automobil, periodiko ta abar, itzegiten dan bezela idatziz datorkion zenbaiti ulertzea gaitzago du irakurle euskaldunak Barrensororen lan garbi erdel-eranskin gabeko ori baño.

Joskeraren gain dago euzko idazlea. Beste edozein izkuntzetako idazleak egiten duten bezela, noski. Eta joskeran Barrensoroko maixua degu! Bai, demontretan!

Ezagun da Barrensorok lenen argia nun ikusi zuan. Kaleratu zala zenbat urte dan ez dakit. Asko izan litezke, agian. Baña ez dio ajola.

Basetxeko izakera, basetxe sustraizko kutsu gozoari aldegiten ez dio utzi Barrensorok. Gordeleku egokia opaldu dio urteen buruan. Baserriko lan tankera ez ezik, lan tresna ororen izenak, erreminta guzien aitamena, baserriko arri eta baserriko izakera dena, irurogei urteren buruan bertatik urten gabe dagonaren antzera adierazi digu.

Barrensororen *Uztaro* irakurgaiak gu jaio giñan alderdiko baso-mendi eta zelaiak zanpatuz ainbat aldiz egindako sukalbaxterrera garamazki. Ibilbideak jartzen, eraketa (comparación) dotoreak agertzen, neretzat ondo dakiena da Barrensorok. Zein esakera aberatsak! Zein jatorki!

Maratillak estutu ta arrikatu duten zapelaitz amorratua bezela burrukatzera dijoala.

Erdi zoraturik arri konkorez burua zapatu diotenaren antzera ibillita zutitu zan eserita zegon lekutik.

Ekaitz ostein odol kuskuskarria bezelaxe azaldu zan eguzkiaren itzala odei urratuen artetik...

Irakurgai onek zein baño zein esaera ederragoak ditu. Ori da izkuntz aberastasuna! Kanpion txalogarria geien ortan guzian izan zait, erderaz. Baña Barrensorori utzi egin bear zaio euskeraz.

Mendizalea da gure idazle aipatua. Bere sort-kabia, basetxea, goi-goraño darama, dagokion malla arrazoizkora. Zein kantu kuttuna Barrensorok basetxeari zuzendurikoa!

Anbat litzake gaurko urira bear zoroak ikutu izan ezpagindu...

Aizea bezela burujabe ibiltzekoa dela deritzait euzkotarra...

Agirre ospetsuaren *Garoa* irakurrita bezela Barrensororen *Uztaro* irakurriaz, Aranzadi aztu eziñezkoaren lumak ain egoki agerturiko Becker doixtar alemaneraren azken-naia gogorazten dit. Guztiz aberats purrukatua zalarik, bere diru eta ondasunak

il zan egunetik eun urtera, bera jaio zan etxean bizi ziran ondo-rengoai banatzeko agindu zuan. Azken-nai edo testamentu ori egin zuan. Eta Becker etzan euskalduna.

–Emengoa izanik, bere sorkera garo usaiz inguraturikoa euzko basetxean izan balu, zer etzuan egingo Becker-ek bere sortetxearen alde? –galdetzen du Kirikiño aundiak.

Barrensororen luma gozoak milla olako gogorazi dizkigu. Eleberri-aria oso ongi eramana dago. Irakurgai ontako notiñak begi-ninietan sartzen dira. Gogozko egiten dira. Ain egoki margozten dizkigu Barrensorok!

Zine, dioe, dio itzak, toki askotan erriak darabilzkien eran jarri ditu idazleak. *T* izkia bazterturik dauka. Nik neuk *t* sartu egingo nioke. Osoago eta beteago deritzait.

Euskaldunak noiz oraintxe baño era obeagorik? *Uztaro* irakurri gabetan etzaitzte geldi beintzat. Bein atea zabaltzen badiozu, gero nolanaixtea gaitz egingo zaizu. Berak txoratuko zaitu. Ain dezu atsegiña, ain dezu eztikia!

Barrensorogandik asko itxaroten degu. Gaitasun oiek dituanari lagundu ezean, baginjoazke pikotara!

Euskalduna, erosi ta irakurri *Uztaro*!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-03-14

Gure itsasgizonak

Oraindik denbora asko ez dala, gure itsasgizon kementsu ausar-tsuak gogoratzen nitun *Eguna*-ren orrialde auetan.

Arekin bakarrik uztea motx irudituta, zerbaitxo geitzera ni-joakizute gaur.

Guda Zaingoko arduradun Rezola argiak izparkariei egindako aitortzak irakurri ditugu, baita itsas-burruka ikaragarri ura ez-keroztik, etxeko ta auzoko izparringi ta jaun aipatu batzuk gure itsasgizonentzat egin dituzten goralpen da itz goxoak jaso ere.

Alaz guziz, zer esana arruaka dago ordea.

Ta, nor da oin gure arrantzale jator auen jokera sendo ta egi-keri arrigarri bezain aipagarriak bear bezela azaldu ta goralitze-ko?



Itsas-gudaketa izan zanetik egunak dijoazen bezela, gero ta kontu geiago ta agiri ziur egokiagoak jasotzen dira.

Nabarra itsasontzi barrenean ziran gizonak... Aietxek gizonak!

Iru ordu aundi *Canarias*-en aurka sutunpaka. Iru ordu!

Sinisteak ere lanak ditu, jaunak. *Canarias* baten aurka...

Ta badakizute azken unean *Nabarra* itsasontziko itsastar ain-tzagarri ark, *Donosti* ontziko lagunai zer itz jaulki zizkien?

–Al deguna egin diagu; ezin geiago. Galduak gaituk!

Zuek saia zaitezte urruntzen, iges egizute toki ziurrera len-baitlen.

Au da *Donosti* ontzi barrengoak *Nabarra*-gandik jasotako az-ken oarra.

Ooo, Kantauriren zaitzalle goralgarriak! Zuek gizonak, zuek!

Zuek dakizute burrukatzen, zuek dakizute iltzen!



Burgaña motrikoarra, Burgaña on ta kapitan ospetsua, nork ez du aupatzen?

Murugain izenordekiko euskal idazle argi bezain itsastar trebe dan onen berri ez dezutela?

Bapo zeok! Nun demorrio zerate ba?

Gure itsas-auzi ta goraberetan ardurazko aginpideak dituan lagun zar onekin Portugaletera zuzendu naiz lengoan.

Bein iritsi giñanean, –Iretzat erregalo batzuk bazeuzkat emen, ator onuntz Basarri –zesaidan lagun zar onek, eta zer arraio ote zuan jakin-miñez joan gatzazkio atzetik.

Erregaluak?

Erregaluak, bai, ondo erregaluak ere. Españar paxiotarrak ta gure uretatik ibili diran doixtar alemanak artaño maitasuna digute, izan ere...

Alako traste zarrrik an zegon beintzat, Jesus milla bider!

Aiek burni enbor zarrak! Aiek gerri sendoak! Aiek barrikondoak!

Ikaragarriak, gizona. Bildurgarriak...

Itsas-mina edo dalako traste oiek ziran. Euzkotarrok gosez galdu asmoz paxiotar maltzurak Bilbao sarreran zabaldurik zeuzkaten deabruzko mina kaltegarri ta ondalariak.

Gipuzkoa ta *Nabarra* izeneko ontziak Gijon-a joan ziran denbora asko ez dala ikatzez zamatu edo kargatzera, ta ango itsas-auzitako burukide diran jaunak ala omen zion:

Alegia, aien itsasgizon ausartsu trebe, bear ainbat goraldu ezin zitezken itsastar aipagarriei esker zeukatela portu sarre-ra aske. Egun gutxi aurretik lau mina bildurgarri jaso zituztela itsaspetik. Ta... “nuestros bravos y heroicos tripulantes”, egiñez, alazankoa, gure gizonak arrituarazteko.

Ordurako Bilbao sarreran berrogei minatik gora jasota egon eurak.

Barkatzekoa da.

Emen konpitak botatzen zituztela usteko zuten gijondar gixajoak. Ai, ai, ai...



Santander-en iñork ez urten nai putzura.
Minak zeudela, ta minak zeudela!
Burgañak esan zuana:
–Bapo! Minak daudela! Iñork jasotzen ezpaditu, egongo ez dituk ba?

Artu berak ontzia ta mutillak, joan Santander exkiñara, egun batean amairu, ta urrengoan amabi mina atera.

Alare, euzkotarrok gerekoi edo egolatrak gaituk, eta iñori mu-kiak kentzen gabiltzak beti.



Irakurle, Portugaleteko enbor gixako miña ikaragarri aiek ikusteko zoririk izaten badezu, buruari bi aldetara eragiñez, “gure itsasgizonak baditek ausardia”, esango dezu.

Aiengana inguratu, ta aiek jasotzen asteko odol otza bear du gero...

Utsari begira baitauzkatzu lertzeko. Ta lertu ezkeru, ille bakar bat ez utziko bere tokian.

Puska onak dituk ba!

Gure itsasgizon apal bezain korajetsuak mina kontu auetan nola saiatu diran kontura zaitezten ondorengo agiri auek dijoaz-kitzute:

Itsasoan lertuarazi dituzten arrixkuko minak, ogeita zazpi.

Jasotako adardunak, amabost.

Jasotako kalamardunak, ogeita amazazpi.

Apurtu edo lertuarazitako adardun aundiak, bi.

Jasotako bastoidun aundiak, bost

Lertuaraziak, bi.

Beraz irakurle, jasotako minak berrogeita amazpirano eltzen dira. Lertuarazitakoak ere bai ogeita amaikaraño.

Ikusi, aztertu ondo gure arrantzale jende jatorra zer lan egiten ari dan; oldoztu zer arrixkutan dabiltzan, eta *Euzkadi* eguneroko

begikoak zion bezela, eguneroko ogi pixka aora daramazunean, oroitu oiengatik dala.

Mina zakar bildurgarri auek lanez galdutako gizonak gogoratu bear ditugu.

Jaunak betiko ostatu gozoa opalduko al die.

Il diran eta bizirik dirauten gure itsas-zaintzalle guzien argazkiak nai genituke *Eguna*-ren orrialdetan agertzeko.

Lortuko ote litzake?

Ai, alako bat!

Euzkotar itsastarrai txapela eraztea dagokigu.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-03-19

Barren zabal eta eruapen aundiko gizonak badira lurralde zaba-
lean. Oetako bat Negus dala esango genduke.

Bere erriaren gain erori dan zorigaitz makurra ikusi ostean,
ta ori gerta zanetik ainbat denbora igaro ondoren, oraindik ere
Laterri Batzar zuzentza egingo dualakoan ziur dagola dio.

Orretzaz gañera, Italiak Abisinia ondiño ez duala azpiratu, ta
ez duala iñoiz osoro bereganatuko esan du Negus-ek.

Ras Desta il duten arren, jarraitzalle ugari izango ditualakoan
dago gure gizon au.

Ez dala itzaliko
an dagon burruka.
Txit alperrik Grazzianik
dabilkin erronka.
Negus-ek bere usterik
ez du iñoiz uka.
Laterri Batzagan ere
itxaropen dauka;
erdel esakera: "Más
vale tarde que nunca".



Oraindik egun asko ez dala, J. Garate jaun argi ospetsuaren
lan bat irakurtzen nuan *La Tarde* izparringian. Jaun bizkor ja-
kintsu onek sendagilletzako ikasle artean dagon zuzkidatz edo
ortografi utsunea agertzen zuan. Beste era guzitara argi-argiak
diran mutillak, bearbada, galdera guziei ziatz eta ondo erantzu-
nak idazten asi, ta erraketa edo falta tamalgarri zatarrakin noski:
exalar, absorbido, cavo, tuvo de ensaio, ta abar ikasle oiengandik
jasorik beregan dauzkan itzak dirala dio, ta aurrerantzean olako-

rik gerta ez dedin neurriak artzea anurakor eta bearreko dalakoa agertzen zuan Garatek.

Arrazoi aundia du nire ustez. Sendagille batentzat lotsagarria baita ortografiz barau egotea.

Ta, jaunak, izketa ontan dan ezkerro, euskal ortografiz nola gabiltz? Noiz arte ikusi bear ditugu euskal orrialdetan *arratzalde*, *jantsi*, *ikuzi*, *gozaldu*, *uzte*, *ezan*, *sabaldu*, ta abar?

Oker auek zuzentzen asteko ordua ez ote degu?

Moldeko izkitan beti au ikusiz egon bearra lotsagarria ta kaltegarria da bide batez. Kaltegarria batez ere beintzat.

Moldeko letrak ola dabiltzalarik, zer ikusi bear du erri xeak? Beti bee mallan egon bearrekoak ote gera?



Inguruko aparejurik gogorrena Nueva York-eko alkate Laguardia edo dalako ori, ezbairik gabe. Europaz kanpo alerik gogorrenak orrek jaurtitzen ditu. Alemanengatik esaten dituanak...

Azkena egin zuan itzaldiarekin paxixtak estutu ta neurriak artzen asi bazitzaizkion ere, ikara aundirik gabe lenak eta bi zabaldu ditu oraingoan. Alkandora beltzakiko jendetza orri merezi bezelako loretxo batzuk eskeñi ostean, Hitler adiskideari alakoxe goxoki batzuk opaldu dizkio oitura duan bezela.

Pakearen etsairik makurrena bera dala esan du. Len esan zuala, ta berriro ere nunai azalduko duala.

Zuk diozuna ez dakienik ez da European. Alare, komeni zaio-telako, edo patrika auziari gaiz ongi lijoakelako, maltzur, zarpil orrek aldeze asko ditu, zoritxarrez.

Zuk, Laguardia, jarrai zeure ariari. Egiarekin dabillenak nunai ta noiznai agertzeko lotsik ez du bear. Zure egiak ezin da aundiagoak dira gizon oni buruz.

Entzun dagizutela Amerikaren egal batetik besterañokoak!

Auen arrotasunak ere bukatuko dira egun batez. Eurak uste duten baño lenago, bearbada.

Jainko egiazkoa bakarra baita.

Mundutar jainko ustekoak lokotx baten balioa dute.



Arriba España! Viva España! Ona emen paxiotarren erretolika etengabea.

Zer duk kontua ta Italiarra besterik ez dala azaltzen Madrid inguru guzian.

Dagonerako atxilotuak eun da berrogeitik gora, ta oraindik sarean katiatu bear dutenak.

Nuestro glorioso ejército nacional.

Ai, ai, ai...

Arriba España, ta Viva España,
jakiña daukagu ori,
beste gauzarik ez esan beintzat
gure paxixta aueri.
Mundu guzia atzipetu nai,
jaunak, gezurra dirudi,
baña zertako dabilzkizute
oinbeste iñuxentekeri
italiarra besterik iñun
ezbaldinbada agiri?

Apaiz artean.

Alde batekoak eta bestekoak

Eguna, 1937-03-19

Gaurko idazlantxoa guda ezeskarri ontan zer ikusia duten apaizai buruzkoa bedi. Atsegin etzaizkigun gaiak ikutu bearra sarritan izaten degu idazleok.

Tamalez, idazten ditugun gauzak diran arren, era ontako uneak nonai agertzen ez diralarik, eta alperrik galtzea mingarri zaigularik, egiak diran bezela argiro agertzera jartzen gera.

Idazlearen egitekoa da izan ere au.



Gure egunkariak, Kortatar Joseba Mirena euzko apaiz taldeko burukide agurgarriaren eriotz izparra edatu digutenean, gorde ezin alako burutapenak jabetu dira gugan, ta orretzek bultza digu ontara.

Galbidezko burrukaldi ikaragarri ontan zer ikusia duten apaizen jokerak aztertu nai genituzke. Zer ikusia berriz era guzitako apaizak dute aspalditxoan geure lurrean degun ekaitzaldian.

Batzuetatik bestetara dagon aldea adierazo ezin alakoa izaki ordea.

Ez dago egiñetara begiratu baño.



Kapitalismo makurraren altzoan, erriaren eta langillearen aurka lenengotako jaikia apaiza izan da España alde ortan. Ta zoritxarrez ez daukagu aberritik kanpora urten bearrik: Naparruko abadeen egikerari begira jartzea aski degu-ta. Paxistengandik aldegiñik ununtz etorri dan nire adiskide eliztar txintxo batek, begitatik su-negarra zeriola edesten zizkidan zerbait jakingarri egun asko ez dala. Saildi edo batalloiko burukidetza daramaten

apaizak badira Naparruan. Gudarostetako komandanteak, alegia.

Gorrotozko itsumenak bultzata mutillen aurrean jarri diranak...

Erailletak egiterakoan piketetan ikusi ditu beste batzuk.

Jainkoaren etxean, eliz donean, itz-tokira igo, korrea, zorro ta izkillu motxak gerriondoan dotore bildurik sermoia egiten senti-
tuak ere baditu nire adiskideak.

Aundikeriaren altzoan jarrita, jauntxokeriaren aldezle ta la-
guntzalle beroenak dirala agertuaz, erriaren eta langillearen etsai
itsuenak lez azaltzen zaizkigu.

Erri xearenganako ta langille beartsuarenganako gorrotozko
edena baño ez dagerte.

Nork neurtu sinisimenari dagioten kaltea?

Zer itxaron, bere arauak, bere zeregiñak baztarturik, Jain-
koarenganako bearkunak aintzat artu gabetan, langille odol ega-
rriz dan apaizengadik?

Zer garai bateko Cisneros-en jarraitzaleengandik?

Egunen batez ezagutuko al dute dagiten oker neurteziña, ta
damuaren pixuz goitar Jaunak barkatuko al die.



Españar kutsuz nasturiko, edo españar apaizengandik esan
degunik ezin esango degu gure euzko apaiz jatorrai buruz. Zearo
batekoz bestera bear du izketak.

Aaa, euzko apaizak!

Auek bai Kristoren egitazko jarraitzalleak; auek bai ordezkari
zintzoak.

Gure elizgizonen agerkerak iñork uste baño geiago esan nai
du gudate ontan.

Garrantzi aundia dauka. Euren arrazoiz aurkako urteera za-
tarra arintzeko, ta munduaren aurrean itxurantzean gelditzeko
zerbait aitzaki bear zuten paxistak, eta guda au erlijioa askatzea-

gatik sortu zutela esaten ez dira iñoiz aspertu. Ori gezurtatzeko zer oberik euzko apaizen jokera baño?

Zer agerkai oberik paxista odolzaleak eraildako apaiz martiriak baño?



Euzko mendietan barna gudari izan geranok ondo ikusi degu gure apaizen adore ta bikaintasuna. Ez armarekin tiroketan ibiltzeko, ez iñor iltzeko, ez iñor gorrotatzeko; mingain txar gaizkitzeginak ixilduarazi, gazteai animak garbi eukiarazi, bear diran laguntzak eskeñi ta zeru bidean jartzeko baizik.

Itz batean, kementa ta adorea, baña, Kristoren ordezkari izateko, Jesukristo munduan izan zan bezela, erriaren aldeze ta langille beartsuaren pozgarri izateko. Ortarako bakarrik.



Aiek eta auek, guziak apaizak, irakurle.

Batzuk, eliztar zintzo ziranak elizatik uxatu ta urrutiratzen diardutenak; besteak, len elizatik urrun zebiltzanak elizaratu ta sinismenez berotarazten dabiltzanak...

Ta, denak apaizak.

Ixo! Orok epaitzeko eguna iritsiko baita!

Lertuko ote?

Beldur izatekoa da!

Eguna, 1937-03-24

Beti bezela, azpijokoz nardakeri ta bidegabekeririk aundienak egiñez diartute paxista laterriak. “Itz gozo ta putz miñak” aueri buruz bai esan genezakela. Gaur eurak jartzen dituzten baldintza edo kondizioak, biar eurak puskatu ta ezereztu. Mediterraneo gaiz, Italia Inglaterrakin adiskide antzo konpondu zan arren, ondoren zer gertatu zan?

Ainbat aldiz aitatutako kontrol gaiak arrastaka ta elbarri antzo norengatik dabiltz?

Ainbat batzar, ainbat bilera garrantzizko, norengatik atzeratu ta utsean gelditu dira? Orain bi illabete artu bear zituzten erabakiak norengatik artu ez dira? Iberiako auzi latzari buruz neurri sendorik artu ezpada, norengatik da?

Guzi-guzia paxista laterriai zor zaio. Kalte ta oker danen sus-traia ortik baitegu, Laguardiak esango luken bezela.

Noizbait bear da kontrol eguna ere iritsi zan. Baña kontrolik egiten al da? *Camara de los Comunes* edo dalako biltokian, Eden jaunak itzaldi bat egin berria du, ta bertan zionez, il onen bosgarren egunez gudariz beteriko italiar gudontzi bat ustuzan Cadizko kai edo portuan.

Milla bider garbiro ikusi danez, auentzat ez da batzarrik, baldintzarik, konponketarik, kontrolik eta demoniorik. Auek derizkiotena egin bear dute ta kito!

Errusiatarrak lepozgain egiñak dira oraintxe, ta ondoren argirik ez degu ikusten. Moskuko *Pravda* izparringiak, Eden-en aotik ezer urtetan danean, ondo jakin eta baieztu ondorengo izaten dala zion lengo egunez.

Ivan Maisky Errusiako enbajadoreak gordin-gordin itzezin du. Errusia askaltasun demokrazi ta pake alde edozer egiteko gertu dagola adierazi du. Edonori arpegi emateko gertu.

Londresko *Times* izparringiagandik asi eta ainbat eta ainbat egunkarik, Errusia goraltzen eta aupatzen diardute. Frantzia ta Errusia arteko batasuna iñoiz baño sendoago dala dirudi berriz. Irakin bearreko pertza gertutua dala esan leike.

Paxista laterriok Japonen itxaropenez dirala esango nuke nik. Japonen Errusia ezin du begi ninietan ikusi. Ta Japon Alemaniarekin oso etxeko da oraiñaldian.

Mordollo ikaragarri onek lertzeko ezer gutxi palta du, ta paxistak orain arte bezela, azpijoko nardatsean jarraitu asmoz bada, aurtengo udara ezagutu danik beltz eta negargarriena izatea ziur jo liteke.

Arrazoiz eta zuzentasunez ezin duenak, indarrera ta zabarkerrira jotzen du, ta paxista laterriak asmo ortan dirala dirudi.

Guadalajara inguruan baño gudari bikañagorik ezpadute, zertara dijoazen aurrez pentsa lezateke, gixajuok.

“AMAYA” dala-ta

Eguna, 1937-03-25

**Olaizolatar Gabirelekin berriketan.
Euzko Gaztediri eskertsu. Mendian odoletan jausi
ziranen oroitza. Irurogeita amar ereslari. Eun da
berrogeita amarreko abeslari taldea.**

Ezkon pozetan dan zaldun gaztea baño arroxkiago zuzendu naiz Donosti Buru Batzarraren etxera. Olaizola arkitzeko tokirik egokiena bera baita arratsalde partera ezkerro.

Ate-txirriña entzun ostean, gazte batek kontuz ideki, ta Gabirelen mairano noa zuzenki.

Katigu dago gure gizona.

Ni bezelaxe berri arrantzara inguratuta *Lan Deya*-ko izparkari bat dauka alboan.

–Aundia duk ni beti azken muturrean izatea –esan dut neure kolkorako–. Kontxo, kontxo!



Lan Deya-ko izparkariak bukatu ditu bere zeregiñak.

Nere txanda orain.

–Kaixo, Gabirel! Baña, zer milla demoniño!

Bat edo beste, etengabeko egitekoak badituzu. Beti lotuta! Bizitzen utziko ote dizugu gero?

–Len ere olakoxe batzuk ikusiak gera, Basarri. Onenbestez erabat ez al gera galduko, noski...

–Jainkoak ez dezala nai beintzat, Gabirel, ez dezala nai!



–*Eguna*-ren irakurleentzat alakoxe mokaru goxo batzuk edukiko dituzulakoan ingura natzaizu ba. “Amaya” esantzerki ospe-

tsu ori laister azaltzekotan zeratela eta zerbait albiste izango ote genuken edo...

–Gizona, gizona, galdetu derizkiotzuna, ni dakitena esateko muxinka ez natzaizu ibilliko-ta.

–Eskerrikasko, Gabirel. Etortzerako ere pentsatzen nuan bai gizon jokatuko ziñala.

Astera nijoakizu...

–...?

–Berealaxe esango dizut.

Badakizu Bilbaoko antzokian aspaldian dabiltzan antzerki, esantzerki ta obrak zer diran. Dana atzerri usaikikoa, dana kanpoko gauza, ta utsa balio duana, utsaren urrengoa. Eresi gaietan ertilari edo artista ederrik ikusten genizun orratik! Bateko ta bes-teko erestaldiak, ango ta emengo ereskontz edo orkestak...

Bazeok ba emen elementu ederrik, esaten genun sarri geurekiko. Ormaetxea, Garate, Lizarraga ta abar maiz batzen giñan, eta alako batez, beti auzoko ertilan xixtriñai begira egon gabe, geure esantzerki bikain zoragarri “Amaya” atera genun platerara, ta “orixe eman bear ukek, Bilbaon... orixe antzeztu bear genikek” esanez asi giñan.

Bai, baña, dirua, ertilariak, jantziak, era ontako mañak lenengotik.

Azkenerako orratik alkarri buruak bete, bidea zuzen-zuzen artu, ta Bilbaoko Euzko Gaztediangana.

An gure iritzi ta asmoak agertu ta “aurrera txalupari” esateko moduan...

–...?

–Euzko Gaztedia ezin da gizonago jokatu zaigu.

Gure asmoak guztiz bikaintzat eta bearrekotzat arturik, la-guntza guziak eskeñi zizkiguten. Dirua galduko bazan ere “Amaya” emango zala Bilbaon, zioten Euzko Gaztedikoak.

Ona beste bat emen
lagun zaar Etxabe,
beti agertu dana
zuzendari trebe.
Lana egiten du baña
bere izena gorde,
dantzari bizkorrak onek
ezituta daude,
artaldeak zer litzake
artzai onik gabe?

Aurrean agertzen da
ta ikusi nola,
Goñiren jazkerakin
gure Olaizola.
Badakit amaika txalo
jo bear zaiola.
Bere papererako
bai jator dagola,
ertilari lurruna
gogoz dariola.

Geroztik, antolaketa, gertuketa, ta milla eratako erreztasunak bazkun orrengandik lortu ditugu.

– ...?

Bai, egia da; eragozpen azi xamarrek izan ditugu. Abeslari ta antzezleri yayo batzuk an gure Donosti maitean gelditu zitzaizkigun, beste batzuk Frantzian sakabanatuak dira...

Guda-oñetan illak ere bai berriz.

Izketa egal ontara eldu danean, Gabirelen arpegia goibeldu egin dala dirudi.

Lengo oroipenak toki artu diote nunbait.

Ta Landin eta Andonegitar Ixidro aitatzen ditu.

Bere adiskide miñak, bere ikasle zintzoak ziran.

–Azkenengo au zan –dio Gabirelek– Euzko Abesbatza sortzea oldoztu zuana. Aztu eziñeko Ixidroren buruan loratu zan gure jaiotza.

Goitar jaunak bere altzoan eukiko al ditu.

– ...?

–Alaxe da. Ni txoratzen nago. Ain daukat jende ona!

Zar eta gazteak, danak zintzoak, danak zuzenak.

Ollo otsana bere garaian kotara legez, euren ordutan txintxo ta gogotsu biltzen dira ikastaldira. Dakizun bezela, gauzak ondo ateratzeko au oso bearrekoa da.

Eta ontan irakasleari ere poz ematen dio lan egiteak.

Jende oso ona!

– ...?

–Ori jakin nai al dezu?

Ba, irurogei ta amar ereslari gorengo izango ditugu ereslane-tan. Euren zuzendari, berriz, bear añean iñoiz jasoko ta goralduko ez degun Aranberri gazte yayo bizkorra izango da.

Gizon au goraltzeko itzik ezin du arkitu Olaizolak.

Ai enekotxa!

Abeslari aldra ere ez degu txantxetakoa. Eun ta berrogeita amarreko taldea baitegu kantu ortarako.

Bada zeozer, konpañeo!

– ...?

–“Amaya”ren egitekoak Zabalbeaskoatar Matilde ta Berastegitar Mirenen gain dijoaz. Emakume abertzale jatorrak biak. Abotsez zer diran esaten beti ezin jardungo gera berriz. Nork ez ditu ezagutzen ordea?

Bilbao guzia eurei noiz eta nundik nora entzungo, txartelik arkitu eziñik arrastaka badabil?

Ikusle ta entzuleen txalo ta goralmenez puzturik badaude?

Udaberriaren sabelean adar punta batetik bestera kantetan diarduten urretxindorren goxoa, irakurle!

Berdin-berdin emakume auen jarduna.

Aingeru zoli auek, batean batek eta bestean besteak, txandaka egingo dute “Amaya”kikoa...

—...?

—Ez, orrek beste bat du. Aitoretxeako erregin antzo agertzen dan Amagoiaren papera dijoa Pepita Enbilen gain.

Ikusi egin bear da neskatz onen zolitasuna. Oraintxe bete ditu emezortzi urte. Denbora asko ez dala utzi du nere ikasle iza-tea. Txalogarria ziñez neskatz auxe.

Ta entzuleen gogozkoa nunai.

—Ia ba andereño. Irakasleak maite zaitu, arranetan!

Izan ere Pepita,
ain zera polita!

—Mikel Goñiren emaztetzakoa, Ibarra deritzako bizkaitar andereño argi abots goxokoaren gain dijoa.

—...?

—Arrazoi dezu. Teodosio bakaldunarena, Pio Ulazia sonatuak egingo du. Ez da ordea bakarrik. Gallastegi elorriotarra du lagun. Batean batek eta bestean besteak erabiliko dute zeregin ori. Ulazia danok ezagutzen dezute, noski. Donostian eta Iruñan ainbat eta ainbat txalo jasoan lan onekin. Abotzoli tenor ospetsu bezain egokia. Italia ta abarretan beti entzuleen gogozko agertua.

Gallastegi gazte onen abotsa zoragarria baitere.

Esango dezute entzuteko zoririk ezutenok.

—...?

—Orri betikoa eman diogu. Pasaitar jator au bear bezela goral-tzeko ez dut nik itzik. Auxe, ondo baño obeto porta izan zait alde guzitan. Donosti, Iruña, Barzelona ta abarretan bezela Bilbaon ere. Asier gaiztoarena egingo du.

Onak ere txanda egiteko, Romero bilbaotar ospetsua izango du lagun. Ai zer abeslaria degun auxe ere.

Abespeiti edo baritono jatorrak, arranetan!

—...?

—Gañontzekoak diozu?

Zein baño zein, gizona. Danak aurreneko paperak egiten bear lutekenak dira, baña abertzale jatorrak diralako, eman zaiotena artu dute apalki.

Entzun egin bear zaie Mendibeltzua, Andonegi, Iturrizaga,
Elordui, Kortaxarena gazteari ta abarri.

Jendeak arritu bear du auen bikaintasunez.

Nola abesten dutela...

Ta ona nun daukazun
aingerutxo Enbil,
txoratzen dituana
amaikatxo mutil.
Abesten asten danean
ezpaintxoak pil-pil,
urretxindor onek ez du
askok ainbat naspil.
Zugaitzetik zugaitzera
beti kantuz dabil.

(Jarraitzeko)

“AMAYA” dala-ta

Eguna, 1937-03-27

Olaizolatar Gabirelekin berriketan

Astunegi ez izatearren ez genizun erabat amaitu Olaizolakiko izketaldia. Beste ertilarien berri ematen ziran Olaizolak, baña be-
rea ixillik gorde, alik eta ni arrenka asi nitzaion arte. Euzkotar
jator guzien gaitza da au. Etxeko alorak alik ezkutuen euki nai
izaten ditugu. Ez degu geure bururik agertu nai izaten.

Nere galderak utsean ez uztearren

–Nik, dagokidan bezela, noski, zarrarena egingo dut beti lez
–dasait Olaizolak

Abeslari bezela jaun au aupatzen ez dut asko nekatu bearrik
nire ustez.

Nor da ordea beronen berri ez duanik?

Agertutako leku guzitan ben-benetako ertilari gorengoaren
izena bereganatu du. Europaren lau egaletan ezaguna da bere
izena.

Goñiren egitekoak nork bete lezazke jaun onek bezela?

Au bezelako antzezleriak, au bezelako abeslariak eta au dan
bezelako abertzaleak Euzkadin oparotsu ugaltzea goitar Jaunak
nai dezala beintzat.

Gure erri zarraren berbizkundera denboraz ikusiko genuke
eskutan.



Gure Joxe Etxabe markako gizona da, arraiotan! Gabirelek
ere nola goraldu ditalako gero! Danak merezi ditu.

Ereslari edo musika gaitan gutxi-gutxik añean ulertzen dua-
na. Abesti kontutan Gayarrek zekian ainbat. Dantza arloan, mai-
xu zuzen ziurra. Gure Etxabe au zertan ez da ordea artista? Ola-
ko aparejurik au daukagu beintzat.

“Amaya”ko dantzarien zuzendari degu oraingoan ere. Donostian, Barzelonan, Iruñan, alderdi guzitan izan dan bezela. Nor egokiagorik?

Ta ez dantzariena bakarrik. Beste mila eratara ere Etxake “Amaya”ko antzezlarien zuzendari da. Erderaz esango genuken “director artístico”.

Pikaro au nundik nora ezkutatuko beti. “Amaya” gaiz bere lanak sarturik zerbait esango zidalakoan, ta... zakur zarra. Piurazterik ez gustatzen nunbait! Arraio ori! Ta garagardoa noiz izango ote diagu?



Olaizola irakasleak “Amaya”ko dantza eder ikusgarrien berri eman zidan.

–Lenengo ataleko dantza zoragarria “plenilunio” izenez eza-gutzen degu.

“Amaya” lenen antzeztu zanean dantza oni etzitziaion tokirik ematen; etzan ezagutzen. Eresantzerki au asko edertzen du orratik onetxek.

Aspaldian paxista maltzurak giltzaperaturik daukaten adiskide min Bernardo Zalduak sorturikoa da. Ikusgarria benaz!

Bi emakume-talde dantzatzen dira. Bizkaitarrak eta gipuzkoatarrak. Tartean lau gizonezko ere bai.



“Amaya”ren ezpatadantza sonatuaren entzutea danok dezute, noski. Auxe bai dala gustagarri; jendearen eskariz bi aldiz dantzatu bearra izaten da geienetan.

Dantzari taldea bilbotar bizkor artetsuak osatuko dute.

Beraz dantzez lilluratu bearrean gera.



–Antzeztokiko apaingai edo dekorazioak Eloi Garai ospetsuaren gain dijoaz. Apartak agertuko dira. Zoriontzea merezi du,

arranetan. Ikurdi edo eskudo, sarde, lantza ta abar Euzko Gazte-diko jende zintzo langilleak antolatu ditu.

Marrazkiak berriz, ortantxe ikasten Madriden ainbat denbora egindako emakume argi batek egin dizkigu. Olaizola eskertsu dago emakume orrengana.

Jazkerak, berri-berriak izango dira. Apañak, zoragarriak.

Emakume abertzale lirañen eskutatik ezin nolanaiko gauzik urten. Xixtrinkeririk ezpaitute maite.



Olaizola bizkorrak esan digunez, “Amaya” lau aldiz antzeztea oldoztu da oraingoz. Nire ustez, Gabirel, gaur Bizkaian dagon jendetzaren gogorik eta zaletasunik ezta aseko lau aldiz emanda. “Doña Francisquita” astebetea antzetzuz jarrai badute, pentsa besterik ez dago “Amaya”.

Kontuak ateratzeko denbora badago ordea gero ere. Ikusiz gañera alegia.



Azken galderetan zenbat urte zituan galdetu nion Olaizolari. Berrogei ta sei bete dituala erantzun zidan.

Eta jaunak, amazapi urte bete zitun ezkerotik Euzko Alderdi Jeltzaleko alderdikidea da. Era guzitara zenbat goralpen merezi ez du jaun onek?

Onetzaz gañera, “Amaya”n agertzen diran ertilari geien-geienak abertzaleak dira. Geien-geienak, danak ez jartzeagatik esan dut.

Baliteke ba bakarren bat alderdiko ez izatea.

Ai, zenbat gauz eder ager lezaken gure alderdiak!

Zer ez daukagu ordea?


Olaizola irakaslea gazte bizi da. Oso gazte.

–Bai, Basarri, berrogei ta sei urte dauzkat, baña neskatxa gazteak sinisten ez dutelarik, egundoko begiratu goxoak egiten dizkidate.

Ikusiko litzake, demontretan...

–Ta gu emen ezkur zarrak baño estimazio gutxiagorekin...
Ekatzu bosteko ori, lagun zar.

Alaxe, eskuak trukatu, ta Arriaga arte esanik utzi genun mai-
xu goralgarria.



OPERA
AMAYA

Nekazariei begira

Eguna, 1937-04-01

Udaberriaren soñak egin du bere agerkera. Nekazariari dago-kionez, zenbat neke ez datorkio oraintxe? Gero etxeratzerik nai bada, orain ereitea bearreko.

Lanik inoiz paltatzen ez dan arren, negu arloa atsedean epetzat dauka nekazariak. Kalean ainbat eginbear izaten danik ezin uka orratik...

Ekaitzaldiko urteerak, ganadu-jan etxeratzeak, erreminta antolaketak, etxebarruko zeregiñak... Nekazariak beti dizu galtzak bete lan.

Udaberria eltzen danean, ordea, pulamentuz asi bearra, arranetan. Bearko orixe!

Goizean ere nagiak ateratzeko beta aundi gabe zutitu bearra. Zarrak oska asten diranean, atsegin al duk maindirapean irauten? Ganaduak uztartu, karramarro, golde, are ta abar gertutu. Atxur, sokormazo, orzpikoak zer esanik ez. Laiak ere bai golderik eldu ezin diteken ertzetarako.

Noizbeinka pitar txarrari estutu batzuk emanez, jo ta jo, arranena. Illunabarrerako gerriondoak bapo zapuztu ere.

Negu arloan soro-lanak urri baitira. Eguneroko jardunak, gerriondo ta gañerako exkiñak itxuraz ezi ere orratik. Artolanak egingo badira, aurrez alakoxe lanak oi dira lur-konponketan. Beste lan guzitan bezela, lenengo gertutu egin bear.



Guda beltzaren erpin zorrotzak basetxetako itxaropen ziran gazte langilleak atxur ordez izkilluak artzera beartu ditu ordea. Ta irurogei urteren buruan lurrarekin burrukan jarduniko zarrak zer egin bear dute? Aiton bizkar kakotuak etxelurrak erabiltzeko gai al dira?

Ez, ezin inolako moduz. Etxeko landare gazteen itxaropenez aizaturik zeuden. Guziaz euren esku utzia zizuten.

Eurak euren almen koxkorrak eskeñi baño ez. Gañontzekoa beso gazteen kontu.

Orain?

Geure lurretan bein bear da gudate beltza degularik, artaraxe doiaz gazteak. Gudara, gerrara!



İñor badata, basarritarra guda-oñetarako mutilla. Apala, ixilla, esaten zaiona egiteko gertu dagona... Len laztasun asko ikusia dalarik, mendiko goraberak gutxi izutzen dutena. Aikomaikotan denborik galtzen ez duana. Itz batean, ben-benetako gudaria!

Nik diotan au guzia, aurrea arturik esan du B. O. idazleak *Tierra Vasca*-n. Ez dio ardura.

Askok ala uste ez duan arren, oraingo burrukaldi ontan zer jokutzen dan badaki basarritarrak. Orren baraurik ez dago nekazaria.

Orain amar urte baño argitxuago dago. Bear ainbat dakian?

Aa, ori beste barrika bateko sagardoa da. Nundik izan du erreztasun da laguntzarik? Or zeok koxka!



Guda-oñean bearreko da baserritarra. Ala diote geienak. Dan bezin apala, leiala ta langillea dalako, guziak maite dute. Len aldapa gorako asko egiña dalarik, ordekan oituriko zalduntxoak nai ta ez arritu bear nezakariarekin. Gerra irabaziko bada zer jana ere bearra duk orratik!

Aska utsean muturka dabillen idiari ez agindu goldaketarik. Zer janik ez duan mutillari ere ez gudaketarik.

Artoburu gorritz estali bearreko lurrak, uztaroa jaso garaiz, sasi lar beldurgarriz agertzearekin zer genukake? Gose maltzuraren loratzea baño ez. Epaillaren 22an Nekazaritza Zaingoak agerturiko aginduari txalo dagiogu geure aldetik.

Gudak exkiña askori begiratzea eskatzen du. Jan arazoa lenen mallan bear duana da berriz. “Europar guda” izenez ezagutzen degun txikiketa ikaragarri artan gertaturikoa ez degu aztu bear.

Bestela geuretzat kalte.

Jaiki euzkoak, gora Euzkadi

Eguna, 1937-04-08

Adar otsa entzun da gure mendietan. Gudara, gerrara deitzen zaio erriari. Goazen guziok, goazen beldur gabe! Geure izen ona nardaskatzen ez dezagula utzi.

Gudara, mutillak, gudara!

Euzkoak gerala konturatu. Lengo edestia bururatu. Lautik iruko sail ederra etsaien zai degu. Alaz ere, ez euren egiterik asetzen.

Erabat galdu nai gaituzte; gu galdu ezkerro besteezikoa laister egingo lutekela jabetu dira. Munduaren aurrean gure gobernuak bestek ez bezelako izena dauka, ta orrek neurrigabeko ziztada demaiote etsai ankerrai.

Atzerapenik aundienaz datoz. Atzerri otso madarikatuena emen ditugu.

Eurak ez duten erremintik ez da. Gizonez ondo osatuak datoz baitere.

Ez dio ajola. Euzko gudaria ez da orko atzerri otsoen beldur.

Dakazkiten gizonak ez dira urre emateko. Gerra irabazpidez artuta derriorean datozen jopuak dira geienak. Emengo mutillak galtzairuzko gorputza dute agerkai. Dana jokutzen ari baitira. Gurasoak, anaiak, etxea, maitetia, aideak, aberria... Nor ez benetako gudari ola?

Jaiki, jaiki, etxeak
argia da zabala
itsasotik mintzatzen da
zillarrezko trunpeta,
baita ere ikaratzen
Oafresen (?) ibarra.

Euzko itsasgizon kementsuen aintzin abesti zarra dezute au.

1635garren urte inguru artan gure ur-gizonak Olandatarrekin zebilizkiten burrukaldi latzai buruzkoa.

Jaiki, jaiki, euzkoak,
argia da zabala...

Jaiki, bai, aberriaren egal batetik besterañokoak. Jaiki go-
goz, zutindu orok. Izkillua lagunik aundien. Denok gudari, denok
euzkotar!

Batu, bildu, alkartu denok! Ez gaur degun aberri zati txiki au
zaitzeko bakarrik, paxisten menpe ditugun lur guzietaz jabetzeko
baizik.

Onuntz ingura nai duten maltzur ustelak zapaldu, birrindu,
ta Araba ta Gipuzkoa bein da betiko geureganatzeko...

Orain da garaia, oberik egundo ez. Oraintxe egin bear dira
egitekoak.

Errege biak azken burruka iragarrian ikusirik, Dugueschin-ek
zion: "Ni pongo ni quito rey, pero ayudo a mi señor!"

Jaun aren laguntza izan zan aldera erabaki zan burruka.

Gaiontzeko uskeri guziak utz ditzagun alde batera.

Euzkadigatik, aberriagatik, erri zar onen askatasun zoriona-
gatik guzia.

Guzia! Dena!

Etsaiok inun artu duten jipoirik ikaragarriena emen artu bear
dute.

Ortarako gauza bat palta degu: Goiko laguntza.

Itxurak diranez, laister izango degu, berriz.

Jaiki euzkoak, gora Euzkadi!

Enbeitarekin batera dirautzuek:

Anaiak gara Lapurditarrek,

Zuberotar ta Naparrak;

Anaiak Giputz-Bizkaitarrak.

Guztion ama Euzkadi da ta

gu bere seme bakarrak.

Mugak kenduta jarri dezagun

Aberri oso bakar bat.

Gudarako izan, gudarako bizi!

Eguna, 1937-04-09

Ona emen eguneko eginkizuna: gudariak izan, gudarako bizi! Arinkeri guziak alde bat utzi bearrean gera. Geure arloari egundokorik bikañen da sendoen eraso bear diogu. Gure motelkeriak sor lezaken kaltea neurteziña da. Gure epelkeriaren ordaña garestia urtengo litzaiguke.

Oso garestia!

Milla aldiz esana daukagu, baña berriro agertzen ez gera aspertuko.

Euzkadiko gobernua izen ona dauka alde guzitan. Emengo gizatasuna, emengo agintea, emengo begirapena ta abar geure artean degun bezelako gudaro biurri latzean beste erri batek agertu ezin lezazken bezelakoak dira.

Iberiako beste gobernua ez dira iristen emengoantzat. Ezta urre eman ere. Ta izen au daukagulako, emengo gizatasun, errespetu, ezipena argiro ikusten dituztelako, besteri ez bezelako gorrotua digute paxista ankerrok.

Gurekikoak egin ezkerro, gañontzekoak errez iduri.

Iñon ez bezela jo dute gure mendietan, ta jotzen ari dira oraindik.

Guk ez bezelako alderdiak dituzte gaur artean, gaurtik aurrera bolatokia erabat aldatzea gerta liteke ordea. Ala itxaroten degu.

Orduan neurtuko ditugu zer gizon diran. Egia esan, dagone-rako bapo neurtuak dauzkagu. Arratsa datorrenean, odei beltzak zerua estaltzen duanean, bikaintasunez gañeztuta egunez galdutako saillak artu egiten dituzte gure mutillak. Goiko indarrez berdintzen geranean, egun zoriontsuak gañean ditugula konturatuko gera.



Gure lendakari prestuak erriari itzegin dio. Beti bezelako sendotasunean agertu zaigu. “Agirreri entzun ostean biotza zabaldu, pozez aizatu, baikortasunez poztu egiten da”, idatzi du izparkari batek.

Ez deritzait gaizki dagonik. Une larri estu auetan Agirreren abotsak erriari damaion lasaitasuna aipagarri da.

Bere itzaldiko zatitxo bat ikutzea dagokit. Tartean ditugun mamorroetzaz mintza zan lendakaria. Paxista mamorru gaiztoetzaz alegia.

Gutxi dira Agirre jaunaren iritziz, baina egin lezaketen kalterako naiko ta geiegi. Atzekaldetik gabiltzanoi oietxek ondo zaitzea dagokigu.

Danontzat dago zeregiñik asko. Aurreko ta atzekoentzat!

Guda-oñetan, gaiko laguntza gabe, gure mutillak ainbat odol ixuriz dabiltzan bitartean, atzekaldean ezer gertatzen ez balitz bezela begiaundi ez dedilla iñor egon. “Au artu dute, ta ori artu dabe, emen sartu dira ta an sartu dira” egiñez dabiltzan kapakiko jende ori ondo zaitu bear da.

Guda-oñeko paxistak baño askoz kalte aundiagoa dagite. Emengo sua itzali nai luteke. Denok buruzbera jartzea nai luteke.

Erne mutillak, erne abertzaleak, erne paxista aurkako guziak.

Kapakiko jendea esan dut. Alaxe da.

Gure aldekoak dirala agertzeko kapa jazten dute, baño era duten guzian al dutena bestera saia. Onelako asko dago, geiegi gauz onerako.

Au ta ori, berri txarrak zabaltzen oiek bear dan tokira eramatea denon eginkizun nagusia.

Atzean da aurrean, gudarako guziak; gudari antzo ibili, gudari bizi...

Posnania-ko jauregiko jaun arek bezela esan bear degu:

“Askatasuneko ekaitzaldian naiago degula, jopukerazko bizitz erosoan baño”.

Erriaren kemena

Eguna, 1937-04-10

Gora euzko abenda!

Egun auetan iñoiz baño argiago ikusten degu Euskalerra zaarraren giarra. Onek neurrigabeko poza damakigula aitortu bear. Erabat onela zutitzen dan abenda makurtuarazterik ez dago. Ez; alperrik agin zorrotz edentsuak agertuaz datozkigun atzerri otsoak. Alperrik Hitler eta Mussoliniren morroi trakets biotzgeak. Alperrik dakazkiten aurrerapen makurak. Alperrik guzia!

Garai bateko Erromatar eta Godo maltzurrai sarrerik utzi etzien erria, aiek baño okerrago ta basatiago diran Neron-en jarraitzalle aueri ateak zabaltzeko ez dago.

Irakasleak lez esan dute oñordeko zintzoak: Il naiago ikusi baño aberriaren amaia!

Ta gure gudariak, azken itzetan, Gora Euzkadi Askatuta!, deadar sendo gordin bat jaurtitzen dutelarik, oparotsu eskeintzen dute zañetako odol gorria.

Ta len ainbat aldiz ikusitako margo ori itsatsita gelditzen zaie gure mendiai.

Euzko gudarien odol margoa! Margo gorri ta lodia!



Atzerriko izparkariak arrituta daude. Guziz arriturik ordea.

Guda erremintez olako alderoarekin, ta gaur eguneko guda egazkiñak duten garrantziarekin, zortzi eguneko ekiñaldi luzean arerioak geiago ez aurreratzea, arrigarritan ere arrigarria izaki. Era ortako bultzada zakarrari eusteko etsaiak ez darabilten aber-tzaletasuna bear. Moro, aleman eta italiarrez gañeztuta, aginte geienak euren gain utzita, goiko ta beko ardurak euren esku utzita, españar abertzaleatasunagatik dabiltzala esatea, Beizamako soro aldapetan ari dan nekazaria Bermeoko bokarta arrantzarako sare konpontzen ari dala esatea bezelatsu da. Egiatzko gogaia

nundik dabillen bederatzi egun auetan gure menditan degun burukaldi latzak erakusten du ondoen. Ezertxok ere ez obeto!



Atzekaldeko saildiak osatzeko eskatu du gobernuak.

Atzekaldea retaguardia deritzana dala badakizute, noski. Alderdi politiko guziak benaz eraso diote agindu betetzeari.

Ta izen zerrendari begira jarri galararik gauza arrigarririk asko ikusi degu. Emezortzitik berrogei ta bost urte bitarteraño-koak eskatzen dira zeregin ontarako.

Zerrenda oietan, ordea, irurogeitik gorako zaar aintzagarrien izenak ikusten ditugu. Ta ez bat, bi ta iru, orrela bakanean, egundoko mordoak baizik. Mola maltzurak bialtzen dizkigun txori beltzok erriaren burruka-sua itzaltzeko asmoz badira, odolzale biotzgeak oker dabillega oldoztu bearko du. Bai orixe!

Bestela suspertuko etzan amaika bazeok arma eskuratzeko egarritz. Erri zaar onen burruka-sua ikusi egin bear da.

Ikusi ezean sinistu ezin alakoa dalako.

Irurogei ta irurogeita amar urteko agureak emen arma eskari bizian. Agintzen zaiotena egiteko gero danak. O, nire aberri laz-tana!

Onean zuri eramatekorik beste bat ez da iñun, baña ankape-ratu ta iltzera datorren basati talde zakarrari ortzak erakusteko ere ez zu bezelako asko.

Antzin aroan zion Avienius-ek:

Euzkoa gizon geldieziña zala. Geldieziña ta menperaeziña. Pakeak egin ziranean, Sulpicio Galba jeneralak euzkoak eskatu zituan Basati edo Barbaroen erasotik Erroma gaizkatzeko. Tácito edestilaria orduko euskaldun aiek goraltzeko itzik arkitu eziñik ibili zan.

Valeriano Máximo ta Juvenal olerkariak olerkirik sakonen da txalogarrienak egin zituzten gure aurrekoak goraltzeko. Aien ondorengoak gerala agertu bear degu oraingoan. Paxismoa gure

lurretatik urrutiratzeko din izaten bagera, olerki ta idazki ederrik opalduko digute erriak.

Europaren edestian goi mallan agertuko gera.

Ni berriz au egingo degula sinistuta nago. Irurogei ta irurogeita amar urteko zaarren izenak armak eskuratzeko egarritz ikusten ditudanean, ta gure mutillak guda-oñetan darabilten kementa ar-giro nabaritzen detanean, garaitz eguna gertu degula bururaturik, itz auek igesten didate ezpañetatik: GORA EUZKO ABENDA!

Azken unetan?

Eguna, 1937-04-17

Gauzak ala dirudi

İñor igarle ez geran arren, geienok geure iritzi mortxillak baditugu. Eskuartean degun gerrate ikaragarri oni buruz zenbat iritzi ta zer esan ez dabil?

Gaur artean agertu diranak pillatuko bagenitu, mordoaren arrigarritz txotxotuta geldituko giñake.

Ta jaun batzuren iritzietatik beste batzuenetara erkitutako alderoarekin erotu ez beste guzia egingo giñake.

Uztaillaren emezortzian Marruecos aldetik zerbait txixpa zala entzun genizunean, Euzkadi era ontan ikusi bear genula esanda, nork sinistuko zizun?

Kaskabaletik ondo zebillenak etzizun denbora artan ontzat eta aintzat artuko ortako konturik.

Gerora, guda-erpiña ondotxo zabaltzen asi zalarik ere, nork uste zizun bederatzigarren illean noiz bukatuko itxurik gabe burukatu bear genizunik?

Nork esan Euzkadirentzat unerik zallen eta garratzenak bederatzigarren illean izango ziranik? Nork ordea?

Guda asi berri artan, igarlerik egokiena Prieto agertu zitzai-gun. Irradots edo “radio” ertzean belarriak luza-luza eginda egonak giñan bitan edo irutan jaun orrek ziona entzuteko.

Urrutira ikusten zizun, arranea. Zer arrixku zeuden, gauzak zer itxura artu zezakean, auzo zakurrak zer zaunka egin zezaketen... Itz batean, guzia ikusten zizun.

Ta ala gertatu da. Bakoitzari berea ematekotan, Prietori gizon azkar argiaren sona eman bear diogu.

Aspalditxoan gauzak alderantziz biratzen diardutela argiro senti ditekena da, noski. Kanpoan guganako maitasun da begirapena lortzeko, emen gudari sendo *azpiraeziñak* agertzea bezelakorik ez da. Geuk igeri jarraitzeko almena eukita, albokoak

gaizkatu edo salbatuko gaitulakoan geure buruari erabat uztea eriotzari toki ematea dala konturatu bear degu. Igerirako almena degun arteraño, geuk saia bear anka ta besoak zabaltzen, bestela urpeko ostatua dator ziur.

Pozoblanco ta Guadalajara inguruko garaitzen ondoren, Españaiko gobernoak zenbat irabazi duan nork neurtu lezake? Len erdi lotan zeuden erriak eguzkitara urten dirala garbi ikusten da beintzat. Erbestean sona eukitzeko etxean artzea bezelakorik ez.

Atzerriko artueman eta goraberak alderantziz jartzen ari dira, baña ortarako etxebarruko goraberak alderantziz jarri bear lenengo.

Len paxistak aurrera egiten zuten bezela orain geuk egin, ta ortaraka auzo erriak laister ditugu txalo ta goraka erotu bearrean. Orratik, azken orduan urak zein ibaitara dijoazen ikusi ondoren, txaloka datozkigunak merezi bezelakoxe arrazoiak entzun bearrean dira. Oiek egin diguten laguntzarekin zer onura izan degun bein baño geiagotan entzun bearrak daude.

Erriak badaki nork egin dion on, baita egin zezaioketenak egin gabe nola gelditu zaizkion ere.

Pozoblanco ta Guadalajarako aurrerakoak Españaiko gobernoa goi maillara badarama, gure mendi ospetsu auetan euzkotarrok lortzen ditugun gurendak gure gobernoa ezin da gorago jasoko dute. Lanerako bestek ez bezelako izena daukagula ez degu aztu bear.

Jorraillaren amalaugarren eguna.

Negu denbora traketsa, txarragorik ezin zeikean tankerakoa. Guzien galdera berdiña egun ontan: Urtegarai ontan au? Ta Bilbaoko kaletan aize zakar eta erauntsi ikaragarriek igeska zebiltzan denak burutapen bat: Gure gudariak, gure mendi mutillak nola ote dabilte? Euzkadiko gañik altuenen zaitzalle diran mutillak zer ezkutaleku ote dituzte?

Nun babestuko ote dira?

A, gure ametsak!

Gure gudariak ez dizute babexik, gure gudariak ez dute geldiunerik. Aberria arrixku latzean ikusten dizute, ta arrixku ori Euzkadigandik lenbaitlen aldentzearren, euren bizitzak arrixkatzzen dituzte. Badijoaz...

Giro txarra, traketsa degu Bilbaoko kaletan, eta bitartean euzko gudari errimeak euren izkillu denak sutan jarrita sabel burnizkoak agerkai dituztela Sebigan gaña artzera doiaz. Suketa arrigarria izan da bi aldetatik.

Pranko dira betiko eroriak, baña bizirik diranak Sebigan gallurrean euzko-ikurriña zutindu dute. Erri zoragarria gure au. Paxisten eraso txar denak azkena eman izango dutela esango genuke. Ta alde guzitan lepo betekoa artzen dutelarik, gudak nola iraun lezake luzaro?

Euzko-mendietan paxismoa makurtuarazi ezkerro, gerraren azkena oso urte ikusten degu.

Orduan esan genezaioke etsaiei Alvarez de Vayo-k lengoan esan ziena: "No pretendáis prolongar por más tiempo vuestra agonía".

Gudak asko erakusten du

Eguna, 1937-04-21

İnork ez bairik ez dezute egingo gudak asko erakusten duala. Alare orratik, geixeago ikastearen premia sarri arki genezakena da. Gizonak neurtzeko ta ezagutzeko au bezelako botikik ez, noski. Ekaitzaldi ikaragarri au lertu aurretik, itsasoko olatu zakarrak baño arroago jaikitzen ziranak, orain ezertako xexo gabeko ume elbarrien gixa arkitzen ditugu, ta pake denboran itz bat bestea baño goragotik egiteko almenik etzutenak, uneoro bizia arrixkatuaz galtzairua baño sendoago ta gogorrago agertzen zaizkigu. Jakiña, edestu dedan au ez da lenakin gertatzen, baña mordoxka ederra zenbatu genezake.

Gudate ontan usterik eta konpianzik aundienekoak bizkar eman dute, ta ezer gutxi zirala ustekoak, arpegi.

Zapiak batekoz bestera aldaturik dakusgu beraz.

Orretxengatik bakarrik ere gudak asko erakusten duala aitortu bear degu.

Orain goazen beste egala ikutzera.

Gerrak asko erakusten dualarik, oraindik zer ikasi aundiak ditugula ez didazute ukatuko, noski.

Ezagutu dan matxinadarik latzen eta ikaragarriena dala denok ao batez esaten degu. Etsaia indartsu dala badakigu, armaz lepo-ezurreraño betea dagola ere bai.

Atzerri otso guziak parte arturik daudela zer esanik ez.

Nazio indartsu aurrerapenez jasitakoen laguntza dutela aspalditik argiro ikusia degu.

Gure gudarien jokera txalogarri, aintzagarriaren berri bade-gu. Euskal mendi gallurretara ingura dan basati jendetza ikaragarri orri orrela eustearekin Europa guzia arritu degu.

Erremintaz neurtu ezin alako aldea izan baita, ta oraindik zoritxarrez ala baitago.

Era ontako burrukaldi batean milla eratako goraberak jasotzera etsiak egon bear genuke. Guda-oñetan dauden gudariak ala daude, baña ori aurrekaldean duten etsaia indartsu ta kemen-tsua dala egunero garbi ikusten dutelako da.

Gudako goraberak ondo joateko, aurrekaldea atzeraldearekin uztartuta egotea bearreko da. Atzekaldean gizaki epel asko ikusten degu ordea. Norbaitek mendixkaren bat edo beste galdu daneko berria ematen badiote, arpegi dena zurbildu, begirik jaso gabe, entierroko kaja eskatzera ez beste guzitara gertutzen dira. Lauki ederrik ikusten da, demontretan!

Urrena berriz, gezur-zuloren batek atzaparra beteko kontua besoa bezain aundi agertzen diote, ta... orduan izaten dira kome-riak. Egoaizea baño arroago eginda, nork burutu oiekin?

Olakoxe alderoak ikusten ditugu.

Edota, zeruak jotzeraño igo bearrean, edota lurrari begirik kendu gabe bertan laprastu bearrean.

Gerran latzagoak izaten ikasi bear degu, datorren erasoa jasotzeko gertu egon bear degu, ta ez Inglaterrak au, Frantziak ura, egun batean saltoka ta bestean mañaka umeak bezela. Il edo bi-zikoa degu oraingoa, ta gertu bakoitza bere tokian. Berri onak datozenean, bear dan eran artu une guzitan. Ta, beste gauza bat; Ardura ori daukatenak ematen ez duten artean, kalean aotik ao dabiltzan lelokeri asko ez sinistu. Berri ziurrak jaso nai diranean, Guda Zaingoa ortxe dago bere garaian azaltzeko.

Gañontzeko jardunarekin ez arrotu.

Argonne-ko burrukaldi ikaragarri aiek ziardutela, Dumoiriez prantzetar jeneralak au zion kokil jendeari buruz: “Guda sen-titzen duanik ba al da ordea, atzerakorik eta okerbiderik gabe, arrixkurik gabe irabazi bear duala esango duanik?”

Gudak asko erakusten du, baña geiago ikastearen premia degu.

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-04-22

Nire errian bada naita ere egirik esango ez luken gizon bat, Pintto izenarekin ezagutzen degu.

Gazteak maiz inguratzen zaizka, ta zer ateraziko saiatu ere bai.

Bein batean, eibartarrak eizera Zarauzko erriberetara joatea pentsatu omen zuten. Bai joan ere, noski!

Ostegun goiz batean omen zan.

Eibartar oiek inguratu dira erriberetara, ta erabat arriturik ala diote:

–Zer arraiio duk ordea au? Orain arte dena garbi-garbi arkitu diagu, ta emen onenbesteko lañua?

Ederra egin diagu!

Joan-etorri, bazkari ta abar diru mordua txautu, ta eizerako girorik ez. Au duk marka!

Kontu oiek denak entzun zituanean, errukitu zan gure Pintto jaun ori ta sokormazua arrika bota zuan eskuetatik.

–Tira, mutillak, saiatu eizean –esan zien eibartar oieri, ta ark sokormazua utzi bezain azkar denbora guztiz garbitzen asi zan, eta eibartarrak egundokorik eizik geien egun artan atxitu zuten.

Ederki ordaindu omen zioten Pinttori.

–Denbora artan ni sokor jotzen asi ezkerro, kilometro ta kilometrotan lañua izaten zan. Orduko nere sasoa!



Pinttori entzun askok egiten zion, baña sinistu iñork ez.

Paxistak Pintto baño gezurtiago dirala sarritan erakutsi dute, baña badirudi oraindik askok sinistu egiten dietela.

Bilbaoko kai edo portu-esia dala ta ez dala zer esanik asko bada Europa zear.

Erañegun sartu zitzaigun ontziak gezurtatzen ditu bein da berriro patxista maltzurren jardun gaiztoak.

Inglaterrak eta munduak zuzen da arrazoiz zein dabillen ikusteko ta ezagutzeko ordua du.

Seven Seas Spray itsasontziaren sarrerak beste berreun ontzirena ere kezka aundi gabe egin ditekela azaltzen du.

Emen ez dago esi, blokeo edo matazik.

Lagundu nai duanak egoki lagundu lezake, nai ez duana gelditzen da lenean.

Paxisten esamesak eta jardunak aintzat artzen dituana, bera paxista dala beldur gabe esan diteke.

Emen, bai edo ez, gañontzean kopla gutxi.



Bergaran Mola jeneral basatia zegon etxean kañoi suaga bat sartu zala irakurri degu nunbait.

Arrazoiarekin da, Queipo Llanok entzun bear ditu ederrak.

Molak arkitzen duanean kristonak eta bi esango dizkio.

–Ni bai, ni ibilli nauk arrixkutan.

Bergaran, geure aurrerakoa gertutzen mapa lanetan ari nintzala, kañoi suaga bat sartu ziguketen gorriak geunden etxera. Ura duk eskapa, ura...

Ta, Queipok:

–Sevillako radioan oraindik ez duk sartu Jainkoari eskerrak –esango dio, ta len bezain lasai geldituko da. Molak erneatzen badu beretzat kalte.

Bitartean Queipo
Sevillan bapo!



Garesti urten zaizute orratik oraingoa.

Zer ba, azaren barrenge orriak al gaituk ba euskaldunak!

Mola Bergaran zala, egundoko joaldia gertutua zegola, ez da-
kit zenbat egazkin prestu zeuzkatela, au ta ori...

Jainkoak daki zenbat nasketa gu ikaratzeko.

Aaa, gixajuak!

Aspalditik ezagutzen zaituztegula, aspalditik.

Toki ederrera zatozte erromerira!

Erroskillak onak eta merke arkituko dituzute emen.

Elgetako joaldi artan paxistak jende mordo aundi ikaragarria
botatzea oldoztu zuten, alegia, alako zenbakia ikusita euskaldu-
nak beldurtuko ziralakoan.

Obe, obe. Bi edo iru egabera soil baño eun edo berreungo tal-
dea danean askoz eiz ohea izaten duk.

Asteartean bezelako garbiketa egiten bada, Mola zein da biz-
korra dan, atakerako jende mordo aundiak biltzeari utzi bearko
dio.

Jende mordo aundiak biltzeko, izatea baita garrantzizkoena.

Bejondaizutela, euzko gudariak.

Zuek biotz ori dezuten artean aberriak etzeukak beldurrik!

Ai, Mola, Mola,
ez duk karrerik ola!



Franco jeneralak, paxista ta reketeak iñoiz baño alkartuago
ta sendoago egon ditezen egundoko aginduak eman ditu. Beste
alderdi aundi bat sortu du, uskeri denak alde bat utzirik bi alder-
di oiek an biltzeko.

Alkartu mutillak bizkor, emendik aurrera zerbaiten premia
izango dezute-ta.

Alde batetik gorriak buru, ta bestetik italiar eta alemanak,
kontuak dirala, alegia...

Alkartu mutillak azkar, gero berandu ez dedilla izan.

Eorrek ere, Franco,
badaukak zeregiña pranko!

Gasteizko radioko kardintxuloak, Bilbaon kaleetan egundoko jendetzak ibilli zirala lengo batez gobernoangana joanda errenditzeko eskatzen, esan zuan.

Ta, Zarauzko Pinttok bezain lasai egingo zuan lo.

Gerra orrela irabaztea uste baduk, baago aldi baterako.

Armiarma arranea!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-04-24

Egoaizea baño arroago zan mutil koskorra.

Beti burrukarako gertu. Bati ortzak autsi bear zizkiola, beste-
teari ez dakit zer egin bear ziola.

Bere urte modutako gazte apal batekin gertatu zan beingoan.
Sua pizteko etzuan denpora askoren bearrik.

Mundu guzitik, burruka ta drogarik nai etzuan gazte apal
arekin katiatu bear, arekin indarrak neurtu bear.

Anai zaarra ere bere modukoa, orratik!

Gazteak zerabiltzkin erronka ta arrokeriak ontzat arturik,
gazte apal ura nola menperatzen zuan ikusi nai zuan.

Jende mordo azi xamarra batu zan.

Mutil biurriak egiten zizkion isekak inola ezin iraun denbora
geiagoz, eta ekin diote burrukari.

Bestea lotsatia zalako edo, lenengotik biurria nagusi antzean
agertzen zan. Anai zaarrak eta bere aldekoak jotzen zioten txalo
ederrik.

Apala ere guziz berotu zan beingoan, eta ekin dio il edo bizi.
Aiek esku zearkak eta aiek zartakadak!

Trapu zaarra bezela zerabilkin biurri arroa, ta anai zaarra ta
bere aldekoak margoa zearo aldatu zuten.

Etzan lengo txalo ta, gora! otsik entzuten.

–Pakea egin bear da, apartatu egin bear dira, au ez da kuixi-
dadea ta. Ikusiz gaiñera, e?

Bapo zeok!



Eskuartean degun guda-auzi latz onekin auxa bera gertatzen
da. Azaroan asi ziran Madrid artu bear zutela egiñaz asaldariak.
Atetan zeudela, ordu gutxiko lana zala, ta ez dakit ortako zenbat
ipui.

Sei illabete aundi igaro dira ura zala, ta orduan zeuden baño ondotxo atzerago daude. Ta oraindik atzeratu bear dutena gañera...

Guadalajara ingurutan artutako jipoia sendatzen lan aundia daukate oraindik.

Eta angoa sendatu baño len, Teruel ingurutan lengoaren antzekoak artzen ari dira.

Aragoi aldeko guda-oñetan zer esanik ez berriz.

Euzkadiruntz dituzten aurrerapen guziak, eta dituzten gizonik ausartsuenak ekarri dituzte.

Eta bi metro sail artzeko, millaka betiko zerraldo geldi zaizkiote.

Atzekaldea guziz ondatua daukate. Estuasunera eltzeko dei larriak egiñaz diartu Francok.



Diru kontutan beia jo dute. Inork ezer opaldu nai ez diotela laister dira.

Lurreko indarrez erria askoz geiago dala badakite.

Gobiernoaren gudarostea askoz indartsuagoa dala ezagutu dute. Goitik berriz gure *Txato* oiekin sartzerik ez dagola sinistu dute.

Gobiernoaren itsasontziak lozorrotik esnatuta egundokorik bikañen eraso diotela ikusten degu baitere.

Aleman eta italiarrak Francok txatar zaarrak aña ez duala balio diote. Eta Francok, berriz, Italia eta Alemaniak bear ainbat ez diotela laguntzen dio.

Edozeñek askatzen dik korapillo ori.

Orain guzia era ortan gainbera senti dutenean, pakea eskatuaz asi zaizkigu. Italia ta Alemania ere ortarako gertu ote diran, danontzat ohea izango ote dan... Kanpotako diru zaleetarañoko guziak kantu orrekin asi zaizkigu.

Canterbury-ko eliz-buru agurgarriari asmo ori agertu dio Mr. Churchill kontserbadoreak.

–A, bai, e? –esan dio eliz-buru agurgarriak–, estropada zeñek irabaziko duan ziur ikusitakoan urteera galerazi. Gobiernoak garralle urtengo dala argiro dagonean pake billa. Bapo zeok!

Ez du arrazoi paltik Canterbury-ko eliz-buruak.

Gobiernoak ez arma ta ez ezipen zuan garai artan etzuan iñork ezer esaten.

Igandero erriak artu ta mezak arroki abestuaz, kanpaiak burrundaka dantzatuaz zebiltzan denbora artan etzan pake eskaririk.

Orain dira emen olako kontuak, baña besteak ere ez dituk tontuak.

Mutil edestiak eta onek ez al dute alkarren antzik?



Ba dakizute egun gutxi dala Prieto jaunak zer agiri argitaratu zuan. Kontrol gaiari buruz gure itsasontziak nola jokatu ko diran garbiro azaltzen zuan. Erkal ikurriña daramatenak bear dan begirapenez artzeko, konpiteak merke...

Agiri ori euskaldunori gogozko izan zaigunik ez degu ukatuko. Ortzak erakutsi ezean, agiñak erakusten baidituzte besteak.

Prieto zoriondu ta goraldur asmoz, ogeitamar milla notin edo pertsona ibili omen ziran lengoan Valenciko kaletan. Egun ortan bertan Donostiko kaletan millakak ibili ziran, baña ez iñungo ministro ta agintariak goraltzen, reketek ta paxistak alkarri tiroka erasotzeko eran berotuta. Alde ederreko kontuak dituk, arraio-tan!

Ikusi ditugunak

Eguna, 1937-05-06

Bederatzi illabete aundi guda latzean. Bitarte ortan zenbat gora-bera ikustea gerta zaigun Jaungoikoak estek ez daki. Gipuzkoako mendigain atsegiñak, jaioterri zoragarria, etxe politak, gurasoak, anaiak, lagunak, bizitzako urte bakarretan geien maite izan genitunak an utzi bearra izan gendun.

Arren oroipen utsa baño arantz zorrotzagorik bai ote?

Gure barrenak ezerk geiago mindu ote lezazke?

Biotz erdiragarri zan sendi asko ta askoren ibilkera.

Etxe barrengo traste guziak automobil zaarretan artuta erri batetik bestera.

Beste ainbat eta ainbat, gurdi motel nagitan bear-bearreko ziran erropa, koltxoi, maindire ta abar karriatu eziñik. Bide bazterretan barna gurasoak negarrari ateak itxi eziñik, umeak, aurrak antsi eten ezin alakoan...

Ikuskizuren negargarri beltza!

Geien ikutzen ziguna orraitik, nekazari girajoen ibilkera tamalgarria zan. Eunka ta eunka urtietan abizenak jarraitzen zuan basetxe zoragarri aren ateak itxi, ta kamio-ertz itun negartietan barna, ardi otsanak buruzbera, ganadu jende guzia orobat, eta etxeko zaarrak gurdi gañean kakotuta, malko iturria noiz agortuko aztarren gabe, urrengo ostatua nun izango argibide barik...

Bigarren aldiz ikusi bearra gerta zaigu zoritxarrez.

Bizkai maiteari etorri zaion arria ezta nolanaikoa. An ikusi genitun erreñu beltzak emen azituta, aundituta ikusten diardogu.

Bein da berriro gure barrenak geien beratzen dituana, nekazari aldaera triste ori da. Kamiotako ganadu igarotzeak, basetxe-ko landare gazteen negar uluak, lanaren erauntsiak kakotutako aiton-amonen etxeko urteera mingotzak malko pixuak ixurtzen jartzen gaitu.

Baña, jaunak!

Edestiko urteen buruan, naigabea aldenduarazi eziñik ibili izan da beti euzkoa. Alare, euskaldun besoak garaitza etxeratu izan du geienetan.

Izan itxaropena oraingoan ere. Gaur negar eresiz bidertzetan ununtz datozkigun gurdi zaarrak, luzaro baño len euren txokoe-tarako bidea artuko dute. Zeanuriko arrio egunetako gurdi txixtu alaia entzungo da Euzkadiko bitxabaletan. Gaur negarra dagiten begiak pozkiaren dizdira zabalduko dute.

Txistulari zaarraren eresia iñoiz ez bezin eder iduriko zaigu.



Gudariak Burgosko kartzelan

Aurrera, gure artzaiarekin!

Eguna, 1937-05-13

Denok ondo baño obeto dakigun guza ukatzen astea azkenengoa litzake. Euzkadi arrixku gordinean dago; Bizkaia unerik latzen eta zaillenetan dago.

Gure oraingo larritasun auetatik arintzeko zer palta dan ondo dakigu. Goizetik arratsera orok aupean darabilkigun sendagaia da. Estuasunean billa dijoanak botika itxia edo botikaioa kanpoan sarri arkitzen du ordea, ta bere garairarte itxaron egin bear.

Eguna joan da eguna etorri, mundu guzia arritzen ari da Euzko gudarostea. Burrukan ari geran bezela ari, itxuragabeko desberdintasun au ikusi, ta geure gallurretan tinko jarraitzeak zer esanik asko sortzen du bazterretan.

Euskaldunak lengo ariari jarraitzen dio oraintxe ere. Aurka asiko zaiguna atxapetu genezakelako, geure gudarostea beste guzien gañetik aitatu gentzake nunai. Etzait betere gustatzen Bilbaoko izparringi batzuk urrutiko gertaerak aupatzen darabilten aria.

Guk ez diegu ezer kentzen urrutiko erri oieri. Ezin da obeto jokatu zirala badakigu.

Baña, zorioneko ango heroismoakin ez gaitzatela erotu. Ango bikaintasun ta heroismoak, erremintez etsaia berdindu, edo gañez eraindakoan asi ziran. Ta orretzaz gañera, ainbat milla atzerritar langille euren taldetara bildutakoan.

Emen ezta olakorik gertatzen. Emen etxeakoak gera geienok, gerrak gu bezelaxe korapillaturik dauzkan erdeldun mordo baten laguntza baño ez degu.

Arerioak guda asi ezkerroan egin dituan jokabiderik gogorre-nak Euzkadin egin dituala arerio orrek ber-berak aitortzen du, ta arro asko aitortu ere.

Erremintez berdindu gaitzatela ta orduan itzegingo degu.

Bitartean, guk, Irundik asi ta Sollube gañerarte azaldu dan bezelako heroismorik inun ez dala agertu esango degu.

Trankil-trankil esan ere ordea!

Gero, erremintaz gaizki bagabiltz, artzaiz nola egon geran ere egunen batean garbiro agertuko da.

Ez degu beraz gai au astindu bearrik oraingoz.

Danok itsu-itsuan jarrai genezaioken moduko burubidea badegu oraintxe Jaunari eskerrak. Agirretar Joseba Andoni guda arazoaren zuzendari jartzea euzko gudariarentzat zer lasaitasun eta indarraldi dan inork neurtu eziñekoa da. Itxaropen osoa du erriak lendakari agurgarriagan.

Lortu ditezkenak lortu ta egin ditezkenak egiteko ezin oberik autatu.

Agintzen duan tokira ta agintzen duan eran jarrai zaiozun trebeki! Gurenda bidea ortik degu.

Gora gure lendakaria! Gora Euzkadi Askatuta!

Mingañak garbi, mutillak!

Eguna, 1937-05-18

Kantauri-ertzera oraindik eldu dan olaturik zakarren beldurgarriena birau olatua da. Gero ta indar aundiagoa artzen ari dala argiro ikusten degu berriz. Au zorigaitza gurea! Okerbideak zabalak dira ziñez, eta bertaratzea une guzitan eskatzen dutenak. Zuzenbideak bidetxigor estuak nunbait, eta aietarako iñork gogo gutxi. Au guzia ebanjelioak agertzen diguna dan ezkerro ez degu geiago aitatu bearrik.

Birauz kanpora okerbideak milla egaletan arki ditezke, ta gaur ez gera ori aztertu asmoz asi. Birautzaz itzegin nai genuke soil-soil.

Iñork ez dezute ukatuko zatarkeri berdingabe onek aspalditxoan euskal lurretan artu duan indarra. Milla lizunkeriren sustraia auzotik eldu zaigu euskaldunori, ta gerora lizunkeri oen indar-emallerik aundienak geroni izatera eldu gera. Biraua edozeiñen aotan da ezezagari ta itsusia, baña euskaldun baten aotan askoz areago.

“Arrasto” eta “arraio” beste biraurik etzuten gure aurreko zaarrak, gaurko gaztediaren auzko lizun osiña ikusita, zer esango ote? Negar samiñak urtuko ez ote lituzke? Ni beintzat baie-tzean nago.

Asko arrokeriak bultzata jarduten dira bazter guziak bixkali bearrez; gizonagoak diralakooan, bikañagoak diralakooan... A, iñuxente alenak!

Beste askok arriturik uzten gaituzte. Uneoro ta nunai Jaun-goikorik ez dala egiñez dabiltz, eta bereala bera aotan artu ta munduaren lau exkiñak erre bearrean. Baña ez dan gauza nola aitatzen dezute ainbat aldiz? Ez dan izakiari nola orrenbeste garrantzi? Auetxek bai benetako txotxoloak!

Nire erriko trabena batean bide auek artutako euskaldun bategen ala zion eztabaidan, asarreturik:

–Ez jauna, ez; ezta Jaungoikorik... como hay Dios! Ezta Jaungoikorik...

Amaika olako arki genezake ortara asita.

Zakur zaunkariak ikara gutxi eman izan du. Bazter guziak irentsi bear dituztela diruditen oiek ez dute besteengandik berezitasunik agertzen. Gizonak ezagutzeko eztaukagu ari txarra eskuartean. Askotan ikusten dana au da ordea: Guzia mundu ontan bukatzen dala uste duten oiek bizia geiegi maite dute nolanai arrixkatzeko. Betikotasunaren itxaropenez garbi dagon gaztea edozeri eltzeko gertu dago; gazte ori ikaratu ta atzeratuko duan ekaitzaldirik ezta sortuko. Au sarri ikusi degu oraingo guda ontan ere.

Nere adiskide zintzo batek zesaidan lengo egunez:

Iru motorrezko egazkin ikaragarri oiek baño euskaldun arteko birauak beldur geiago zemakiola berari.

Baztertu zagon jokera tamal au; garbi gaitean euskaldun abertzaleok. Aotik sartzen degun zikiñak ez du barrenik zikintzen, aotik ateratzen degunak baño.

Kontu egin oiek Jesusen itzak dirala.

Saia gaitean ba sustrai txar danak ondotik mozten. Egunen batez, Euskalerriari buruz, Cananea-ko emakume elbarriak entzun zuana entzun dezagula: Zeure sinismen edo fedeak gaizkatu zaitu!

Bildutako sortatxoak (NB)

Eguna, 1937-05-18

Valenciako gobernoa porrot eginda dagola.

Ederra bertsoa garai ontarako. U.G.T.-ek iru ministro ditun bitartean, C.N.T.-ek bi edukitzea ezin leikela, Largoren agiriarekin komunista alderdia ez dala konporme, sozolistoak beste nor-naik aña eskubide badutela... Korapillo au askatuko duen itsasgizonik ez duk.

Baña, jaunak! Gerran gaudela gero, e?

Zuek kontuak atera ezean beste batzuk aterako dituztela.

Aundia duk or beti solfa berdiña izatea.



Irujo jaunaren iritzia ezin da egokiagoa, noski.

Europako naziorik indartsuen eta gogorrenen aurka ari gera gerran. Orregatik ba, guri ere auzo laterri aundi oiekin ondo ego-tea komeni zaigu; nai ta naiezkoa degu. Etxe barruko burrukak joan ziran pikota, orain atzerri otso zakar oiengandik libratzen badegu lanik asko.

Negrin, Prieto edo Basteirot agintaritza artuta, talo-burnia aldentzatziz jira ditekela deritzagu.

Ta orri begiratu bear zaio. Ez alkar arteko matxinada edo errebuluzioa sortzeari.

Baña, aruzkalde ortatik aize berdiña beti...



Zugazagoitian artikulua irakurri gendun larunbateko *Lucha de clases*-en. Egunero ezpañetatik kendu gabe darabilgun kontu ori astintzen zuan.

Zorioneko txori kantu ori, gizona!

Pozak bultzata egindako lana zirudin.

Eragozpen denak apurtu ote dira?, galdetzen zuan aurrena. Gero, irakurriaz, baietz zirudin. Denbora gutxi barru aldakuntza gogorrak izango ote ditugun edo...

“Voy al encuentro de la gran noticia. Y espero volver con ella”.
Bueno, bueno, bizkor ibili ta agindua bete.

Orain i ta ni
adiskide beti.



Urrutiko heroismoa aotik kendu gabe darabilten oiek ez digute batere onik egiten. Zorioneko Madrid beintzat...

Emen aña heroismo azaldutako tokirik ba al da munduan?

Cervera ta *Canarias*-i arpegi emateko *Gipuzkoa* ta *Bizkaia* ize-neko “bou” zarrak. Egazkiñak lurperatzeko, pusilleroak.

Nun bota dira bi egunetan lau pusillakin?

Bilbao aldezteko txori bat gabe gu gauden bezela...

Ta emen ez dala Brigada Internacional-ik beste toki batzuetan bezela.

Beste erri oieri guk ez diogu ezer kentzen, baña Irundik asi ta Ventas de Zarate, Ernio, Andazarrate, Elgeta, Bizkargi ta Sollu-ben agertu dan baño heroismo geiago inun ez dala agertu lepoa jarriko genuke.

Emen ez dago koplik. Egintzak testigu.

Baskuentzez esanda,
ekarri goiko mekanismoa,
orduan ikusiko dezute
zer dan heroismoa.

Eguneko gaia

Eguna, 1937-05-20

Gobernu berria

Bein da berriro esan bearrean gaude, amargarren illean daramagun gerra ez dala etxebarrukoen arteko gerra.

Asieratik ekin zioten laterri paxixtak Francori laguntzen, baña asierako egun aietatik gaurra dagon aldea ezta txantxetakoa. Laguntza pixkarekin garaitza lortzea itxaroten zizuten. Izan ere zio edo motiboak bazituztela esan ziteken. Militar denak jaiki ziran, era guzitako izkilluak euren esku zituzten; uri nagusi geienak euren menpe zituzten lenengo egunetatik. Tirorik egin gabe zer lur sail eskuratu zituzten ikusi baño ez dago.

Alderdi oiek denak euki, orretzaz gañera laterri paxixtak laguntza apurra egin, zeñek usteko zuan ordea berealakoan gurenda ez lortzea? Zeñek usteko zuan (jakiña, aien aldetik) amargarren illean noiz bukatuko itxura gabe egon bearko zutenik?

Erria gauza pixua da ordea. Bizi nai duan erri bat il naian astea, eriotzari ateak idekitzea da geienetan. Emen berriz, erriak bizi egin nai du. Langille erriak burua jaso nai du, gaur arteko bigabekeriak aldendu, ta zuzentzaz jabetu nai du. Erria ez dago, langilleak eta askatasunak ezagutu dituan areriorik maltzurren atzaparretara erortzeko.

Erriak bizi egin nai du, ta bizi ori, erriaren iraupen ori zoriontsua ta betierakoa izan dedin, erritarrak arrixxurik aundienari arpegi damaiote noiznaitan.

Erriaren biziagatik millaka ta millaka erritarrek eman dute bizia, baña erritarren aurka jaikitako maltzurak ere millaka etzan dira geiago ez jaikitzeko.

Guda gero ta gordiñago ta latzago agertzen zan arerioresentzat. Euren indarrez etziran ezertarako gai. Erria menperatzerik etze-gon; eurak bai, eurak azken larritan ziran.

Orduan geitu zitzaizkien atzerri laguntzak. Azken aurrerape-nezko izkillu mota guziak, erruz, ugari ta izkilluak ezer ez dira-la, millaka ta millaka gudari erbesteko. Gudaren margoa zearo aldatu zan denbora gutxian. Iberiako lurretan gaur gordinkiro ager zaigun guda, Europako erririk asarreenak lur auetan dagi-ten guda da.

Ta gudad margo au artu duan ezkerro, guri ere atzerriko laterri indartsu izen aundiko oiekin ondo egotea dagokigu garaitza lor-tzezkerro. Aiekin ondo egoteko emen geu ondo ibiltzea bezelakorik ezta berriz. Lenengo gauza guda irabaztea da, langille arteko go-raberak eta alderoak konpontzeko denbora izango da gerora.

Orain guda garratzaz oldoztu bear da soil-soil. Valencian osatu duten gobernoa gogozko zaigu gudaren ariari begiratuta. Euskaldunok pozik egon gindezke, noski. Iru euzkotar baditugu, ta laugarrenak ere bizitzako urterik geienak ementxe egin ditu. Une larri auetan Euzkadiri zer palta zaion ongi dakitenak dira, ta iñork ezer lortzezkerro, itsumen osoa euki genezake jaun oiengan. Kanpo arazoari begiratuta, asko irabazi degula ziur dakigu; ta gaur orixe komeni zaigu.

“Munduko gauzak ez dira aldatzen –zion Garfield-ek– nor-baitek aldazitzen ez ditun arte.”

Gerrari buruzko gauzak oraingo gobernuak aldaraziko ditula uste degu. Orretxengatik artu degu ontzat.

Erriaren sendotasuna

Eguna, 1937-05-25

Garaiz ibiltzearen garrantzia

Baldintza on bat badegu euzkotarrok. Ekaitzaldia zenbat eta gertuago, bere ondorenak jasotzeko orduan da trebeago.

Edozein erriri ezin eska genezaioke guk degun alderdi aipagarri au.

Egundokorik argien eta bizien oraintxe ikusten degu. Gaur bezain gertu ta urre iñoiz ez degu euki etsaia, ta garaitza lortzeko gaur añako itxaropenik ez degu iñoiz geure baitan senti. Arerioa Bilbotik bide gutxira daukagu, baña aurrekaldean burruka latzean diardun gudariari zerbaít galdeiozu, ta arerio ori gertuen eta urrien oraintxe dala esango dizu. Muturrezurra daukan tokian eukitzen lanik ez duala izango luzaro. Datorkion jipoiak urrengorako kontuak ateratzen jarriko duala ta abar.

Atzekaldeko jendearekin izketan jarri zaite, ta galtzik bear ez luteken katu muxin batzuk kendu ezkerro, gañontzeko guziak etorkizun zoragarriaren itxaropenez aizaturik arkituko dituzu.

Euskaldunori gertatu zaiguna beste zenbait erriri gertatzera, gaur zuri ikusten deguna onuzkero bapo beztuta gendun.

Ia bi illabete dira gero inpernu ikaragarri au daramagula, ta beti itz gozoak eta putz miñak. Agindu ta agindu, ta ematea urruti!

Alare, euskalduna alai ta itxaropentsu. Egia esatera, egundokorik alaien oraintxe. Beste zenbat erri eukiko dezute, komedian-teak bezela, “mañana mejor” esanda bi illabete aundian? Beste erri batek suprituko dizute Euzkadik supritu duana. Erri apur-tuak, aur, emakume zatituak, gaztedi odolustua...

Ta... bi illabete pandero berdiñarekin.

Eskaiozute buruzpide au beste erri askori; apika, ondo ur-tengo zaizute.

Egundoko otsak ditugu egun auetan. Zorioneko gure senda-gai ori laister eskuratuko ote degun. Euskaldunok ez degu gizo-

nik eta indarririk eskatu. Aurrean ditugun maltzurak konpontze-ko, auzotik etorri zaigun laguntzarekin naikoak gera.

Gogorik eta trebetasunik etzaigu palta; danok dakigun beste zedozer baizik.

Sendagaiak garaiz etortzeak dana esan nai du gaixoarentzat.

Alford jakintsuak zion:

“Urte osoak baño geiago balio duten unetxoak badirala. Unetxo oiek galdu ezkerro, gero billa ezin leizkelako. Bost minutuk etorkizun osoa esan lezatekela”.

Blucher jeneral ospetsuari beti garaiz ibiltzen zalako, bere gudar-
dariak *Aurrera* jarri zioten izena.

Bear ditugunak garaiz eldu ditezela, ta gero gudarosteak ez du *Aurrera* izena jarri bearrik izango, izen ori iñork deitu baño len joango da-ta.

Gora biotzak! Gora euzkoak, gurea da garaitza!

Kanpora begira

Eguna, 1937-05-26

Guda latz ikaragarri ontan diardugunak, egun auetan adi ta zur kanporuntz begira gaudenik ezin ukakatuko degu. Gauzak alako itxura artu du, alako albisteak datozkigu, guda-esi ta mugaz kanpo begiaundi gaude denok.

Egunkari geienak aztertzen ditugu. Inork ez dizu itxaropen aundirik emango Ginebrako arloatzaz. Andik onura aipagarririk sortu ez ditekenekoa adierazten dizute. Egia esan, geu ere ez gaude uste onez aizatuak.

Gaur beltz dakusguna, bereala zuri ikusterik ez degu itxaroten. Aitortza bat egin bearrean gaude orratik.

Lenago, Laterri Batza orren batzar egun auetan, oraingo aldean illak eta motelak ziran egunkariak. Orduan bai inork ez genula ezer itxaroten!

Ezer ez ordea!

Ordutik onuntz aldakuntza azi xamarra dagola deritzagu.

Gaur, geiegi ez pozteko, ez arrotzeko esaten digute. Beraz, geiegi ez, baña, zerbaitxo bat alaitzeko zioak baditugu.

Legetik urten gabe gu santu santu gabiltzan bitartean, areioak derizkiotena egiñaz lasai. Guretzat kontrolak eta eragozpenak nunai, eurak berriz, egal guzitako ate ta leioak zabalik.

Kontrola lanean asi ezkerotzik, egizko keja pranko eman dute gobernuko agintariak, baña, miau! Ikusi baaut ez nauk gogoratzten!

Bitartean ementxe erremontean, aiek xextorik onenaz ta gu esku minduekin.

Paxixtak ezkutuka ta muxinka ibiltzeari aspaldi laga zioten. Oien gibelak zer balio duan Jaungoikoak daki.

Malaga eurak artu zutela arro ta indartsu zabaldu zuten munduaren lau egaletara, ta orain Euzkadin euren "Flechas

Negras” taldeak lortzen dituan garaitzak aupatzeko itzik arkitu eziñik dabiltz.

Ta Iberiako atzerritarrik bai ote dabillen aztertzeo batzorden bat izendatzeko kapaz dira Laterri Batzako oiek...

Esan badegu ere, etzaigu oraingoan olakorik iruditzen.

Euzkadi zatitu ta austen diarduten egazkinlariak alemanak dirala badaki munduak. Emen atxiloturik dauzkagunak argiro erakusten dute. Orain baño len gure lurretan jausitakoak berdin. Euren aldetik dabiltzkiten millaka moroen trebetasuna alaiki airtortzen dute españatar militarrek.

Ta azkenik, iseka ta burla aundiagoa egiteagatik edo, “Regimen fascista” deitzazko Erromako euren izparringiak, italiar gudariak gure lurreen agertzen duten bikaintasuna goraltzen diardu.

Munduan zuzentza ta gizatasun arrastorik baldin badago, denbora gutxian aldakuntza aundiak ikusi bearrean gera. Beste la gezurra ta ustelkeria da dena.

Europako erririk zaarren eta zuzenetakoa dan Euzkadi galtzen bada, guri eskua luzatzeko nagı dauden oiek ere ez dira luzaroko.

Bitartean, euzkotarrok aberri alde geran guzia eskeintzen degula jakin bear dute. Munduan zuzentzarik iñork egiten ezipadigu ere, bestean norbaitek egingo digun itxaropena degu.

Guda laukiak

Eguna, 1937-05-28

Fernig-en alabak

Frantziako matxinada ondoren zan. Frantzia lurraldea guziz biurri ta nasi zebillen. Aberri barruan politikoen arteko zarata ta konpondu eziña besterik ez. Austriar gudarostea mugak igaro ta barrura sartzen asia zan. Gauzak estu ta larri ziran. Frantzia arrixku ikaragarrian zan.

Montagne deritzazko muga-erritxoan, Ferning izardun militar bat bizi zan. Bi seme ta lau alaba zituan berak.

Aberria arrixku gordin artan zalarik, Ferning-ek izkillua arzteko gauza zan guzia berotu ta gudarako jarri zuan. Iñun ziran nekazari, langille, gazte ta zar, emakume arterañoakoak bere agindutara jarri ziran.

Bere alabak etzeuden euren onetan. Abertzaletasun sutsuak eta aitak igaro bear zituan larrialdiak, alakoxe su bat sortu zuten euren barrenetan, eta gizon jantzirik, aitak ez ezagutzeko eran, bere agindutara burrukatzea oldoztu zuten. Gudaketara zijoazen auzoko batzuri bakarrik edestu zieten zuten asmoa. Burrukaldi asko ta latzak izan ziran muga ingurutan, baña auzoko lagunak ixillik euki zuten neskaten ibillera.

Alako goizalde batean, Ferning jaun ori sartu zan etxera, ta mai-inguruan jarrita, bezperan izan zituzten erasoaldi ikaragarriak zenbaterañoakoak ziran edesten asi zan. Berak zer arrixku igaro zituan, nola ibili zan, zer garaitza aipagarria lortu zuten eta abar.

Bere alabak apalki entzuten zioten.

Gizarajoak etzekian asko eriotzetik bere alaba aiek gaizkatu edo salbatu zutenik. Beurnonville militar burukideak jakin zuan Mantagne-ko bizilagunen trebetasuna; baita lortu zituzten garaitzak zer garrantzi zuten ere. Zaldizko gudari mordo aundi batekin

zijoala, Ferning-en agindutara burrukatzen zan gudari taldea arkitu zuan Montagne-ra atsentsera zijoaztelarik.

Joaldi gogor ikaragarriak izan zituzten, eta gudariak oso eroriak eta nekatuak zeuden. Beurnonville-k Ferning jauna geldiarazi ta Frantzia guziaren izenean zorionik gartsuenak eman zizkion. Eguna argitu zuanean, militar burukide onek gudariei ikustaldia edo errebixta pasa bear zien.

Euren tokian tinko jarrita pozez irrikitzen zeuden gudari trebe aiek. Alako ospe edo izena irabazi zuten!

An, taldeko gazteenak ziruditen bi, ezkutuka ta muxinka zebiltzala ikusi zuan Beurnonville burukideak. Izan ere bein alde batera ta bein bestera tokiz aldatzen zebiltzan. “Ez dut ulertzen –zion– izkillua eskutan daramaten mutil gazteak orren bildurtiak nola izan ditezken!”

Bere aginduz burukidearen aurrean jarri bear izan zuten biak. Keez eta beztasunez etzeuden ezagutzeko moduan, baña artean ixillik egon ziran, auzoak zekitena esan naian asi ziran. Ferning ingura zitzaien, ta... “Esan emen, zein zerate zuek?” –galdetu zuan. Orduan zekitenak parrez asi ziran, ta neskatzok galduak zeudela ikusi zutenean, aitaren aurrean belaunikatu ta negar egiñaz, “Asketzi, aita, atzipetu egin zaitugu” –zesaioten. Aita ere negarrez asi zan eta alaba biak besarkatu zituan. Frantziak au jakin zuanean, eredutzat jarri zituan Ferning-en alabak.

Abertzaletasuna zenbaterako eltzen dan argiro ikusten da emen.

Euzkotarrok ikasbide ederra ematen ari gera oraingoan. Ikasi dezala munduak.

Aurrera ta aurrera beti!

Gure umetxoak Ingalaterran

Eguna, 1937-05-30

Guda trakets onen zakartasun neurrigabeak ortara beartu gaitu. Jaiotetxe apañak, erri ameslariak, bizitzan geien maite izandako guzia alde bat utzi, ta atzerriruntz ega bear izan dute gure emakume samindu ta umetxo gaixoak.

Ene, zorigaitzaren zigor ezezkarria; zertarako eldu zeran, ta-kar ori!

Ingalterrako izpar batzuk jakin ditugu lengo egunez.

Ango egazkiñen batzuk ikusirik, gure gaztetxoak izuturik igesiari nola eman zioten argiro ekarri dute egunkariak.

Ezta arritzeko. Ikusi al dute ainbat!

Ango gobiernoak erabakia artu du gertakari orri buruz. Gure umetxoak bizi diran tokitan ezertariko egazkiñik ezin ibil diteke emendik aurrera.

Gure txikiak egazkin otsera bildurtuak eta kokilduak dira, baña aiek ikusi dutena ikusita ikara sentiko ez duan ume eta izakirik ezta iñun.

Arrera ona egin zaie aruntz eldu diranai.

Orain, adar-ots nardagarri ta egazkiñen burrunda erdiragarri gabe, apalkiro ta zintzoki euren ikasketan ariko dira. Umetxo oiekin Ingalterraruntz zuzendu diran artzaiekin itxaropen osoa degu. Gaztedia nola ezi dakitenak dira.

Orain baño len zer balio duten argiro erakutsitakoak.

Euzko idazle goralgarrienetakoak aruntz joanak dirala jakin degu. Euzko irakasleme edo maixtra txalogarri batzuk ere bai.

Ta ori ikusirik, gure gaztediari buruz itxaropen aundiak nola izango ez ditugu? Etorkizunari buruz pozez zoratzen nola egongo ez gera?

Lau milla ume Ingalaterran.

Eurak ezitzeko euzko idazlerik aipagarrienak, euzko baratze-ko atxurlaririk onenak, irakaslemerik bizkorrenak, ereslaririk argienak...

Lau milla oietatik iru gaur erdeldun uts badira ere, sei illabeteren buruan lau milla euskaldun uts izango dira.

Ta gero, gerra anker onek azkena izango duanean, semeen bikaintasunez euzko ikurriñak beti-betiko aizetako dantza asiko duanean, lau milla ume oiek beste lau millaren billa joango dira, ta orduan zorionaren arpegi alaia ikusten degularik, Euzkadi askatu batean, Euzkadi euzkotu bat arkituko degu.

Erriaren gogoa izkuntza zala esan zuan Hude-k.

Erri baten gogo gaiak zer tankeraz dauden ongien izkuntzak agertzen duala zion Schaffle-k. Abenderri edo nazio baten izakerari, sustrai errai txikien da melarrenetik eltzen diona izkuntza dala idatzi zuan Humbolt azkarrek.

Ez degu gai oni buruz geiago nekatu bearrik. Inghlaterra bidea artu duten jaun agurgarri ta andereño argiak guk baño obeto lau milla umetxoak, aberrirako bidea artzean lau milla euskaldun izango diralarik, emen entzungo duten txistu soñua len entzundako denak baño euskaldunagoa iduriko zaie.

Agur, biarko gizonak zeraten itxaropen izarroi!

Agur, gizon egite ori zeuen esku artu dezuten artzai azkarroi!

Etorkizunari begira zoratzen gauzkatzute, eskutan izkillu aundiak ditugula arrikkurik gordiñenean bagabiltz ere.

Ez dezagula txirrixtik egin

Eguna, 1937-06-03

Bostgarren bizitzara eldu bear eta laugarrenerako iritsita estrapusu batez beia jotzea tamalgarri bezain negargarri litzake.

Garaitza, gurenda bosgarrenean degula egin zagun kontu, ta jakin laugarrenera eldurik gaudela.

Etxe barrura begira asi bear degu lenengo.

Ez emen eta ez kanpoan, gerra asi ezkerotik izan dan era-soaldirik gogorren zakarrena Euzkadin izan dala ez du iñork ukatzen. Zer ukatu bear dute denak egunero ori esaten ari dira ta!

Ainbeste milla gizon batu zituan Molak gure guda-oñetan. Diotenez berrogeita amar millatik gora beintzat joaldi artako.

Bestetara ez bezelako artilleria ekarri zuan onera. Mola berberaren aitortzak dira. Otxandianoko gure guda-oñak artu zituztenean, arroki zion: Alegia, etzuala artilleria emen bezelako lanik egiten iñun ikusi.

Gero egazkiñez nola ornituak dauden esan bearrik ez. Irurogei bat etengabe gudarien buruzgain. Nork iraun sutegi makur, ikaragarri ori?

Oiek denak orrela diralarik, gizon salduak, etoiak, paltsoak geure artean gerta zaizkigu ta ortik pentsa erauntsi ari eltzeko zer eratan egongo giñan. Atetaraño esirik jarri gabe bageunden?

Lanik garrantzizkoenak, aldezketa ren giltzak, giza saldu paltsoen eskutan egon badira?

Molaren gudariak gure mutillen antzekoak izan balira, onez-kero Bilbaon ez baña Santanderko erriberetan zeuden.

Or ez dago gogairik, or ez dago gudaririk, txanpon trukako jopuak baizik.

Orrekin bukatzen da dena.

Ta idazle batek esan duan bezela, euzko gudarosteak, Molak onera ekarri dituan tramankuluak euki balitu, onuzkero Iruñako ardoak edaten zan ezbairik gabe. Guruzbide latza igaro du euzko

gudarosteak. Inork igaro duanik latzen beldurgarriena. Paxistetatik iges etorritako batek esan zigun lengoan:

Gure guda-oñen bat, mendixken bat edo beste artzen dutenean, italiar eta aleman giariak, teknikoak igotzen omen dira, ta besoak gurutzeturik galdetzen omen dute: Baña mutil oiek nola iraun dute emen ordea, orrenbeste egunean?

Nola jasan dituzte egun osoko egazkiñen suak, itsasotikako zaparradak, gure artilleroen erasoak?

Euskaldun oiek lapak edo zer dira ordea?

Galdera auek zegizkiten, noski, kanpoko burukideak.

Izan ere gure mutillak mendi egalean gordeleku gabe, trintxera gabe, arri zar batzuk arpegiak gordetzeko aurrekaldean jarrita, egunik egun iraun dute.

Orretzaz gañera millaka ta millaka areriori lur joarazi geiago ez altxatzeko.

Orain gauzak asko aldatu dira. Gaur lan gogorrek dagizki jendeak guda-oñetan: esi onak, gordeleku egokiak, guzia dizute gaur. Egazkiñak ez du lengo lan laurdenik egiten. Nola aldeztu ikasi du gudariak. Alare, egazkiñak duan garrantzi arrigarria ez degu ukatuko. Beti besteenak ezin ikusiko ditugu orratik!

Egun gutxi barru aldakuntza aundiak ikustea itxaroten degu. Geiago pauso erdirik aurreratzea kosta bear zaio Molari.

Etxetik kanpo begira asten bagera, erruz irabazi degula aixa somatuko degu.

Aurreko idazki batean, oraingoan Ginebratik len ez bezelako onurak itxaroten genitula nion. Etzait damutu esana. Gauzak ari txarra daramatenik ezin esango dezute. España guzian erkal gudarostea sendotzen da indartzen dijoa. Gallen dala ezagun du beintzat era guzitara.

Euzkadi daukagu arrixkuan, ta arrixku au ezkutatzen ez degun arren, egunik txarrenak igaro ditugula deritzagu. Bosgarren bizitzan degu garaitz ikurriña.

Laugarreneraño eldu gera, jaunak. Orain ez dezagula txirritik egin beintzat.

Kataluñako gertakariak ez deztela tokirik artu. Arraunketa
itsu sendo bat oraintxe gobernuaren agindutara, ta askatasun
kaian gaituzute.

Irmo aurrekalde ta atzekaldea!



Zarauzko Elkano auzoa, 1949 (Ind. Ojanguren)

Oiek al datoz gu zuzentzera?

Eguna, 1937-06-09

Eskuartean degun guda zakar onen goraberak aztertzen asi ezke-ro, erotuta bezela gelditzen da bat.

Ordu guzitan da bazter guzitan, galbidean zan erlijioa gaizka-tzearren jaiki zirala esan dizute paxixtak.

Ori orrela izanik, jaikiera ortarako buru izendatutako guda-l-buruak masoiak zirala ikusi genizun.

Gero, euren jendearekin bakarrik ezer egiteko gai etzizalarik, mahomatar beltzak ekarri zizkitzuten gure lurretara. Erlijioaren etsairik amorratuenetakoak, dakizuten bezela. Auekin ere ezin zizuten bazik atera, ta urrengo italiar eta alemanez estali zizki-tzuten gure lurrak.

Euzkaditik kanpora aspaldi egiztatutako gauzak dira, paxixta aldetikako gudalburu, egazkinlari, teniko ta abar alemanak dira-la. Madrideko guda-oñetatik genekigun. Orain, emen Euzkadin bertan egiztatu degu ordea. Gure basetxe apurtzalle, erri txikitza-lle, emakume ta aur iltzailleak alemanak dira. Goiko txori galga-rrri maltzur oien zuzentza daramatenak alemanak dira. Lurreko joaldiak gertutzen dituzten agintari asko ere bai.

Erljio gaitan Alemaniak darabillen jokera ongi ikus genezake egun auetan. Amerikako katolikoen aurka leoi goseti antzo jaiki dirala badakizute. Erromakiko artuemanak apurtu zorian dituz-te. Elizaren agintari nagusienagatik asmalak esan, eta egiñala gaitz egiten ari dira.

Goebbels edo dalako arpegi gogor orrek lengo eguneko itzal-dian eliz-buruagatik esan zituanak begiratu baño ez daukagu. Chicagoko kardenal agurgarriagatik jaurti zituan nabarmenke-riak jaurtitzeko otsetik eta gizatasunetik urruti egon bear nai ta ez. Eliz-agintari gurgarri askoren iritziz, gaur eguneko eliza-ren etsairik zitalen setatsuena Alamani da. Paxisten aldetikako aginte ta nagusitza aleman oien esku dagola ikusten degunean,

arriturik auxe galdetzen diogu geure kolkoari: Oiek al datoz gu zuzentzera? Oiek al datoz gure erlijioa gaizkatzera?

Paxisten bandoen barri degunean seitatik aurrera emakume ta aurrik ez kaleratzeko, ordu ortan moroak aske ibiliko dirala-ta agintzen zaienean, Gazteizko ta Donostiko zine ta kaletan dagon lizunkeria, aragikeria galerazteko euren izparringitan agindurik zorrotzen da gogorrenak irakurtzen ditugunean, erdi zoraturik auxe esaten degu geure ostaturako: Baña, auek al datoz gu bide onean jartzera? Auek gu zuzentzera? Bietakon bat gertatzen duk: edota mundua zearo erotu duk, edo geu erotu gaituk.

Uda asieran

Eguna, 1937-06-12

Neure erriatzaz oldozten

Zarautz deritzaio, Kantauriren eder pitxi ta Gipuzkoaren txoko dizdizaria. Negu aroan bost milla bizilagunen kabi zolia. Uda aroan amabi milla arterañoakoak tolostatzen dituana.

Txori abeslariak zugaitzen alaigarri urteroko garaiz kantuari emanak dira. Nekazari zintzo bezain prestuak arto-lanak amaituak dituzte. Zabaldi guziak margo orlegiz apaindurik dira. Uda dator, asiera da.

Zarauzko emakume marazak estu dira. Koltxoi astintzen arki zenezazuke mordo ederrik. Aterik ate makilkariak arkitzearekin ez arritu. Igeltseruak eztizute ere atsedean aundirik. “Nere etxera etorri bear dezu, biar, ordea, aztu gabe”, atzetik tiraka, ordu gutxitan.

Batengana juan ta bestearekin utsegin.

Elurra bezain txuri dituzu bizileku geienak. Gertu daude itxuran eskeintzen duanari emateko. Paretxo bat illabeteko kanpotarren egonaldiak, negurako zerbait lasaitasun opaltzen dio langille sendiari. Bai orixe!

Deun Pelaio eguna atetan.

Zaindari eguna, Zarautzeko pesta eguna.

Aurreko egunean gaude; bezpera egunean.

Suziriak dinbi ta danba ekiñak dira. Kale nagusian barna ibildeuna ikus zenezake. Eliz nagusitik urten da Inurritzaraño doiaz; Pelaioaren elizatzoraño.

Ola edo pabriketan dezu gaztedia. Suziri otsak anka puntetan jarririk dauzka geienak. Alkarren arotz-maitara ixilka antzean inguratu ta... “Biar, San Pelaio”, diote soil-soil.

Eldu da pesta eguna. Lizarrako dultzaiñeroak bazterrak goizago alaitu dituzte. Amarretan gaitz izango da zaindariaren eliza-

txoan tokirik artzen. Meza ondoren gaitzago berriz “Marta”nean saldarik inguratzen.

Arratsaldean ikusi egin bear da Iñurritza zelaiko jendearen emana. Dultzain, txixtu musika, dantzari, aurrekulari... zer ez ordea!

Gero, zelaitik erriratzeko ibillera, erromeri amaierako etxeratzeara, gabeko alaitasuna; janari sendo, zer naizko edari, zer nai gauza... Orren errez aztu ditezkenak ote dira ba? Nik ezin beintzat.

Urtebete baño ezta igaro goian jarritako guzia ikusten genuenetik. San Pelaioak gañean ditugu.

Suziri otsak eztu ola edo pabriketako langillerik alaituko ta poztuko. Ateak aspaldi itxirik dituztelako, ta gazterik arki ezin ditekkelako.

Eliz-jaiak eztute lengo gozotasunik izango, gorrotuaren asegarritzat eliza artuta dabilzanak gozotasunik eztutelako. Eztira txixtu ta musika otsera alaiki dantzatuko, negarra ta beltz jantziak bestek tokirik izango eztualako.

Erriaren alde dabil Zarauztar gaztedia, aberri alde burrukatzen itsu-itsurik diardu ango gazte jende mardulak.

An geldituak badira. Geiegi gauz onerako.

Eztizute ordea pesta gogorik izango. Geu bezain triste edo areago izango dituzu. Gaztedia guda-oñetan, amak beltz jantziz etxetan, negarra ta zorigaitza buru aurtengo San Pelaiotan. Erri gaxoa!

Koltxoi zanpatze ta etxe apainketak zeran itxaropenez aurteten?

Agur, nire erri maitea!

Agur, negar-ibai biurturik zakuskidan kabi zoruna.

Benetako pake mandatariak or dituzu denboraz.

Zeure semeak biurtuko zaitue zeure onetara. Atzerri otsoak iñoiz ez.

Elai-Alaikoak ikertzen

Euzko Deya, 1938-07-24

Usterik gutxien nuen denboran Paris ikertzeko zoria izan dut. Ta bein Parisa ezkerro, munduaren aurrean ainbateko sona artu duen euskal taldetxoa ikus gabetan etxeratze gogorik ez izaki nik, eta... pentsatua bete egin nai.

Parisen bizi direla? Urrutitzeago daudela?

Bost ajola! Euren billa. Bai, jauna, bai.

Bry-Sur-Marne, erriaren izena. Pranko aundi ta zabala. Paris burrundalari ta zaratatsutik irtenak zer lasaitu damaion barrenari!

Gidari zuzen batek narama. Ate zabal bat ideki ta txalet egoki apain baten atari zabalean Elai-Alaiko mutiko mardulak jolaske-tan dabiltz. Zein ume ederrak!

Yaungoiko maitea! Baña, nun zebilkiat nik burua! Onuntza karamelo gabe etorriko nindukean ba? Kaiku zarra ni!

Etxe barrura sartuak gera. Neska txikiak ikasketan diardute. Zintzo ta apalki makurtzen dira irakasleme edo maixtra ardiaren esan agindutara. Galderak egingo nizkieke. Baña zertarako? Batek aita palta dizu, besteak ama, askok anaiak. Ez etxe ta ez babes. Gernikarrak dira, ta Gernika oroituta, ixo!

Ikasi, aingeru atsegiñok. Salto, jolastu, mutiko mardul gu-riok!

Olaeta yauna aurrez aurre. Ez dezute bearbada soñez aundi ta marduletakoa. Gogoz eta barrenez bat baldin bada bai orratik! Amalau urte aundiren buruan darabilki bere gazte saila. Apala, ixilla, arrokeri usairik gabea, baña langille asperteziña, burutsua. Euskaltzale osoa, abertzale betea. Nagi egoteko biotz aundiegia. Euzkadiri amaika egun eder emana, ta okerrik ezean, emateko dagona. Yaunak osasun deiola.

Seijo eta Olano yaunak. Ona emen Olaeta bizkorren lagun-tzalle pijoak. Aberriari amaika egiñak biak ere. Borondate uts-utsak, eskatzen zaienik ukatzen ez dakitenak.

Eurak lagun arturik, jardintxo apañari bira eman diogu. Zein aseleku zoragarria! Etxe barren ari dagokion bezelakoa. Etxe barrunbe ura etxea esaten zaien oietakoa baita! Sukaldari argiak, neskatxa atsegiñak.

Berriketalditxo politak egin ditugu. Gai yakiña: Aberria ta aberriko goraberak, lengo oroipenak, gerorako ametsak...

Apal ondorena, Olaeta zintzoak gure omenez zerbaitxo egin nai zuan. Gaztetxoak bildu, ta bere zeregiñetan yarri zituan. Dantza eder airosotan, abesti goxo xamurretan...

Zein une zolia! Zenbat oroipen etzizkigun berritu, zenbat aldi ez bururatu. Ai, denbora aiek!

Gaurko umeak, biarko gizonak. Zenbat itxoin diteken zuengandik! Auñamendiren oñetan dantzan diarduen erritzat yo zuen Voltaire-k Euzkadi.

Egun zorigaitzezko batez on oiek utzi ta erbesteratu bearra izan genuen. Baña, itxoin.

Zuek aurrerantz beti, gazte alai zoliok! Erakutsi munduari gure izakera eta oitura berdingabeak, eta mundutarren eskerro-na ta txaloak jasotzen dituzuten bitartean, sorterrria beti beso zabalka zeuen eske izango da, Euzkadik bear baizaituzte!

Eskerrak, eta zorionak!

Bertsolari neurketak

Euzko Deya, 1939-06-11

Bai txalogarri ta goralgarriak gure adiskide begiko Zubimendi aspaldiko asteen buruan argitaratzen ari dan lanak. *Euzko Deya* asteroko bikain onen irakurletako zenbait idazle goren orrenganako laudaketa ta mintzo aipagarriak entzuna nazute. Izan ere, laudatzekoa al da bere lumazko joskera eta etorkera!

Bera genizun ain buruztua zegon oitura aintzagarri orri, "jaiki ta zuti adi" lenen otsegindakoa. Bere asmoari zor zaizka Euzkadi zear ainbateko ots burrunda edatu zuten Donostiko azken bi neurketa aztueziñak. Yarrai bekio asitako lan atsegiñari. Ez arren atzerapenik! Euzko irakurleak zein gozoro ogutziko duten beti bere izena!

Goitar algutzidunak nai beza gure idazle ta olerkari bikain au urte askotako izatea. Euzkadi eta euskeraren onak alaxe eskatzen dute.

Zabala eta Txabalategi

Goazemakizu orain emeretzigarren eunkira (siglo). Iztueta yatorraren *Gipuzkoako dantzak* liburu mamitsua irakurritz zenbat oroipen gozo ez datorkio bati?

Virgilio-k bere *Artzai-yolas* eta *Eglogatako* batean dionez, bein batez Tirci-k eta Damon-ek guduketa gogor bat izan zuten. Epai-kari Platon ospetsua zutelarik, bere epaiak biak berdin-berdin utzi omen zituen, zein geiago zan erabaki gabe. Ikusten danez, Greziak antziña bat-bateko bertsolariak ere bazituen, olerkari bikañak ez ezik.

Euskaldun artean ere gauza bera gertatu zan beingo batez. Zabala amezketarra ta Txabalategi ernaniarra bosna ontza urre apustu egiñik aurkeztu ziran Billabonako enparantza edo plazara, alkar neurtzera. Zabalak bere gizontzat edo epaikaritzat Iztueta ospetsua aukeratu zuen, baña Iztuetak argiro dirausku-

nez, bolara artan makal samar zebillelarik, etzuen yoaterik izan. Orduan bere ordeztu Pernando Amezketa eraman zuen. Txabalategi berriz Aizarnazabalgo elizaia artu zuen epaikaritzat. Billa-bonako alkateak erabakitzaile nagusi on Jose Mendizabal apaiz jaun sonatu ta bertsolari azkarra yarri zien.

Gipuzkoaren lau aldetatik txindurri gisan eldu zan jendea. Lau millatik gora ziran entzuleak. Garai artan etzan gaur bezela bultzi edo trenik, eta automobilik sortu zitekenik ere inork etzuen amesten.

Erri ezerez batera lau milla kanpotarretik gora eltzeko eztago esan bearrik zer zaletasun zuten gure asabak bertsolarietarako. Ai, egun zoragarri aiek! Ai, ama euskeraren orduko yantzi dirdirak!

Antolatu zuten bezelaxe bi orduz ixildu gabe aritu ziran bi bertsolariak. Ango bertsoen ederra, noski! Alkar nundik menderatuko eta azpiratuko bi ordu alegin biziz, eta inola ezin lortu. Batena ederra bazan, besteak abesten zuenak aren zorrik ez.

Amaitu zutenean, bata ainbat bazala bestea omen zion erri osoak, ausarki. Ori ikusirik, Aizarnazabalgo elizaia (sakristaua) irten omen zan plaza erdira ta ondoren datorren epai au eman omen zuen:

Txabalategi eta Zabala gaztea
askok desio zuen kantuz ikustea.
Atsegin aundietan geldi da jendea.
Bata ainbeste egin beagu bestea.

Eta Fernandoren erantzuna:

Ezin gentzake bada beste gauzik egin,
nik gogoan neukana zuk dezu itzezin.
Utzi bear ditugu biak berdin-berdin,
Gipuzkoa guztiak ar dezan atsegin.

On Jose Mendizabal apaiz jaunaren epaia:

Jaunak, mintzo zerate griña txarrik gabe:
pozkidatu nazute txit asko alare.
Egia esateko ipiñiak gaude:
bata bezin bestea kantari onak daude

Orra gure oitura laudagarriaren berri laburki bederik eman.
Zenbat itzegin diteken gure jolas berdingabeaz!

Demokrazia ta zuzentzat bai al lezake garai artako Euzkadi
baño ixpillu oberik?

Betoz olerkariak, betoz apaiz bertsolariak, betoz oparo bertso-
lariak, betor euskera!

A, baña, Euzkadi: onaren eskuetan zaude oraintxe!

Biriatun egun bat

Euzko Deya, 1939-07-02

Ohore eta goraintzi Biriatuko txoko aipagarriari! Zein une gozo ta aztueziñak eskeñi zenizkigun berriz ez etortzeko y oan berria dan igande ortan. Biozki ta bene-benetan dirautzuk, egun orren oroimenak nigan toki izango duela lur gañean gelditzen zaizkidan urteen buruan.

Behobitik Biriatura

Bi kilometro ta erdiko bidea baizik ezta. Zer bide egokia ordeala Bidasoako erreka aruztik yaiotzeko zoria izan genuenak, amar kilometro izanda ere, konturatu gabetan igaroko giñuzke gaur gaur bezela. Iru urte aunditan etxetik kanpo egoteak baditu bere lanak.

Ezin aspertuz, urduri nijoan geure sallai begira. Baserritarak igandea lanerako aukeratu dute. Urte-sasoi ontan ala izatea ezta arrigarri. Belarrak onenera etorriak daude, ebaki, ondu ta etxeratu egin bear dira. Artantxe ari ziran gure nekazari eta laborariak.

Ibai-ertzean berrogei metrotik berrogei metrora bezelatsu, gudari edo soldaduak, muga zainketan. Etziruditen gure mendietan talo-esnea yanez azitakoak ziranik. “Ole tu mare!” ta, “mi tio torero” modakera ori zuten. Asto txiki batekin ganadu yateko billa eldutako bat an zegon ibai-ertzean. Ni pare-parean nintzan garaian soldadu zaarrak utzi du bere izkillu edo arma, ta ekin dio segan. Ark segan eta nik meza ematen ez genuke alde aundirik. Ura gauza baldarra, mutillak!

Euskalerrria izanik ere, zentzun gabeko yende modua dago muga zainketan. Gudari aieri ta belar lanetan ziarduten laborariei arretaz begira nengolarik, burutapen auxa eldu zitzaidan: Euskal lurretako guda ez duk Franco edo Negrin buru yartzeko, gure lurreko guda ez duk paxismo edo demokrazia buru izateko,

gure lurretan, len bezela orain ere, bi enda edo arraza zeudek alkarren aurrez aurre: Gudariak, erdel arraza; laborariak, euskal arraza.

Orra nik Biriaturantz ninjoala sentitutako aldero arrigarria. Ta bat-batean, Iparragirrekin batera oiuz asten nintzan:

Orra nun diran mendi ederrak,
orra nun diran zelaiak...

Artzai jator bat

Ta gure Bermejo ospetsua degula Biriaturuko erretore! Andoaingo erretore yaun ongille ta euskal izlari gorengo onen entzuer a nork etzuen gure eskualdetan?

Bai, onixe benaz eman genezaioke artzai yatorraren izena! Igandez argiro ikusi nuenez, Biriatur gañeko ardiak esan ez leiken neurritz maite dute bere artzaia. Izan ere, egokiagorik autatu ote diteke? Barrutiko guztiekin artu-emanak, tratu gozoak, egikera onak, arpegi alaia... Elizatxo artako txukuntasuna benaz aipagarri. Bizpairu lekaime edo serora nabaritu nizkitzun, eta aiek grazi berezia dizute apainketan.

Euskaldun legez, elizkizun eder batzuren ondotik, euskaldun eran yolastu giñan. Ango pelota zartakak eta ang bertsu oiartzu-nak aitor lezakete.

A, Biriaturuko igande zoragarria! Onoko onek etzaitu aztuko!

Eskerrikasko biotz-biotzez Biriaturuko gañari, erretore yaun ongilleari, berdin alkate yaunari. Anbruxio ta Calvo gaztea bertsolari laguneri.

Zuen arteko une alaiak
etzaizkit aztuko neri.
Noiznaitan zuen zerbitzurako
emen dezute Basarri.

Il da gure Zubimendi

Euzko Deya, 1939-10-15

Tinta ordez malkoak ditut beatz artean dardarka dabilkidan lumatxoan. Ez naiz pio lan onik egin nezakeanik. Nolaz nai dezute adiskide min aren ilberria sinetsi nai ezik banago oraingoz?

Baña egiz, mundutarrok erabat utzirik, leku obeagotara al-dendua ote Zubimenditar Joseba aundia? Euskal zugaitzetan geiago ez ote azalduko ain maite genduen erretxiñol kantaria? Euskal orriotan ez ote geiago agertuko bere yoskera gozo eta adimenezko aberastasuna?

Euskal radioetatik ez ote digu berriztatuko ain gozo ogaztu oi zuen

Ua, ua, otsa!

Abil bizkor, abotsa?

Euskal Parnasora ez ote beste bein bederik aurkeztuko? Lan danak utziak ote? Berriro ez itzultzeko aldegin ote?

Bai, irakurle maiteok. Bai, adiskide nereak. Sinetsi nai ezik banaiz ere, ta aren ortaratzeak lanak damaizkigun arren, gure Zubimendi il da. Bizion artetik urrundu da, munduarekikoak amaitu ditu!

Paulo doneak Timoteori zuzendutako epistolan dio: “Iñondik kontrarik egin ezin alako egia da: Jaunarekin iltzen bagera, Jau-narekin biziko gera”.

Zubimenditar Joseba, Kristoren eta euskal egiaren soldadu ezagutu degu geure denboran, eta izan duen azkena baño kristau kutsu geiegorik ezin ditekkelako, Jaunarekin biziko dala ezbairik txikienik ere ez dugu.

Zer esan gentzake Zubimendi ospetsuaren abertzale izakerari buruz? Bere ilberria euzkoei adierazteko moldatzen ditugun le-rrotxo auetan gauza aundirik ez. Bere lanbide eta JEL-baitazko ibillera guztiak oroitzen egun askotako lana gendukake, askore-

kin mintza bearrean giñake, paper mordo aundiak astindu bear-ko giñuzke. Jauna lagun degularik, egunen batean zeaztasunak emateko itxaropena badegu. Bai orixe!

Txiki-txikitandik abertzaletasun garrak bere biotza sutu zuela esan genezake. Artean urte gutxi zituela, Donostin oso ezagun egin zan. Abots ezti zoragarria omen zuen. Denbora artako abesgoiti edo tiplerik entzutetsuena zala diote ezagutu zutenak. Donostiko elizetan, bere doaiz lilluraturik, amaika jendek goersten zuen, segur!

Gero, urte batzuen buruan, abotzoli edo tenorrik iaioenetakoa izatera eldu zan. Orfeon Donostiarran bakarkako kantaria bera izan zan luzaroan. Paris, Barzelona, Madrid eta beste erri nagusi anitzetan agertu zan solista bezela.

Azkenik, Orfeon Donostiarran zenbait gorabera izanik, berari bururatu zitzaion Euzko Abesbatza sortzea, ta Euzkadiri ta Euzko Alderdiari ainbateko izena eman zion taldeak ere Zubimendiri zor zion bere zati nagusia.

Donostiko Euzko Gaztediren bultzatzallea izan zan, eta aren sortzearen zati aundi bat ere berari zor zitzaion. Bertako burukide etzan arren, Euzko Gaztedia Zubimendiren eskutik zebillela esan ditekete. Bera zan guraso, eta bera ango kontseju-emalle.

Alako euskaltzalerik ez degu asko ezagutu. Lan bat amaitu baño leen bestea nundik asi pentsatuta izaten zuen. Minutu bat etzizun alperrik galduko. Bere denborakoak ama euskerari eskeñiak zizkion.

Idazle ta olerkari legez, zer esan nezake berataz? Zuek ez dakizuten ezer gutxi. Nik bezin ondo ezagutua dezute, noski, gisa orretan. Euzkadin euskerari toki eman dioten egunkari eta aste-kari guztiak lekuko. Zenbat lan bikain arki ditekete miaketan asi ezkerok! *Argia*, *Euzkadi* ta *El Día*-n une atsegiñik asko eman digu. Lan ederrik badu beroietan azaldurik!

Igandero-igandero, berriz, Donostiko *El Pueblo Vasco*-k Zubimendik zuzenduriko Euskal Orri txukun baliotsua an zekarren. Orain azkenera, *Bertso niñez* izenburuarekin irakurri ditugun la-

nak zein txalogarri! Goralpenik asko entzun diegu *Euzko Deya* maite onen irakurleetako zenbaiti. Izan ere, goraltzekoak ziran Zubimendiren lumazko lanak.

Onuntzako Euzkadi zati onetara etorri zalarik, etzuen denborarik galdu nai izan, eta batekin mintzatu ta bestearekin berriketa, Lapurdiko mintzairaren misterio guztiak atxeman zituen. Osasuna erdizka zuela, emengo joskera ta izkelgiaren aberastasunaz ala jabetu zanean, noraño iritsiko ote zan garai bateko almenez aurkitu izan balitz! Euskal arrobia gero baño gero ornituago aurkitzen zuen. Eta Gipuzkoan ain goralgarri zitzaigun olerkaria, emen oraño txalogarriago zitzaigun. Euskera berak zerizkion alde guztitara zeraman. Alakoxe nagusitasuna artu zuen beragan.

Ta oiek orrela diralarik, zer diote Euzkadiko bertsolariak? Beren egitzako aitak aldegin diotela ao batez aitortuko dute berri triste onetzaz jabetzen diranean. Zubimendi izan baizan jaun oiek bear zan tokira aurkezturik, beren lanetan jarriarazi zituen. Zubi izan baizan, Jesusek Lazarori bezela, oitura zar aintzagarri orri, “jaiki ta ibil adi” otsegingakoa.

Abertzaletasunak bere soldadurik onenetariko bat galdu du; euskerak, bere aupatzallerik bikañenetakoa; euskaldunok, mai-xurik onenearik bat.

Bere izenpe gozorik ez dugu berriz ikusiko astekari maite onen orrialdeetan. Bere *Bertso niñez* lan aipagarria eztu berak nai zuen eran bukatzerik izan. Ortara eldu baño leen deitu dio Jaun altsuak. Euskaltzaleak beltzez gera gaur. Orobat gure astekaria.

Jauna, gorde zazu zeure altzoan! Euzkadirentzat edermenak ain bikainki kantatzen zekien olerkari aundiari eman zaiozu os-tatu.

Atsekabe garratz onetan, bizi-ro lagun gaituzte bere emazte gaixo eta utzi dituen iru mutikoak. Orobat bere guraso eta seni-deak.

Entzungo al didazu, o adiskide maite?
Nekatua zaude, ene! Atsedeen zaite.
Utzi samiñak eta zorionez bete.
Agur, Joseba zintzo; agur aurki arte!



Joseba Zubimendi, 1937

Urrundik ikusten dut...

Euzko Deya, 1940-01-20

Gabak luze, egunak labur. Burdeos zabalaren bazter egal bat autatu degu. Gelatxo soil bakarti bat egun batzuk aurrez eskatuta genuen. Eta zintzoki gorde digute. Portatu dira.

Zortzirak dira bete-betean. Jatordu-maia apainki ornituta dago zapi zuriz. Zortzi euskaldun, zortzi abertzale beraren biran zutiñik, tinko.

Eta badirudi guztioi irudi berdiña datorkigula burura. An urruti, Euzkadiko gallur batean, etxe-jaun zaarra, basetxe ataritik pendiz batera laister-maisterka batean, presakatua doala ikusten dugu; ta eldu danarekin batera, bere jaiotetxera pardel aundiarekin bidetxigorak zear, alaikiro ta arinki igoaz urbiltzen zaion seme lastana ikusten duela. Ta, bat-batean, aita zaarrek erasotzen diola:

Ator, ator, mutil, etxera
gaztaña ximelak jatera...

Ta geroxeago danboliñaren tarraka otsa entzuten genuen, eta etxe barneko besarkada sendoak aurrez aurre ikusten genitun.

Oroitzapen oiek geuregan genitun arte ondo giñan; abesten, kantatzen ari giñan arte Euzkadin geunden. Baña kantua amaitu zalarik, Burdeosko bazter illun batean geundela konturatu giñan. Oroipenak iges eta malkoak urbildu zitzaizkigun.

Verdier kardenal aundiak aurtengo gabonetarako zuzenduriko dei xamurrean dio: "Mundua ezta aingeruen abestiekin eta errege magoen eskeintzarekin salbatuko, jaio berri dan aurraren atsekabe ta sufrimentuekin baizik".

Fede-argia itxaropen argia da beti; eta euskaldunok argi ori inguruan degula gabiltz. Argi ori bide, gure aparria ezin da alai-kiago, ezin da pozgarriago izan zan. Ipuiak, gertakariak, olerkiak,

kantuak... Eta, batez ere, euskera, euskera utsa, besteren erraño gabe geure izkuntza sakona buruan...

Egun eder auri buruz Claude Blanchard-ek zion Paris-Soir-etik: “Noel est l'évocation de la Patrie absente”. Guretzat laugarren aldiz alaxe gertatu da beintzat.

Itzaropen izpi dirdirak bultzata, zortzi euskaldunek Burdeos zabalaren egal batean ezin eta obekiago ospatu genuen arren, lagunak agurtu ta etxe bidea bakarka artu nuenean, geure lur ederretara begiak luzaturik, auxe kantatu nuen:

Urrundik ikusten dut,
ikusten mendia.
Beraren gibelean
da nere erria...

Ta teillatu zoko batetik ontz zaar batek erantzun zidan.
Orra aurtengo gure Gabon jaiak.

Pedro Maria Otaño

Euzko Deya, 1940-03-10

Ona emen gure euskal lur maiteak ezagutu duen bertsolaririk aundien eta bikañena. Gure artean bear ainbat goraldu ote Pedro Mari? Barne-muñetatik ezagutu ote degu gure bertsolari leiala?

Ene ustez, ez urre emateko ere. Zizurkilen aintza ta goralpen beroa dan Otaño, Euskal Erriak ez dute bear añean ezagutu. Alarre, bere lantxo batzuk etengabe dabilzki erriak. *Mutil koxkor bat itsu aurreko*, euskal lurreen apainki dabillen lore usaintsua da. Otañoren bertsoak buruz ikasi dituzten euskaldunei etzaiezu beste bertsolari izenik eman. Otañoz kanpo, pixu gutxiko bertsoak irudi zaizkie. Pedro Mari esan ezkerro guztia esana dago berentzat, eta ura palta dalarik, besteen lanak ez asetzen arenak aiñean.

Oraindik ez dut neuk ere Pedro Mariren erdipurdiko bertso bat entzun. Zein baño zein dira bere guztiak. Iparragirreri bi edo iru bertso eman zioten izen guztia, baño Iparragirrek bertso aul asko ditu.

Cervantesek *Quijote* baño len pranko idatzi zuen, baño bere izenik etzan tellatupetik irten arik eta *Quijote* ori ezagutu zan arte.

Bertso onak ezarritako bertsolariak anitz izan dira gure eskualdetan; baño dozena bat on irten zaizkienerako berrogeita amar otarrara jaurtitzekoak izan dira. Pedro Marirekin ez da orrela gertatzen. Otañoren bertso guztiak ongi josiak eta neurtuak dira. Berari irakurriaz, iturriari ura bezain errez datorkiola ikusten da.

Bertsolari ta olerkari eztiran askok, egundoko zaletasuna dute bertsoak egiteko, baño alakoak bai bizkor ezagutzen dirala. Gure euskal paperetan ere zenbat olako ez degu irakurri! Itzak neurtezarren, bertsoan daudela adieraztearren, euskeraren joskera guztia azpikoz gain aldatu arren etzaie ajola. "Etorri naiz"en ordez,

“naiz etorri” jartzen dute, eta trankil gelditzen dira. Erdel izkuntzetan ere moldakera ortako bertso egille anitz arkitzen degu.

Gure Pedro Mariri itzak tolostatuak datozkio. Argin onak naitare orman arri bat oker jarriko ez luken bezela, Pedro Marik esakera oker bat ez lezake, bertso txar bat ain gutxiago.

Eta bere doai arrigarritz, bere adimen argi txalogarritz, bertso bakoitzean dakarzkin irudi polit erakusgarriatzaz zer esan? Bertso bat antolatu eziñik izerdi patsetan dabiltzan oiek, eta antolatzen dutenean euskera alderantziz agertzen duten oiek, derriorreko bertsolariak dira, ta beren bertsoak, bertso beartuak. Bestalde, batere beartu gabe, eguzkiari argia bezain errez bertsoa datorkien oiek, eta bertso ta ahapaldi bakoitzean ainbat ikasbide onurakor uzten diguten oiek, berezko, jatorrizko bertsolariak dira, ta beren bertsoak erleuntzetik irtendako ezti zatiak.

Ai, gure erletegietan Otañoren itzaleko asko baleude!

Oiala eta guraizeak

Idazle on batek egunkariaren orrialde oso batean agertzen duena gure Otañok bertso soil batean eskeintzen digu. Ondoren datorren bertsoaren muña agertzeko, abertzale izlari batek ordubete gutxiegi du, ta Jel Alderdiaren araudian eztaikit zenbat artikulua bear diran.

Otañok oial zati bat eta guraize xixtrin batzuk artu ditu bere eskuetan, eta bai gure arloa garbi agertu ere. *Zazpiak bat* izenburuz, ainbat bertso, ainbat letra ta esanai ditu. Irakurri, bada, astiro ondoren datorrena, eta esaidazute arrazoi dudan ala ez.

Zazpi aizparen gai dan oiala
ebakirikan erditik,
iru soñeko alde batetik,
utzirikan lau bestetik.
Goraizeakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi zirala
zazpirak oial batetik!

Pedro Mariri bururatu zitzaion ori. Pedro Mari, abertzaletasunik ezagutu gabe, berezko abertzalea zan. Aberria urrutitik, urrundik geiago maitatzen da, eta Pedro Marik bere bizirik geiena Amerikan egin zuelarik, andik sorterriari kanta zizkion kantak baño ederragorik ezta.

Gaurko lantxoa ordea uste baño luzeago irten zaigu, ta urrengo zenbakian jarraituko degu gure Otaño aundiatzaz. Beraz, irakurle, ordurarte uzten zaitut.

Pedro Maria Otaño

Euzko Deya, 1940-03-20

Euskal barrutian Pedro Mariren lanari garrantzirik aundiena emana Emeterio Arrese tolosar olerkari ospetsua izango da, ez-bairik gabe. Arengandik kanpo ao gutxitan biribildu da Otañoren izena, Euskal Erriak ezagutu duen bertsolaririk bikaiñenaren izena.

Ni mutiko nintzan denboran Arresek itzaldirik asko egin zuen zizurkildar aipagarria goraldtu ta oroituz. Nik paperetan irakurtzen nuena dakit.

Arresek bein baño geiagotan aitortua du bere egiazko mai-xua Pedro Mari izan zala. Berari olerki zaletasuna sorturikoa eta letretara bultzatakoa Otaño izan zan, Emeteriok sarri-sarritan esan izan digunez. Orixe besterik egin ez balu ere, zer goragarria Otañoren izena! *Txindor*-en egilleak zenbat on ez dio egin ama euskerari.

Pausoa

Pedro Mari berezko abertzalea zala agertzen genduen azkenengo lantxoan, eta gure iritzi ori sendoago baiezteko bere zenbait bertso aztertzen saiatuko gera. Otañoren bertso geienetan, euskera, fueroak, edo eta Euskalerrria agertzen dira, eta askotan irurak batera ere bai. Xenpelar zanak ere aspaldixko jaurti zuen bere guda irrintzi garratza. Zekian añean, sendo agertu zigun bere euzkotar gogo. Euskalerritzat iru probintzi bakarrik izendatzea bere bertso ta ahapaldi jator onen errua. Bertzenaz, zein ongi sentituta egiña dagon!

Bertso au gogoratu zitzaion unean, zer oldozpen ote zebilzkin errenderiar ospetsuak?

Gu gera iru probintzi,
lengo lege zarrai eutsi.
Ez, mutillak, ez utzi
naiz anka bana autsi.
Jaioko dira berriak.
Gu gera Euskalerrriak!

Otaño urrutiago dijoa ordea. Otañok geiago daki, urrunago ikusten du.

Lengoa agertu genduen bertsoan, *Zazpi aizparen gai dan oialaz* mintza zitzaigun bertsolaria, ta beraxeago arkituko dezuten bere bigarren ahapaldi ontan, ondo baño obeto ikusiko dezute zer gogo zuen. Asterako, ordea, alakoxe oar txiki bat azaldu nai nizueke irakurle maiteoi.

Pedro Mariren bertso ontan arkitzen degun Pausoa itzarekin gure alderdiko euskaldun asko baraurik gelditzen dira. Ez dute konprenitzen al Pausoa-k zer esan nai duen.

Pausoa, irakurle, Endaiatik bide gutxira dagon Beobiri deitzen zaio euskeraz. Frantzia aldetikako euskaldunak, Pausoako muga esango dute beti, ta ez Beobiako muga. Gure alderdian ere, Ondarrabi ta Irunen batik bat, Pausoa izenaz ezagutzen da euskeraz mintzatzen diranen artean. Pedro Marik ongi zekien ori, Zizurkilen iñoiz entzungo etzuen arren. Otaño eskolaz jantzi samarra zala bere lan guztiak erakusten digute.

Ta Pausoaren esanaia agertu degun ezkerro, milixkatu dezagun Otañok eskeintzen digu ale goxoa:

Oialtzat artu zagun euskera,
goraizetzat Bidasoa;
ibai koxkor bat besterikan ez,
utsa balitz itsasoa.
Zazpirak urbil biltzen dira ta
muga deitzen da Pausoa...
Zergatik izan bear eztegu
famili bakar osoa?

Orra or guztia agertu. Bere bertso guztietan bezela ementxe ere argiro azaltzen digu bere euskaldun biotz zabala, berezko abertzaletasuna.

Ta anai euskaldunen artean, gure jatorria ta gure edestia garbiago agertzearren, onako beste bertso au geitzen digu:

Arbola baten zaiñetatikan
sortzen diran landareak
bezela gera Bidasoaren
bi aldetako jendeak.
Berdiñak dira gure oitura,
jatorri eta legeak:
Ama euskerak magal berean
azitako senideak!

Alaxe izan ere, bai, Ama euskerak magal berean azitako senideak...

Baña Pedro Marik bere *Alkar* liburutxoan, euskerari gerta bear zitzaionaz, euskeraren etorkizunaz ain larriturik, *Euske-
ra gaixoa* izenburuz idatzi zuen olerkia idatzi zuenean, gaur zer esango ote luke?

“Ama euskerak magal berean azitako senideak”. Bai, ta Frantzia aldetik aruzko gure mendietara begira jarririk, an euskera, Pedro Marik ain garbi dion gure ama ori, gorrotatua, zigortua ta iraiñez eta griña txarrez amildua dutela ikusten degu, ta onuntz begira jartzen bagera, geu, ango euskaldunak gabiltzan tokietan, Ama orren erreñurik ere ez dugu ikusten. Magal berean azi gaituen senideok badirudi lenbaitlen amaitu nai degula bere bizia, badirudi lenbaitlen lurperatu nai degula egitazko Ama ori. Geuk daramagu eriotzera.

Gure Otaño aundia bizi balitz, zenbat egi triste garratz ez liguke esango? Euskeraren sallak gero baño gero laburragoak ditugu. Egi garratza, baño egi aundia. Eta euskera iltzen bazaigu, Euzkadik nundik piztu bear du?

Ama, ilgo zara,
ilgo zara zeu betiko?

Pedro Maria Otaño

Euzko Deya, 1940-04-10

Oraindik denbora asko eztala, igande arratsalde eguzkitsu eder batean, Burdeos en egal batetik bestera Pedro Mariren bertsoak ezpañetan genituala genbiltzen bospaseiko euskalzale talde bat.

Pedro Mari ondo ezagutu zuen andoaindar prestu bat bazan gure taldean, eta aspaldikorik arratsalderik atsegiñena igaroarazi zigula aitortu bearrean gera. Izan ere, diodan jaun ori, goizetik asi ta illuntzerarte Pedro Marik idatzirik utzitako ahapaldi berdingabeak kantatzen ariko litzake. Gu, nun geunden ez genekiela berriz, bere ezpain biribilletatik urteten ziran bertso eztiak entzuten. Kaleetan ere narda bezela mar-mar bizian zijoan jendetza ugariari ez genion jaramonik egiten, ez baztertzeko otsegiten ziguten bizikleten txirrin-ots eta automobillen adar-soñu larriai ere. Bagendun aurreko lanik orduantxe!

Gureztat, Burdeos lotan zegon arratsalde artan, geu bakarrik genbiltzan kaleetan, eta alde batera edo bestera jo, beti Pedro Mariren erreñua ikusten genuen aurrean. Nik eztakit kale kan-toitako polizi zaarrak txirolako bidean nola jarri ez ginduzten.

Lengo bi lantxotan agertu dizkizuedan bertsoak, alakoxe bazter paketsu bat aukeraturik, arkatx edo lapitz punta bat artuta, andoaindar zarrari jasotakoak dira.

Pedro Mari ain urretik, ain urbilletik ezagutu zuen euskalzale gartsu onen izena pozik agertuko nuke ementxe, bera mintzeko beldur ez banintz. Baña bere baimenik eztedalarik, ixltzea derizkiot onena.

Badatoz egun alaiak

Auxe esaten digu Pedro Marik Amerikako Onbu zarraren ondotik. Erresuma zabal aietako euskaldunen batasuna gero baño gero beroago doiala ikusten du bertsolariak. Euskalerraren lurrin gozoa sentitu dute ango euskaldunak, urrun daude, ta etxean ziralarik maitatzen etzutenak ere, orretxegatik bakarrik urrun

diralako eta utzi duten txokoaren ederra bestetan atxeman ezin dutelako, ango baso maldetako garo usai gozorik nai ez lezakete-lako, erri miñak jo ditu, eta Iparragirrerekin batera esan dute:

Egialde guztietan
leku onak badira,
baña biotzak dio:
zoaz Euskalerrira!

Ta sorterriaren ardurak jo dituenean, Aberriaren edermenak ain urrundik amesten dituztenean, batasun egarri dira, euskaldun danak besarkatu asmoz dira. Ta ori lortzeko, bere Batzokiak, beren biltoki ta biltzarrak sortu dituzte, gaur ardi galdu bat, biar bi, etzi lau, guztiak zuzenki datoz beren bidera. Amerikako euskaldunen batasuna lortu da. Atlantikoz aruztik abertzaletasunaren gurenda dirdaiak nabaritzen dira. Euzkoak noizpat asi dira euzkotar utsak dirala ezagutzen. Bazan ordua!

Au guztia, Pedro Mari aundia Amerikan zalarik gertatzen zan, eta zizurkildar jatorra berezko abertzale zalarik, ori guztia sentitu ondoren, Amerikako euzkoak beren sorterri alde asi ziran eta nolako zabaldua artu zuen adierazterik eztago. Biltoki oietan Euskalerri zaarraren izena zebillen ezpain orotan, eta Euskalerri orren egi-egitazko biotz-muña dan euskerak arduratzen zituen ango anaiak.

Euskeraren aldeko batzarrak asi ziran. Zekitenak mintzatzeari eman zioten; etzekitenak, ikasteari. Ori guztia ikusiz, Otaño txoratzen zegon, pozez gañezkatzen. Ona zer dion poz azkureak eragindako ahapaldi xamur ontan:

Gure euskal lur eder maitean
bizi diraden anaiak,
alkarganatu ditu odolak
ta danak bat izan naiak.
Buenos Aires-en bilduak daude
euskera indartzeko gaiak.
O, euskaldunak, poztu gaitezen,
badatoz egun alaiak!

Euskeraren indartzearekin, izkuntzaren gurendarekin Euzkadirena ikusten zuen Otañok. Ondo iritzi berekoak gera geure.

Euzkadiko euskaldun guztien artean eta Amerikako erresuma zabaletan ditugun millaka anaaien artean euskeraren erregintza ikusiko bagenu, orduantxe bai gertu genitukela Pedro Marik aitatzen dizkigun egun alaiak, orduantxe bai mundu guztiaren begirapen eta itzala lorturik, gañontzekoak berez letozkigukela.

Gaur Pedro Mari aundia bizi balitz, eta Argentinak artu berri duen erabakia ikusi, aldi batean itxirik egon diran ate zabalak euskaldunentzat berriro ideki dirala ikusi, zer bertso mamitsu oroigarriak ez lituzke tajutuko! Zer lasaitasuna ta zer adorea artuko luken bertsolari aundiaren biotzak!

Otañok onela jarraitzen du:

Danok bat egin eta saiatu
gaitezen alegiñean,
gure izkuntza eta oiturak
ipintzen beren oñean.
Guztiok zerbait egin gentzake
bakoitzak al dun añean,
Jaungoikoa eta euskera jartzen
gauza guztien gañean.

Ontan amaitzen da Otañoren bertso sailla. Ondo ikusten degu zer egin. Berari egin gentzaioken omenik onena ori dalako, erabaki sendo bat artzagun, euskera amaren ikurrin banderarekin ekaitzaldi danai aurpegi emanaz garaikunde kaiara eltzeko.

Boga, boga, euskera!

Basarri Trabajadoreetan

(1940ko urria – 1943ko ekaina)

Euskaldun jaio giñan mundura,
ta beti euskaldun bizi.
Onak izan da alare begiz
askok ezin gu ikusi.
Pekaturikan baldin badegu
lana egitea, noski.
Españiako odolzaleak
nai giñuzean irentsi,
eta Frantzira etorri bear
izan genduan igesi.

Gurasori estetikā

Sōma: "Pilikin" Potaporena

12
Aqir, aita ta ama,
maitaam goror
Papertioa artu chut
idarteto amoor
Lenengo, goraintiak
denentat bijor
ta lumatio maste
auriantea roor;
Alprika'to beaiak (BIS)
Bortotan dipor!

2
Enei amatio maste
abek gorpiak
Ler etc dira egin
ditudan oterak?
Lentat naigale riteite
igan beaiak,
Eren menpe nautate
etsai txar anteriat,
Bana ~~asuna chut~~ ~~claudat~~ (BIS)
faunari esteriat!

Uma, ee au, seren,
ee eta edaten,

Oiek diu astotxo
kenteen baixadaten.

Astotxo naiago dut
^{alegindu}
~~maizten~~ faten,

Huraz agerteko
etxera egun baten,

Gorputzari ari naiz (Bis)
al dana ematen!

Eragunak ba-ditut
bataloien errotat,

Baina esango diot
amatzu, gaur bat.

Emen saiaten dira
denak nor beretat

Dirurik eztaunik
eta nai lagunkat

Eztaunik eztaunik (Bis)
bata bestearek!

Udaberrian gaude ta

Udaberria gañean da ta
pixka bat kanta dezagun,
gure naigabe ta ezbearrak
gogoan izan ditzagun.
Bertso juxtutan azalduko dut
zerutar jaun ona lagun,
Salamankako lur zabaletan
zer bizitza daramagun!

Euskaldun garbi garbiak gera
ta alaxen izan nai beti,
gerra-denboran mesede egiñak
geuk ez dakigu zenbati.
Orain ordaiñan zai geunden baña
ez dira gutzaz erruki.
Asko merezi ezpadegu're
pagatzen degu ederki!

Oraintxe dala sei illabete
etorri giñan Frantzitik,
guraso maite biotz biguñak
deika baigiñun etxetik.
Gure kabiak urre genitun
guk Endaiako zubitik.
Irunen zegon sare zabalak
artu ginduzen erditik!

Irun ortan gau txar bat pasarik
arri latzaren gañean,
txapel okerrak jarri gaituzte
Mirandarako bidean.
Ai, ango zelai zabal aretan
oñak sartu giñunean,
makiñatxobat adiskide zar
bagendun aldamenean!

Amabost egun egin giñun an,
eta ez oso aldrebes,
makillarekin orru egiñez
ibilli arren “Pallares”.
Txilborra bapo betetzen gendun
garbantzuz eta patatez.
Oraintxen ere obe genduke
alderdi artan bageundez!

Mirandatikan Madrida eta
gero Madritik Bejarra,
bagoi zarretan txerrian gisan
etzan pasio ederra!
Erri ontako gure izakera
daukat agertu bearra:
Gose askorik ez da pasatzen
baizik beti bat bakarra!

Goizeko zazpiretan daukagu
zutitutzeko ordua,
ta lanera joan baño lenago
garbitutzeko gogua.
Ate ondotik iru metrora
eduki arren putzua,
lizentzirikan ez degulako
ezin garbitu musua.

Kafe izeneko urepel pixkat
degu zazpi ta erditan;
aize ta txingor zakarren kontra
lanera goaz zortzitan.
Zutik iñola iraun ezinda
exertzen gera sarritan.
Ez gaituk onelaxe oitutakoak
an gure Euskalerritan!

Ordubatean jatxitzen gera
bazkaldutzeko asmotan.
Ordubik arte zai egon bear
izaten degu askotan.
Iru patata ta lau garbantz
jartzen dituzte putzutan.
Lantokiraño iristen ere
lanak ditugu askotan!

Arratsaldeko zazpi ordutan
oi da gure afaria.
Eta ez dago esan bearrik
zer nolako janaria!
Guk jan ditugun aza ostroak
pillan jarriko balia,
bizitokirik gabe liteke
Salamankako jendia!

Bederatzitan jotzen digute
ixildutzeko korneta.
Amar bat ordu an egin bear
manta tartean gordeta.
Lo egin nai ta ñola ezin
berrogei milla buelta...
Gorputzarekin jolasten diran
zorri zar asko daude-ta.

Ontzi zar batzuk jartzen ditugu
bururkoaren onduan,
illundu ezker txixa egiterik
ez dagolako kanpuan.
Danok zar-zarka or asten dira
gogoa etorritakuan...
Ortik pentsatu gure baratzen
zer usai gozo daguan.

Ixil ixillik igaro bear,
eta gañera bearko!
Bestela makil gogorra dezu
aguro bizkarrerako,
edota desapio gaiztoa
kalabozo zulorako.
Emen bizirik irteten dana
bazeok puxka bateko!

Bejar (Salamanca), 18/3/41

Bertso txiki batzuk

Bertso txiki batzuek
asi naiz ipintzen,
adierazitzen
joan dan urte betean
nola gabiltzen.
Gorputza mermatuta (berriz)
indarrak gutxitzen.
Naigabe ta saminak
beti nagusitzen.
Oraintxe bai ikasi
degula bizitzen!

Madriden arkitzen naiz
batalloi batean,
neretzat kaltean,
gose zakar gaiztoak
arturik mendean.
Arrantxoaren billa (berriz)
ontzira joatean,
iru garbantzuz ale
itorik urpean.
Etzait aztuko bizi
naizen bitartean.

Lana egiten degu
amar bat orduan,
bear dan moduan,
nagusi zar kaxkar bat
baitegu onduan!
Txarragorik ez da (berriz)
izango munduan.
Beti errietan da,
ez dakit zer duan.
Ai, zer bizkarrekoak
merezi dituan!

Ta bere izenez da
jaun ori “don Cisto”.
Petal bezin gaizto,
diru gutxitan saldu
lezakena kristo!
Zartuta gaixo dabil, (berriz)
ez du bizi asko.
Beste mundu artako
jarria da listo.
Deabruak bidera
or irtengo zaizko!

Arratsetan dauzkagu
ixtillu mingotzak,
ain etsai zorrotzak:
zorri ta arkakosoak
dabilzkiten dantzak!
Eta okerragoak (berriz)
ditugu tximutxak.
Gure odol txupatzen
etzaudek amutsak!
Deskantsu aundirikan
etzeukak gorputzak.

“Kabo” xaxtar batzuek
dabilzkigu gañez,
nai dutena egiñez.
Jotzen asten zaizkigu
oker txikienez.
Begira jarri zaite, (berriz)
iñon ageri ez.
Putzegin da guziak
desegin leitekez.
Pazientzia artzen
ez da oso errez!

Botoirik gabe nabil
neure txamarrakin,
itxura txarrakin.
Josi deizkodan bizkor
ari beltzarekin.
Ase naiz ni militar (berriz)
izakerarekin.
Sekula ez dut pasa
oinbeste tripamin.
Naiago dut Aralar
mendian ikazkin.

Madrid-Chamartin de la Rosa,
Garagarrillak 7, 1941

Aiako Arritan (Peñas de Aya)

Nork egin du gure galde?
Aiako arritan gaude,
baña beti bezin trebe.
Lanean gogor aritzen gera
soldatarik jaso gabe.
Berreun nagusi badaude
gure artaldean jabe.
Guk umore ona alare! (berriz)

Otzaldi eta goseak
ta barau-egun luzeak
guk baditugu paseak.
Gorputzari on egiten nunbait
gallur ortako aizeak.
Nola baigeran gazteak,
sano dauzkagu esteak
ez egon arren beteak! (berriz)

Goizean ekin lanari,
egun sentia pozgarri,
txori guziak kantari.
Ezin atera gentzake orain
iñoiz ainbat izardi.
Erdietan gaude geldi,
al degunean exeri...
Zertan nekatu geiegi? (berriz)

Oiartzungo neskati­llak,
musugorri biribillak,
izan zaitezte abillak!
Zertan maitatzen dituzute
kaleko ume zirtzillak?
“Atxulei”n daude trankillak,
paregabeko mutillak! (berriz)

“Aitxulei” mendian (Peñas de Aya)
Oiarzun, 04-05-1942

Nere lagun maite Toma: Artu ditut makiñara pasarik igorri
dizkidatzun lantxoak. Baita bial­i didazun ingi mordo­a ere. Nere
eskerrik biozkorrenak, lagun maite orri.

“Aiako Arritako” abestietan oker txiki bat agertzen da. Azken
bertsoari lerrotxo bat palta zaio. Eztakit nere okerra dan ala or-
koa. Ara nola:

Oiartzungo neskati­llak,
musu gorri birillak,
izan zaitezte abillak.
Zertan maitatzen dituzute
kaleko ume zirtzillak?
“Atxulei”n daude trankillak,
saltzeko dauden opillak, (*palta dan lerrotxo­a*)
paregabeko mutillak!

Nortanai ere, okertxoa zuzentzea obe izango litzake.

Madriden ezarritako batzuk emen dijoazkitzu. Doiñua jakin
ezkero oso politak dira. Zuk, tamalez ez dezu jakingo, baña alkar
ikustean erakutsiko dizut. Noiz zatoz onuntz? Badaukat berriro
zurekin itz-aspertu bat egiteko zaletasuna, zu bezelako aberkide
zintzo gutxi agertzen da emen eta.

Esango didazu nere lantxoak gogozko zaizkitzun ala ez. Es-
kupean badauzkatzu beste bertsotxo batzuk ere. Denborarekin,

Jaunak nai badu, danak azalduko dira. Artzazu Jel-baitazko agurrik maitekorrena.

Basarri!

Nere lagun maite Eoma: Aitu ditut makina-
ra pasarik igorri ditzidakun lantxoak.
Baita biali didaxun ingi mordoa ere.
Nere esterik biokorenak lagun maite ori!
"Ara'tto arietako" abestietan oher txiti bat
agertzen da: oken berroari leriotxo bat
falta eais. Eetakit nere ohera dan ala
orkoo. Ara nola:

Oiarkeun'go nestatilik
Hbusu goi: biribilak
kan eaitete gibilak
Pertan maitaken dituxute
Kaleko ume zirkilik
"Atxulein" daude triantilik
(falta dan) Salteko dauden opilik,) leriotxo)
Pare gabeko mutilak!!

— — — — —

Agur, Tomax maite orri: Denbora sobra daukagun ezkerro, noizik bein lerro batzuk zuzentzea nere bearkizuna da, noski. Emengo berri berezirik ezin eman ordea

Betiko bakardade, utsune ta illuntasuna nabaritzen degu. Moro zar batzuk noizik bein ikusten ditugula, besterik ez. Betiko tontor eta zulo tristeak dakusgu begien aurrean.

Orain jendetza berria eldu zaigu ta emen gabiltz estu ta larri lotarako tokirik danentzat sortu eziñik. Antxoak sarean bezela gaude alkarren gañez. Pazientzian igaro dezagun guzia emen eztago itzik egiterik-eta.

Ta, ortik zer berri dituzute ba? Emen berriro asi dira ala moduzko bulo batzuk. Ni zure tokaio San Tomasen laguna naiz gai abetan eta santu aundi orrek bezela “ikusi eta sinistu”.

Atzo or izan zan zuen artean Iturbe adiskidea, baña joan zan bezin triste etorri zala derizkiot. Nik ez diot beintzat iñongo alaitasunik nabaritu. Gañera, ziur uste dut, ezer garrantzizkiorik egon ezkerro zuk letratxo batzuk egingo zinduzkeala. Ezta ala, lagun?

Gaur “inspiracio” apur bat izan dut, eta sortu dedan lantxoia emen igortzen dizut. Zure gogozko ote?

Nere uri maitea dan Zarautz frantzesez betea dagola idatzi dit arrebak. Ango kaletxotan ezta entzuten arek dionez frantzera baño.

Ara gauzak nola ekartzen duten beren ordaña. Atzo, gu giñan an, gaur eurak emen; biar nork daki nor eta non izango geran?

Ontan amaitzen dizut gaurkoa. Ea alde ontara lenbaitlen agertzen zeran. Badakizu maitea zaitugula.

Agur

Basarrik

Zuaitz gabeko basamortuan

Gose, egarri, otzaldi, bustiak,
dan danak zuretzat zeuden.
Ainbat zigor artu ta ez dakit
bizirik nola zauden!

Itz goxo, leun bat entzun gabe
basati beltzen antzera...
O biotz goxo zauritu ori,
nolatan lertzen etzera?

Zuaitz gabeko basamortuan
urtzen or utzi zaituzte,
zu pioka abeslari nabaritzerik
inólaz nai ezpaitute.

Poztu orde, biotz gaxo ori!
Ez etsipenean eror,
ekaitzaldiaren ondoren
denbora ona baitator!

Bijoaz beingoz laño zakarrok,
ta betor zeru argia.
Ega bitez euskaldun usñoak,
azka bedi aberria!

Ene biotz gaxo zauritua,
mintza zaite gaurkoan!
Adierazi mingotzaldiak
zeure izkuntz ezti, goxoan...

Basarri
Segangan – Afrikan – 04-03-1943

Aztu eziñeko Tomax maiteari!

Ona emen lorik gabeko gau amaitu eziñeko baten ondoren datozkidan burutapenak. Atzo ere euri eguna genduan, eta gure aterpean kanpoan bezela egiten duelarik, ez gera geiegi atsedenduak.

Gaur edo biar oroitzapen atsegiñak izan litezke, ta olerkitxo abek zuk ongi-ongi gordetzea nai nuke. Erakutsi zaizkitzu bion adiskide atsegiña dan Arregi-ri, ta ondo baderizkio, igeki edo kopia bat atera ta bere emazte kutunari bialdu deiola.

Gorputzaldia agintzen didanean, lantxo batzuk egiten jarraituko dut, eta zuri bialiko dizkitzut, zuk or gorde ditzazun. Oiartzunen moldatutako abestiak ere igorriko (enviar) dizkitzut agindu lez.

Noizik eta bein ingitxo batzuk bialdu ta idazkazal edo sobre batzuk ere bai, mesedez, ezertxo gabe nago ta.

Goraintziak orko nere lagun guziei. Idatziko didazu nere lantxo gogozko izan zaizun ala ez adieraziaz.

Nai dezuna agindu Jel-pean zure lagun benetakoa dan

Basarri-ri

Agur, lagun maite.

Garai bateko Israeldarrak igarleak iragarritako Mesias-en zai egon ziran bezela egon naiz egun abetan zure zai. Ez asteartez eta ez igandez azaldu etzeranean, zerbait eragozpen arkitu dezulako izango da.

Zuk bialitako orriak artu nituan: asiera polita eman didate. Zatozenean ordainduko dizkitzut.

Sarnaren aurkako zerbait bialdu bear didazu mesedez. Botikan esango dizute onena zer dan. Beldur naiz nere gorputzarekin. Txabolan gauden geienok badaukagu gaitz au. Esan zenbat balio duen eta karteroarekin bereala igorriko dizut txindia.

Artu nuen zure idazkia ere. Zatozenean berba egingo dogu ta

atonduko gara. Esplikaziño apur bategaz naikoa dot eta jarraian artuko dozuz eskatzen daustazun bertsuok. Parkatuko daustazu bizkajeraz txarto idazten badot. Uste dot neke barik ulertuko dozula esaten dautsutan guztija.

Ona emen aste ontan antolatu dodazan bertsoak. Markinan garbiro jarri eta bialduko daustazu mesedez. Eskerrak aurrez.

Agindu gura dozuna Jel-pean zure menpeko lagun

Basarri-ri
Al-Diedir, 1943-04-05

Udaberria

Udaberriak agertu du bere arpegia.
Agurka or joan da iges negu beldurgarria!

Aurten ez genuen iñoiz bezin zakar, asarre;
baña negua negu adiskide izanda're.

Urtegarai onen sorkeran, ooo, nere oroimenak!
Egan jaio nintzan lurrera dijoaz denak.

Bai, soñez emen nagola ikusten dut iñoiz;
gogoz ordea beti Euskal lurretan bizi naiz.

Ta gogo orren bultzada goxoa eramanik,
ango zorion, edermenak ikusten ditut nik.

Ikusten dut gure zugaitzen osto berritzea.
Biarko bero unerako orra or itzalpea.

Entzuten ditut adar gañetako eresiak,
txori otsanak udaberriari eskeñiak.

Baratz loretxoen usai ezitia nabaritzen dut,
errekatxoen mar-mar goxoak sumatzen ditut...
Arrantzalen emakumeak otarrak buruan
deadar bizian: Arrai preskua nork nai duan!

Senarrak berriz, itsas zabala dute ostatu.
Aldi oparoa orain da, ta ezin lokartu!

Artzai-mutillak txistu, zantzu; nekazariak, lan...
Udaberriko nekea, zein neke ariña dan!

Ta oro, Euskal aingeruñoen par-irri goxoak!
Ai, gure arrai, ibar, soro, mendi ta basoak!

Oro, zeru margo biziko gure uri kuttunak,
berdiñik iñon ez dezuten bazter euskaldunak!

Afrikan urtzen dago nere bizi argalena,
ortxe sortua ta azia, ta or il nai lukena!

Udaberriak agertu du bere arpegia.
Agurka or joan da iges negu beldurgarria.

1943ko martxoaren 23an

Gurasoei eskutitza

Doiñua: Bilintxen *Potajiarena*

Agur, aita ta ama,
maitasun gozoaz.
Papertxoa artu dut
idazteko asmoaz.
Lenengo goraintziak
danentzat bijoaz,
ta, lumatxo maitea,
aurrerantza zoaz.
Afrikako berriak (bis)
bertsotan dijoaz.

Ene, amatxo maite,
auek goraberak!
Zer ote dira egin
ditudan okerrak?
Zenbat naigabe zikoitz
igaro bearrak!
Beren menpe naukate
etsai txar, ankerrak.
Baña osasuna dut, (bis)
Jaunari eskerrak!

Paraje illun, txiroa,
au zeñek siñetsi?
Iñon ezin liteke
zugaitz bat ikusi.
Euskadin sortu danak
emen nola etsi?
Tratu kaxkarra degu
ta janari gutxi...
Ematen dutenakin (bis)
ezin leike bizi!

Iraun nai genduke ta
baditugu lanak.
Egun beltz auek ziran
guretzat zeudenak.
Semeari ondotoxo
nai baitio amak,
zure diruak, onuntz
iristen diranak,
jan utsean gastatzen (bis)
dizkitzut nik danak!

Ama, ez dut erretzen,
ez eta edaten.
Oiek diru askotxo
kentzen baizidaten.
Askozaz naiago dut
alegindu jaten,
itxuraz agertzeko
etxera egun baten.
Gorputzari ari naiz (bis)
al dana ematen.

Ezagunak baditut
batalloian ainbat.
Baña esango dizut,
amatxo, gauza bat:
Emen saiatzen dira
denak nor beretzat,
dirurik ez duanik
ez da nai laguntzat.
Errukirik ez dago (bis)
bata besteantzat.

Jaungoiko bat daukagu
zerutik begira.
Berak izan du beti
guretzat kupira.
Bota nai giñuezen
askok lur azpira.
Ardatza or dabil beti
jira eta bira...
Orain arro diranak (bis)
umilduko dira!

Ta, bukatzera noa
unetxo batean.
Goraintziak zabaldu
senide artean.
Poz pixkat izan dedin
nere biotzean.
kartatxoak biali
noizik bakoitzean.
Iru illabete barru (bis)
or nazu etxean.

Al-Diedir (Aprika), 3-4-04-03

Oroipenak

Nun dira gure baso mardulak,
nun dira gure mendiak?
Nun dira soro, zelai, sagasti
errekato ta ibaiak?
Nun aingeruen mama goxoa
darioten iturriak?
Arkitu naian gau ta egun nabil
lausotu arte begiak.
Alperrik dana, Euskalerrian
gelditu ziran guztiak!

Miru ta zapelaitzen erdian
jartzen badezu usoa,
egan asmatu eziñik larri
gerta liteke, gaixoa.
Zazpi urtean kabirik gabe,
nere zorigaitz gaiztoa!
Leize-zulora jausi naiz eta
urrun dut argi gozoa...
Noiz zanpatuko dut nik berriro
euskaldun paradisoa?

Bakartasunez illunki nabil
arantz mingotzez betea,
unetxo batez aztu eziñik
gure Donosti maitea.
Otañon gisa beti zugana
dijoa oroipen nerea.
Alaipide bat bakarra daukat:
ametsetan sinistea.
Zu ikusteko noiznai aski dut
nere begiak ixtea!

Afrikako lur elkorretatik
ari natzaizu bertsotan.
Izate dena beti zuregan
naiz esna eta naiz lotan.
Or sortu nintzan, or azi ere,
ta il nai nuke lur ortan,
denbora gutxi gelditzen baizait
leize-zulo triste ontan.
Aberri lastan, artu berriro
seme argal au besotan

Al-Diedir (Afrika), 1943-05-04

Askatasunari abesten

Bart arratsean ortze urdiñetik
izarño batek egin dit kiñu.
Goi-aingeruen mandatariak
naigabe illuna uxa nai digu.
Poztu arren, biotz nerea!
Gurtu zeru-lurren jabea!

Europa dana beterik gañez,
eskeñi guzti orain urretan.
Poz aundiagoa artzen degu guk
izarñoaren kiñu orretan.
Poztu arren, biotz nerea!
Gurtu zeru-lurren jabea!

Zertako dira urreak eta
mundutar oron aberastasunak,
gorpuntz-animak katez loturik
igarotzeko geure egunak?
Poztu, arren, biotz nerea!
Gurtu zeru-lurren jabea!

Kiñutxo ori aztu eziñik
nago geroztik une guzian.
Laster itsasoz gaindik or noa
erriruntz ega bizkor bizian.
Poztu, arren, biotz nerea!
Gurtu zeru-lurren jabea!

Zein ederra dan erriak lotan
dauden une paketsu, ixillean,
goi-aingeruen mandataria
zuri kiñuz ortze zabalean!
Poztu, arren, biotz nerea!
Gurtu zeru-lurren jabea!

Al-Diedir (Afrika), 06-05-1943

Abestutzeko indarra

Egun aundia badatorkit, bai,
biotzeko lagun zarra.
Berri on orrek ematen dit gaur
abestutzeko indarra.
Ainbeste pozen erdian, Tomax,
artu dut naigabe bakarra:
ni Euzkadira egatu eta
zu emen utzi bearra.

Ainbat mesede neri egiña
emen ainbeste urtean;
ni zoriontsu ikustearren
etzera aspertu lanean.
Ain maitekiro lagun egiñak
giñan gu egun batean.
Zure oroipena izango dut nik
bizirik naizen artean.

Agur, lagun zar biotzekua!
Banoia beste aldera,
iñon berdiñik ez dadukaten
euskal mendien tartera.
Otoi egingo diot Jaunari
zoiazen bizkor etxera,
gure Aberri laztanarentzat
sendi on bat azitzera.

Al-Diedir (Aprika), Campamento de Infantería,
11-06-1943

Zarauz, 29 de Junio de 1943

Inolvidable amigo Tomás: ¡Héme aquí sano y salvo en el Zarauz de mis ensueños! ¡Qué grande es esto, qué delicioso!

Dios sea loado y bendecido por los siglos de los siglos, porque El ha querido que nos conociéramos en esta bendita y privilegiada tierra.

El mismo día de la llegada a Málaga pude tomar el expres de la tarde, aunque ello me costó muchos quebraderos de cabeza y unas 50 pesetas. Como las plazas de tercera son muy limitadas, tuvimos que valernos de un intermediario para obtener el billete, que por cierto nos costó caro como te decía más arriba.

De Málaga a Madrid, un viaje pésimo. Una calor que achicharraba, y en la misma posición que las anchoas en lata. De Madrid a Donosti pude venir cómodamente. En este último lugar me esperaba mi madre con ropa limpia. Tomé una ducha formidable y al mudarme me daba la impresión de que había nacido en aquel momento.

Las fiestas muy animadas. La carrera pedestre atrajo una gente que yo jamás he conocido por San Pelaio. Le dices a Benito que Errotazar llegó en primer lugar, seguido por Aranguren, que entró el segundo. Le mandaré el periódico. Dile a Barrios que cumplí su encargo, pues ayer le mandé todo a Echenique.

Estuve con tu amigo Federico, a quien le saludé de tu parte. Me dijo que te escribiría uno de estos días. Tiene un bar montado con un gusto exquisito.

Hace por aquí unos días magníficos. Todos los hoteles y casas particulares están alquilados. Ya empieza a llegar mucha gente.

Me he enterado de que a Iturbe se le ha muerto su cuñado en Zumárraga, que no sé quién le protegía.

Estoy canso de saludar gente y estrechar las manos. Quisiera saber los cientos que me han venido.

Supongo que habrán salido los neófitos.

Ia bada, Toma maite, lur ontan lenbailen agurtzen zaitugun.

Otoitz egingo diot Jaunari zure arazoa ongi zuzendu dedin.

Paniza eta bere lagunai esan beren mandatuak egin nitula.

Artzazu lagun maite orrek nere besarkadarik anaikorrena.
Goraintziak orko euskaldun anai guziai, batez ere Joxe Mari,
Benito, Oñatibia, Etxeberria, Barrios eta abarri.

Zeuk gura dozun arte.

Iñaki

P.D. Pude pasar muy bien el tabaco. No dicen nada por tres o cuatro paquetes.



Kanpoetako aize burrunda ondamendizkoak entzuten genitun, baña otz-bero geiegizkorik gabe geunden; etxeko mandiora sartu zitekeanik ez genduan uste, egiz.

Itxaropenezko landare bat igartu zaigu euzko baratzen: otso zarpail gosetiak etzeuden ondo berekikoak egin arte.

Abertzale baten odola ixuri da euzko erri txiki bateko kaleetan.

Alderdi oietako berri lendik pixka bat genekigun arren, or, Albacete, Granada, Madrid eta beste zenbait exkiñetan gertatu danarekin arritu egin gera.

Gizonak ortaraño nola iritsi ditezken geure buruari sarritan galdetzerano arritu ere. Usterik gutxienean, ona geure etxea auzoen antzeko nola biurtu zaigun. Etxe ontan, ordea, sendi askotxo gaude, eta or Hernanin Aranburu aberkidea (Goian bego) lurperatu digutenak euzko odolekoak dirala jakingo bagendu, lenez gain ere koldurik geldituko giñake. Au ezin ditekete, esango genioke geure buruari; euzko sendiak ez dik bere izenik ortaraño nardastu. Ez eta ez!

Gipuzkoa paketsuak oinkada txarra eman bear du. Lendik zeoro aldatu bearrean gertatuko da denborale onek arpegi oberik azaldu bear ezpadu. Zuzentzarik ez dan tokian abereak nagusi, eta ni beldur, asko aberetuko ote dan...

Basarri

El Día, 1936-III-22



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

ISBN 978-84-7907-717-4



9 788479 077174